

EMAKUMEEN ETA GIZONEN BERDINTASUNERAKO DIAGNOSTIKOA eta III. PLANA

Tolosa (2015 - 2020)



Laguntza teknikoa:



Babeslea:



I. SARRERA	3
II. METODOLOGIA	4
III. DIAGNOSTIKOAREN EMAITZAK	6
1. Populazioa	7
2. Lan produktiboa	18
3. Lan erreproduktiboa	30
4. Hezkuntza eta Euskara	51
5. Kultura, Aisialdia eta Festak	66
6. Kirolak	86
7. Osasun orokorra eta ugalketakoa	94
8. Emakumeen aurkako indarkeria	102
9. Hirigintza, Etxebizitza eta Mugikortasuna	111
10. Landako Tolosa	118
11. Prekarietatea eta krisi ekonomikoaren inpaktua	126
12. Emakumeak jabetzeko politikak	136
13. Genero-zeharkakotasuna udal-politiketan	143
IV. ONDORIO OROKORRAK: Laburbilduz...	153
V. GOGOETA EGITEKO PUNTUAK	173

Tolosako Udalak, bere udalerrian emakume eta gizonen arteko berdintasuna sustatzeko ibilbide luzean, bere Berdintasunerako III. Plana prestatzeko premia du gaur egun, Berdintasunerako II. Planaren indarraldia amaitu egin baita. Populazioaren benetako premietara egokitutako plan bat prestatzeko, udalerriko berdintasunaren egoera orokorraren diagnostiko bat garatu behar da aurrez. Beraz, dokumentu honen **azken helburua da Tolosako Emakume eta Gizonen Berdintasunerako III. Plana diseinatzeko eta prestatzeko oinarri izatea**, eta arlo horretan 2001eko berdintasun-diagnostiko globalarekiko eta 2006ko kultura-esparruko espezifikoarekiko egindako **aurrerapenak eguneratzea eta agerian jartzea**.

Plan berriak, beraz, diagnostiko honen ondorioz sortutako lehentasun guztiak jaso nahi ditu, eta 2012an egindako ebaluazioan dokumentatutako guztiak ere bai, bai Berdintasunerako II. Planaren ezarpen- eta inpaktu-mailan, bai Tolosako Udalak 2008tik duen berdintasunerako udal-ordenantzan.

Txosten Diagnostikoak, halaber, **balorazio bikoitza** egin nahi izan du, batetik, Tolosako emakume eta gizonen eguneroko errealitatearen esparruetako berdintasun-egoerari buruz eta, bestetik, **genero-zeharkakotasunaren ezarpen-mailari buruz udal-politikan eta Udalaren barne-antolakuntzan bertan**. Adierazi behar da lanaren nondik norakoa ez dela izan esparru bakoitzari buruzko azterketa monografiko bat egitea, baizik **horietako bakoitzaren gakoak nabarmentzea genero-ikuspegitik**, eta horien guztien analisi bat egitea. Jarraibide horiei segituta, diagnostiko hau kapitulu hauetan banatzen da:

DIAGNOSTIKOAREN KAPITULUAK

1. Populazioa.
2. Lan produktiboa.
3. Lan erreproduktiboa.
4. Hezkuntza eta Euskara.
5. Kultura, Aisialdia eta Festak.
6. Kirolak.
7. Osasun orokorra eta ugalketakoa.
8. Emakumeen aurkako indarkeria.
9. Hirigintza, Etxebizitza eta Mugikortasuna.
10. Landako Tolosa.
11. Prekariatatea eta krisi ekonomikoaren inpaktua.
12. Emakumeak jabetzeko politikak.
13. Genero-zeharkakotasuna udal-politikan.

Azkenik, azpimarratu nahi dugu pertsona gazteen zein pertsona migratzaileen datuak **zeharka** analizatu direla bi aldagai horien arabera bereizi diren datuak lortzeko aukera izan den **esparru guztietan**. Horregatik, **Gazteriako** edo **Migrazioko** kapitulu espezifikoak ez dira kontuan hartu, dokumentu osoan zehar sartuta baitaude.

Jarraian, diagnostikoa prestatzeko erabilitako metodologia esplizitatuko dugu.

Diagnostikoa prestatzeko erabilitako metodologia mistoa izan da, teknika **kuantitatiboak eta kualitatiboak** konbinatuta. Aldi berean, partaidetzazko izaera eman nahi izan zaio, gizarte tolosarraren zenbait ordezkariak eta eragileak osatutako **eztabaida-taldeak**, esparru zehatzetara bideratutakoak, dinamizatuta.

Bildu beharreko datuen izaeraren arabera, zenbait informazio-iturri hartzeko hautua egin da. Hala ere, aipatu nahi dugu kasu askotan arazo handiak izan direla **Tolosan sexuaren arabera bereizitako datuak eta espezifikoak lortzeko**. Oraindik ez dago guztiz finkatuta datu guztiak sexuaren edo adinaren edo jatorriaren arabera bereizteko ohitura globala, eta horrek neurri handi batean oztopatzen du udalerrriaren errealitate espezifikoaren analisia. Errealitate hori udalaren barneko zein kanpoko iturrietan aurkitu dugu.

Jarraian, erabilitako metodologiak eta kontsultatutako iturri nagusiak aipatuko ditugu:

- ❑ **Datu estatistikoaren analisia:** EUSTAT, INE, LANBIDE, SEPE, UDALMAP, Udal Errolda, Eusko Jaurlaritzaren Familia Politika eta Erkidegoko Garapenerako Zuzendaritza, Gipuzkoako Foru Aldundia, Emakunde, etab. Argitaratutako datuen zenbait bilaketa xehe egin dira eta, kasu batzuetan, eskabide espezifikoak egin dira dagokien entitatetera.
- ❑ **Udaleko barne-dokumentazioaren analisia:** Jarduera-memoriak, ebaluazio-txostenak, jarduera-programak, diagnostiko sektorialak, ikastaroen matrikulazioak, datu-baseak, web-orriak, etab., horien eskuragarritasunaren arabera udal-sail bakoitzean.
- ❑ **Elkarrizketa eta kontaktu indibidualizatuak:**
 - Barneko udal-langileekin: Gizarte Zerbitzuak, Kirolak, Gazteria, Euskara, Jaiak, Kultura, Hirigintza, Pertsonala, Liburutegia, Musika Eskola, Azoka bereziak, Ingurumena.
 - Kanpoko langileekin: Tolosako ikastetxeak, Osakidetza, osasun-zentro pribatu bat, Tolosaldeko Immigrazio Arloa.
 - Sindikatu, alderdi politiko eta hirugarren sektoreko entitateen ordezkariekin: EHNE sindikatua, LAB, ELA, Caritas, baliabide sozial eta juridikoen Arrats elkarte (pertsonek presoak, preso ohiak, sexu-langileak), udaletxean ordezkaturako alderdi politikoak.

□ Eztabaida-talde espezifikoak:

- Diagnostiko honetan datuak biltzeko prozesuaren barruan kokatuta, **“Berdintasunezko kultura baterantz”** izeneko **tailer** bat egin zen Jabetze Eskolaren barruan, herritar guztientzat irekia, bai emakume, bai gizonentzat. Tailer horretara 20 pertsona joan ziren (15 emakume eta 5 gizon), horien artean hauek: Jabetze Eskolako ikasleak, udalerriko askotariko elkarteetako ordezkariak (Gainditzen, Mulambo, Nura, Kristoren gorputza, Targazki, Isidro Larrañaga Orkestra), pertsonak norberaren izenean, Udaleko (Kulturako teknikaria) eta Tolosaldea Garatzen elkarteko (Immigrazioko teknikaria) langile teknikoak, eta udal-langile politikoak, Kultura-zinegotzia eta Berdintasun-zinegotzia.
- Beste tailer bat egin zen esparru berean, **“Krisiaren genero-inpaktua”** izenekoa. 23 pertsona joan ziren (17 emakume eta 6 gizon), horien artean hauek: Jabetze Eskolako ikasleak, pertsonak norberaren izenean, udalerriko elkarteetako ordezkariak (Jatorkin, Ereite, Ikarkel, Zero Zabor, Topa, Eko-Etxe, Gure Txokoa, SOS Racismo, Stop Kaleratzeak, Bilgune Feminista), Fiare Banku Etikoaren ordezkari bat, LAB eta ELA sindikatuetaordezkariak, Tolosaldea Garatzen elkarteko langile teknikoak (Immigrazioko teknikaria eta Enpleguko teknikaria), eta udal-langile politikoak (Berdintasun-zinegotzia).
- Azkenik, **Jabetze Eskolako ikasleekin bi tailer** ere egin ziren 2013an eta 2014an, sistematizazio-proiektuaren barruan, eta 12. kapitulurako balorazioak egiteko elementuak eskaini zituzten. Guztira 10 emakumek hartu zuten parte, bai bertakoek, bai atzeritarrek.




DISKRIMINAZIORIK GABEKO ZONA

Zer esaten digute datuek?

1. POPULAZIOA

Tolosa, INEren 2012ko datuek diotenez, 37.38 km²-ko espazio batean banatzen den udalerrri bat da, 496,88 pertsona/km²-ko populazio-dentsitatea duena, Gipuzkoako batez bestekoa baino pixka bat gehixeago (359,58 pertsona/km²). Tolosako populazioa 18.836 biztanletara iritsi zen 2013ko urtarrilean, eta banaketa hau zuen sexuaren arabera:

1.1 irudia: Populazioaren banaketa sexuaren arabera 2013an



Iturria: INE 2013

1.1 taula: Tolosako populazioaren bilakaera sexuaren arabera bereizita

URTEAK	2007		2009		2011		2013	
	E	G	E	G	E	G	E	G
TOLOSAKO POPULAZIOA SEXUAREN ARABERA	9.247	8.641	9.335	8.709	9.446	8.786	9.785	9.051
POPULAZIOA GUZTIRA	17.888		18.044		18.232		18.836	

Iturria: INE 2013

Emakume eta gizonen arteko proportzioa Tolosan konstantea izan da 2007-2013 aldian zehar, emakumeen %52an eta gizonen %48an, Gipuzkoako populazioaren osaerarekiko aldakuntza txiki batekin, hori ere konstantea izan baita aldi berean zehar, emakumeen %51ko eta gizonen %49ko proportzioan.

Tolosako **populazioa %5,3 hazi da erreferentziako aldi horretan (2007-2013)**, Gipuzkoako hazkundera baino handiagoa, aldi horretan bertan %2,7 hazi baita. Hazkunde hori sexuaren arabera analizatzen badugu, **bai Tolosan, bai Gipuzkoan portzentajezko hazkunde handiagoa dago emakumeetan gizonetan baino**. Tolosaren kasuan, emakume kopurua %5,8 hazi da eta gizonena %4,7; Gipuzkoaren kasuan, berriz, emakumeak %3 hazi dira, eta gizonak %2,4.

1. POPULAZIOA

Bestetik, **Tolosako udalerrria zenbait populazio-unitate edo auzotan banatuta** dago, eta banaketa hau du:


1.2 taula: Tolosako populazioaren banaketaren konparazioa populazio-unitatearen eta sexuaren arabera (2007 eta 2013)

Populazio-unitatea	2007. urtea			% Sexuaren araberako banaketa 2007. urtea			2013. urtea			% Sexuaren araberako banaketa 2013. urtea		
	GUZTIRA	Emakumeak	Gizonak	GUZTIRA	Emakumeak	Gizonak	GUZTIRA	Emakumeak	Gizonak	GUZTIRA	Emakumeak	Gizonak
ALDABA	72	38	34	%0,4	%0,4	%0,4	64	33	31	%0,3	%0,3	%0,3
AUZOTXIKIA	150	77	73	%0,8	%0,8	%0,8	142	71	71	%0,8	%0,7	%0,8
BEDAIO	83	41	42	%0,5	%0,4	%0,5	96	50	46	%0,5	%0,5	%0,5
MONTESKUE	161	77	84	%0,9	%0,8	%1,0	140	68	72	%0,7	%0,7	%0,8
SAN BLAS	5.594	2.852	2.742	%31,3	%30,8	%31,7	5.629	2.876	2.753	%29,9	%29,4	%30,4
SAN ESTEBAN	473	233	240	%2,6	%2,5	%2,8	409	210	199	%2,2	%2,1	%2,2
SANTA LUTZIA	165	68	97	%0,9	%0,7	%1,1	125	57	68	%0,7	%0,6	%0,8
TOLOSA	11.066	5.806	5.260	%61,9	%62,8	%60,9	12.103	6.359	5.744	%64,3	%65,0	%63,5
URKIZU	43	20	23	%0,2	%0,2	%0,3	43	21	22	%0,2	%0,2	%0,2
USABAL	81	35	46	%0,5	%0,4	%0,5	85	40	45	%0,5	%0,4	%0,5
GUZTIRA	17.888	9.247	8.641	%100,0	%100,0	%100,0	18.836	9.785	9.051	%100,0	%100,0	%100,0

Iturria: Geuk prestatua INEren 2007ko eta 2013ko datuekin

Datuen analisisan ikusten da aldi horretan **populazioaren hazkundera Tolosan (erdialdean) bildu dela**; udalerriko gainerako auzoetan, berriz, biztanle kopurua jaitsi egin da, bai emakumeena, bai gizonena, **San Blas, Bedaio eta Usabal auzoetan izan ezik: hor, populazioaren igoera txiki bat izan da, batik bat emakumeena.**

1.2 irudia: Tolosako populazioa, adinaren piramidea (2013)



Adinaren araberako populazioaren egiturak erakusten du 60-69 adin-tartean emakume eta gizonen arteko proportzioa %48 eta %52 artekoa dela. **60-69 tartetik aurrera hasten da emakumeen proportzioa pixkanaka handitzen**, eta %81eko proportziara iristen da 90 eta 99 urte arteko tartean, eta %100ekora 100 urte eta gehiagoko tartean.

45 urtetik aurrera biltzen da emakume guztien %51; gizonen %53a, berriz, **0 eta 44 urte artean**. Gizon zein emakumeen kasuan, **40 eta 49 urte arteko tartean dago emakume eta gizonen ehuneko handiena**, emakume guztien %15 eta gizon guztien %16.


Iturria: Geuk prestatua INEren 2013ko datuekin

1.3 taula: Tolosako populazioa sexuaren eta adin-tarteen arabera (2013)

Adin-tarteak	GUZTIRA		EMAKUMEA			GIZONAK		
	G	% /G	E	% /G	% /E	G	%/G	% /G
0-9	1.968	%10,4	974	%49,5	%10,0	994	%50,5	%11,0
10-19	1.720	%9,1	834	%48,5	%8,5	886	%51,5	%9,8
20-29	1.866	%9,9	933	%50,0	%9,5	933	%50,0	%10,3
30-39	2.622	%13,9	1.312	%50,0	%13,4	1310	%50,0	%14,5
40-49	2.882	%15,3	1.451	%50,3	%14,8	1431	%49,7	%15,8
50-59	2.722	%14,5	1.368	%50,3	%14,0	1354	%49,7	%15,0
60-69	2.289	%12,2	1.213	%53,0	%12,4	1076	%47,0	%11,9
70-79	1.509	%8,0	833	%55,2	%8,5	676	%44,8	%7,5
80-89	1.059	%5,6	704	%66,5	%7,2	355	%33,5	%3,9
90-99	193	%1,0	157	%81,3	%1,6	36	%18,7	%0,4
100 eta gehiago	6	%0,0	6	%100,0	%0,1	0	%0,0	%0,0
	18.836	%100,0	9.785	%51,9	%100,0	9.051	%48,1	%100,0


Iturria: Geuk prestatua INEren 2013ko datuekin

1.3 irudia: Tolosako populazioa sexuaren eta adin talde handien arabera bereizita



Iturria: Geuk prestatua INEren 2013ko datuekin

1.4 irudia: Gipuzkoako populazioa sexuaren eta adin talde handien arabera bereizita



Iturria: Geuk prestatua INEren 2013ko datuekin

Tolosako eta Gipuzkoako adin talde handien datuak konparatzen baditugu, adin eta sexu taldeen arabera populazioaren egitura orokorra oso antzekoa direla ikusten dugu bai Tolosan, bai Gipuzkoan. Hona nabarmendu beharreko datu nagusiak:

- ✓ Tolosan, <16 urteko tartean, **emakumeen proportzioa handiagoa da gizonena baino** populazioaren guztizkoarekiko. **65 urteko tartean eta hortik gorakoak du alderik handiena** (emakumeen %58,6 eta gizonen %41,4. Azken kasu horretan, proportzio hori txikiagoa da Gipuzkoan (emakumeen %57,9 eta gizonen %42,1), eta tarte horrek bakarrik du Gipuzkoan emakumeen ehuneko handiagoa gizonena baino.
- ✓ **Emakume eta gizon guztien portzentajeko banaketa** adin talde bakoitzaren barruan **ia berdina da Tolosan eta Gipuzkoan**. Alde adierazgarri bakarra nabarmentzen da 16 eta 64 urte arteko taldean: Gipuzkoaren kasuan, gizonen %66,4 dago, eta Tolosan, %65,0.
- ✓ Tolosako **haur-populazioa** (%16,1) handiagoa da Gipuzkoako guztizko populazioaren proportzioa baino (%15,5). Gipuzkoan zein Tolosan, **16 urtetik beherako populazioa portzentajeko 5 puntu txikiagoa da 65 urtetik gorako populazioa baino**.
- ✓ Azkenik, **65 urte eta hortik gorako populazioak** proportzio oso antzekoa du Tolosako zein Gipuzkoako guztizko populazioarekiko (%20,7 Tolosan eta %20,2 Gipuzkoan).

Bestetik, badaude nabarmentzea merezi duten datu batzuk, belaunaldiaren hazkunderan eta aldaketan, eta gizarte-zerbitzuen eskaintzaren geroko premietan duten eraginagatik: bai **zahartze-indizea** (65 urteko eta gehiagoko pertsonen handiagoa guztizko populazioarekiko %), bai **gainzahartze-indizea** (75 urteko eta gehiagoko pertsonen handiagoa guztizko populazioarekiko %), bai **hautzaro-indizea** (0 eta 14 urte arteko populazioa guztizkoarekiko %).

Datu horiek analizatzeko, **Gipuzkoako zein Tolosako 2007ko eta 2013ko** datuak konparatu ditugu, eta taula honetan jaso ditugu:

1.4 taula: Tolosa. Indize demografikoen konparazioa

KONTZEPTUAK	TOLOSA 2007			TOLOSA 2013		
	GUZTIRA	EMAKUMEAK	GIZONAK	GUZTIRA	EMAKUMEAK	GIZONAK
Zahartze-indizea	%20,1	%23,3	%16,6	%20,7	%23,3	%17,8
Gainzahartze-indizea	%10,7	%13,6	%7,6	%10,8	%13,3	%8,0
Hautzaro-indizea	%13,8	%12,7	%15,1	%15,2	%14,3	%16,2

Iturria: UDALMAP eta geuk prestatua INEren 2013ko datuekin

1.5 taula: Gipuzkoa. Indize demografikoen konparazioa

KONTZEPTUAL	GIPUZKOA 2007			GIPUZKOA 2013		
	GUZTIRA	EMAKUMEAK	GIZONAK	GUZTIRA	EMAKUMEAK	GIZONAK
Zahartze-indizea	%18,3	%21,1	%15,5	%20,2	%22,9	%17,3
Gainzahartze-indizea	%9,0	%11,3	%6,7	%10,4	%12,7	%8,0
Hautzaro-indizea	%13,4	%12,7	%14,0	%14,6	%13,9	%15,4

Iturria: UDALMAP eta geuk prestatua INEren 2013ko datuekin

- ✓ Tolosan, zahartze globalaren zein gainzahartzearen indizea berdina da bi urte horien konparazioan. Gipuzkoan, biak handitu egin dira.
- ✓ Sexuaren arabera analizatzen badugu, **emakumeek zahartze- eta gainzahartze-indize handiagoa dute** gizonek baino Gipuzkoan zein Tolosan, konparatutako bi urteetan.
- ✓ Hautzaro-indizea handitu egin da Tolosan zein Gipuzkoan. Gipuzkoan, hazkundera txikiagoa da. Bi kasuetan, badago alde bat gizonen alde Tolosan zein Gipuzkoan, ez aurreko atalean adierazitako aldea bezain adierazgarria.
- ✓ Bi kasuetan, Tolosan zein Gipuzkoan, **zahartze-indizea nahiko handia da hautzaro-indizearen aldean** (gutxi gorabehera portzentajezko 5,5 puntu), eta hori **belaunaldi-aldaketarako arazoa** izan daiteke.

1. POPULAZIOA

Jaiotza- eta heriotza-tasa gordin


EAE n zein Gipuzkoako lurralde historikoan gertatzen den bezala, Tolosako **jaiotza-tasa gordinak izaera beherakor samarra** du azken urteotan, eta gorabehera handiagoak daude Tolosan EAE n eta Gipuzkoan baino, datu hauetan ikus dezakegun bezala:

1.6 taula: Jaiotza-tasa gordinaren bilakaera (%)(2007-2012)

URTEAK	TOLOSA	EAE	GIPUZKOA
2007	8,66	9,6	10,36
2008	10,69	9,6	10,36
2009	9,57	9,6	10,29
2010	10,35	9,6	10,17
2011	9,73	9,5	9,99
2012	9,13	9,3	9,78

Iturriak: Tolosako UDALMAP eta Emakunderen "Zifrak 2013" txostena

1.5 irudia: Jaiotza-tasa gordinaren bilakaera (2007-2012)



Iturriak: Tolosako UDALMAP eta Emakunderen "Zifrak 2013" txostena

Heriotza-tasa gordinari dagokionez, adierazle hori, aurrekoa ez bezala, gorakorra da, Tolosan zein EAE n eta Gipuzkoako lurralde historikoan. Tasa horren bilakaera Tolosan hauxe izan da:

1.7 taula: Jaiotza-tasa gordinaren bilakaera (2007-2012)

URTEAK	TOLOSA
2007	8,61
2008	12,02
2009	11,18
2010	10,96
2011	10,00
2012	10,69

Iturriak: Tolosako udal-errola eta INE

- Euskadi osoko 2012ko heriotza-tasa gordin, Emakunderen "Zifrak 2013" txostenaren arabera, 9,3koa da. Eta Gipuzkoako lurraldearen ia berdina da, 9,2.
- Txosten horretan, halaber, **EAEko hiru lurralde historikoetan tasa horren hazkunde gradual bat** aipatzen da. Egoera hori ikusten da Tolosan ere, baina aipagarria da **2012ko tasa, Tolosan, puntu bat handiagoa dela EAE n eta Gipuzkoan baino.**

Familia motak

Politika publikoak diseinatzean kontuan izan beharreko faktoreetako bat **etxeen osaera** da. Informazio hori **INEk 10 urtean behin egiten duen populazio-errol-datik** ateratzen da. Esan behar dugu etxeen egitura sailkatzeko irizpideak aldatu egin direla errolda guztietan zehar, eta desberdinak direla EUSTATEk eta INEk erabilitakoak. Horrek arazoak eman ditu datu horiek lortzean, eta **azken datuak INEk 2011n argitaratutakoak** dira. Datu horiek sailkapen desberdina dute EUSTATEk 2001ean argitaratutako azken datuen aldean. Nolanahi ere, horien parekatze bat egingo dugu bilakaeraren balorazioa egitean. Lehenik, INEk 2011ri buruz emandako datuak analizatuko ditugu:

1.8 taula: Tolosako etxeen egitura 2011

MOTA	ETXEEN EGITURA MOTA	Zk.	%
A	65 urtetik beherako emakume bakarria duen etxea	490	%6,8
B	65 urtetik beherako gizon bakarria duen etxea	475	%6,5
C	65 urte edo gehiagoko emakume bakarria duen etxea	600	%8,3
D	65 urte edo gehiagoko gizon bakarria duen etxea	110	%1,5
E	25 urtetik beherako seme/alaba batekin bizi den aita edo ama duen etxea	395	%5,4
F	25 urtetik gorako seme-alaba guztiakin bizi den aita edo ama duen etxea	485	%6,7
G	Seme-alabarik gabeko bikoteak osatutako etxea	1.615	%22,3
H	Seme-alabak dituen bikoteak osatutako etxea seme/alabaren bat 25 urtetik beherakoa izanik	1.900	%26,2
I	Seme-alabak dituen bikoteak osatutako etxea seme-alaba guztiak 25 urte edo gehiagokoak izanik	420	%5,8
J	25 urtetik beherako seme/alaba batekin eta beste pertsona bat(zu)ekin bizi den bikoteak edo aita/ama osatutako etxea	360	%5,0
K	Beste etxe mota bat	405	%5,6
GUZTIRA		7.255	%100,0

Iturriak: INE. 2011ko populazioaren eta etxebizitzaren errolda


- Edozein adinetako **seme-alabak dituzten bikoteek osatutako etxeak** (H eta I motatakoak) dira **guztizkoarekiko ehuneko handiena dutenak** (%32).
- **Kide bakarreko etxe** mota guztiak (A, B, C, D motatakoak) elkartzen baditugu, **ordezkaritza handiena duen bigarrena** da, guztizkoaren %23,1ekin. Sexuaren arabera analizatuta, **edozein adinetako emakume bakar bateko etxeak kide bakarreko etxeen 65,1 dira**, eta 65 urte edo gehiagoko emakume bakarren portzentajea guztizkoaren handiena da (%35,8).
- **Ordezkaritza handieneko hirugarren etxe mota** (G motatakoa) **seme-alabarik gabeko bikote** batena da (%22,3). Lehen hiru mota horietan, etxe guztien %77,4 daude.
- **Ordezkaritza handieneko laugarren etxe mota** 25 urtetik beherako edo 25 urteko edo hortik gorako seme-alabaren batekin bizi den aita edo ama bateko etxe guztiena da. (E eta F motatakoak). **Familia gurasobakar amadun eta aitadunak** %12,12 dira.
- **Ordezkaritzarik txikiena**, ia berdina, **J motatakoek** (25 urtetik beherako seme/alabaren batekin eta bestelako pertsona bat(zu)ekin bizi den bikote batek edo aita/ama batek osatutako etxeak) eta **K motatakoek** (beste etxe mota batek) dute, hurrenez hurren %5 eta %5,6rekin.

1. POPULAZIOA

Aurreko orrialdean esan dugun bezala, atal honetako bilakaerari buruzko datuak lortzea zaila izan da, horregatik egin behar izan dugu INEren 2011ko eta EUSTATEk 1996an eta 2001ean emandako datuen arteko parekatze hau, etheen osaera nola bilakatu den analizatzeko. Taula honetan, hartu ditugun baliokidetasunak erakutsi ditugu:

FAMILIA MOTA EUSTATEN sailkapenaren arabera	Baliokidetasuna INEren 2011ko etxe-egiturekin
Kide bakarrekooa: ez du familia-nukleorik eta pertsona bakarra du	A, B, C eta D mota
Seme-alabarik gabeko nukleoa: seme-alabarik gabeko bikote batek osatutako nukleoa	G mota
Seme-alabak dituen nukleoa: nukleorik ez duten seme-alabak dituen bikote batek osatutako familia-nukleoa	H eta I mota
Guraso bakarrekooa: nukleorik ez duten seme-alabak dituen aita edo ama batek osatutako familia-nukleoa	E eta F mota
Osatutakooa: ez du familia-nukleorik eta ahaidetuta dauden edo ez dauden bi pertsonak edo gehiagok osatzen dute	J, K mota
Handitutakooa: edozein motatako familia-nukleoa, ahaidetuta dauden pertsona batekin edo gehiagorekin bizi dena	
Polinuklearrak: bi familia-nukleo edo gehiago	

1.6 irudia: Tolosako familia moten banaketaren bilakaera (1996 - 2001 - 2011)



	Kide bakarrekooa	Seme-alabarik gabeko nukleoa	Seme-alabak dituen nukleoa	Guraso bakarrekooa	Osatutakooa, Handitutakooa eta Polinuklearra
2011	%23,1	%22,3	%32,0	%12,1	%10,5
2001	%26,8	%15,5	%34,6	%11,8	%11,3
1996	%18,3	%13,9	%43,5	%11,0	%13,3

Iturriak: Geuk prestatua INEren 2011ko erroldako, EUSTATEN (Familiak) eta Tolosako 2001eko Berdintasun Diagnostikoko datuekin

- ✓ **Konparatutako aldiaren hazkunde-tasa duen familia mota:** Lehenik, **seme-alabarik gabeko familia nuklearrak** izan du hazkunde handiena (ordezkaritzako portzentajezko 8,4 puntu gutzitzkoarekiko). Jarraian **kide bakarrekooa** doa. Kasu horretan, nabarmentzekoa da 2001 eta 2011 artean ordezkagarritasuneko portzentajezko 3 puntu jaitsi dela familia mota hau, eta guk ditugun datuekin ezin dugu jakin egungo krisi ekonomikoarengatik den, baina hori izan liteke kausetako bat. Eta hirugarrenik, **guraso bakarrekooa** familiak ditugu, ordezkagarritasuneko portzentajezko 1,1 puntuko hazkundearekin.
- ✓ **Konparatutako aldiaren desazkunde-tasa duen familia mota:** **seme-alabak dituen familia nuklearrak** izan du jaitsiera handiena egindako konparazioan (ordezkaritzako portzentajezko 11,5 puntu gutxiago 1996ko eta 2011ko datuen artean). Bilakaera mota horretan, familia motak aldatzen ari direla ikus daiteke, beste familia mota ez-tradizional batzuetara.

1. POPULAZIOA

Jarraian, **ezkontzen** (zibilak eta elizakoak) eta **izatezko bikoteen kopuruari** buruzko 2007ko, 2009ko, 2011ko eta 2013ko **bilakaera-datuak** adierazi ditugu. Bi sailkapenatarako, bikote mistoen eta sexu bereko bikoteen datuak aurkeztu dira:

1.9 taula: Izatezko bikote eta ezkontzen bilakaera (2007 / 2009 / 2011 / 2013)

URTEA	IZATEZKO BIKOTEAK		EZKONTZA		
	MISTOA	SEXU BEREKOAK	ELIZA	ZIBILA (bikote mistoa)	ZIBILA (sexu berekoa) (*)
2007	9	0	24	54	1
2009	6	0	22	36	2
2011	11	0	5	42	1
2013	15	0	12	50	1

Iturriak: Tolosako Erregistro Zibila eta Eusko Jaurlaritzaren Izatezko Bikoteen Erregistroa

(*) **Gutzizkotik, bat Emakume / Emakume artekoa da, gainerakoa Gizon / Gizon artekoa**

Hona nabarmendu beharreko alderdi nagusiak:

- ✓ Bikoteak osatzeko **modurik ohikoena**, analizatutako aldirian, **ezkontza zibilarena** da. Horien gutxitze bat ikusten da 2009an eta 2011n zehar, baina 2013an 2007ko datuen antzeko egoera batean kokatu da berriz. **2013an osatutako bikote guztiekiko proportzioa %65,4koa da.**
- ✓ Bestetik, adierazi behar da **analizatutako ezkontza zibil guztietan, %2,7 soilik izan direla sexu bereko pertsonen artekoak** eta, horietatik, kasu bakarrean izan dela emakume eta emakume arteko ezkontza.
- ✓ **%67ko igoera izan da izatezko bikoteen kopuruan** 2007 eta 2013 artean, eta 2013an osatutako bikote guztien %19,23 izan da.
- ✓ Harrigarria da **erregistratutako sexu bereko izatezko bikoterik ez dagoela**, ez gizonezkorik, ez emakumezkorik.
- ✓ **Eliza Katolikotik egindako ezkontzei** dagokienez, **2007ko** eta **2013ko** datuen artean %50eko jaitsiera izan da, eta 2007an osatutako bikoteen %27,3 izatetik, 2013an %15,4 izatera igaro da. Ondorioz, **2013an, bikote kopuru txikiena izan duen mota da.**

1. POPULAZIOA

Tolosako **populazio atzerritarri** dagokionez, eta INEren 2013ko urtarrileko datuen arabera, 1.075 pertsona dira eta **gutzizko populazioaren %5,7** dira. Sexuaren arabera bereizita, **emakumeak** populazio atzerritarren **%53,3** dira, 573 emakumerekin, eta **gizonak** populazio atzerritarren **%46,7** dira, 502 gizonekin. Beraz, **populazio atzerritarren emakumeen ehunekoak populazio osoaren emakumeen ehunekoa gainditzen du**, %52koa dena. Adierazi behar da 2007rekiko populazio atzerritarra %206 hazi dela, eta emakumeen portzentajezko hazkundera (%215) handiagoa da gizonena (%197) baino. Nolanahi ere, 2007an, emakume-populazio atzerritarrek ere ehuneko handiagoa zuen populazio atzerritar osoarekiko (%51,1 emakumeak - %48,9 gizonak).

Populazio atzerritarra **16 eta 64 urte arteko tartean dago batik bat**, eta **emakumeak gutzizkoaren %54,3** dira tarte horretan. Halaber, antzeko ordezkaritza-ehunekoa du 65 urte eta gehiagoko tartean, baina pertsona atzerritarren kopurua tarte horretan ez da adierazgarria (6 emakume eta 5 gizon).


Bestetik, Europa kanpotik datozen pertsonen dagokienez, emakumeek ehuneko handiagoa dute (%55,4). Kasuistika hori, ordea, ez da errepikatzen jatorri europarreko populazioan; kasu horretan, gizonak gutzizkoaren %51 dira. Populazio europarraren kasuan, **erkidegoz kanpoko Europako populazioa** Europako populazio osoaren **%24,2** da, eta **jatorrizko herrialde nagusiak Errusia eta Ukraina** dira. Populazio horren barruan, **emakumeak gutzizkoaren %61,9** dira, eta **Ukraina** da jatorri-herrialde nagusia: horkoak dira **erkidegoz kanpoko jatorri atzerritarreko emakumeen %82,6**.

1.10 taula: Tolosa, Europako populazio atzerritarra eta Europaz kanpoko sexuaren arabera (2013)

	Jatorri atzerritarreko populazioa		Europako populazioa		Europaz kanpoko	
	Kant.	%	Kant.	%	Kant.	%
Emakumeak	573	%53,3	170	%49,0	403	%55,4
Gizonak	502	%46,7	177	%51,0	325	%44,6
Gutzira	1.075	%100,0	347	%100,0	728	%100,0

Iturria: Geuk prestatua INEren 2013ko datuekin

1.7 irudia: Tolosako populazio atzerritarra adin taldeen arabera (2013)



Iturria: Geuk prestatua INEren 2013ko datuekin

Bestetik, **erkidego europarreko populazioa gutzizkoaren %75,8** da, eta kasu honetan kontrako fenomeno gertatzen da, hots, **gizonak populazio horren ehunekorik handiena dira (%55,1)**. **Gehiengoa** duten jatorrizko herrialdeak **Portugal**, gizonen gutzizkoaren %47,6 eta emakumeen gutzizkoaren %36,4rekin, eta **Errumania**, gizonen gutzizkoaren %35,2 eta emakumeen gutzizkoaren %44,9rekin. Erkidegoko gainerako populazioa Alemaniaren, Bulgariaren, Frantziaren, Italiaren, Poloniaren eta Erresuma Batuen artean banatzen da, eta Frantziak du emakumeen ehuneko handiena talde horren barruan, erkidegoko emakume guztien artean (%6,7), eta Italia gizonen kasuan, gutzizkoaren %3,4rekin.

1. POPULAZIOA

Amerikatik datorren populazioa Hego Amerikakoa, Karibekoa eta Erdialdeko Amerikakoa da batik bat, eta **populazio atzerritarren ehuneko handiena da (%37,6)**. Jatorri horretako portzentajezko balioak sexuaren arabera berezita begiratzen baditugu, ikusiko dugu **emakumezkoen populazioak nabarmen gainditzen duela gizonezkoena** (%69,8 emakumeak eta %30,2 gizonak). Jatorri horretako herrialdeen artean, Argentina, Nikaragua, Brasil, Kolonbia, Ekuador, Peru eta Dominikar Errepublika nabarmentzen dira. Badaude Kubatik, Txiletik eta Venezuelatik etorritako pertsonak ere, baina neurri txikiagoan.

Afrikako populazioari dagokionez, Europar Batasunekoarekin batera bigarren postua du eta **populazio atzerritarren %24,3koa da**. Sexuen arteko proportzioa, kasu honetan, nabarmen aldatzen da aurreko datuen aldean, **%62,5 gizonak eta %37,5 emakumeak**. Jatorri horretako herrialdeen artean, Maroko eta Aljeria nabarmentzen dira, eta ondoren Senegal eta Nigeria neurri txikiagoan.

Asiako populazioa populazio atzerritarren %5,9koa da. Afrikaren kasuan bezala, **gizonezkoen populazioak nabarmen gainditzen du emakumeena (%63,5 gizonak eta %36,5 emakumeak)**. Txina eta Pakistan dira jatorri horretako herrialde nagusiak.

Emakume atzerritarren guztizkoa jatorri-zonen artean nola banatzen den begiratzen badugu, emakume atzerritarren populazioaren %49,2 Amerikatik dator (Hego Amerikatik eta Karibetik), eta gero Europar Batasunetik (%20,6), Afrikatik (%17,1) erkidegoz kanpoko Europatik (%9,1) eta Asiatik (%4). Gizonen artean, populazio afrikarrak du gizon atzerritarren populazioaren ehunekorik handiena (%32,5), eta gero datoz Europar Batasuna (%28,9), Amerika (%24,3), erkidegoz kanpoko Europa (%7,8) eta Asia (%5,9). Beraz, esan dezakegu emakume eta gizon atzerritarren jatorri ohikoena ez dela antzekoa, eta emakumeen kasuan proportzio oso nabarmena dute Hego Amerikak eta Karibek, eta gizonen kasuan, gainerako jatorriekiko ez hain nabarmen, Afrikak (batik bat Magrebeko herrialdeek).

1.11 taula: Tolosa, populazioa atzerritarra sexuaren eta jatorriaren arabera (2013)

	Emakumeak			Gizonak			Guztira	
	E	E %/g	G %/g	G	G %/g	G %/g	G	G %/g Globala
Europar Batasuneko populazioa	118	%20,6	%44,9	145	%28,9	%55,1	263	%24,5
Erkidegoz kanpoko Europako populazioa	52	%9,1	%61,9	32	%6,4	%38,1	84	%7,8
Afrikako populazioa	98	%17,1	%37,5	163	%32,5	%62,5	261	%24,3
Amerikako populazioa	282	%49,2	%69,8	122	%24,3	%30,2	404	%37,6
Asiako populazioa	23	%4,0	%36,5	40	%8,0	%63,5	63	%5,9
GUZTIRAGLOBALA	573	%100,0		502	%100,0		1.075	%100,0

Iturria: Geuk prestatua INEren 2013ko datuekin

POPULAZIO AKTIBOA ETA EZ AKTIBOA


Lanaren esparrua analizatu aurretik, eta hori genero-ikuspegi batetik analizatzeko ezinbesteko eskakizun gisa, uste dugu ohar bat egitea komeni dela lanaren egungo **ikuskerari** buruz **enplegu ordainduaren alderdi baztertzailerari dagokionez**. Irizpide horren erabilerak **ikusezintasuna ematen dio** batik bat emakumeek egindako **lan erreproduktiboari**: lan eta funtzio horiek espazio pribatuan geratzen dira, eta lan-merkatuaren egungo nomenklatura langabezia gisa tratatzen eta kategorizatzen dira.

Horregatik, uste dugu **“lan” terminoaren analisiak lan produktiboa zein lan erreproduktiboa hartu behar lituzkeela barnean**. Puntu honetan, adierazi behar dugu arazo handiak izan ditugula Tolosako esparruko lan erreproduktiboari buruzko datu zehatzak lortzeko, baina horien analisi bat egingo da lan erreproduktiboaren atalean.

Aipatutako hori kontuan izanda, **atal honetan lan-merkatuarekin lotutako datuak analizatuko ditugu, lan-merkatuaren egungo ikuskera eta terminologia**, benetan androzentrikoak, **kontuan izanda**. Era berean, adierazi behar dugu sexuaren arabera bereizitako datu eguneratuak lortzeko zer arazo izan ditugun: analisisan, soilik 2006ko, 2010eko eta 2011ko datuak izan ditugu.

Populazio aktiboa sexuaren arabera nola banatzen den analizatuta, ikusten dugu analizatutako urteetan zehar **gizonen ordezkari handiagoa dagoela emakumeena baino populazio aktiboaren barruan** (enplegu ordaindu lanean ari den populazioa gehi langabetua enplegu-bilaketa aktiboan). Hala ere, **igoera txiki bat** ikusten da **emakumeen proportzioan**, portzentajezko 2,9 puntukoa 2006 eta 2011 artean, aldi horretan emakume gehiago hasi delako lan-merkatuan lanean. Datu horiek batez besteko bera dute **jarduera-tasaren bilakaeran**, eta **txikiagoa da kasu guztietan emakumeena**, taula honetan ikus daitekeen bezala:

2.1 irudia: Populazio aktiboaren banaketaren bilakaera sexuaren arabera



Iturria: Geuk prestatua EUSTATen datuekin. Populazioaren eta etxebizitzaren 2006ko estatistika, populazio aktiboaren 2010eko udal-estatistika, populazioaren eta etxebizitzaren 2011ko errolda

- Emakumeen kasuan, 2011rako jarduera-tasa Gipuzkoako (%43,7) eta Tolosaldeko (%43,9) datuaren antzekoa da.
- Gizonen kasuan, datu hori txikixeagoa da Tolosan Gipuzkoan (%52,7) eta Tolosaldean (%52,3) baino.

2.1 taula: Tolosako jarduera-tasaren bilakaera

URTEA	TOLOSAKO JARDUERA TASA	
	E	G
2006	%39,9	%53,2
2010	%42,0	%52,0
2011	%43,5	%51,4

Iturria: EUSTAT.


Populazio ez-aktiboari dagokionez, emakume eta gizonen ordezkagarritasuna tipologia honetan alderantzikatu egiten da populazio aktiboaren aldean. Kasu honetan, **emakumeek ehuneko handiagoa dute gizonek baino analizatutako urte guztietan** populazio ez-aktiboaren guztizkoaren barruan.

Egoera hori ulertzen da, batik bat, populazio mota horren barruan ordaindu gabeko lan bat egiten duen populazioa sartzen delako, lan erreproduktiboa lan-merkatuaren egungo eredian ulertzen den bezala. Hala ere, aipatu behar da jaitsiera txiki bat izan dela emakumeek populazio ez-aktiboaren guztizkoan duten ehunekoan, eta bat datoraldi horretan populazio aktiboaren barruan hastearrekin.

Bestetik, **emakume eta gizon guztien banaketa populazio aktiboaren eta ez-aktiboaren artean analizatuta**, ikusten dugu **gizonen kasuan proportzio handiagoa dagoela populazio aktiboaren barruan**, eta **emakumeen kasuan kontrako efektua dagoela**, emakumeen ehuneko handiagoa populazio ez-aktiboan baitago.

Datu horiek guztiek, azken urteotan joera-aldaketa txikiak badaude ere, rol-banaketa berresten dute lan-merkatuan emakume eta gizonen artean: emakumeak gehiago arduratzen dira zaintza-lanez oraindik, eta datu hori berretsi egingo da diagnostiko honen lan erreproduktiboaren kapituluaren.

2.2 irudia: Populazio ez-aktiboaren banaketaren bilakaera sexuaren arabera



Iturria: Geuk prestatua EUSTATen datuekin. Populazioaren eta etxebizitzaren 2006ko estatistika, populazio aktiboaren 2010eko udal-estatistika, populazioaren eta etxebizitzaren 2011ko errolda

2.2 taula: Emakume eta gizonen populazio osoak populazio aktiboaren eta ez-aktiboaren artean izandako banaketaren bilakaera

URTEA	EMAKUMEAK		GIZONAK	
	Pop. aktiboa	Pop. ez-aktiboa	Pop. aktiboa	Pop. ez-aktiboa
2006	%39,9	%60,1	%53,2	%46,8
2010	%42,0	%58,0	%52,0	%48,0
2011	%43,6	%56,4	%51,5	%48,5

Iturria: Geuk prestatua EUSTATen datuekin. Populazioaren eta etxebizitzaren 2006ko estatistika, populazio aktiboaren 2010eko udal-estatistika, populazioaren eta etxebizitzaren 2011ko errolda

Lehenago esan dugun bezala, populazio aktiboa **populazio okupatuak** (lan ordaindu bat duten pertsona guztiek) eta pertsona langabetuek osatzen dute. 2.3 taulan ikus daitekeen bezala, **gizonek populazio okupatuaren ehuneko handiagoa** izan dute konparatutako hiru urteetan. Datu hori bat dator Eustatek emandako okupazio-tasarekin Tolosako udalerrian sexuaren arabera bereizitako azken udal-adierazleetan (Udalmap). Horrela, **2006an, Tolosako gizonen okupazio-tasa %73,3koa da; emakumeen okupazio-tasa, berriz, %56,9koa da. Joera hori dago Gipuzkoako (%74,4 G / %57,10 E) eta Tolosaldeko (%75,4 G / %56,7 E) urte bereko datuetan ere.**

2.3 taula: Populazio okupatuaren banaketaren bilakaera sexuaren arabera (%)


URTEA	Populazio okupatua guztira	
	E %	G %
2006	%43,7	%56,3
2010	%46,4	%53,6
2011	%47,4	%52,6

Iturria: Geuk prestatua EUSTATen datuekin

Bestetik, generoaren ikuspegitik, interesgarria da analizatzea ea badagoen alderik **gizon eta emakumeen populazioaren banaketan jarduera-sektoreen arabera**, eta horren bilakaeran.


Hurrengo grafikoetan, argi ikusten da hiru aldietan **emakume okupatuaren populazioa zerbitzuen sektorean biltzen dela funtsean**, hiru urteetan emakume okupatuaren populazio osoaren 80tik gora biltzen duen ehuneko batekin. Baina **gizonen kasuan**, gizon okupatuaren populazioa **modu orekatuagoan banatzen da bi sektoretan batik bat, industriaren sektorean eta zerbitzuen sektorean.**

2.3 irudia: Emakume okupatuaren populazioaren banaketaren bilakaera jarduera-sektoreen arabera



Iturria: Geuk prestatua EUSTATen datuekin


2.4 irudia: Gizon okupatuaren populazioaren banaketaren bilakaera jarduera-sektoreen arabera



Iturria: Geuk prestatua EUSTATen datuekin


Populazio atzerritarra aurreko kategorietan nola banatzen den begiratzen badugu, lehenik hori **populazio aktiboaren eta ez-aktiboaren** sailkapenaren barruan nola banatzen den analizatuko dugu, bertako populazioaren barruan duen banaketa berarekin konparatuta. Horrela, 2011n, joera aurreko orrialdeetan azaldutakoaren antzekoa da bi kolektiboetan: **emakumeen populazio ez-aktiboaren proportzio handiagoa dago gizonena baino**. Baina populazio aktiboaren kasuan, kolektibo atzerritarrean ere gizonen proportzio handiagoa badago ere, bertako populazioaren kolektiboan baino txikiagoa da eta, beraz, emakumeen ehunekoa handitu egiten da kolektibo horren populazio aktiboaren barruan bertako populazioaren aldean.

2.5 irudia: Populazio atzerritar aktiboaren eta ez-aktiboaren 2011ko banaketa sexuaren arabera



Iturria: Geuk prestatua EUSTATen datuekin


2.6 irudia: Bertako populazio aktiboaren eta ez-aktiboaren 2011ko banaketa sexuaren arabera



Iturria: Geuk prestatua EUSTATen datuekin

Bestetik, **populazio okupatuaren** osakerari dagokionez, oro har gizonen proportzio handiagoa dago emakumeena baino, baina jatorriaren arabera analisi indibidualizatu bat egiten badugu, ikusten dugu **populazio atzerritarren kasuan, emakume atzerritarren proportzioa** kolektibo horretako **gizonena baino pixka bat handiagoa dela**, eta hori ez da gertatzen bertako emakumeen kasuan, grafiko honetan ikus dezakegun bezala:

2.7 irudia: Populazio okupatuaren banaketa jatorriaren eta sexuaren arabera 2011n




Iturria: Geuk prestatua EUSTATen datuekin

KONTRATAZIOAK

Emakume eta gizonen enpleguaren kalitatea zein den ikustean funtsezkotzat jotzen dugun beste alderdi bat da gizonen eta emakumeen zer kontratazio kopuru, mota, sektore, etab. eskuratzen duten jakitea, eta hori lagungarria izango da ikuspegi osoagoa izateko lan-merkatu aktiboaren genero-mailan.

2007ko, 2009ko, 2011ko eta 2013ko urtariletan zer kontratu kopuru egin den analizatzeko badugu, ikusten dugu **gehiena emakumeei egin zaiela**. Datu hori **kontratu kopuru handiena bildu duen sektore handienarekin** alderatzen badugu, SEPEk datu horietan ezarritako sailkapenaren arabera (nekazaritza, eraikuntza, industria eta zerbitzuak), ikusten da **zerbitzuen sektoreak duela kontratu kopuru handiena**. Ez dugu sexuaren arabera bereizitako datuak, baina taula hauetan ikusiko dugu emakumeak modu adierazgarrian kontratatzen direla sektore horretan, eta horregatik dago emakumeen kontratu kopuru handiagoa.

2.8 irudia: Tolosa. Erregistratutako kontratu kopurua



Iturria: Geuk prestatua SEPEren datuekin

Emakumeak eta gizonak jarduera-esparruen arabera egindako kontratuetan nola banatzen diren jakiteko, **jardueraren arabera 2012ko kontratu** motei buruzko datuak analizatuko ditugu, Lanbiden sexuaren arabera bereizita daudenak, eta 2.4.: **Kontratuak jardueraren arabera** taulan adierazi direnak. Análisi horretatik alde nabarmenak lortzen dira generoaren ikuspegitik: bereizketa horizontalak ikusten dira Tolosako lan-merkatuaren barruan. Horrela, bada, hauxe dugu:

- ✓ Maila globalean, kontratu ia gehienak (guztizkoaren 86) biltzen dituzten **jarduera-esparruak** hauek dira ordena behekorrean: Hezkuntza (%19,4), Merkataritza handizka eta txikizka; konponketa (%16,2), Jarduera administratiboak (%13,4), Jarduera sanitarioak eta gizarte-zerbitzuak (%10,8), Manufaktura-industria (%9,5), Ostalaritza (%9) eta Eraikuntza (%8,1).
- ✓ **Emakumeen kasuan: emakumeen kontratuak** ehuneko oso adierazgarria (**%70etik gora**) duten esparruak, horietan egindako **kontratu guztiekiko**, hauek dira ordena behekorrean: Etxeak langileak kontratatzeke (%93,5 E / %6,5 G), Jarduera sanitarioak eta gizarte-zerbitzuak (%86,8 E / %13,2 G), Merkataritza handizka eta txikizka; konponketa (%82,5 E / %17,5 G), Beste zerbitzu batzuk (%78,3 E / %21,7 G), Hezkuntza (%71,8 E / %28,2 G) eta Jarduera administratiboak (%70,7 E / %29,3 G).

- ✓ Hala ere, jarduera-esparruaren garrantziaren ordena aldatu egiten da analizatzen badugu **nola banatzen diren emakumeen kontratuak emakume-kontratuen guztizkoan**. Kasu honetan, ikusten dugu emakumeen kontratuen %46 **Hezkuntzako** sektorean (emakumeen kontratuen guztizkoaren %23,5) eta **Merkataritza handizka eta txikizka; konponketa** (%22,6) sektorean biltzen direla. Gero, **Jarduera administratiboan** (%16) eta **Jarduera sanitario eta gizarte-zerbitzuen** (%15,9) sektoreek dute emakume kontratatuen guztizkoaren kopuru handiena. Guztira, **4 jarduera-esparruen artean emakume kontratatuen %78 biltzen dute**. Emakumeen guztizkoaren %0,1 eta %2,4 artean dauden ehunekoetan emakumeak banatzen diren gainerako jarduera-esparruetan, soilik **Ostalaritza** sektoreak merezi du nabarmentzea, non **emakumeei egindako kontratu guztien %9,4** dauden.
- ✓ Gizonen kasuan: gizonen kontratuak ehuneko oso adierazgarria (**%70etik gora**) duten esparruak, horietan egindako **kontratu guztiekiko**, hauek dira ordena beherakorrean: Eraikuntza (%2,2 E / %97,8 G), Informazioa eta komunikazioak (%8,7 E / %91,3 G), Garraioa eta biltegiatzea (%12 E / %88 G), Manufaktura-industria (%15 E / %85 G), Artistikoak, jolasekoak eta aisialdikoak (%16,4 E / %83,6 G), eta Nekazaritza, abeltzaintza, basogintza eta arrantza (%25 E / %75 G). Hala ere, jarduera-esparruaren garrantziaren ordena aldatu egiten da, emakumeen kasuan bezala, analizatzen badugu **nola banatzen diren gizonen kontratuak gizon-kontratuen guztizkoan**. Kasu honetan ikusten dugunez, gizonak **jarduera-esparru kopuru handiagoan banatzen dira emakumeak baino**: esparru adierazgarrienak dira **Manufaktura-industria**, gizonen guztizkoaren %19,7rekin eta Eraikuntza, %19,4rekin. Ehuneko txikiagoekin daude Hezkuntza, %13,4rekin; Artistikoak, jolasekoak eta aisialdikoak, %10,4rekin; Jarduera administratiboak, %9,6rekin; Ostalaritza, %8,2rekin, eta Merkataritza handizka eta txikizka; konponketa, %6,9rekin. Gainerako jarduera-esparruetan, %0,2 eta %3,5 arteko ehuneko batean banatzen dira soilik.
- ✓ Azken batean, 2012an jarduera-esparruen arabera egindako kontratuen analisian, nabarmendu daiteke **emakumeak eta gizonak jarduera-esparru desberdinen arabera kontratatzen direla oraindik, eta genero-alborapen** oso nabariarekin. **Emakumeen** kontratu gehienak **Hezkuntzaren eta Merkataritzaren** esparruetan biltzen dira (sektore oso feminizatuetan), eta **gizonak**, emakumeak baino jarduera-esparru kopuru handiagoan banatzen direnak, **Manufaktura-industrian eta Eraikuntzan** nabarmentzen dira (tradizioz, esparru oso maskulinoetan).
- ✓ Azkenik, hurrengo orrialdean, lehenago adierazitako datu guztiak dokumentatzen dituen taulaz gain, 2012ko kontratazioetarako **sexuaren arabera berezita** egindako **kontratu motak** sartu ditugu. Egindako kontratu moten analisitik, halaber, zenbait berezitasun eta alde lortu dira generoaren aldetik, **hurrengo orrialdeetan** garatuko ditugunak.

2. LAN PRODUKTIBOA

2.4 taula: Tolosa, kontratu kopuruaren portzentajezko banaketa jardueraren eta sexuaren arabera (2012)

Kontratuak jardueraren arabera 2012	Emakumea	Gizona	Guztira	E % G/g	G % G/g	E % G/g emakumea	G % G/g gizona	% guztira
Nekazaritza, abeltzaintza, basogintza, arrantza	1	3	4	%25,0	%75,0	%0,1	%0,2	%0,1
Manufaktura-industria	48	271	319	%15,0	%85,0	%2,4	%19,7	%9,5
Ur-hornidura, hondakinen kudeaketa	2	1	3	%66,7	%33,3	%0,1	%0,1	%0,1
Eraikuntza	6	268	274	%2,2	%97,8	%0,3	%19,4	%8,1
Merkataritza handizka eta txikizka; konponketa	449	95	544	%82,5	%17,5	%22,6	%6,9	%16,2
Garraioa eta biltegiatzea	3	22	25	%12,0	%88,0	%0,2	%1,6	%0,7
Ostalaritza	189	113	302	%62,6	%37,4	%9,5	%8,2	%9,0
Informazioa eta komunikazioak	2	21	23	%8,7	%91,3	%0,1	%1,5	%0,7
Finantza-jarduerak eta aseguruetaoak	11	6	17	%64,7	%35,3	%0,6	%0,4	%0,5
Higiezinen jarduerak	1	2	3	%33,3	%66,7	%0,1	%0,1	%0,1
Profesionalak, zientifikoak eta teknikoak	40	26	66	%60,6	%39,4	%2,0	%1,9	%2,0
Administrazio-jarduerak	319	132	451	%70,7	%29,3	%16,0	%9,6	%13,4
Administrazio publikoa	25	30	55	%45,5	%54,5	%1,3	%2,2	%1,6
Hezkuntza	468	184	652	%71,8	%28,2	%23,5	%13,4	%19,4
Osasun-jarduerak eta gizarte-zerbitzuetaoak	317	48	365	%86,8	%13,2	%15,9	%3,5	%10,8
Artistikoak, jolasekoak eta aisialdikoak	28	143	171	%16,4	%83,6	%1,4	%10,4	%5,1
Bestelako zerbitzuak	36	10	46	%78,3	%21,7	%1,8	%0,7	%1,4
Etxeak langileen enplegatzaile gisa	43	3	46	%93,5	%6,5	%2,2	%0,2	%1,4
Guztira	1.988	1.378	3.366			%100,0	%100,0	%100,0

Iturria: SISPEren kontratuen fitxategi estatistikoa. Geuk prestatua LANBIDEn datuekin

2.5 taula: Tolosa, kontratu moten eta sexuaren portzentajezko banaketa (2012)

Kontratu motak 2012	Emakumea	Gizona	Guztira	E % G/g	G % G/g	E % G/g emakumea	G % G/g gizona	% guztira
Mugagb. Ohikoa /mugagb. 12/2001-24/2001 Legea	37	52	89	%41,6	58,4	%1,9	%3,8	%2,6
Mugagabea lanaldi osoan, hobariarekin	3	4	7	%42,9	%57,1	%0,2	%0,3	%0,2
Mugagb. L.P. / Mugagb L.P. 5/2001 ELD	34	14	48	%70,8	%29,2	%1,7	%1,0	%1,4
Aldizk. Finkoa/ Aldizk. Finkoa 5/2001 ELD	3	0	3	%100,0	%0,0	%0,2	%0,0	%0,1
Obra edo zerbitzu jakin baterako, lanaldi osoan	81	603	684	%11,8	%88,2	%4,1	%43,8	%20,3
Produktzio-gorabeherengatiko behin-behinekoa lanaldi osoan	204	204	408	%50,0	%50,0	%10,3	%14,8	%12,1
Bitartekoa lanaldi osoan	295	93	388	%76,0	%24,0	%14,8	%6,7	%11,5
Praktikak lanaldi osoan	5	0	5	%100,0	%0,0	%0,3	%0,0	%0,1
Lanaldi osoko txanda-kontratua	1	5	6	%16,7	%83,3	%0,1	%0,4	%0,2
Mugagabe bihurtuak	50	47	97	%51,5	%48,5	%2,5	%3,4	%2,9
Lanaldi mugatukoak aldi baterako	1.272	353	1.625	%78,3	%21,7	%64,0	%25,6	%48,3
Guztira	1.988	1.378	3.366			%100,0	%100,0	%100,0

Iturria: SISPEren kontratuen fitxategi estatistikoa. Geuk prestatua LANBIDEn datuekin

2. LAN PRODUKTIBOA

2012ko kontratazioetan **ERABILITAKO kontratu MOTARI** dagokionez, datu nabarmenak ditugu berriz generoari dagokionez, eta jarraian garatuko ditugu:

- ✓ **Kontratazio mugagabea ez da oso ohikoa izan 2012an**, eta horren hiru modalitateetan guztizkoaren %4,2 da soilik. Hala ere, nabarmendu behar da **lanaldi mugatuko kontratazio mugagabearen** modalitatean, %70,8 emakumeei egin zaiela; gizonei, berriz, %29,2. Sexuaren araberako guztizkoaren barruan, emakumeen %3,8 eta gizonen %5,1 izan da.
- ✓ **Obra edo zerbitzu baterako lanaldi osoko kontratua**, maila globalean, **bigarren kontratu mota erabili**na izan da, guztizkoaren %20,3rekin. Kontratu mota honetan, gizonek **ehuneko oso adierazgarria dute** (%11,8 E / %88,2 G). Era berean, gizonen guztizko kontratuen barruan %43,8 dira; emakumeen guztizko kontratuen barruan, berriz, %4,1 soilik; beraz, **kontratu mota oso maskulinizatua** da (zenbaki absolutuetan, %81 emakume eta 603 gizon).
- ✓ **Produktzio-gorabeherengatiko behin-behinekoa lanaldi osoan**, maila globalean erabilitako kontratu mota guztien %12,1 da. Nabarmenezkoa da, batetik, **bi sexuen arteko banaketa %50ekoa dela** eta, bestetik, bi taldeetan hirugarren kontratu mota erabiliena dela (emakumeen guztizko kontratuen %10,3 eta gizonen guztizkoaren %14,8).
- ✓ **Lanaldi osoko bitartekoa**: kasu honetan, emakumeen **kontratazioak modu adierazgarrian gaintzen du gizonena** (%76 E / %24 G), eta kontratazioaren guztizkoaren %11,5 da. Gainera, emakumeen guztizko kontratuen barruan %14,8 dira; beraz, **kontratu mota oso feminizatua** da. Kontratu mota hori **Hezkuntza oso erabilia** delako dugu datu hori; izan ere, aurreko orrialdeetan ikusi dugunez, esparru horrek ordezkaritza handiena du emakumeen kontratazio motaren barruan.
- ✓ **Mugagabe bihurtutako kontratuek guztizkoaren ordezkaritza txikia dute** (%2,9) eta **sexuen arteko banaketa-ehuneko oso antzekoa da** (%51,5 E / %48,5 G). Talde bakoitzaren barruko ordezkaritzari dagokionez, emakumeen kasuan, guztizkoaren %2,5 da eta gizonenean, %3,4 (zenbaki absolutuetan, 50 emakume eta 47 gizon).
- ✓ **Lanaldi mugatuko aldi baterako kontratuak erabili**enak izan dira maila globalean alde handiz, eta **gustizkoaren %48,3** dira. Emakumeen artean **gehien** erabilitako kontratu mota izan da (%78,3 E / %21,7 G), eta zenbaki absolutuetan 1.272 emakume eta 353 gizon dira. Gainera, **emakumeen kontratuen guztizkoaren %64** da eta, beraz, emakumeak kontratatzeko kontratu mota oso erabilia izan da alde handiz.
- ✓ **Aldizkako kontratu finkoak** eta **lanaldi osoko praktikak** ez dira izan oso adierazgarriak maila globalean: horien guztizkoaren %0,1 dira soilik, eta %100 soilik emakumeena da.
- ✓ **Lanaldi osoko txanda-kontratua** guztizkoaren %0,2 izan da soilik, eta **gizonen proportzioa handiagoa izan da nabarmen** (%16,7 E / %83,3 G). Sexu bakoitzaren ordezkaritasuna ez da adierazgarria izan (%0,1 emakumeak eta %0,4 gizonak).

PRESTAKUNTZA ADIERAZGARRIENA ADIN TARTEEN ETA SEXUAREN ARABERA hau da:

- ✓ **< 20 urteko tartea:** adin-tarte honetako emakumeen kontratuen guztizkoan, nabarmena da prestakuntza Bigarren Hezkuntzako 1. etapan eta Eskola Graduatuko titulua dutenen %66,7ko proportzioa. Proportzio hori, gizonen kasuan, bat dator prestakuntza motarekin, baina horien proportzioa ez da hain adierazgarria (%33,3).
- ✓ **20-24 tartea:** kasu honetan, Diplomaturako, Lizentziako eta Graduko prestakuntzak du emakume kopuru handiena horien guztizkoan (%37,2); gizonen kasuan, berriz, Batxilergoko prestakuntzak (%28).
- ✓ **25-29 tartea:** prestakuntza nagusia gizon zein emakumeen artean Diplomaturakoa, Lizentziakoa eta Gradukoa da, tarte honetako emakumeen guztizkoaren %57,3rekin eta gizonen guztizkoaren %43,2rekin.
- ✓ **30-44 tartea:** tarte honetan ere Diplomaturakoa, Lizentziakoa eta Gradukoa da gizon eta emakumeen ehuneko handiena duen prestakuntza dagokien taldean: %33 emakumeen kasuan, eta %28,2 gizonen kasuan.
- ✓ **45 eta + tartea:** adin-tarte hau bat dator Bigarren Hezkuntzako 1. etapa eta Eskola Graduatuko titulua dutenen prestakuntza motarekin, baina emakumeen ehunekoa tarte honetan adierazgarria da: guztizkoaren %54 dira, eta adin-tarte honetan kontratatutako gizonen guztizkoaren barruan prestakuntza hori duten gizonak, %35,5.

2.7 taula: Tolosa, kontratuak adin-tarteen, sexuaren eta prestakuntzaren arabera (2012)

PRESTAKUNTZA	<20		20-24		25-29		30-44		45 eta +		Guztira		Guztira
	G	E	G	E	G	E	G	E	G	E	G	E	
Ikasketarik gabe	%0,0	%0,0	%1,1	%0,6	%0,0	%0,8	%1,6	%0,5	%3,4	%0,5	%1,5	%0,6	%0,9
Lehen mailako ikasketa amaitugabeak	%9,5	%3,3	%0,5	%4,0	%1,5	%0,5	%2,5	%1,7	%1,3	%3,2	%2,0	%2,2	%2,1
Bigarren Hezkuntzako lehen etapa Eskola Graduatuko titulurik gabe	%7,1	%0,0	%6,9	%0,9	%7,0	%0,5	%15,3	%2,2	%9,8	%5,6	%11,3	%2,4	%6,0
Bigarren Hezkuntzako lehen etapa Eskola Graduatuko tituluarekin	%33,3	%66,7	%21,2	%18,8	%16,6	%13,7	%23,6	%27,9	%35,3	%54,1	%24,2	%29,8	%27,5
Batxilergoko irakaskuntzak	%26,2	%10,0	%28,0	%26,5	%20,7	%21,1	%28,2	%33,0	%30,2	%16,6	%27,0	%26,0	%26,4
Erdi-mailako Lanbide Heziketa	%0,0	%3,3	%6,9	%4,9	%5,9	%1,6	%5,0	%6,9	%6,8	%10,7	%5,6	%6,3	%6,0
Goi-mailako Lanbide Heziketa	%0,0	%3,3	%9,5	%5,8	%3,7	%3,0	%2,8	%2,6	%3,4	%1,5	%3,9	%3,0	%3,4
Diplomadunak, lizentziadunak eta graduko ikasketak	%23,8	%13,3	%25,4	%37,2	%43,2	%57,3	%20,0	%24,1	%9,4	%7,3	%23,6	%28,7	%26,6
Doktoregoa eta unibertsitate-masterra	%0,0	%0,0	%0,5	%0,6	%1,1	%0,3	%0,9	%0,6	%0,0	%0,2	%0,7	%0,5	%0,6
Zehaztu gabe	%0,0	%0,0	%0,0	%0,6	%0,4	%1,1	%0,2	%0,6	%0,4	%0,2	%0,2	%0,6	%0,4
Guztira	%100,0	%100,0	%100,0	%100,0	%100,0	%100,0	%100,0	%100,0	%100,0	%100,0	%100,0	%100,0	%100,0


Iturria: SISPEren kontratuen fitxategi estatistikoa. LANBIDEk prestatua

LANGABEZIA TOLOSAN

Tolosan langabeziari buruzko datuak analizatzean, 2007, 2009, 2011, 2013 eta 2014 urteetako urtarrilak hartuko ditugu, eta Lanbiden 2014ko martxoari buruz dagoen azken datua. Esan behar da Estatuko Enplegu Zerbitzuaren hileko datuetan pertsona langabetuen kopurua sexuaren arabera bereizita dagoela, baina ezin izan dugu lortu langabezia-tasa sexuaren arabera bereizita erreferentziako urteetarako; hala ere, badugu 2014ko martxoko datua.


Pertsona langabetu enplegu-eskatzailen banaketa sexuaren arabera xehetasunez analizatuta, ikusten da **emakumeen proportzioak guttzikoarekiko beti gainditzen duela gizonena**. Esan behar da krisia hasi aurreko urtean, 2007an, emakume langabetu enplegu-eskatzailen proportzioa gizonena baino askoz handiagoa zela (%61,7 emakumeak, %38,3 gizonak), baina proportzio hori txikitu egin da krisi-garaian, batik bat **gizon enplegu-eskatzailen kopurua %223,1 hazi delako aldi horretan**, eta ez emakume enplegu-eskatzailena txikitu egin delako, hori ere **modu adierazgarrian hazi baita aldi horretan %160,3an**. Esan behar da **modu positiboan pertsona langabetuen kopuruaren hazkunde txikiagoa antzematen dela**, bai gizon, bai emakumeen artean **2013 eta 2014 artean**.

2.14 irudia: Tolosa. Pertsona langabetu enplegu-eskatzailen banaketa sexuaren arabera



Iturria: Geuk prestatua SEPEren datuekin

2.15 irudia: Pertsona langabetu enplegu-eskatzailen kopurua sexuaren arabera



Iturria: Geuk prestatua SEPEren datuekin

Datu horiek **Gipuzkoako** lurraldearekin konparatuta, **portaera bera** ikusten da langabetu enplegu-eskatzailen banaketan, eta **emakumeek dute proportziorik handiena konparatutako urteetan**. Proportziorik handiena 2007an dago, krisiaren aurretik, %61,6 emakumeak eta %38,4 gizonak, eta txikiena 2011n (%51,9 emakumeak / %48,1 gizonak). Gainerako urteetan, bi sexuen arteko banaketa-ehunekoak Tolosakoak baino txixixeagoak dira, batik bat, Tolosako kasuan bezala, gizon **enplegu-eskatzailen kopurua modu oso adierazgarrian hazi delako %240,5ean**, eta ez emakume enplegu-eskatzailena txikitu egin delako, **hori ere modu adierazgarrian hazi baita %160,3an**. Bi kasuetan, portzentajeazko hazkundera handiagoa da Tolosan baino.

Emakume eta gizon enplegu-eskatzailleak adin-tarteen arabera nola banatzen diren analizatzen badugu, **bereziki >=45 urteko adin-tartea** azpimarratu behar da, **emakumeen ehunekoak modu adierazgarrian gainditzen baitu gizonena analizatutako urte guztietan**. Alde hori txikitu egiten da 2009tik aurrera, aurreko orrialdean aipatutako datuengatik, krisi ekonomikoaren eta lan-merkatuko aldaketaren ondorioz.

Krisiaren aurreko 2007ko datuei erreparatzen badiegu, gizonek <25 urteko tartean soilik gainditzen dituzte proportzioan emakumeak (%42,5 E / %57,5 G). Kasuistika hori, ordea, soilik 2011n gertatzen da berriz adin-tarte berean, eta 2009an eta 2011n 25-44 urteko adin-tartean. Nolanahi ere, portzentajezko distantziak askoz txikiagoak dira emakumeek guztizkoarekiko ehuneko handiagoa dutenean agertzen direnak baino, bereziki >=45 urteko tartean.

2.8 taula: Tolosa. Pertsona langabetu enplegu-eskatzailleak adin-tarteen eta sexuaren arabera

URTEAK	GUZTIRA	< 25		25 - 44		>= 45	
		G % < 25/g	G % < 25/g	E % < 25-44/g	G % < 25-44/g	E % >= 45/g	G % >= 45/g
2007 urtarrila	723	%42,5	%57,5	%58,3	%41,7	%66,7	%33,3
2009 urtarrila	816	%53,7	%46,3	%48,6	%51,4	%61,9	%38,1
2011 urtarrila	1.072	%45,4	%54,6	%49,1	%50,9	%56,5	%43,5
2013 urtarrila	1.349	%52,3	%47,7	%54,4	%45,6	%55,2	%44,8
2014 urtarrila	1.333	%51,8	%48,2	%51,3	%48,7	%56,1	%43,9

Iturria: Geuk prestatua SEPEren datuekin

2014ko martxoko datuek 2014ko urtarrilekoen antzeko banaketa-ehunekoa dute emakume eta gizonen artean:

- <25 tartean: %51,1 E - %48,9 G.
- 25-44 tartean: %50,8 E - %49,2 G.
- >=45 tartean: %55,8 E - %44,2 G.

Adin-tarte guztietan, beraz, emakumeek pertsona enplegu-eskatzailen guztizkoaren ehunekorik handiena dute.


2014ko langabezia-tasari dagokionez, Lanbidek argitaratutako datuen arabera, **%17,6koa da emakumeen kasuan, %14koa gizonen kasuan, eta %15,7koa orokorrean**. Datuak **handiagoak dira bi kasuetan Gipuzkoako lurraldekoak baino**, %16,2 emakumeen kasuan, %12,7 gizonen kasuan eta %14,4 orokorrean. Ez da berdin gertatzen **EAEko datuekin** konparatzen badugu: kasu honetan, **Tolosako datuak txikiagoak dira bi kasuetan**, eta EAEn %18 dugu emakumeentzat, %15,1 gizonentzat eta %16,5 orokorrean.

Interesgarria iruditzen zaigu, sexuaren arabera bereizitako datua ez izan arren, **Tolosako, Gipuzkoako eta Tolosaldeko 2007 eta 2013 arteko batez besteko langabezia-tasaren bilakaeraren** konparazio bat, horren portaera ikusteko. Hiru kasuetan, **tasa horren bilakaera gorakorra** izan da, gutxi gorabehera **portzentajezko 7 puntukoa**. Hala ere, nahiz eta hiru kasuetan hazkundea ia antzekoa izan, esan behar da **Tolosan tasa handiago batetik (%8) abiatzen zela** 2007an; Gipuzkoan, berriz, %6,9 eta Tolosaldean %7,2; beraz, **2013an ere langabezia-tasarik handiena du hiruretan**, %15,3, eta %14,2 Gipuzkoan eta %14,6 Tolosaldean. Hala ere, hori ez da gertatzen EAEREkin konparatzean, 2013ko batez besteko langabezia-tasa %16,5ean kokatzen baita EAEn.

BATEZ BESTEKO ERRENTA PERTSONALA

Alde handia dago emakume eta gizonen batez besteko errenta pertsonalaren artean Tolosan, Tolosaldean zein Gipuzkoan. 2006 eta 2011 arteko errentaren bilakaeran, **alde hori ia mantendu egin da denboran**, Gipuzkoan izan ezik; hor, pixka bat jaitsi da 2011 eta 2009 artean, batik batik gizonen batez besteko errenta jaitsi egin delako bi urte horien artean.

2.16 irudia: Batez besteko errenta pertsonalaren bilakaera (2006-2009-2011)



Iturria: Geuk prestatua EUSTATen "Udal informazioarekin"

Krisi ekonomikoaren ondorioz, batez besteko **errenta** pertsonalaren **hazkundera** gizon zein emakumeen artean 2009 eta 2011 urteen artean ia nulua izan da. Tolosaren kasuan, %4,2 emakumeentzat eta %3,6 gizonentzat. Hazkundera hori negatiboa da 2006 eta 2009 arteko aldiaren aldean: %25 emakumeen errentarentzat eta %14 gizonenarentzat.

Tolosan **emakumeen errentaren portzentajezko gehikuntza 2006 eta 2011 artean gizonena baino handiagoa izan da** (%30eko gehikuntza emakumeen kasuan eta %18koa gizonen kasuan, baina gehikuntza horrek **ez ditu aldatu dauden aldeak**. Hori **batik bat abiapuntuko egoerari** zor zaio; izan ere, emakumeen errenta gizonenaren zenbatekoaren %52 da 2006an, eta proportzio hori pixka bat aldatu da 2011n %58ra.

2.9 taula: Batez besteko errenta pertsonalaren aldearen bilakaera (2006-2009-2011)

BATEZ BESTEKO ERRENTA PERTSONALA (€)	2006			2009			2011		
	E	G	Ald. (E-G)	E	G	Ald. (E-G)	E	G	Ald. (E-G)
TOLOSA	12.678	24.113	-11.435	15.874	27.517	-11.643	16.548	28.501	-11.953
TOLOSALDEA	11.072	22.535	-11.463	13.946	25.757	-11.811	14.708	26.278	-11.570
GIPUZKOA	12.049	23.219	-11.170	14.811	26.049	-11.238	15.300	25.791	-10.491

Iturria: Geuk prestatua EUSTATen "Udal informazioarekin"

3. LAN ERREPRODUKTIBOA

Kapitulu honetan lan erreproduktiboaren bi alderdi garrantzitsuri helduko zaie. Izan ere, horien karga emakumei dagokie neurri handiengan gaur egun oraindik. **Gure sistema ekonomikoa sostengatzen duen lan hori ordaindu gabe egiten da batik bat, eta ondorio garrantzitsuak ditu gure bizitza esparru guztietan.**

Analisi-esparru honen alderdi guztiak barnean hartzeko asmorik gabe, **denboraren erabilerei buruzko EUSTATen datu berri batzuen** balorazio labor bat egingo dugu, eta gero Gipuzkoako Foru Aldunditik zein Udaleko Oinarrizko Gizarte Zerbitzuetatik eta EUSTATetik igorri zaigun **mendekotasunaren arretarako baliabideei** buruzko informazioaren tratamenduan jarriko dugu arreta.

3.1 taula: Batez besteko denbora parte-hartzailearen, jardueraren, egunaren eta sexuaren arabera (1. zatia) 2013

		Guztira EAE								
		Gipuzkoa						Tolosaldea		
		Guztira	sexua gizona	emakumea	Guztira	sexua gizona	emakumea	Guztira	sexua gizona	emakumea
Eginkari fisiologikoak	Guztira	11:56	11:53	11:59	11:53	11:44	12:02	11:46	11:33	11:55
	Lan	11:31	11:24	11:37	11:31	11:14	11:47	11:17	10:38	11:38
	Or	11:42	11:43	11:42	11:34	11:32	11:36	12:01	12:04	11:58
	Lr	12:45	12:47	12:44	12:35	12:39	12:32	12:33	12:16	12:49
	Ig	13:01	13:04	12:58	12:58	12:57	13:00	12:43	12:52	12:32
Lan prof. eta prestakuntza	Guztira	06:46	07:13	06:15	06:35	06:59	06:07	06:29	07:33	05:39
	Lan	06:59	07:29	06:24	06:47	07:14	06:15	06:47	08:20	05:48
	Or	06:49	07:05	06:32	06:39	07:09	06:04	06:06	07:20	04:48
	Lr	05:19	05:31	05:08	04:54	04:37	05:11	04:03	03:27	05:35
	Ig	05:32	05:58	05:03	05:40	05:49	05:27	07:59	09:25	06:23
Etxeko lanak	Guztira	02:45	01:59	03:23	02:39	01:57	03:14	02:32	01:50	03:01
	Lan	02:46	01:58	03:24	02:39	01:58	03:14	02:28	01:48	02:49
	Or	02:45	01:56	03:24	02:35	01:43	03:18	02:47	01:47	03:41
	Lr	03:00	02:18	03:36	03:01	02:21	03:34	03:05	02:11	03:46
	Ig	02:28	01:45	03:03	02:21	01:45	02:51	02:00	01:40	02:24
Pertsonen zaintzak etxean	Guztira	02:00	01:47	02:08	02:00	01:37	02:14	02:04	01:13	02:39
	Lan	01:57	01:35	02:10	02:03	01:28	02:23	02:10	00:52	02:58
	Or	02:03	01:49	02:14	01:53	01:24	02:14	01:38	01:49	01:29
	Lr	01:59	01:54	02:02	01:53	01:48	01:56	01:44	01:23	02:09
	Ig	02:14	02:29	02:05	01:59	02:13	01:50	02:16	03:33	01:42

Iturria: EUSTAT

3. LAN ERREPRODUKTIBOA

3.1 taulan, 2013an jardueraren, sexuaren eta lurraldearen arabera batez besteko denborari dagokionez, hauxe ikusten da:

- ✓ **Eginkari fisiologikoak** estaltzea da eguneroko arduraldi handiena duen jarduera-tipologia, gainerako jarduerekin konparatzen badugu. Horrela, EAEn dagokion batez bestekoa 11:56 ordukoa da, 11:53 Gipuzkoarentzat eta 11:46 Tolosarentzat. Sexuaren arabera, emakumeek gizonek baino denbora gehiago erabiltzen dute beren eginkari fisiologikoak estaltzeko, eta Tolosan ikusten da alderik handiena: gizonek 11,33 ordu erabiltzen dute batez beste egunero, eta emakumeek 11,55 batez beste.
- ✓ Azpimarratu nahi dugu asteburuko egunetan eta, batik bat, igandeetan, igoera bat ikusten dela jarduera horretarako erabiltzen diren orduetan hiru lurraldeetan, baina EAEn erregistratu da batez bestekorik handiena (13,01 ordu). Hala ere, zehaztu behar da asteburuko egunetan, indizeak alderantzikatu egiten direla. Izan ere, **igandeetan, Tolosan, emakumeek 12:32 ordu erabiltzen dituzte batez beste beren eginkari fisiologikoak estaltzeko; gizonek, berriz, 12:52 ordu.**
- ✓ Bigarrenik, ikusten dugu pertsonak 6:30 ordu behar dituztela egunero batez beste jarduera profesionalak eta prestakuntzakoak egiteko, eta EAEn erregistratzen da denborarik luzeena (06:46 ordu). Sexuaren arabera, azpimarratu behar da **gizonek emakumeek baino denbora gehiago behar dutela jarduera mota horretarako, eta hor ikusten dira alderik adierazgarrienak: emakumeek 05:39 ordu behar dituzte egunero batez beste prestakuntza-jardueretarako eta profesioletarako; gizonek, berriz, 07:33 ordu.**
- ✓ Egunen arabera, nabarmendu behar dugu Tolosan, **aldeak handitu egiten direla asteburuan eta bereziki igandeetan: emakumeek 06.23 ordu behar dituzte jarduera mota horretarako; gizonek, berriz, 09:25 ordu.**
- ✓ **Etxeko lanak egiteari** dagokionez, adierazi behar dugu batez besteko denbora 02:45 ordukoa dela egunero EAEn, 02:39 Gipuzkoan eta 02:32 Tolosan. **Emakumeek denbora gehiago erabiltzen dute jarduera mota hori egiteko hiru lurraldeetan, baina EAEn ikusten dira alderik adierazgarrienak, emakumeek batez beste ordu bate eta 24 minutu gehiago behar dutelako gizonek baino etxeko lanak egiteko.**
- ✓ Azkenik, **etxeko pertsonak zaintzeari** dagokionez, berriz ikusten dugu **emakumeek gehiago arduratzen direla jarduera horretaz.** Eguneroko batez bestekoa 02:00 orduetan dago **hiru lurraldeetan, baina Tolosan ikusten da tarterik handiena, gizonek 01:13 ordu erabiltzen dituztelako zaintze-lanetarako, eta emakumeek 02:39 ordu.**
- ✓ Komeni da zehaztea igandeetan zaintze-lanetarako erabiltzen den batez besteko denborak gora egiten duela lanegunekin konparatzen badugu, baina kasu honetan, **gizonek hartzen dute gehiago karga beren gain.** Adibidez, **igandeetan Tolosan, gizonek 03:33 ordu erabiltzen dute batez beste jarduera horretarako, eta emakumeek 01:42 ordu.**

3. LAN ERREPRODUKTIBOA

3.2 irudia: Batez besteko denbora parte-hartzailearen, jardueraren, egunaren eta sexuaren arabera (2. zatia) 2013

		Guztira EAE			Gipuzkoa			Tolosaldea		
		Guztira	sexua	emakumea	Guztira	sexua	emakumea	Guztira	sexua	emakumea
			gizona			gizona			gizona	
Bizitza soziala	Guztira	01:34	01:36	01:33	01:31	01:32	01:30	01:20	01:14	01:25
	Lan	01:22	01:24	01:20	01:17	01:20	01:15	01:03	00:54	01:08
	Or	01:28	01:23	01:32	01:22	01:15	01:29	01:19	00:51	01:41
	Lr	01:59	02:07	01:49	01:56	02:06	01:45	01:47	01:52	01:43
	Ig	01:55	01:52	01:57	01:56	01:48	02:03	01:52	01:50	01:56
Aisialdi aktiboa eta kirolak	Guztira	02:17	02:29	02:02	02:19	02:31	02:05	02:04	01:57	02:11
	Lan	02:08	02:19	01:54	02:11	02:22	01:59	01:47	01:23	02:10
	Or	02:13	02:30	01:55	02:16	02:35	01:56	01:55	02:05	01:47
	Lr	02:34	02:47	02:21	02:31	02:44	02:16	02:22	02:45	01:59
	Ig	02:35	02:51	02:17	02:36	02:49	02:21	02:55	02:42	03:25
Aisialdi pasiboa eta zaletasunak	Guztira	03:10	03:16	03:04	03:07	03:14	03:00	03:02	03:12	02:55
	Lan	03:01	03:04	02:59	02:55	03:01	02:49	02:51	03:14	02:37
	Or	02:58	03:01	02:56	03:02	03:01	03:04	03:02	02:32	03:28
	Lr	03:21	03:34	03:08	03:30	03:38	03:21	03:13	03:36	02:52
	Ig	03:42	03:59	03:26	03:38	03:57	03:21	03:37	03:27	03:52
Ibilbideak	Guztira	01:22	01:26	01:18	01:30	01:36	01:24	01:33	01:42	01:26
	Lan	01:23	01:27	01:19	01:31	01:36	01:25	01:35	01:37	01:33
	Or	01:29	01:37	01:21	01:37	01:44	01:29	01:45	02:00	01:28
	Lr	01:18	01:21	01:16	01:28	01:37	01:20	01:31	02:05	01:00
	Ig	01:12	01:14	01:11	01:23	01:25	01:20	01:18	01:17	01:18

Iturria: EUSTAT

3. LAN ERREPRODUKTIBOA

- ✓ **Aisialdi pasiboaren eta zaletasunen** jardueri dagokionez, egunero 03:05 orduko batez bestekoa ikusten da hiru lurraldeetan, **baina Tolosan eskaintzen zaie denbora gutxien (03:02 ordu)**. Sexuaren arabera, denbora gehiago erabiltzen dute jarduera mota horretarako gizonak: Tolosako kasu espezifikoan, gizonak 03:13 ordu erabiltzen dituzte egunero, eta emakumeek, 02:55 ordu. Oro har, azpimarratu nahi dugu **tartea handitu egiten dela asteburuko egunetan Gipuzkoan zein EAEn, baina Tolosan kontrakoa gertatzen da, emakumeek 25 minutu gehiago erabiltzen baitituzte gizonak baino aisialdi pasiborako eta beren zaletasunetarako.**
- ✓ **Aisialdi aktiboaren eta kirolaren** jardueri dagokionez, **gizonak aritzen dira berriz ere gehienbat jarduera mota** horretan, baina alderik handiena EAEn dago, eta txikiena, Tolosan. Asteburuetan zehar eta bereziki igandeetan, jarduera horiei eskainitako batez besteko denborak gora egiten du hiru lurraldeetan, baina Gipuzkoan zein EAEn, gizonen kolektiboak eskaintzen die denbora gehiago horiei. Baina **Tolosan kontrakoa gertatzen da, emakumeek 03:52 ordu eskaintzen baitizkiete batez beste; gizonak, berriz, 02:42 ordu batez beste.**
- ✓ **Bizitza sozialari** dagokionez, gizonak egunero batez beste denbora gehiago eskaintzen duten arren Gipuzkoan zein EAEn, **zifrak berdintsuagoak dira gainerako jardueretan**. Tolosan beste portaera bat ikusten da, kasu honetan **emakumeek eskaintzen baitiote denbora gehiago bizitza sozialari** (01:25 ordu, eta gizonak 01:14 ordu). Gainerako jardueretan bezala, denborak gora egiten du asteburuan. **Igandeetan, orokorrean, bizitza sozialerako denbora gehiago izaten dute emakumeek.**
- ✓ Azkenik, eta **bidea egiteko erabiltzen den denborari** dagokionez, gizonak denbora gehiago erabiltzen dute mugitzeko, baina bizitza sozialaren kasuan bezala, **tartea txikitu egiten da gainerako jarduerekin konparatzen badugu**. Asteburuetan, orokorrean, gizonak zein emakumeek denbora gutxiago behar dute mugitzeko, baina egun horietan, **gizonak gehiago mugitzen dira emakumeak baino.**

Udalaren Gizarte Zerbitzuek arduradun tekniko bat, hiru gizarte-langile, gizarteratzeko teknikari bat eta hiru administrari dituzte. Kanpo-kontratazioaren bidez, badituzte bi gizarte-hezitzaile ere, gazteei eta nerabeei zuzendutako programan lan egiten dutenak ingurune irekiko gizarte-hezkuntzako esku-hartzean, koordinatzaile batekin eta etxez etxeko laguntza-programako 40 laguntzaile ingururekin, denak emakumeak.

PERTSONAK ZAINTEKO BALIABIDEAK ETA ZERBITZUAK

Pertsonak zaintzeko baliabideak eta erakunde-zerbitzuak honetan oinarrituta sailkatzen dira:

a) PERTSONA DESGAITUEI EDO MENDEKOTASUN EGOERAN DAUDENEI AUTONOMIA PERTSONALA ETA IRISGARRITASUNA ERRAZTEKO BALIABIDEAK

Laguntza teknikoak: Laguntza teknikoak beharrezko laguntza eta laguntza-produktu gisa daude eraturta, mendeko pertsonak edo nolabaiteko desgaitasuna dutenak beren laguntza-premiak estal ditzaten eta gutxituta ikus ditzaten beren arazoak, gizartean gainerako herritarren berdintasun-baldintza beretan molda daitezen. Besteak beste, pertsona desgaituen edo mendekotasun-egoeran daudenen ohiko bizilekuan egotea errazteko, laguntza teknikoak ezartzen dira, laguntza ekonomiko gisa eta/edo laguntza-produktuak lagata.

b) PERTSONA ADINDUAK ETA/EDO DESGAITUAK INGURUNEAN MANTENTZERA ZUZENDUTAKO BALIABIDEAK

- ✓ **Etxez etxeko laguntza-zerbitzua (ELZ):** Gizarte-izaerako zerbitzu publikoa, beren kabuz moldatzeko edo familia-nukleoa osorik izateko arazoak dituzten familiei edo pertsonari zuzendutakoa, beren ongizate fisikoa, psikikoa eta/edo soziala leheneratzeko, prebentziozko, laguntzako eta/edo birgaitzeko programa indibidualizatu baten bidez, ahal den artean beren etxean bizi daitezen lagunduta.
- ✓ **Eguneko zentroak:** Eguneroko jarduerak egiteko beste pertsona batzuen laguntza behar duten pertsona adinduei eta egoera pertsonalengatik kolektibo horren antzekoak izan daitezkeenei eguneko arreta indibidualizatuko programa bat eskaintzen dieten etxeak, horretara bideratutako espazio eta instalazio batzuetan, eta jarduketa-programa propio batzuekin.
- ✓ **Telelaguntza:** Gizarte-izaerako zerbitzu tekniko bat da, erabiltzaileei harremanetan jartzeko aukera ematen diena, telefono-linearen bidez eta komunikazio-ekipamendu eta ekipamendu informatiko espezifikoko batekin, sortutako larrialdi-egoerari edo gizarte-premiari erantzuteko berariaz prestatutako langileek zuzendutako zentro batekin, bai bere kabuz, bai beste baliabide komunitario batzuk mobilizatuta.

c) PERTSONA ADINDU ETA DESGAIUENTZAT BIZIKIDETZA AUKERAK AHALBIDETZEN DITUZTEN BALIABIDEAK

Egoitza-zerbitzuak: Ordain ekonomikoaren bidez pertsona adinduei eta egoera pertsonal eta sozialengatik kolektibo horren antzekoak izan daitezkeenei ostatu, mantenua eta arreta eskaintzen dizkieten etxeak dira.

d) PERTSONA ZAINZAILEEI LAGUNTZEKO BALIABIDEAK

Sendian programa: Programa honek desagertzeko bokazioa du, Euskal Autonomia Erkidegoko Gizarte Zerbitzuei buruzko Legean pertsona zaintzaileei laguntzeko aurreikusitako eskumenen transferentziak eraginkor egitea lortzen den neurrian. Baina oraingoz Matia Fundazioak bere gain hartzen duen kanpo-kudeaketa baten bidez eusten zaio programari.

SENDIAN programa bere garaian jaio zen etxean mendeko pertsonen zainketa beren gain hartzen duten familien premiak asetzeko. Horretarako, zenbait laguntza-baliabide garatzen ditu, orokorrean zaintzaileengan eragina duten desoreka pertsonalak eta familia-desmoldaerak arintzeko, eta pertsona adinduari arreta hobea eskaintzeko. Gaur egun, **programa honek eskainitako baliabide nagusiak** hauek dira:

- ✓ **Familia-prestakuntza:** Mintzaldi batzuen bidez, pertsona zaintzaileei behar diren ezaguerak eskaini nahi zaizkie, arreta hobea emateko lagungarri izango zaizkienak, eta aldi berean segurtasun eta konfiantza handiagoa emango dietenak.
- ✓ **Laguntza psikologikoa:** Laguntza psikologikoarekin, egoera berri eta aldakorrari aurre egiteko eta horretara hobeto egokitzeko lagungarri izango den tratamendu bat jasotzeko aukera eskaintzen da, kontuan izanik batzuetan zer estres- eta larritasun-sentimendu sortzen diren. Laguntza hau mendeko pertsona adinduengana zein beren familietara zabaltzen da.
- ✓ **Autolaguntzako taldeak:** Autolaguntzaren oinarria da egoera berean daudenekin antzeko esperientziak eta problematikak konpartitzeak dakarren onura, eta gainera aurkitu dituzten hobekuntzak trukatzeko aukera izatea. Autolaguntzako taldeak sortzen dira antzeko egoerak bizi dituzten familien artean. Laguntza-terapia modukoak dira eta lankidetzara errazten dute.
- ✓ **Asteburuko atsedena:** Asteburuan egonaldiak eskaintzen dira Eguneko Zentroetan mendeko pertsona adinduentzat, familiek aisialdia izan dezaten beren konpromiso eta zereginetarako.
- ✓ **Atsedeen luzea:** Pertsona adinduak hamabost egunez edo hilabetez egoitza batean hartzeko aukera eskaintzen da, familiak atsedenaldirik izan dezaten eta bere zereginak bete ditzaten.
- ✓ **Boluntarioria:** Zaintzaileei egindako bisitak edo une zehatz batean ordezkatzeko oso lagungarriak dira familia-bizikidetzarako. Helburua da lehendik dauden boluntarioria-taldeak koordinatzea eta familia horietara hurbiltzea, kideek laguntza eta lasaialdia izan ditzaten une zehatzetan.
- ✓ **Zerga-salbuespenak:** Familiei aholkua ematen zaie zer zerga-salbuespen espezifiko izan dezaketen jakin dezaten, eta horien tramitazioan laguntzen zaie. Halaber, erakunde eskudunen aurrean mendekotasun-egoerak aurreikusiko dituen zerga-araudi bat garatzea bultzatu nahi da.

e) Prestazio ekonomikoak

Familia-inguruneko zaintzarako prestazio ekonomikoa (PECE): Mendeko pertsona bere familia-inguruneko zaintzaile ez-profesionalek zaintzera bideratua.

Laguntza pertsonalerako prestazio ekonomikoa (PEAP): Mendekotasun handiko pertsoneri hezkuntzarako eta/edo lanerako sarbidea eta eguneroko oinarrizko jardueretan autonomia handiagoa erraztuko dien laguntzaile pertsonal bat kontratatuz bideratua.


Zerbitzuari lotutako prestazio ekonomikoa (PEVS): Mendekotasuna duen pertsonari arreta eta zaintza emateko zerbitzu bat bereziki eskuratzera bideratua. Prestazio hau onartuko da ezarritako eskakizunak beterik zerbitzu publiko edo itundu batean ezin sartu izan denean soilik.

MENDEKOTASUN GAIETAKO GIZARTE ZERBITZUEN ZORROARI LOTUTAKO BALIABIDEEN ERABILERA

Mendekotasunaren balorazioak

2009an, 2011n eta 2013an **mendekotasunaren 1.139 balorazio** egin zitzaizkien Tolosan erroldatutako pertsoneri. Horien %39 2009an egin ziren, %38 2011n eta %23 2013an. Urtero balorazio gehiago egin zaizkie emakumeei gizonen baino, eta azken hiru urteetan antzeko proportzioa izan da – hiru urteetan, gutxi gorabehera balorazioen %61 emakumeei egin zaizkie–.


3.1 irudia: Mendekotasunaren balorazioak (guztizkoak) Tolosa



Iturria: Geuk prestatua GFAk emandako datuekin

Egindako balorazioekin esleitutako graduak analizatzean, 0. graduaren gutxitze bat ikusten da gizonen zein emakumeei egindako balorazioetan –guztizko zenbakietan, 2009an 0. graduko 46 emakumetik 2013an 15era igaro dira, eta 2009an 36 gizonetik 2013an 12ra–. Mendekotasun-gradurik handiena ere, 3.a, gutxitu egin da, baina neurri handiagoan gizonen artean (7 puntu gutxitu da 2009tik). Aldaketa horiekin batera, tarteko graduak (1.a eta 2.a) gehitu egin dira, eta 1. gradua nabarmentzen da emakumeen artean; gizonen artean, berriz, 1. eta 2. gradua berdin geratzen dira proportzioan.

3.2 irudia.: Mendekotasun gradua – Tolosa (2009-2011-2013)




Iturria: Geuk prestatua GFAk emandako datuekin

3. LAN ERREPRODUKTIBOA

Emakume gehiago egotea gizonak baino, adinari dagokionez jarraian ikusiko dugun joera bezala, errepikatu egiten da zaintzak behar dituzten pertsonen zuzendutako zerbitzu gehienetan. Balorazioak egin zaizkien pertsonen adinaren kasuan, emakume eta gizonen proportzioa alderantzikatu egiten da adina gora doan heinean. Hau da, bai guztizko zenbakietan, bai proportzioan, gizon gehiago daude emakumeak baino adin txikiagoko pertsonen artean, baina adina gora doan heinean, gizon gutxiago daude eta emakume gehiago. Egoera hori lotuta dago emakumeen bizi-itxaropen handiagotari. Populazioaren egitura ikusten da hori eta zuzeneko eragina du zaintza-zerbitzu guztietan.

3.3 irudia: Mendekotasunaren balorazioak Tolosan adin-tarteen arabera




Iturria: Geuk prestatua GFAk emandako datuekin

Desgaitasun erregistratua duten pertsonak

Gipuzkoako Foru Aldundiaren Minusbaliotasuna duten Pertsonen Erroldako datuen arabera, desgaitasun erregistratua (%33koa edo gehiago) duten pertsonen kopurua 1.473koa zen 2010ean eta 1.530koa 2013an. Bi kasuetan desgaitasun erregistratua duten emakumeen proportzioa %45 ingurukoa da – zehazki, %45,8 2010ean eta %44,97 2013an. Datu horiek desgaitasunaren %70,3ko (%) nagusitasuna erakusten dute emakumeen artean, eta 93koa gizonen artean 2010ean. 2013an, datuak antzekoak dira: 72 emakumeen artean eta 91,5 gizonen artean. Beraz, **desgaitasun erregistratuak eragin handiagoa du gizonen artean emakumeen artean baino** (mendekotasunari lotutako gainerako zerbitzuetan gertatzen ez den bezala: emakumeen bizi-itxaropen handiagoa dela bide, horien presentzia handiagoa dago zerbitzuen onuradunen artean). Adinari dagokionez, nabarmendu behar da 18 eta 64 urte arteko eta 65 eta gehiagoko adin-tarteek biltzen dutela desgaitasun erregistratua duten pertsonen %98, eta bi tarteetan ez dago alde oso adierazgarririk: 2010ean, %46,73 18 eta 64 urte arteko tarteetan dago eta %51,57 65 eta gehiagoko tarteetan, 2013an %50,24 eta %48,07, hurrenez hurren.

Azkenik, mendekotasunari lotutako zerbitzuetan errepikatzen den beste joera bat –eta 2009an, 2011n eta 2013an egindako balorazioetan ikusten dena– da **beste herrialde batzuetatik datozen pertsonen presentzia txikia**. Horri dagokionez, nazionalitateari buruzko datuek erakusten dute egindako balorazioen 98,9 nazionalitate espainoleko pertsonenak direla.

3.4 irudia: Desgaitasun erregistratua Tolosan




Iturria: Geuk prestatua GFAk emandako datuekin eta behagi.net helbidean lortutakoekin


Prestazio ekonomikoak: PECE, PEAP ETA PEVS

Lehenago esan bezala, gaur egun hiru **prestazio ekonomiko** mota daude eta **jarraian** analizatuko ditugu 2009ko eta 2011ko abenduari buruzko datuak eta txosten honetarako lortu ziren berrienak, hots, 2014ko abuztukoak. Taula hauetan ikusten den bezala, **PECE da, alde handiz, onuradun gehien dituen prestazioa** hiru kasuetan. **Hala ere, 2014ko abuztuan, PECEaren proportzioa laguntza guztiekiko txikitu egiten da** 2009ri eta 2011ri dagokionez. Hau da, 2009an zein 2011n, PECEa prestazio ekonomiko guztien %90 zen eta 2014ko abuztuan guztizkoaren %77 dira. **Jaitsiera horrekin batera, PEAParen igoera bat dago:** 2009an eta 2011n %10etik eta %9tik 2014ko abuztuan guztizkoaren %22 izatera igaro da prestazio hori. Joera horrek Gipuzkoako Foru Aldundiaren egungo politika erakusten du: ikusirik familia askok PECEaren diruaren zati bat bestela ezin ordainduko luketen laguntza profesional bat kontratatzeko erabiltzen dutela benetan, nahiago du horrelako kontratazioak esparru ofizialago batean sartu eta familiaren eta zaintzaile profesionalaren artean zerbitzu-kontratu bat sinatzea behar duen Laguntza Pertsonalerako Prestazio Ekonomikoa eman.


3.5 irudia: Prestazioak - Tolosa 2010



3.6 irudia: Prestazioak - Tolosa 2011



3.7 irudia: Prestazioak - Tolosa 2014



Iturria: Geuk prestatua GFAk emandako datuekin

- ✓ Sexuari dagokionez, **prestazio guztietan emakume onuradunen kopuru handiagoa dago** – %64 2009an eta 2011n eta %63 2014an–. Hala ere, nabarmendu behar da 2014an emakume eta gizonen arteko aldea PECEetan 4 puntu jaitsi dela 2011rekiko. PEAParen igoerak emakumeengan eragin handiagoa duela ere ikusten da eta, beraz, gizon eta emakumeen arteko aldea handitu egiten da kasu honetan.
- ✓ **Erabiltzaileen adinari** dagokionez, joera bera ikusten da 2009an, 2011n eta 2014an, mendekotasunaren balorazioetan aipatutakoaren antzekoa: **pertsona gazteenen artean gizon gehiago daude, eta egoera hori alderantzikatu egiten da adina gora doan heinean.**

3. LAN ERREPRODUKTIBOA

Mendekotasunari lotutako hiru prestazio ekonomikoetara bideratutako aurrekontua analizatzean, adibidez, **PECEari** begiratzen badiogu – aurreko grafikoan ikusi dugun bezala onuradun gehien duen prestazioa da eta, beraz, aurrekontu handienekoa–, ikusten dugu **2011n aurrekontuaren guztizkoa jaisten hasten dela, eta 2013an %12,48 jaitsi dela (2011ren aldean)**. Gizon eta emakume onuradunek jasotzen duten batez bestekoa aldatu egiten da, igoera eta jaitsierekin. Hala ere, 2010 eta 2013 artean, emakumeen batez bestekoa %9,67 jaisten da eta gizonen batez bestekoa %1,72 igotzen da.

Jaitsiera hori konpentsatu egiten da **onuradun gehien duen bigarren prestazioarekin, hots, PEAParekin**. Izan ere, aurreko orrialdean ikusi dugun bezala, horren onuradun kopuru handiena emakumeak dira eta azken urteotan handitu egin da. Hala ere, prestazio horren guztizkoa 100.000 eurotan handitu da 2010 eta 2013an, baina bi sexuek jasotako batez besteko zenbatekoa modu adierazgarrian jaitsi da, batez ere emakume onuradunen kasuan: batez bestekoa %30,2 jaitsi da emakumeen artean, eta %9,8 gizonen artean.

3.3 taula: Tolosa, mendekotasunari lotutako prestazio ekonomikoetan emandako zenbatekoen bilakaera (2010-2013)

PECE	2010	2011	2012	2013
Ordainketak guztira	€1.018.356,54	€1.160.751,34	€1.123.499,99	€1.015.813,44
Emakumeen batez bestekoa	€3.388,76	€2.999,80	€3.126,36	€3.060,87
Gizonen batez bestekoa	€2.940,11	€2.916,44	€3.068,31	€2.991,96

PEAP	2010	2011	2012	2013
Ordainketak guztira	€ 236.919,06	€ 250.760,46	€ 255.265,15	€ 336.955,23
Emakumeen batez bestekoa	€ 6.073,13	€ 6.147,48	€ 5.820,91	€ 4.238,09
Gizonen batez bestekoa	€ 5.527,12	€ 5.575,66	€ 4.987,79	€ 3.936,67

PEVS	2010	2011	2012	2013
Ordainketak guztira	€1.938,96	€26.703,06	€20.903,99	€35.751,47
Emakumeen batez bestekoa	€1.313,49	€2.736,20	€2.285,05	€4.394,97
Gizonen batez bestekoa	€625,47	€1.579,79	€1.579,79	€1.876,33

Azkenik, PEVS, onuradun gutxien –eta beraz aurrekontu txikiena– duen prestazio ekonomikoa, handitu egiten da proportzioan, bai guztizkoan, bai sexuaren arabera batez besteko zenbatekoan, emakumeen batez bestekoaren %235eko eta gizonenaren %200eko igoerarekin. Beste bi prestazioetan ez bezala, kasu honetan aldea handiagoa da emakumeen alde.


Iturria: Geuk prestatua GFAk emandako datuekin

3. LAN ERREPRODUKTIBOA


2009an, 2011n eta 2014an, familia-inguruneke zaintzailearen sexuari eta adinari buruzko datuak antzekoak dira (PECE jasotzen duten familietan). Hau da, **zaintzaile gehienak emakumeak dira eta horien proportzioa handitu egin da azken urteotan** (%64 2009an eta %74 2011n eta 2014an). Adin-tarte guztietan emakume gehiago daude gizonak baino, eta 26 eta 60 urte arteko adin-tartean dago zaintzaile gehien.

Nabarmendu behar da adineko zaintzaile kopuru adierazgarria dagoela, hots, 61 eta 85 urte arteko zaintzaileak guztizkoaren %33 dira 2009an, %37 2011n, eta %41 2014an. Beraz, ikusten dugu **zaintzaileen zati handi bat beraien zaintzak behar izateko eta jasotzeko adinean dauden pertsonak direla**, osasun pertsonala okerrera doan heinean, eta jakinik egiten duten zaintza-lan intentsiboak are gehiago okertzen duela osasun fisikoa eta psikikoa.

3.8 irudia: Tolosako familia-inguruneke zaintzaileen sexu/adina 2009




3.9 irudia: Tolosako familia-inguruneke zaintzaileen sexu/adina 2011



Iturria: Geuk prestatua GFAk emandako datuekin

3.10 irudia: Tolosako familia-inguruneke zaintzaileen sexu/adina 2014



- ✓ **Familia-inguruneke zaintzailearen lotura nagusia alaba edo semea da** –2009an emakume zaintzaileen %46 eta gizon zaintzaileen %47, 2011n emakume eta gizon zaintzaileen %45 eta 2014an emakume zaintzaileen %42 eta gizon zaintzaileen %39–.
- ✓ **Bigarren lotura nagusia ezkontidea da emakume zein gizonen artean:** 2009 eta 2014 artean 6 puntu handitu da, eta emakume zaintzaile guztien %24ra iristen da, eta gizonena 10 puntu

handitzen da, gizon zaintzaileen guztizkoaren %30 izateraino.

- ✓ Azkenik, **persona zaintzaileen kopuru handiena biltzen duen hirugarren lotura ama edo aita da**, eta emakumeen artean, 2009ko %15etik 2014ko %14ra igaro da; gizonen artean, berriz, 2009ko %10etik 2014ko %13ra.

3. LAN ERREPRODUKTIBOA

Prestazio ekonomikoei lotuta zaintzak jasotzen dituzten pertsonen nazionalitateari dagokionez, berriz ikusten dugu nazionalitate espainoleko pertsonen gehiengo handi bat: %99,3 2009an, %98,6 2011n eta guztizkoaren %98,6 2014ko abuztuan.


2010ean, 2011n eta 2014ko abuztuan prestazio ekonomikoak jaso dituzten pertsonen mendekotasunaren graduari eta mailari dagokionez, hauxe ikusten da:

- ✓ Emakumeen artean, proportzioan, gradurik ordezkatuena 3. graduaren 1. maila da mendekotasunaren balorazio-escalan. Hala ere, 2009tik 16 puntuko jaitsiera ikusten da (2009ko %47tik 2014ko %31 izatera igarota).
- ✓ Prestazioa jasotzen duten emakumeen proportzioan ere 11 puntuko jaitsiera dago baloratutako mendekotasun-mailan kokatzen direnean, hots, 3. graduaren 1. mailan (%24tik %13ra igarotzen dira).
- ✓ Jaitsiera horiek gradu txikienen igoera proportzional bat ekarri dute, batik bat 1. graduaren 2. mailan (%0tik %16ra igarotzen dena) eta 2. graduaren 1. mailan (%16tik %26ra).
- ✓ Gizonen artean ere aldaketak izan dira, goiko graduetan (3. graduaren 1. eta 2. mailetan) jaitsiera proportzional bat ekarri dutenak, eta horien artean 2. graduaren 1. maila da ordezkatuena 2014an.


Bilakaera horren analisia egiteko, bi fenomeno azpimarratu behar dira:

- ✓ Batetik, **prestazioak gradu guztien artean berriz orekatzeak** ez du esan nahi mendekotasun handieneko kasuak gutxitzen ari direnik, baizik **azken urteotan mendekotasun-maila txikiagoa duten pertsonak sartu direla laguntza ekonomikoen sisteman**, estatuko legea pixkanaka aplikatzeko eta hori foru-aldundietara helarazteko plangintzaren arabera.
- ✓ Bestetik, badirudi bizi-itxaropen laburragoak eragina izan dezakeela gizonek 3. graduko PECE nabarmen gutxiago jasotzeko emakumeek baino, baina alde horiek sakonago aztertzea komeniko litzateke.


3.11 irudia: Prestazioen gradu/maila – Tolosa, 2010



3.12 irudia: Prestazioen gradu/maila – Tolosa, 2011



3.13 irudia: Prestazioen gradu/maila – Tolosa, 2014ko abuztua




Iturria: Geuk prestatua GFAk emandako datuekin

3. LAN ERREPRODUKTIBOA


ELZ – Etxez etxeko laguntza-zerbitzua

ELZri buruzko datuak 2009, 2011 eta 2014ko ekainekoak dira. Horien arabera, erabiltzaileen guztizkoa pixka bat jaisten da: 2009an 150 pertsona dira, 2011n 147 eta 2014ko ekainean 146. Batik bat gizon erabiltzaileen kopurua jaitsi da, 2009an 47 izatetik 1014an 40ra igaro dena. Aldiz, emakumeen guztizkoa ez da aldatzen ia –108 2009an eta 106 2014an–. Oro har, joera bera aurkitzen dugu berriz gizon eta emakume onuradunen kantitatean, hots, emakumeen proportzio handiagoa hiru urteetan. Kasu honetan, gainera, gizon eta emakumeen arteko aldea handiagoa da eta gora doa 2009tik, eta 2014an soilik dago jaitsiera txiki bat.


3.14 irudia: ELZ sexua – Tolosa 2009



3.15 irudia: ELZ sexua – Tolosa 2011



3.16 irudia: ELZ sexua – Tolosa 2014




Iturria: Geuk prestatua GFAk emandako datuekin

ELZren barruan 2009an, 2011n eta 2013an izan diren altai eta bajei buruzko datuek hau erakusten dute, batetik :

- ✓ Altak antzeko egon dira hiru urteetan. Zerbitzu gehienetan bezala, emakume kopuru handiagoa dago altetan ere. Gainera, emakumeen artean altak gehitu egin diren bitartean, gizonen artean gutxitu egin dira, horiek ere pixka bat, 2009 eta 2013 artean.

- ✓ Bajetan aldaketa gehiago daude : guztira, 39 baja 2009an, 44 2011n eta 34 2013an. Gizonen zein emakumeen artean, bajaren arrazoi nagusia “beste bat” da (eta horrek ez du nahikoa informaziorik ematen balorazioa egiteko), eta gero “heriotza . la ez dago borondatezko bajaran hiru urte horietan eta ez dago lekualdatzerik beste egoitza batera.


3.17 irudia: Altak ELZn – Tolosa 2009, 2011 eta 2013



Altak 2009 Altak 2011 Altak 2013

Iturria: Geuk prestatua GFAk emandako datuekin

3.17 irudia: Bajak ELZn – Tolosa 2009, 2011 eta 2013




Bajak 2009 Bajak 2011 Bajak 2013

Iturria: Geuk prestatua GFAk emandako datuekin

3. LAN ERREPRODUKTIBOA

3.18 irudia: Prestazioen gradu/maila




Iturria: Geuk prestatua GFAk emandako datuekin

Graduaren eta mailaren datuak analizatzen baditugu, ehuneko handia ikusten dugu ELZren “0. graduaren” emakume eta gizon onuradunen artean. Ehuneko hori handitu egiten da, eta ELZren gizon onuradunen %45era eta emakume onuradunen %5,8ra iristen da 2014an. Aldi berean, 2. eta 3. gradua jaitsi egiten dira bi sexuetan. 1. gradua ere igo egiten da, batik bat emakumeen artean (bai 1. mailan, bai 2.ean). Beraz, beheko graduak igotzen dira, goikoak jaitsi egiten diren bitartean.

ELZren onuradunen nazionalitateari buruzko datuek pertsona gehien nazionalitatea espainola dela erakusten dute –gutzizkoaren %98,1 2009an, %96,6 2011n eta %97,9 2014an–. Beste nazionalitate bat duten pertsona guztiak emakumeak dira (3 2009an, 5 2011n eta 3 2014an).

3.19 irudia: ELZren erabilera sexuaren eta adinaren arabera – Tolosa 2014



Iturria: Geuk prestatua GFAk emandako datuekin

ELZren erabiltzaileen adinari dagokionez, gizon gehiago ditugu berriz adin-tarte txikienetan eta emakume gehiago adin-tarte handienetan.


Laguntza teknikoak

Emandako laguntza teknikoen gutzitza nabarmen jaitsi da 2011tik aurrera, 2009an 899 laguntza tekniko eman zirelako, 1.045 2011n, baina soilik 344 2013an.

Jaitsiera horrek eragin handiagoa du emakume onuradunen artean, 2011n emakumeei emandako 739 laguntzatatik 2013an 149ra jaitsi baitira –eta datu horiek emakumeei zuzendutako laguntzen %80 jaitea adierazten dute–. Gizon onuradunen artean, laguntzen jaitsiera 36koa da –2011ko 306 laguntzatatik 2013ko 195era–.


Adierazi behar da laguntza kopurua ez datorrela bat onuradunen kopuruarekin, pertsona bakoitzak laguntza bat baino gehiago jaso ditzakeelako. Hala ere, ikusten da proportzioa sexuari dagokionez alderantzikatu egiten dela 2013an. Hots, mendekotasunari lotutako zerbitzu gehienetan ez bezala, **gizonak onuradunak diren laguntzen proportzioa** handiagoa da onuradunak emakumeak direnena baino.

3.21 irudia: Laguntza teknikoen motak – 2009, 2011 eta 2013



Iturria: Geuk prestatua GFAk emandako datuekin

3.20 irudia: Laguntza teknikoak sexuaren arabera – Tolosa (2009-2011-2014)



Iturria: Geuk prestatua GFAk emandako datuekin


Emandako laguntza teknikoen motari dagokionez:

- ✓ 2013 arte gehienak pertsonak beren etxean atsedeen hartzeko, mobilizatzeko eta segurtasunerako dira – laguntza horiek %62 jaitsi dira 2011tik 2013ra–.
- ✓ Etxe barruko eta kanpoko mugikortasunerako laguntza teknikoak 2011 arte gehien eman diren bigarrenak izan dira, baina %94 jaitsi dira 2013an.
- ✓ Pertsonen garbitasunerako laguntza teknikoak hirugarren tokitik bigarrenera igaro dira 2013an, baina horiek ere nabarmen jaitsi dira, %50.
- ✓ Azkenik, etxebizitza eskuratzeko eta barne-egokitzapenerako laguntzak dira gutxien eman direnak, eta kasu gutxi dira 2011tik, nahiz eta zaindutako pertsonentzat horiek lortzea ala ez aldea handia izan daitekeen etxe barruko eta kanpoko mugikortasunerako.

3. LAN ERREPRODUKTIBOA

3.22 irudia: Sexua/laguntza mota – Laguntza teknikoak 2009, 2011 eta 2013

Grafiko honetan ikus daitekeenez, 2009 eta 2011 artean laguntza teknikoen igoerak batik bat emakumeen artean du eragina, eta pertsonak beren etxean atseden hartzeko, mobilizatzeko eta segurtasunerako laguntza teknikoetan. Baina 2011 eta 2013 artean, datuak alderantzikatu egiten dira; izan ere, laguntza mota hori jaitسي egin da, batik bat emakumeen artean.




Iturria: Geuk prestatua GFAk emandako datuekin

Eguneko zentroak

Eguneko zentro batera joaten diren Tolosako pertsonen guztizkoa handitu egin da azken urteotan: 2009an eguneko zentro batera joaten ziren 45 pertsona zeuden guztira, 2011n 53 pertsona eta 2014ko irailean, 61. **Urtero emakume gehiago izan dira gizonak baino,** baina 2014an aldea txikitu egin da: 27 emakume eta 18 gizon 2009an, 36 emakume eta 17 gizon 2011n eta 33 emakume eta 18 gizon 2014an.


Pertsona adinduen eguneko zentroek dute Tolosako pertsona kopuru handiena. Zentro horietan eta desgaitasun-zentroetan emakume gehiago daude gizonak baino. Aldiz, **osasun mentaleko zentroetan eta gizarteratzeko zentroetan** (2014an soilik Tolosako pertsonak daude zentro horietako bakoitzean eta denak gizonak dira), gehienak gizonak dira.

3.23 irudia: Eguneko zentroetako erabiltzaileen sexua – Tolosa 2009, 2011 eta 2013



Iturria: Geuk prestatua GFAk emandako datuekin

3.24 irudia: Eguneko zentroetako erabiltzaileen batez besteko adina – Tolosa 2014ko abuztua



Eguneko zentroetara joaten diren pertsonen batez besteko adinari dagokionez, datuak antzekoak dira analizatutako 3 urteetan, eta 2013an, logikoaenez, batez besteko adin handiagoa erakusten dute hirugarren adineko zentroetan osasun mentaleko edo desgaitasunekoetan baino, horietara gazte helduak zein pertsona helduagoak joaten baitira.

Eguneko zentroetara joaten diren pertsonen **nazionalitateari** dagokionez, 2014an **bi gizonek izan ezik, gainerakoek nazionalitate espainola dute.**

Azkenik, Tolosan erroldatutako erabiltzaileak joaten diren **eguneko zentroak non dauden** begiratzen badugu, ikusten dugu azken urteotan **udalerrian bertan kokatutako zentroetara joaten diren pertsonen proportzioa handitzen ari dela**: 2009an, 29 pertsona dira (guztizkoaren %64), 2011n 42 (%79) eta 2014ko irailean 50 pertsona (%82).


Mugitzeko premia handiagoa da desgaitasuna duten pertsonentzako eguneko zentroy edo osasun mentaleko zentroy kasuan, zentro kopuru oso txikia baitago. Pertsonen guztizko kopuru nahiko txikiaz ari gara, baina horien joan-etorriak ahalegin handia dira familientzat, bai kostuaren, bai antolakuntzaren aldetik. Adibidez, 2014an, desgaitasun-zentroetara joaten diren emakumeen %50 (5 guztira) eta gizonen %60 (3 guztira) Tolosatik kanpora joaten dira.

Aldiz, **egoera hobea da pertsona adinduak zaintzen dituzten zentroentzat**; izan ere, 2009an bi emakume izan ezik, Tolosan erroldatutako eta laguntzak jasotzen dituzten gainerako erabiltzaileak udalerrian kokatutako zentroetara joan daitezke.

EGOITZAK

Beste zerbitzu batzuetan ikusitako joerari jarraituz, **egoitzetara joaten diren pertsonen kopurua handitu egin da 2009 eta 2011 artean, baina jaitsi egin da 2011tik 2014ko iraileira**: 45 pertsona 2009an, 204 2011n eta 181 2014an. Sexuari dagokionez, emakume kopuru handiagoa dago berriz hiru urteetan. Baina kasu honetan ere, 2011tik aurrera neurri handiagoan jaitsi da emakume kopurua –emakume guztien %12 (15 guztira) eta gizonen %10 (8 guztira)–.

3.25 irudia: Erabiltzaileak sexuaren arabera egoitzetan
Tolosa 2009, 2011 eta 2014



Pertsonen batez besteko adina igo egin da hiru urteetan, baina emakumeena pixka bat jaitsi da azken urtean. Berriz ere, emakumeen batez besteko adinak gainditu egiten du gizonena.


3.26 irudia: Batez besteko adina – Egoitzak 2009, 2011 eta 2014




Iturria: Geuk prestatua GFAk emandako datuekin

3. LAN ERREPRODUKTIBOA

3.27 irudia: Sexu/gradua – Egoitzak 2009, 2011 eta 2014



Iturria: Geuk prestatua GFAk emandako datuekin




Iturria: Geuk prestatua GFAk emandako datuekin

Egoitza mota guztien erabilerari dagokionez, eta erreferentzia gisa 2014 hartuta, ikusten da gizonak zein emakumeak batik bat zahar-egoitzetara joaten direla, baina proportzio handiagoa dago gainerako egoitza motetara joaten diren gizonen artean, bereziki osasun mentalaren eta desgaitasunaren kasuan.

Egoitzetara joaten diren pertsonen mendekotasun-mailari dagokionez, emakumeen artean 3. gradua da ordezkatuena; gizonen artean, berriz, ez dago alde adierazgarririk 3. graduaren eta gainerako artean. Aldi berean, emakumeen artean 0. graduaren izan ezik, hori ez baita aldatzen, gainerako graduak igo egiten dira, batik bat 2009tik 2011ra. Gizonen kasuan, 2011tik 2014ra, 2. gradua izan ezik, gainerakoak jaitsi egin dira.

3.28 irudia: Kokalekua – Egoitzak 2009, 2011 eta 2014



Iturria: Geuk prestatua GFAk emandako datuekin

Emakumeen %33k eta gizonen %39k Tolosatik kanpo joan behar du Tolosatik kanpoko egoitza batean sartzeko 2009an. Baina 2011n eta 2014an, mugitzen diren pertsonen kopurua jaitsi egiten da proportzioan, batik bat emakumeen artean, baina adierazgarria da mugitzen diren pertsonen kopurua (33), nahiz eta ez dakigun hori aukera bat den (adibidez, ahaide batengandik hurbil egoteko) ala nahitaezkoa (Tolosan lekurik ez dagoelako).

Sendian programa

2009an emakume bat besterik ez zen joan Sendian programak eskaintako laguntza psikologikora. 2011n 2 gizon eta 2 emakume joan ziren eta 4 gizon 2013an. Hiru urte horietan, emakumeen batez besteko adina 86,6 urtekoa da eta gizonen batez bestekoa, 76,3koa. Autolaguntzako taldeetan emakume bat dago 2011n eta beste bat 2013an. Azkenik, asteburuko atsedeen-zerbitzuan emakume onuradun bat dago 2009 eta 2011n eta 2 emakume 2013an.

UDAL BALIABIDEAK ETA PRESTAZIOAK


Jarraian aurkeztuko ditugun datuak Udalaren Oinarrizko Gizarte Zerbitzuek eman dituzte eta 2013koak dira.

Tutoretzapeko etxebizitzak

Nahikoa autonomia-maila izanik, etxebizitzaren narriaduragatik, bizikidetzaz-araizengatik, bakardade-araizengatik edo beste arrazoi batzuegatik beren etxebizitzan egoteko arazoak dituzten pertsona adinduentzako bizitokiak dira. Tolosan 15 apartamentu daude lagapen-erregimenean eta 7 alokairu-erregimenean.

- ✓ 2013an **18 pertsona zeuden lagapen-erregimeneko tutoretzapeko apartamentuetan, eta horien %61,1 emakumeak ziren (11 guztira) eta %38,9 gizonak (7 guztira)**. Emakumeen batez besteko adina 80,5 urtekoa da eta gizonena, 81,3koa. Beraz, kasu honetan, zaintzak behar dituzten pertsonen zuzendutako zerbitzu gehienetan ez bezala, gizonen batez bestekoa emakumeena baino handiagoa da.

3.30 irudia: Etxearen ezaugarria – Lagapen-erregimeneko tutoretzapeko apartamentuak 2013




- ✓ Etxearen ezaugarri buruzko datuek erakusten dute **lagapen-erregimenean emakume gehiago daudela bakarrik bikotean baino**. Zehazki, emakumeen %73k ez du bikotekiderik; gizonen artean, berriz, 53 daude egoera horretan. Emakumeen bizi-itxaropen handiagoak ere badu eragina alderdi horretan (emakume alargun gehiago daude gizon alargunak baino).
- ✓ **Alokairu-erregimeneko tutoretzapeko apartamentuetan 8 pertsona zeuden 2013an, eta horietatik 7 emakumeak ziren**. Horien batez besteko adina 84,6 urtekoa da, eta zerbitzu horren gizon onuradun bakarraren adina, 78 urtekoa.
- ✓ Mendekotasun-maila arina (1.2) duen emakume bat izan ezik, gainerako 6 **erabiltzaileak autonomoak dira**.
- ✓ Azkenik, pertsona horietako batek ere ez du bikotekiderik.
- ✓ Lagapen-erregimeneko zein alokairu-erregimeneko tutoretzapeko apartamentuetan, erabiltzaileen 100ek **nazionalitate espainola** du.

ELZko erabiltzaileen artean sendagaien erabilera optimizatzeko programa

Programa hau **Tolosako Udalaren** eta Gipuzkoako **Sendagaigileen Elkartearen arteko lankidetzaren** baten bidez gauzatzen da. Haren helburua da sendagaien kontsumoa beren kabuz kudeatzeko arazoak dituzten ELZko erabiltzaileei laguntzea. Ildo horretan, laguntza ematen zaie, beren segurtasuna eta eraginkortasuna indartuta.

3.31 irudia: Sexua – Sendagaien programa 2013



Iturria: Geuk prestatua Udalak emandako datuekin

Programan parte hartzen duten pertsonen mendekotasun-mailari dagokionez, emakumeen artean 1.1 graduak ditu ordezkaririk gehien; gizonen artean, berriz, 0. graduak eta 2.1 graduak. Aldi berean, gradurik handienean (3.1 graduan) emakumeak bakarrik daude.


Azkenik, nazionalitateari buruzko datuek erakusten dutenez, **programa honetan parte hartzen duten pertsonen %100ek nazionalitate espainola dute.**

Ibilgailua aparkatzeko txartela

Mugikortasun murriztua duten pertsonak eskura dezaketenez txartel bat da. Helburua gizarteratzea da, zerbitzu komunitarioetara sarbidea erraztuta. **2013an 426 pertsonak zuten txartel hori, eta horietatik %50,5 emakumeak ziren** (guztira 215 emakume) eta %49,5 gizonak (guztira 211 gizon). **%94k nazionalitate espainola dute**, pertsona batek nazionalitate marokoarra du eta gainerakoak (%5) erkidegoko herrialde batetik datoz – gehienak Portugaldik–.

2013an 20 pertsona ari ziren programa honetan parte hartzen, eta horietatik 15 emakumeak ziren eta 5 gizonak. Batez besteko adina 79 urtekoa da emakumeen artean. Emakume gazteenak 63 urte ditu eta zaharrenek, 93. Gizonen artean ere, batez bestekoa 79 urtekoa da. Gizon gazteenak 59 ditu eta zaharrenek, 89.

3.32 irudia: Gradua – Sendagaien programa 2013



Iturria: Geuk prestatua Udalak emandako datuekin

3. LAN ERREPRODUKTIBOA

Mendekotasuna prebenitzeko programa

70 urtetik gorako pertsoneri zuzendutako udal-programa bat da, eta bere helburua da hor parte hartzen duten pertsonen bizi-kalitatea hobetzea. Programak aisialdi aktibo bat sustatzen du eta mendekotasuna sor dezaketen nahasmenduak prebenitzen ditu.

2013an 12 pertsonak hartu zuten parte, eta denak emakumeak ziren, 76 urteko gizon bat izan ezik. Programan parte hartu zuten emakumeen batez besteko adina 81,4 urtekoa da, eta emakumerik gazteenak 72 urte ditu eta zaharrenak, 92. Emakumeen %73k (guztira 8k) mendekotasuneko 0. gradua du esleituta, 2 emakumek 1.2 gradua dute eta emakume batek 2,2. gradua. Programan parte hartzen duen gizon bakarrak 1.2 gradua du esleituta. Programan parte hartu zuten pertsonen %100ek nazionalitate espainola dute.



IKASTETXEAK

Tolosak ikastetxe sorta zabala du, bai derrigorrezko hezkuntzakoak, bai erdi- eta goi-mailako zikloak eta helduen hezkuntza eskaintzen duten ikastetxeak. Guztira, 13 ikastetxe daude, eta zer hezkuntza mota eta eskaintza egiten duten zehaztuko dugu koadro honetan:

IKASTETXEA	MOTA	HEZKUNTZA ESKAINTZA
Felix M ^a Samaniego-Gorosabel	Publikoa	- Haur Hezkuntzako 2. zikloa - Lehen Hezkuntza
Orixe	Publikoa	- Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza (DBH) eta Batxilergoa
Tolosaldea (Lanbide Heziketa I.)	Publikoa	- Erdi- eta goi-mailako zikloak
Hirukide Gainberri	Pribatua	- Haur Hezkuntzako 1. zikloa - Lehen Hezkuntza
Hirukide Jesuitinak	Pribatua	- Haur Hezkuntzako 2. zikloa - Lehen Hezkuntza
Hirukide Eskolapioak	Pribatua	- Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza (DBH) eta Batxilergoa - Hezkuntza Berezia
Tolosako Haurreskola	Publikoa	- Haur Hezkuntzako 1. zikloa
Don Bosco GLBHI (Paper Eskola)	Publikoa	- Erdi- eta goi-mailako zikloak
Laskorain Ikastola	Pribatua	- Haur Hezkuntzako 1. eta 2. zikloak - Lehen Hezkuntza - Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza (DBH) eta Batxilergoa - Hezkuntza Berezia
Inmakulada Ikastetxea	Pribatua	- Erdi- eta goi-mailako zikloak
Hizkuntza Eskola Ofiziala	Publikoa	- Hizkuntzen irakaskuntza ofiziala pertsona helduentzat. - Emandako hizkuntzak: Ingelesa eta Frantsesa.
Peñascal, Koop. Elk.	Pribatua	- Hasierako Lanbide Prestakuntza Programa (HLPP) eta Prestakuntza Iragankor Bateratua emateko Programa (PIBP) - Espezialitateak: Arotzeria, Soldadura eta Sukaldaritza Zerbitzua
CEPA	Publikoa	- Helduentzako hezkuntza (HHE)

- **Erdi-mailako zikloak:** Soldadura eta Galdaragintza; Mekanizazioa; Sistema mikroinformatikoak eta sareak; Instalazio elektrikoak eta automatikoak.
- **Goi-mailako zikloak:** Administrazioa eta finantzak; Automatizazioa eta robotika industrialia; Informatika-sistemen administrazioa sarean; Produzioaren programazioa fabrikazio mekanikoan; Eraikuntza metalikoak; Bero- eta fluido-instalazioen mantentzea.

- **Erdi-mailako zikloa:** Kimika industrialia.
- **Goi-mailako zikloa :** Kimika industrialia.

- **Erdi-mailako zikloak :** Erizaintzako laguntzailea, Farmazia-Parafarmazia.
- **Goi-mailako zikloak :** Osasun-dokumentazioa, Diagnosi-irudiak, Haur Hezkuntza, Gizarteratzea.

- **HLPP :** Sukaldaritza.
- **PIBP :** Sukaldaritza eta Soldadura.

MATRIKULAZIO DATUAK

Ikastetxeen 2013/2014ko matrikulazio-datuak sexuaren arabera nola banatuta dauden analizatuko dugu, horiek emandako datuen arabera. Adierazi behar da Paper Eskolaren matrikulazio-daturik ezin izan dugula lortu.

4.1 taula: Matrikulazio-banaketa ikastetxearen eta sexuaren arabera (2013/2014)

IKASTETXEA	2013/2014				
	E	G	Guztira	E %	G %
Felix M ^a Samaniego-Gorosabel	347	307	654	%53,1	%46,9
Orixe	297	316	613	%48,5	%51,5
Tolosaldea (Lanbide Heziketa I.)	55	353	408	%13,5	%86,5
SANTA LUTZIAKO IKASGUNEAK	699	976	1.675	%41,7	%58,3
Hirukide Gainberri	44	57	101	%43,6	%56,4
Hirukide Jesuitinak	353	362	715	%49,4	%50,6
Hirukide Eskolapioak	233	197	430	%54,2	%45,8
HIRUKIDE IKASTETXEA	630	616	1.246	%50,6	%49,4
Peñascal Koop. Elk.	9	35	44	%20,5	%79,5
Tolosako Haurreskola	26	26	52	%50,0	%50,0
Laskorain	760	787	1.547	%49,1	%50,9
Tolosako Inmakulada Ikastetxea	306	63	369	%82,9	%17,1
GUZTIRA	2.430	2.503	4.933	%49,3	%50,7

Nabarmena da Tolosako Inmakulada Ikastetxeko emakumeen proportzio handiagoa (%82,9 E / %17,1 G), eta gizonena Tolosaldean (Lanbide Heziketa I.) (%13,5 E / %86,5 G) eta Peñascal Koop. Elk.an (%20,5 E / %79,5 G).

Hurrengo orrialdean ikusiko dugu datu horiek zuzeneko erlazioa dutela ematen diren prestakuntza-espezialitateekin.

Iturria: Tolosako Udaleko Hezkuntza Sailak emandako datuak

- ✓ **Helduen Hezkuntzako Ikastetxeari (HHri)** dagokionez, emakume eta gizonen arteko banaketa 242 emakume eta 193 gizonkoa da, eta emakumeak matrikulatutako pertsonen guztizkoaren %55,6 dira, eta gizonak %44,4.
- ✓ **Hizkuntza Eskola Ofizialaren** matrikulazio-datuak ikasle ofizialen eta ikasle libreen artean banatzen dira, eta hauxe dugu:
 - Ingelesa ikasle ofizialak: 364 emakume / 209 gizon (%63,5 E / %36,5 G).
 - Ingelesa ikasle libreak: 134 emakume / 77 gizon (%63,5 E / %36,5 G).
 - Frantsesa ikasle ofizialak: 155 emakume / 113 gizon (%57,8 E / %42,2 G).
 - Frantsesa ikasle libreak: 22 emakume / 6 gizon (%78,6 E / %21,4 G).


Ikus daitekeen bezala, **bi hizkuntza-diziplinetan emakume kopuru handiagoa dago gizonena baino**. Bi diziplinak bi matrikulazio-modalitateetan batuta, **emakumeak %62,5** dira eta **gizonak %37,5**. Ingelesean bi matrikulazio motetan (ofizialean eta libreak), emakume eta gizonen arteko banaketa-ehunekoa antzekoa da (%63,5 E / %36,5 G). Ez da Frantsesaren kasua; hor, matrikula libreko emakume kopuruak modu adierazgarrian gaintzen du gizonena (%78,6 E / %21,4 G).

MATRIKULAZIO DATUAK: Erdi- eta goi-mailako zikloak (Inmakulada Ikastetxea eta Lanbide H.I.)

Zehatzago analizatzen badugu erdi- eta goi-mailako zer zikloetara jotzen duten neskek edo mutilek, **genero-alborapen bat** ikusten da **argi espezialitate motaren arabera**. Matrikulazio-maila orokorrean, neskak matrikulatutako pertsona guztien %46,5 dira eta mutilak %53,5, baina datuak espezialitate motaren arabera analizatzen direnean, argi ikusten da joera desberdina dagoela sexuaren arabera.

Neskak gehiago matrikulatzen dira zaintzaren, hezkuntzaren eta abarren esparruetara gehiago zuzendutako zikloetan (%82,9 E / %17,1 G), eta genero femeninoaren rola iraun egiten du. Kasu honetan, 2001eko diagnostikoaren datuak kontuan izanda, mutilen matrikulazioaren igoera txiki bat ikusten da adar horietan (2001: %92,7 E / %7,3 G). Bestetik, **mutilen matrikulazioak produkzio industrialaren esparruarekin zerikusi handiagoa** duten zikloetara orientatzen da: soldadura eta galdaragintza, mantentzea, etab. (%13,5 E / %86,5 G), eta horrek ere rol maskulinoari iraurarazi egiten dio lan-merkatuaren barruan. Kasu honetan ez dugu 2001eko daturik horien bilakaera konparatzeko. Baina badugu emakumeen %13,5 hori nola banatzen den espezialitate guztien artean: emakume horien guztizkoaren %60 Administrazio eta finantzen espezialitatean matrikulatuak dira, eta espezialitate hori ere oso lotua dago sexu femeninoari.

4.2 irudia: Matrikulazio-banaketa Inmakulada Ikastetxea (2013/2014)




- ✓ **Erdi-mailako zikloak:** Erizaintzako laguntzailea, Farmazia-Parafarmazia.
- ✓ **Goi-mailako zikloak:** Osasun-dokumentazioa, Diagnosi-irudiak, Haur Hezkuntza, Gizarteratzea.

Iturria: Tolosako Udaleko Hezkuntza Sailak emandako datuak

- ✓ **Erdi-mailako zikloak:** Soldadura eta galdaragintza (E 1 / 40 G); Mekanizazioa (E 1 / 37 G); Sistema mikroinformatikoak eta sareak (5 E / 36 G); Instalazio elektrikoak eta automatikoak (0 E / 36 G).
- ✓ **Goi-mailako zikloak:** Administrazioa eta finantzak (33 E / 11 G); Automatizazioa eta robotika industrial (3 E / 41 G); Informatika-sistemen administrazioa sarean (5 E / 34 G); Produkzioaren programazioa fabrikazio mekanikoan (4 E / 35 G); Eraikuntza metalikoak (E 1 / 32 G); Bero- eta fluido-instalazioen mantentzea (2 E / 51 G).

4.3 irudia: Matrikulazio-banaketa LANBIDE H.I. (2013/2014)




Iturria: Tolosako Udaleko Hezkuntza Sailak emandako datuak

MATRIKULAZIO DATUAK: Hasierako Lanbide Prestakuntza Programa (HLPP) eta Prestakuntza Iragankor Bateratua emateko Programa (PIBP) (Peñascal Koop. Elk.)

Ikastetxearen 2013/2014 ikasturteko matrikulazio-datuek, **oro har, mutilen proportzio askoz handiagoa eskaintzen digute neskena baino** (%20,5 E / %79,5 G), bai HLPPn (%27,8 E / %72,2 G), bai PIBPn (%30,8 E / %69,2 G).


Bi espezialitate ematen ditu ikastetxe horrek: Sukaldaritza eta Soldadura. Ikus dezagun zein den neska eta mutilen ehunekoa espezialitatearen eta programa motaren arabera.

4.4 irudia: Matrikulazio-banaketa HLPP 2 Sukaldaritza (2013/2014)



Iturria: Peñascal Koop. Elk.ak emandako datuak

4.5 irudia: Matrikulazio-banaketa PIBP 1 Sukaldaritza (2013/2014)



Iturria: Peñascal Koop. Elk.ak emandako datuak

4.3 taula: Matrikulazio-banaketa zikloaren eta espezialitatearen arabera (2013/2014)

PEÑASCAL Koop. Elk.	E	G	Guztira	E	G
HLPP 2 Sukaldaritza	5	13	18	27,8%	72,2%
PIBP 1 Sukaldaritza	4	9	13	30,8%	69,2%
ZTBP 1 Soldadura	0	13	13	0,0%	100,0%
GUZTIRA	9	35	44	20,5%	79,5%

Iturria: Peñascal Koop. Elk.ak emandako datuak

Ikus daitekeen bezala, **alde handia dago ikastetxe horretan matrikulatutako mutil eta nesken artean**. Nabarmena da **maskulinizazioa diziplina eta ziklo guztietan**, bereziki **Soldaduraren kasuan mutilen 100arekin**, tradizioz oso maskulinizatutako diziplinan. Bestetik, **Sukaldaritzan** etxean eta esparru pribatuan batik bat emakumeak aritzen dira, baina hori profesionalizatu egiten denean, alderantzikatu egiten da proportzioan, eta **gizonek dute proportzio handiena** bai prestakuntza-esparruan, bai profesionalean. Errealitate hori Sukaldaritzako espezialitatearen matrikulazio-datuetan ere ikusten da 1. eta 2. bi programetan (% 29 E / 71 G).

ESKOLAZ KANPOKO JARDUERAK

Atal honetan ikusi nahi da ikastetxeen eskolaz kanpoko jardueretan ba ote dauden genero-alborapenak neskek eta mutilek horietan parte hartzean. Ikastetxeek diziplinaren eta sexuaren arabera emandako datuak analizatzeko ditugu:

4.4 taula: Eskolaz kanpokoak SAMANIEGO (2013/2014)

ESKOLAZ KANPOKO JARDUERA	E	G	Guz.	E %	G %
Gimnastika Erritmikoa	27	1	28	%96,4	%3,6
Multikirola	32	67	99	%32,3	%67,7
Patinajea	15	15	30	%50,0	%50,0
Esku Pilota	2	28	30	%6,7	%93,3
Antzerkia	21	1	22	%95,5	%4,5
Dantza	68	4	72	%94,4	%5,6
Zeramika	11	6	17	%64,7	%35,3
GUZTIRA	176	122	298	%59,1	%40,9

Iturria: Tolosako Udaleko Hezkuntza Sailak emandako datuak

4.6 taula: Eskolaz kanpokoak LASKORAIN (2013/2014)

ESKOLAZ KANPOKO JARDUERA	E	G	Guz.	E %	G %
Eskola Kirola (Aldundia)	120	199	319	%37,6	%62,4
Ingelesa	66	73	139	%47,5	%52,5
Abesbatza	60	13	73	%82,2	%17,8
Xakea	4	19	23	%17,4	%82,6
Antzerkia	19	6	25	%76,0	%24,0
Eskulanak	1	11	12	%8,3	%91,7
Yoga	15	15	30	%50,0	%50,0
Adierazpen-tailerra	11	9	20	%55,0	%45,0
GUZTIRA	296	345	641	%46,2	%53,8

Iturria: Tolosako Udaleko Hezkuntza Sailak emandako datuak

4.5 taula: Eskolaz kanpokoak HIRUKIDE ESKOLAPIOAK (2013/2014)

ESKOLAZ KANPOKO JARDUERA	E	G	Guz.	E %	G %
Antzerkia	10	1	11	%90,9	%9,1
Judoa	0	8	8	%0,0	%100,0
Kirikiño (Astialdi-taldea)	73	57	130	%56,2	%43,8
Ingelesa	9	17	26	%34,6	%65,4
GUZTIRA	92	83	175	%52,6	%47,4

Iturria: Tolosako Udaleko Hezkuntza Sailak emandako datuak

Bi sexuetakoren baten ehunekoa %60tik gorakoa den eskolaz kanpoko jarduerak analizatzen baditugu, errealitate hau dugu:

- **Nesken %60tik gora duten jarduerak:** Laskorain (Abesbatza eta Antzerkia), Samaniego (Gimnastika Erritmikoa, Antzerkia, Dantza eta Zeramika) eta Hirukide Eskolapioak (Antzerkia).
- **Mutilen %60tik gora duten jarduerak:** Laskorain (Eskola-kirola, Xakea, Eskulanak), Samaniego (Multikirola eta Esku-pilota) eta Hirukide Eskolapioak (Judoa, mutilen 100arekin, eta Ingelesa).

Beraz, **nesken** kasuan, **Antzerkiaren** jarduera nabarmentzen da **hiru ikastetxeetan**. Eta **mutilen** kasuan, batik bat **kirol-diziplinak** nabarmentzen dira hiru ikastetxeetan. Nesken kasuan, Gimnastika Erritmikoa femeninoa da gehienbat. Beraz, **jardueretan ere genero-alborapenak gertatzen direla** ikusten da, eta ildo berean doaz bai helduentzako Kultur Etxeko ikastaroetan, bai kirol federatuaren datuetan.

Laskorainen gainera, **inauterietako konpartsa** bat dago, **Kazkabarra**, eta 2013/2014 ikasturtean 287 neskek eta 99 mutilek hartu dute parte, hots, %74,4 E / 26,6 G. Datu hori **inauterietako konpartsetako parte-hartzearen errealitate orokorra ez bezalakoa da**: 2014an, adibidez, parte-hartzea %45,2 E eta %54,8 G izan da. Halaber, nabarmena da **astialdiko** talde horrek, Kazkabarrak, **31 emakume monitore dituela, eta 13 gizon monitore**. Beraz, esan daiteke astialdiko taldearen barruan, konpartsan parte hartzen duten zein monitore-lanak egiten dituzten pertsona **gehienak emakumeak** direla.

BATERAKO HEZKUNTZA PROIEKTUA TOLOSAKO IKASTETXEETAN

Hezkuntza-esparruaren barruan, bereziki aipatu behar da **2012tik** Tolosako Udaletik bultzatzen ari den Baterako Hezkuntza Proiektua, **udalerriko ikastetxeei zuzendua eta, ondorioz, Tolosako herritar guztiei**. Proiektuaren helburuak dira, besteak beste, **ikasleen garapen integrala sustatzea sexuaren araberako estereotipoak** eta rola **bazter batera utzita**, bereizkeria mota guztiak arbuatzea, **indarkeria matxista detektatzea eta prebenitzea** eta sexuarengatik alboratu gabeko orientazio akademiko eta profesional bat bermatzea, emakume eta gizonen arteko berdintasun handiagoko gizarte baterantz aurrera egiteko.

Proiektuaren tipologia dela bide, proiektua **prozesu** gisa ulertzen da, eta horren emaitzak epe luzean baloratu ahal izango dira. Hala ere, horren **datu garrantzitsu** batzuk nabarmendu behar dira:

- ✓ **Baterako Hezkuntzako Mahai** bat sortzea, Osakidetzako, La Asuncion Klinikako, Udaleko Gizarte Zerbitzuetako eta Udaleko Gazteria, Migrazio eta Berdintasun Saileko ordezkariak osatua. Mahai horren azken helburua da proiektuaren bultzada, koordinazioa eta jarraipen orokorra.
- ✓ **Udalerriko 6 ikastetxeren parte-hartzea** (Laskorain Ikastola, Peñascal Fundazioa, Inmaculada Ikastetxea, Tolosaldea Lanbide Heziketa, Hirukide eta Orixe) eta horiekin, hasieran, bilera informatiboak eta banakakoak egin ziren, proiektuaren xehetasunak eta helburuak azaltzeko eta hori ikastetxe bakoitzeko premietara egokitzeko. **Proiektuaren ezarpenaren eta garapenaren balorazioa 2012/2013 ikasturtean zehar oso positiboa** izan da, erantsitako taulan ikus daitekeen bezala.
- ✓ **Irakasleen parte-hartze aktiboa** prestakuntza-ikastaroetan, eta onarpen handia orokorrean.
- ✓ **On-line aholkularitza-zerbitzu** bat eskaintzen da proiektuaren esparruaren barruan.
- ✓ Proiektuaren esparruan, **“BerdinSex, Aholkularitza sexologikoa” zerbitzua** sortu da, onarpen ona izan duena udalerrian, eta hori zabaltzeko diptiko espezifiko bat prestatu da, eta logorako lehiaketa bat.

4.7 taula: Baterako Hezkuntzako proiektuaren balorazioa 2012/2013

PARTE HARTZAILEA	BALORAZIO OROKORRA (10etik)
Lehen Hezkuntzako ikasleak	9,12
Gurasoak	8,75
DBH 2ko ikasleak	8,69
DBH 4ko ikasleak	8,99
Batxilergo 2	8,15
LHko ikasleak	8,8
Haur Hezkuntzako irakasleak	9,09
Hezkuntza Bereziko irakasleak	9,35

Iturria: Udalaren Berdintasun Saila

Eta etorkizunera begira...

- ❑ **Proiektu estrategiko** gisa mantentzen da Udalarentzat, etenik gabeko eboluzioan eta ebaluazioan dagoena.
- ❑ Erraztu eta ahalbidetzen du Udaleko departamendu desberdinekin (Kirolak, Gazteria, Gizarte Zerbitzuak, e.a.) lan-hitzarmen egonkorragitea.
- ❑ Aholkularitza-saioak emango zaizkie Tolosako ikastetxeei beren koedukazio-planak diseinatu, garatu eta ezartzeko.

UNIBERTSITATE IKASKETEN MATRIKULAZIO DATUAK

Lan-esparruan ikusi dugun bezala, **lan-merkatuan genero-alborapen bat ikusten da jarduera-sektoreen artean**. Lan-merkatuaren oinarri handi bat osatzen du bai erdi- eta goi-mailako graduen bidez zein Unibertsitate Hezkuntzaren bidez eskuratutako oinarrizko lanbide-prestakuntzak. Aurreko orrialdeetan ikusi dugun bezala, **erdi- eta goi-mailako graduetan genero-alborapenak ikusten dira ikasketa-adarren arabera**, horregatik uste dugu garrantzitsua dela jakitea portaera hori unibertsitate-ikasketetan ere gertatzen den.

Horretarako, **2012/2013** ikasturteko unibertsitate-ikasketetako matrikulazioan jarriko dugu arreta, sexuaren arabera bereizita lortu dugun azken datua baita hori. Hauxe ikus dezakegu:

4.8 taula: Unibertsitateko ikasleen banaketa adarren eta sexuaren arabera (2012/2013)

2012/2013 IKASTURTEA		IKASLEAK			IKASLEAK (%)	
		GUZTIRA	E	G	E %	G %
GUZTIRA	GUZTIRA	657	367	290	%55,9	%44,1
	Arteak eta Giza Zientziak	38	26	12	%68,4	%31,6
	Zientziak	41	24	17	%58,5	%41,5
	Osasun Zientziak	63	52	11	%82,5	%17,5
	Gizarte Zientziak eta Juridikoak	298	187	111	%62,8	%37,2
	Ingeniaritza eta Arkitektura	199	66	133	%33,2	%66,8
	Ez da ageri	18	12	6	%66,7	%33,3
Ikastetxe publikoa	GUZTIRA Publikoa	482	276	206	%57,3	%42,7
	Arteak eta Giza Zientziak	35	23	12	%65,7	%34,3
	Zientziak	41	24	17	%58,5	%41,5
	Osasun Zientziak	63	52	11	%82,5	%17,5
	Gizarte Zientziak eta Juridikoak	203	125	78	%61,6	%38,4
	Ingeniaritza eta Arkitektura	132	49	83	%37,1	%62,9
	Ez da ageri	8	3	5	%37,5	%62,5
Ikastetxe pribatua	GUZTIRA Pribatua	175	91	84	%52,0	%48,0
	Arteak eta Giza Zientziak	3	3	-	%100,0	%0,0
	Gizarte Zientziak eta Juridikoak	95	62	33	%65,3	%34,7
	Ingeniaritza eta Arkitektura	67	17	50	%25,4	%74,6
	Ez da ageri	10	9	1	%90,0	%10,0

- Matrikulatutako pertsonen **guztizkoan emakumeek gizonen baino ehuneko handiagoa dute** (%55,9 E / %44,1 G).
- **Emakumeen 60tik gorako ehunekoa duten adarrak** hauek dira: **Arteak eta Giza Zientziak** (%68,4 E), **Osasun Zientziak** (%82,5 E), **Gizarte Zientziak eta Juridikoak** (%62,8 E) eta “Ez da ageri” (%66,7 E).
- Bestetik, **gizonen 60tik gorako ehunekoa duen adar bakarra Ingeniaritza eta Arkitekturarena** da.
- Portaera hori **ikastetxe pribatuetan zein publikoetan** gertatzen da.
- Berriz ere, unibertsitate-ikasketetan, **giza zientzien, osasunaren eta gizarte-zientzien sektoreak**, hots, tradizioz genero femeninoari atxikitako portaeretara errotutako sektoreak **feminizatze joera** bat gertatzen da; eta **karrera teknikoetako ikasketen maskulinizazioa**, batik batik Ingeniaritzena.

Iturria: EUSTATEk emandako datuak

2001ean eta 2012/2013an aukeratutako unibertsitate-titulazioari buruzko datuen konparazioa

Tolosako Udalarentzat 2001ean egindako Berdintasun Diagnostikoan, **gizonen edo emakumeen %100 matrikulatu ziren titulazioak** identifikatu ziren, **edo Tolosan matrikulatutako ikasleen %75 edo gehiago sexu batekoa edo bestekoa zirenak**. Titulazio-eredua aldatu egin da azken urteotan, eta gaur egun titulazio eta tipologiaen aniztasun handiagoa dago (graduak, lehen zikloa, bigarren zikloa), baina taula hauetan ikusiko dugu aldaketa txiki batzuk dauden arren, **joerak iraun egiten duela oraindik**. Aurreko orrialdean esan dugun bezala, Tolosako populazio unibertsitarioaren barruan joera handiagoa dago gizonen artean **Ingeniaritzen esparruko karrerak egiteko; emakumeen artean** (hurrengo orrialdeko taula), berriz, joera horrek **osasunaren, gizarte-zientzien eta giza zientzien esparruaren barruan** jarraitzen du.

4.9 taula: Tolosako ikasle matrikulatuak gizonen %100 edo %75etik gora diren unibertsitate-titulazioen konparazioa (2001 – 2012/2013)

TOLOSAKO MATRIKULAZIO DATUAK	TOLOSAKO 2001EKO BERDINTASUN DIAGNOSTIKOKO DATUAK (Titulazioa eta emakume matrikulatuen kopuru absolutua)	2012/2013 IKASTURTEKO DATUAK (Titulazioa eta emakume matrikulatuen kopuru absolutua)
% 100 Tolosako gizonak matrikulatutako karrerak	Diplomaduna Itsas Nabigazioan (G 1) Lizentzia Geologian (G 1) Lizentzia Geografian (2 G) Industria-elektritzitateko ingeniari teknikoa (G 1) Industria-mekanikako ingeniari teknikoa (2 G)	Telekomunikazio-ingeniaria (G 1); Informatika-ingeniaria (3 G); Lizentziatua Politika- eta administrazio-zientzietan (G 1); Lizentziatua Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Zientzietan (6 G); Lizentziatua Geografian (2 G); Lizentziatua Matematikan (G 1); Automatika- eta Industria-elektroinikako ingeniaria (G 1); Lizentziatua Itsasontzi-makinerian (G 1); Industria-ingeniari teknikoa, espezialitatea Elektritzitatean (G 1); Industria-ingeniari teknikoa, espezialitatea Industria Elektroniketan (3 G); Industria-ingeniari teknikoa, espezialitatea Mekanikan (G 1); Meatzeetako ingeniari teknikoa, espezialitatea Energia Baliabideetan (G 1); Telekomunikazio-ingeniari teknikoa, espezialitatea Telematiketan (G 1); Kudeaketa Informatikako ingeniari teknikoa (G 1); Sistema Informatikako ingeniari teknikoa (G 1); Gradua Geografian eta Lurralde Antolamenduan (2 G); Gradua Historian (3); Gradua Artearen Historian (1); Gradua Ingeniaritza Elektroniketan (G 1); Gradua Ingeniaritza Elektrikoan (3 G); Gradua Ingeniaritza Nautikoan eta Itsas Garraioan (G 1); Graduatua Gastronomian eta Sukaldaritza Arteetan (G 1); Graduatua Informatika Ingeniaritzan (G 1); Graduatua Lidergo Ekintzailean eta Berrikuntzan (4 G)
% 75etik gora Tolosako gizonak matrikulatutako karrerak	Industria-ingeniari teknikoa (8 G) Mekanika-ingeniari teknikoa (25 G) Topografia (3 G)	Gradua Telekomunikazio Ingeniaritza Teknikoan (4 G) Graduatua Industria Elektroniketan (3 G) Graduatua Mekanika Elektroniketan (26 G)

Iturria: Tolosako Berdintasun Diagnostikoa 2001 eta EUSTATEk emandako datuak

2001ean eta 2012/2013an aukeratutako unibertsitate-titulazioari buruzko datuen konparazioa

4.10 taula: Tolosako ikasle matrikulatuak emakumeen %100 edo %75etik gora diren unibertsitate-titulazioen konparazioa (2001 – 2012/2013)

TOLOSAKO MATRIKULAZIO DATUAK	TOLOSAKO 2001EKO BERDINTASUN DIAGNOSTIKOKO DATUAK (Titulazioa eta emakume matrikulatuen kopuru absolutua)	2012/2013 IKASTURTEKO DATUAK (Titulazioa eta emakume matrikulatuen kopuru absolutua)
% 100 Tolosako emakumeak matrikulatutako karrerak	Diplomaduna Erizaintzan (6 E), Elikagaien Zientzia eta Teknologia (E 1), Gizarte eta Kultura Antropologia (E 1), Ingurumen Zientziak (E 1), Farmazia (E 1), Frantses Filologia (E 1); Ingeles Filologia (E 1), Publizitatea eta Harreman Publikoak (2 E), Soziologia (E 1), Hezkuntza Bereziko maistra (11 E), Musika Hezkuntza (E 1), Atzerriko Hizkuntzako maistra (E 1)	Lizentziatua Arte Ederretan (2 E); Lizentziatua Farmazian (6 E); Lizentziatua Filologia Hispanikoan (E 1); Lizentziatua Ingeles Filologian (E 1); Lizentziatua Odontologian (E 1) Lizentziatua Pedagogian (4 E); Arkitekto Teknikoa (E 1); Diplomaduna Erizaintzan (E 1); Diplomaduna Giza Elikaduran eta Dietetikan (E 1); Topografia-ingeniari teknikoa (E 1); Maistra, espezialitatea Lehen Hezkuntzan (3 E); Gradua Gizarte Antropologian (4 E); Gradua Arteen (E 1); Gradua Biokimikan eta Biologia Molekularrean (3 E); Gradua Sorkuntzan eta Diseinuan (2 E); Gradua Kriminologian (E 1); Industria Kimikako Ingeniaritza (E 1); Gradua Ingeniaritzan Geomatikan eta Topografian (E 1); Gradua Ingeniaritzan Industria Antolaketan (E 1); Gradua Publizitatean eta Harreman Publikoetan (E 1); Gradua Kimikan (4 E); Gradua Gizarte Lanean (3 E); Gradua Itzulpengintzan eta Interpretazioan (7 E); Graduatua Enpresa Zuzendaritzan + Graduatua Informatika Ingeniaritzan (2 E); Graduatua Haur Hezkuntzan (10 E); Graduatua Gizarte Zientzietan (E 1); Graduatua Informatika Ingeniaritzan (2 E); Graduatua Ingeniaritzan Telekomunikazio Teknologian (E 1); Graduatua Hizkuntza Modernoetan (2 E); Gradua Erizaintzan (15 E)
% 75tik gora Tolosako emakumeak matrikulatutako karrerak	Gizarte Hezitzailea (10 E), Lan Harremanak (13 E), Arte Ederrak (13 E), Biologia (12 E), Pedagogia (11 E), Kazetaritza (8 E), Medikuntza (13 E), Psikologia (22 E), Lehen Hezkuntzako maistra (23 E)	Lizentziatua Medikuntzan (10 E); Lizentziatua Kimikan (5 E); Gradua Zuzenbidean (7 E); Gradua Haur Hezkuntzan (13 E); Graduatua Enpresa Zuzendaritzan + Graduatua Zuzenbidean (6 E); Graduatua Komunikazioan (4 E); Graduatua Zuzenbidean (6 E); Graduatua Ingeniaritzan Industria Diseinuan eta Produktuaren Garapenean (5 E); Graduatua Turismoan (3 E)

Iturria: Tolosako Berdintasun Diagnostikoa 2001 eta EUSTATEk emandako datuak

EUSKARAREN ERABILERARI BURUZKO DATUAK TOLOSAN


EUSTATen bidez ditugun datuen arabera (2006koak eta 2011koak soilik bildu dira), gizon eta emakumeen arteko alderik adierazgarrienak euskararen erabilera aurkitzen ditugu ama-hizkuntza gisa eta etxean hitz egindako hizkuntza gisa. Ildo horretan, 2006an zein 2011n, **emakumeak euskara ama-hizkuntza duten pertsonen 52 dira. Etxean hitz egindako hizkuntzari** dagokionez, ehunekoak oso antzekoak dira, 2006an emakumeak etxean hitz egindako hizkuntza euskara duten pertsonen 53 baitira, eta 2011n 52.

Gainerako hizkuntzetan, hurrengo orrialdean ikus daitekeen bezala, **emakume eta gizonen arteko aldeak txikiak dira eta batik bat normalean euskara zein gaztelania hitz egiten den etxeetan kokatzen dira** –kasu honetan, emakumean ehunekoa 52ra hurbiltzen da berriz bi kasuetan–. Alde askoz handiagoak zeuden “beste” ama-hizkuntza batzuk hitz egiten ziren etxeetan 2006an, baina ehunekoak orekatu egin dira 2011n.

Nabarmendu behar da euskararen eta gaztelaniaren erabilerari lotutako kasuetan emakume hiztunen ehunekoa pixka bat handiagoa dela, baina “beste” hizkuntzen kasuan, erlazioa alderantzikatu egiten da eta gizonen ehunekoa handiagoa da emakumeena baino. Ildo horretan, kontuan izan behar da beste herrialde batzuetatik datorren populazioaren 53,3 emakumeak izan arren, populazio horren zati handi bat (37,6) gaztelania gehiengoaren hizkuntzetako bat den herrialdeetatik datorrela. Gainera, kasu honetan zehazki, emakumeen populazioak modu adierazgarrian gaintitzen du gizonena – 69,8 emakumeak dira eta 30,2 gizonak–.


Azkenik, grafikoetan ikusten den bezala, nabarmena da **euskararen erabilerak gehiengoa duela etxean hitz egindako hizkuntza gisa zein ama-hizkuntza gisa.**

4.6 irudia: Euskara – ama-hizkuntza



Iturria: Geuk prestatua EUSTATen datuekin


4.7 irudia: Euskara – Etxean hitz egindako hizkuntza




Iturria: Geuk prestatua EUSTATen datuekin

4. HEZKUNTZA ETA EUSKARA


4.8 irudia: Gaztelania – ama-hizkuntza



4.9 irudia: Gaztelania – etxean hitz egindako hizkuntza



4.10 irudia: Euskara eta gaztelania – ama-hizkuntza



4.11 irudia: Euskara eta gaztelania – etxean hitz egindako hizkuntza




Iturria: Geuk prestatua EUSTATen datuekin


Aitzol Udal Euskaltegia

Udal Euskaltegiaren euskarazko alfabetatze-ikastaroetan parte hartzen duten ikasleei buruzko datuek **alde adierazgarria erakusten dute emakumeen alde, horien parte-hartzea azken urteotan guztizkoaren %70 ingurukoa baita. 2011tik 2013ra, emakumeen ehunekoa 5 puntu jaitxi da, baina aipatutako %70etik hurbil dago.**

4.14 irudia: Aitzol Udal Euskaltegia – Sexuaren




4.15 irudia: Aitzol Udal Euskaltegia – Sexuaren guztizkoak




Iturria: Geuk prestatua HABEren datuekin

Euskara kalean erabiltzeari dagokionez, Tolosako Udalak egindako azterketek erakusten dute, besteak beste, euskararen erabileraren igoera adierazgarri bat gazteen eta hurren artean. Udalak emandako azterketan datuak ez daude sexuaren arabera bereizita, baina aipatzen da neskek gehiago erabiltzen dutela euskara mutilek baino –duela 25 urte inguru gertatzen ez zen bezala–. Horri dagokionez, nabarmendu behar da informazio-bilketan, oro har, **sexu-aldagaia kontuan hartzen bada ere, hori ez dela sistematikoki sartzen bildutako informazioarekin prestatzen diren **analisi** eta txostenetan.**

4.12 irudia: Beste hizkuntza batzuk – ama-hizkuntza




4.13 irudia: Beste hizkuntza batzuk – etxean hitz egindako hizkuntza




Iturria: Geuk prestatua EUSTATen datuekin

Udal Euskaltegiaren euskarazko alfabetatze-ikastaroetan parte hartzen duten pertsonen adinari dagokionez, **oro har, ikasle gehienek 26 eta 50 urte artean dituzte**. Emakumeak eta gizonak adin-tarte guztietan nola banatzen diren kontuan hartzen badugu, azken urteotan antzeko joera dagoela ikusiko dugu: **adin-tarte gehienetan, emakumeen kopurua gizonena baino askoz handiagoa da**, 60 urtetik gorakoan izan ezik; hor gizonen kopurua handiagoa izan da lehenago, 2011 eta 2013 artean berriz orekatu den arte. 20 urtetik beherako gazteen matrikulazioan ere aldaketak daude denboran, eta 2013an mutil gehiagok eman zuen izena neskak baino.


4.16 irudia: Aitzol Udal Euskaltegia – sexua eta adina 2007




4.17 irudia: Aitzol Udal Euskaltegia – sexua eta adina 2009



4.18 irudia: Aitzol Udal Euskaltegia – sexua eta adina 2011



4.19 irudia: Aitzol Udal Euskaltegia – sexua eta adina 2013




Azken urteotan pixka bat igo da **Udal Euskaltegira joaten diren atzerrian jaiotako pertsonen kopurua** –2013an izan ezik, 2011ren aldean 2 puntu jaitsi baita–, **baina Euskal Herrian jaiotako pertsonen kopurua txikia da oraindik**. Zehatzago, 2007an, Euskaltegiak eskaintako ikastaroetara joaten ziren pertsonen %6 atzerrian jaiotakoak ziren, %8 2009an, %10 2011n eta **%8 2013an**. Emakume eta gizonen proportzioa analizatzen badugu, ikusten dugu, oro har, **emakumeen proportzioa handiagoa dela atzerrian jaiotako pertsonen artean Euskal Herrian jaiotakoaren artean baino**. Baina bi kasuetan, emakumeen kopurua gizonena baino askoz handiagoa da.

4.20 irudia: Atzerriko ikasleen matrikulazioen bilakaera Aitzol Udal Euskaltegian (2007/2013)



Iturria: Geuk prestatua HABEren datuekin

4.21 irudia: Mintzalagun Programa – Galtzaundi Elkarteak




Iturria: Geuk prestatua Galtzaundiren datuekin

Bestetik, **Galtzaundi Elkarteak kudeatutako Mintzalagun programari buruzko datuek joera bera erakusten dute: emakumeen parte-hartzea gizonena baino askoz handiagoa da.**

Gaiari buruz galdetuta, Udalaren Euskara Sailak adierazi du ez dela egin analisi edo gogoeta bat euskarazko alfabetatze-ikastaro eta -jardueretan emakumeen parte-hartze handiagoaren zergatiari buruz; gehienez ere **emakume askok euskararekin zer lotura duten** identifikatu da **beren seme-alabak zaintzeko eta hezteko rola betetzeko; izan ere, seme-alaba gehienak D ereduko ikastetxeetara joaten dira.**

Azkenik, nabarmendu behar da gizon eta emakumeen parte-hartzeari buruzko datuak alderantzikatu egiten direla batik bat atzerritarrek osatutako **Banaiz Bagara Elkarteak dinamizatutako euskalduntze-taldean**. Elkarteak emandako datuen arabera, **2013an taldea osatzen zuten pertsonen %68 gizonak ziren** (guztira 17) eta %32 emakumeak (guztira 8). Taldearen osaera herrialdearen arabera analizatuta, ikusten da bi kasutan soilik aurkitzen ditugula herrialde bereko gizonak eta emakumeak. Gainerako kasuetan, gizon gehienak Saharaz hegoaldeko herrialdeetatik datoz; emakumeak, berriz, batik bat herrialde latinoamerikarretatik edo Estatu Espainoleko eta Euskal Herriko beste leku batzuetatik datoz.

4.22 irudia: Ikasle atzerritarren parte-hartzea Banaiz Bagara Elkartearen euskalduntze-taldean 2013



Iturria: Geuk prestatua Banaiz Bagara Elkartearen datuekin

Euskararen normalizazioa herritarren artean

Udalerriko herritarren artean euskararen erabileraren normalizazioa sustatzeko, Udalak **hitzarmen bat** sinatu du **Galtzaundi Elkartearekin**. Hitzarmen horren bidez, datozen lau urteetan euskararen normalizazioaren inguruan zer lan egingo den adostu da. Adostutako ekintzen artean, hau aurreikusi da:

- ✓ **Diagnostikoak egitea eta gero jarduketa-planak definitzea** sektore hauetan: elkarteetan, kirol-entitateetan eta gizarte-mugimenduan;

hirugarren sektorean; enpresetan; gizabanakoen artean.

- ✓ **Komunikazio-tresnak** sortzea eta kudeatzea.
- ✓ **Talde-lana sustatzea** herritarren artean eta zehatzago kirol-entitate eta kultura-eragileen artean.
- ✓ **Tlseh Foroa** sortzea eragileek herritarrei egindako ekarpenak ikusgai egiteko espazio gisa.

4. HEZKUNTZA ETA EUSKARA

Udaletxeko langileei eta Galtzaundi Elkarteari egindako elkarrizketen ondorioz, balorazio gehigarri batzuk aipa daitezke:

- ✓ **Ez dago gidalerro argirik** herritarren artean euskararen normalizazioa bultzatzeko lan-plangintzan **genero-ikuspegia txertatzeko**. Aldi berean, oraindik ez da argi identifikatzen nola integra litekeen genero-ikuspegia Udalaren eta Elkartearen artean sinatutako hitzarmenaren xede diren helburu eta ekintzetan.
- ✓ Egindako lanaren bidez, generoari lotutako faktoreak identifikatu dira, hala nola **emakume eta gizonen parte-hartze berezia alfabetatze-espazio batzuetan**, bereziki lehen aipatutako “mintzalagun” taldeetan. Iradoki da emakume zaharrenek jarduera horretan parte hartzeko duten **motibazio nagusietako bat biloben ohiko zaintzailearen rolari** lotuta dagoela.
- ✓ Egiten diren jardueri buruzko datu-bilketan, kontuan hartzen da sexua, euskararen kaleko erabilera aztertzean edo “mintzalaguneko” parte-hartzea kontabilizatzean bezala. Baina **sexu bakoitzaren parte-hartze handiagoa edo txikiagoa egiaztatetik harago, orokorrean ez da diseinatzeko edo planifikatzeko partaidetza-mailak orekatzeko ekintzarik**, eta ez da daturik erabiltzen geroko analisietan eta estrategiak definitzean.
- ✓ Kasu batzuetan, **hartu dira neurri zehatz batzuk**: adibidez, **urteko euskarazko komiki-lehiaketan, kontuan hartzen da**, esaterako, **genero-ekitatea epaimahaiaren osaeran**, eta **izan daitezkeen eduki sexistak ezabatzea** bilatzen da (oinarrietan dago puntu hori). **Irakurketa-taldeen kasuan**, gizon eta emakume idazleen artean presentzia orekatua lortzen saiatzen da. Komunikazio-mailan, **prentsaurrekoetan** ere gizon eta emakumeen **presentzia orekatua bilatzen da**.
- ✓ Nolanahi ere, euskara-politiketan genero-ikuspegiaren integrazioa finkatzea lortzeko, argi ikusten da **koordinazio-loturak gehiago indartzeko premia dagoela Sailaren eta Udalaren Berdintasun Zerbitzuaren artean**.



KULTURA ESPAZIOAK

Tolosa gailendu egiten da zenbait eta askotariko kultura-adierazpenen bidez garatzen den kultura-jarduera handiko udalerria izateagatik. Baditu zenbait kultura-espazio, eta udalerrian izaten diren kultura-jarduera gehienak garatzen dira horietan.

Hona udal-kudeaketako kultura-espazioak:

- ✓ **Kultur Etxea**: Kultura Saitetik herritarrei zuzentzen zaizkien ikastaro gehienak biltzen ditu, eta Gazteria Sailarenak (Topagune espazioaren bidez). Halaber, elkarre-ehunak antolatutako ekitaldi batzuk erdialdean bertan dagoen erreferentziako espazio honetan egiten dira.
- ✓ **Udal Liburutegia**: haurrena eta helduena.
- ✓ **Aranburu Jauregia**: zenbait erakusketa-areto eta **Udal Artxiboa** ditu.
- ✓ **Udal Musika Eskola**
- ✓ **Leidor Aretoa**: zinema-jarduera ia guztia, antzerkia, kontzertuak, dantza-emanaldiak, jaialdi batzuk, etab. egiten dira, Udaleko Kultura Sailak bultzatuta eta kudeatuta.
- ✓ **Ferialekua**: Udal-eremu bat da eta bertan era askotako jarduerak eta ekintzak egiten dira urtean zehar, hala nola: ganadu-feriak, kontzertuak, Lapikofesta, herri-bazkariak, karroza eta konpartsen eraikuntza, buruhandi eta erraldoien konpartsa, gimnastika erritmikoa, etab.

Bestetik, udalaz besteko kudeaketa duten espazioak ditugu:

- ✓ **TOPIC**: Tolosako Nazioarteko Txotxongilo Zentroa da eta badauka erabilera publikoko espazio eszeniko bat ere zeinak 250 pertsonentzako lekua daukan. Espazio honetan garatzen da urteko "**Txotxongiloen Nazioarteko Jaialdia-TITIRIJAI**", Tolosan 1982tik egiten dena, eta udalerrian tradizio eta inpaktu handia dituen. **CITek (Tolosako Ekinbide Etxeak) kudeatzen du**. Entitate horrek, aldi berean, nazioartean aitortutako ospe publiko handiko beste jaialdi bat antolatzen du, **Abesbatzen Nazioarteko Lehiaketa**, eta horren emanaldiak ere Leidor Aretoan eskaintzen dira. Baita bidaia, natura eta antropologiaren gainekoak diren AMALUR jardunaldiak ere.
- ✓ **Bonberenea**: gazte taldeek autogestioaren bidez kudeatutako espazioa, musika-adierazpenen esparruan garatzen du bere jarduerak, grabazio-estudioak ditu eta batik bat tokiko taldeei zuzendutako musika-kontzertuak antolatzen ditu.

Esan behar da, halaber, Tolosan **jarduera asko** egiten direla kalean kokatutako **espazio irekietan**, batik bat **Tinglado merkatuan (Zerkausion)**, non zenbait azoka gastronomiko egiten diren, gizarte-eragile batzuek Tolosako Udalarekin lankidetzan.

KULTUR ETXEA

Kultur Etxean eskaintzen diren tailerretako matrikulazioa sexuaren arabera analizatzen badugu, ondorio hauek atera ditzakegu:

- ✓ Oro har, **emakumeek gehiago parte hartzen dute** Kultur Etxean eskaintako **tailerretan**, eta **ez dago aldaketa adierazgarririk 2001 eta 2013 artean** (%83,6 emakumeak 2001ean eta %85,9 emakumeak 2013an).
- ✓ **Emakumeen gehiengoa tailer guztietan dago**, 2001ean eskaintako zur-tailerrean izan ezik, baina 2009tik ez da programatzen. Haurren eskulanetarako tailerretan ere, neskek guztizkoaren ehuneko adierazgarria dute (%66,7).
- ✓ **2013an, 2001ean baino bi ikastaro mota gehiago eskaini ziren** (Argazkigintza, bi mailatan, eta Haurrentzako eskulanak). **Gainerako eskaintza mantendu egin da**, zurarena izan ezik, hots, paradoxikoki 2001ean gizon gehien joaten zena.
- ✓ Konparatutako bi urteetan, **Ehoziri eta Patchwork** tailerra eta **Dantza Garaikidearena emakumeek soilik egin zituzten**.
- ✓ Aipamen berezia merezi du **argazkigintza-ikastaroak: 2013an, salbuespen gisa, datu oso feminizatuak eskaini zituen**, baina ez da berdin gertatzen 2010eko (%57,1 E / %42,9 G), 2011ko (%66,7 E / %33,3 G) eta 2012ko (%46,2 E / %53,8 G) ikastaroetan.

5.1 taula: Kultur Etxeko tailerretan matrikulatutako pertsonak (2001 eta 2013)

KULTUR ETXEKO IKASTAROA	2001				2012/2013			
	E	G	E %	G %	E	G	E %	G %
Haurren eskulanak	-	-	-	-	10	5	%66,7	%33,3
Pintura	24	11	%68,6	%31,4	47	24	%66,2	%33,8
Zura	3	8	%27,3	%72,7	-	-	-	-
Zeramika	13	4	%76,5	%23,5	16	3	%84,2	%15,8
Ehoziriak eta Patchworka	6	0	%100,0	%0,0	16	0	%100,0	%0,0
Dantza garaikidea	11	0	%100,0	%0,0	4	0	%100,0	%0,0
Balleta	99	1	%99,0	%1,0	182	5	%97,3	%2,7
Antzerkia	12	9	%57,1	%42,9	18	8	%69,2	%30,8
Argazkigintza - Hastapena	-	-	-	-	13	3	%81,3	%18,8
Argazkigintza aurreratua edo praktikoa	-	-	-	-	10	4	%71,4	%28,6
GUZTIRA	168	33	%83,6	%16,4	316	52	%85,9	%14,1

Iturria: Tolosako Udaleko Kultura Sailak emandako datuak

Matrikulazio-datuetatik atera daiteke partaidetza estu lotuta dagoela generoaren sozializazioarekin, **eskaintzak** emakumeei eta gizonei atxikitako **genero-estereotipo tradizionalei erantzuten dien** heinean.

Eskaintzen diren ikastaroen tipologia lotuta dago kasu gehienetan nortasun femeninoaren estereotipoei (fintasuna, esku-trebetasuna, lanak, parpaila, dantza). Ikastaro mota horretan emakumeen parte-hartze nagusiarekin, agian gizon eta emakumeentzako eredu sozial bereziak ezartzen ari dira.

Komeni da, beraz, **eskaintako tailerren diseinua berraztertzea**, berehalako eskaritik harago joateko, eta aipatutako estereotipoak apurtuko dituen eskaintza anitzagoa diseinatzen saiatzeko.

Irakasleriaren osaerari dagokionean, esan behar da osaera hori ez dela aldatu azken 15 urte honetan, 9 Emakume eta 2 Gizon direlarik. Badago, beraz, emakumezko irakasleen gehiengo bat (%81 E / %19 G), ikasleriaren osaeraren oso antzekoa dena. Gizonezko irakasleek ematen dituzten jakintzagaiak dira Margolaritza/Esku-lanak eta Argazkigintza.

Kultur Etxean (16 eta 30 urte arteko) **gazteei zuzenduta Gazteria Sailak** bultzatuta antolatzen diren **ikastaro**ei dagokienez, matrikulazio-datuak analitiko genero-rol sozialak irauraztearekin lotutako datu batzuk ere ateratzen dira:

- ✓ Badira **soilik femeninoak** diren **tailerrak (Joskintza)**, esparru pribatuko eta etxeko jarduerekin oso lotuak. Eta **soilik maskulinoak** diren **tailerrak (Zuzeneko Soinua eta DJ)**, zuzenduago daudenak espazio publikora bideratutako jardueretara, non, gizonak, oro har, ordezkatuago eta jarduten ohituago dauden.
- ✓ Ikastaroetan parte hartzen duten **mutilen** guztizkoaren banaketa oso desberdina da neskenaren aldean: ikastaroetara joaten diren mutil guztien %72 **Zuzeneko Soinua** (%40) eta **DJ** (%32) ikastaroetan banatzen da, eta ez dago nesken ordezkartzarik. Gainerako mutilak **Serigrafia** ikastaroaren (%16) eta **Landaketa** ikastaroen (%12) artean banatzen dira.
- ✓ **Nesken** kasuan, 3 ikastaro motatan banatzen dira: **Joskintza** (%57,9), mutilen ordezkartzarik gabe, **Serigrafia** (%26,3) eta **Landaketa** (%15,8).

5.2 taula: Gazteria Sailaren tailerretan matrikulatutako pertsonak (2013)

TOPAGUNEKO IKASTAROAK	E	G	E %	G %
Zuzeneko Soinua	0	10	%0,0	%100,0
Serigrafia	5	4	%55,6	%44,4
Landaketa	3	3	%50,0	%50,0
Joskintza	11	0	%100,0	%0,0
DJ	0	8	%0,0	%100,0
GUZTIRA	19	25	%43,2	%56,8

Iturria: Tolosako Udaleko Gazteria Sailak emandako datuak

Ikastaro mota horren eskaintzaren konparazio bat egiteko, esan behar da 2010/2011 ikasturtean zehar ez dela eskaini inolako ikastarorik, eta **2009/2010an garatutako ikastaro** mota soilik lortu dugula. Hona eskaintza eta parte-hartzea:

- Saltsa, Merenguea: 6 E / 2 G.
- Txalaparta: 7 E / 4 G.
- Makillajea: ohikoa eta fantasiazkoa: Ezeztatua quorum ezagatik.
- Graffiti: 5 E / G 1.

Guztira, beraz, **2009/10ean** 18 emakumek eta 7 gizonen hartu zuten parte. (**%72 emakumeak / %28 gizonak**), **emakumeen parte-hartze askoz handiagoa 2013ko ikastaroetan baino**. Deigarria da bereziki emakumeen parte-hartze handia graffiti-ikastaroan (%83,3), jarduera hori, kalean bederen, gizonena baita gehienbat. Ikastaro horretan emakumeen parte-hartzearen igoera hori zuzenean lotuta egon zen 2010eko graffiti-lehiaketan emakumeen aldeko ekintza positibo batekin, horma-irudietan egindako lanak aurkezteko aukera eman baitzen, eta ez kalean soilik. Ekintza horren ondorioz, emakumeen parte-hartzea lehiaketan %40 igo zen.

GAZTE TOPAGUNEA

Tolosako **Kultur Etxean** kokatutako **ekipamendu berezi bat, 12 eta 17 urte arteko gazteei** zuzendua. Ekipamendu mota honen helburu nagusia da Udaletik ere eskaintza berriak bultzatzea gazteentzat eta elkarrekin harremanetan jartzeko espazioak sortzea. Jarduerak Topaguneko instalazioetan zein bestelako instalazio edo lekuetan garatzen dira, jardueraren izaeraren arabera. Topagunea Udalak kontratatutako enpresa bateko langileek dinamizatzen dute.

Topagunearen 2012/2013 ikasturteko jardueraren memoria generoaren ikuspegitik analizatuta, datu hauek azpimarra daitezke:

- ✓ Memoriak **ez ditu jasotzen sistematikoki eta jarduera guztietarako datuak sexuaren arabera bereizita**, gazteek horietan duten parte-hartzeari dagokionez. Datu nabarmen gisa, esan dezakegu deskribatzen dituen **21 jardueratik 3tan soilik zehazten duela neska eta mutilen kopurua**, eta gainerakoan bertaratuen datu orokorrak soilik aipatzen dira, baina sexuaren arabera bereizi gabe, bitan izan ezik: horietan kualitatiboki aipatzen du “gehienak mutilak izan dira” (Txapa Tailerra) eta “mutil eta nesken proportzioa berdina zen” (Festa Tropikala).

Datuak zehazten diren 3 jardueretan, mutilen parte-hartzea askoz handiagoa izan da neskena baino, orokorrean: 32 mutil eta 5 neska (%86,5,G / %13,5 E).

- Billar-txapelketa: 13 mutil eta neska 1.
 - Play Station txapelketa: 12 mutil eta neskarik ez.
 - “Persepolis” filmaren proiektzioa: 7 mutil eta 4 neska.
- ✓ Memoria horretan, hala ere, ondorioen atalean, egiten dira ekarpen batzuk Topagunearen jardueretako erabiltzaileen profilari buruz, eta kontuan hartzea merezi du geroko programazioetarako generoaren ikuspegitik:
 - **2012/2013 ikasturtean, mutilen parte-hartze handiagoa** ikusten da **neskena baino**, eta **ildo hori hobetu** egin behar da datozen urteetarako. Datu horien jarraipen espezifikoa egitea komeni da.
 - **Jatorri atzerritarreko gazteen igoera bat** ikusten da: ildo horretan, jarduketa koordinatuak egin dira udaleko immigrazio-zerbitzuarekin.
 - **Erabiltzaileen adina aldatu egin da** ikasturtean zehar: hasieran, 12 eta 13 urteko gazteak zeuden, baina ikasturtearen erdian **15 eta 17 urte arteko gazteak** gehitu dira, **batez ere immigratzaileak**.

Bestalde, positiboki azpimarratu behar da Gazteria sailak antolatu, sustatu edo bultzatutako ekintzetako batzuetan **emakumeen partaidetza handitzeko ekintza-neurri positiboan ezarketaren ibilbidea**. Neurri horiek ez dute beti izan emakumezkoen partaidetzaren handitzean nahi genituen emaitzak.

- ✓ Esate baterako, **Skate Lehiaketa** urtero egiten da, uztailean. Jarduera horretan emakumeen partaidetza handitu eta bistaratzeko asmoz, Usabalgo Skate Park berria egin ondoren, honako ekintza hauek egin dira:
 - Skate Park horren **inaugurazio**-ekintzan gurekin izan genuen **Skatean Europako emakumezko-txapelduna** den Ianire Elorriaga zeinak kirol horren erakustaldi bat eman zuen.
 - 2012 ezkeron, **lehiaketan** daude **hiru sari emakumezkoen kategorian eta beste hiru gizonezko kategorian**. Horrela, lehiaketa horretan sartzen eta finkatzen joan gara emakumezkoen partaidetza, neurri hauek hartu aurretik hutsa zena. Hala ere, **partaide gehienak gizonak dira orain ere** (urtero mantendu da proportzio hau: 4 neska eta 15 mutil).
- ✓ **Gipuzkoa Encounter**: estatu mailako gertaera informatikoa, 2006 ezkeron urtero egiten dena Usabal kiroldegian. 2010 ezkeron ekintza-positiboak ezartzen hasi ginen bertan emakumezkoen partaidetza handitzeko, ordura arte oso txikia zen-eta. Ekintza zehatzak honako hauek izan ziren:
 - Inskripzioetan lehentasuna ematea edo gizonez eta emakumez edo emakumez bakarrik osatutako taldeei (urtero 2011 ezkeron).
 - 2011, Ciberfeminismoaren gaineko hitzaldiak, Remedios Zafra eta Maria PTQK-kin.
 - Eta horretaz gain, 2012an “Install Party” izeneko jarduera, zeinaren asmoa den gure burmuina jarrera eta balio matxistez “desinstalatzea” eta programa transfeministak “instalatzea”.

2010 ezkeron, emakumezkoen partaidetzaren gaineko datuak ibili dira %11ren eta %15en artean, datu zehatzak hauek direlarik: 2010ean %12,5; 2011n %15; 2012an %12; 2013an %11; eta 2014an %12. Beraz, emakumezkoen partaidetzaren emaitzek txikiak izaten jarraitzen dute; dena dela, esan behar da partaidetzarik handiena izan zela ekintza positiboak hasitako urtean.

- ✓ **Tolosako gazte-lokalei buruzko ordenantza**, 2013an onartua, non sartu den honela dioen **klausula** bat: “Tolosako gazte-lokalek **bermatu beharko dute emakume gazteen presentzia eta partaidetza** gizonen eta emakumeen arteko berdintasuna indartu eta demokrazia inklusibo bat lortzeko”.

- ✓ **Tolosa Kup:** jarduera honen muina da udalerriko gazteek, mutilek batik bat, sustatutako koadrila arteko futbito-txapelketa bat. 2009 ezkerro Gazteria sailak urtero egin ditu bilerak jarduera horretan emakumezkoen partaidetza handitzea lortzeko, eta hori 2009an hasi zen, emakumezko gazteez osatutako lehen taldearekin. Helburua izan da haien partaidetza handitzea urtetik urtera, baina, hala ere, **lortutako emaitzek ez diete erantzun prozesuaren hasieran ezarritako itxaropenei.**

Hala, 2011n hiru talde misto eta emakumezkoen talde bat lortu ziren, bai, eta hala segitu da 2013ra arte, zeren urte horretan talde guztiak mistoak izan zitezten erabaki zen. Erabaki hori ez zen errespetatu, ea hori dela-eta, **2014an Udalak erabaki du diru-laguntzarik ez ematea ekintza horri**, beraren laguntza bakarra izan delarik instalazioak uztea txapelketa egin dadin.

- ✓ Tolosako talde elkartuentzako eta elkartu gabekoentzako **diru-laguntzen** urteroko deialdietan, berriz, **aurrerapena** egin da deialdietako oinarrietan **Berdintasun-irizpideak txertatzen**. Progresio hori **2005ean hasi zen** oinarrietan eduki hau txertaturik: “baloratuko da aintzat hartzea gizonen eta emakumeen arteko berdintasunaren alderdia... eta orobat izaera ez-sexista duen hizkera erabiltzea”. **2011n** gertatu zen, ordea, **aldaketa esanguratsu** bat zeren orduan sartu baitzen hau balorazio-irizpideen puntuazio-baremoan: **“20 puntu emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna sustatzen duten jarduerentzat”**. Irizpide hori gaur egun arte mantendu da eta, baita ere, **jarduera-memorieta sexuaren arabera banandutako datuak erakusteko obligazioa** zein jardueran **berdintasunezko partaidetza ahalbidetzeko ezarritako neurriak adierazteko obligazioa**.
- ✓ **Amarozko entsegu-lokalak.**- Gune hau jarrita dago musika-taldeek entsegu-lokal gisa erabil dezaten. Gaur egun 17 musika-talde daude, **gehienak gizonezkoek** osatuak, talde horietako 4 izan ezik, azken horietan emakumeak baitira ahotsa jartzen dutenak. Ekintza positibo bezala, hau txertatu da kontratuko oinarrietan: **emakumezkoek eta gizonezkoek osatutako taldeak lehenetsia** daukate gizonez osatutako beste edozein talderen aldean.

LIBURUTEGIA

Liburutegi-zerbitzua erabiltzen duten pertsonen bolumenari dagokionez, Liburutegi Zerbitzuak emandako datuen arabera, **emakume harpidetuen kopurua handiagoa da gizonena baino** helduen liburutegiaren kasuan, **baina haurren liburutegiaren kasuan**, kopurua **antzekoa da**.

Helduen liburutegian harpidetutako pertsonen **banaketak, sexuaren arabera, eredu bera du 2009an eta 2013an**, eta **emakumeak guztizkoaren %62** inguru dira, eta gizonak, %38. Berdin gertatzen da **haurren liburutegian**: sexuen arteko banaketa oso antzekoa da urte horietan, baina kasu honetan, sexuen arteko banaketa oso antzekoa da (**%51 emakumeak / %49 gizonak**). Taula honetan 2009 eta 2013 arteko datuen bilakaera deskribatzen da. Soilik aipatu behar da maileguren kasuan datuak ez daudela berezita liburutegi motaren arabera:

5.3 taula: Liburutegiko harpidetuen eta egindako maileguren bilakaera sexuaren arabera (2009 eta 2013 artean)

HARPIDETUTAKO PERTSONAK	2009		2010		2011		2012		2013	
	Emakumeak	Gizonak	Emakumeak	Gizonak	Emakumeak	Gizonak	Emakumeak	Gizonak	Emakumeak	Gizonak
Helduak	1.544	932	1.798	1.074	2.202	1.465	2.143	1.327	2.280	1.423
Haurrak	1.205	1.200	1.350	1.347	1.483	1.495	1.624	1.585	1.761	1.709
MAILEGUAK (*)	Emakumeak	Gizonak	Emakumeak	Gizonak	Emakumeak	Gizonak	Emakumeak	Gizonak	Emakumeak	Gizonak
Helduak	258	218	1642	1172	1707	1224	1779	1206	1719	1188
Haurrak										

(*) Pertsona behin besterik ez da kontatzen, mailegua zenbat aldiz egin duen edo zenbat liburu eraman dituen kontuan izan gabe

Iturria: Tolosako Udaleko Liburutegi Zerbitzuak emandako datuak

Bestetik, Tolosako II. Berdintasun Planaren ebaluazio-txostenean jaso den bezala, Liburutegi Zerbitzuaren barruan **berdintasunari eta feminismoari buruzko literatura ikusgai egiteko** ildo nabarmendu behar da, bai haurren liburutegian, bai helduen liburutegian. Hori egiteko esparrua urteroko ***Aurrez Aurre*** izan da, jendearen esku genero-berdintasunari eta teoria feministari buruzko bibliografia-aukeraketa bat jarrita.

Ildo horretan, 2010ean **genero-berdintasunari buruzko liburuaren atal berezi bat** sortu zen. Helduen liburutegiak emandako datuen arabera, 2012an 70 liburu zeuden gai horiei buruz atal berean. Ildo berean, haurren liburutegiak badu genero-berdintasunaren berri izateko liburu-atl bat, eta gainera aita-amen txokora zuzendutako ezaguera-liburuak, eta eduki feministako ipuinak eta eleberriak. Guztira, ehun erreferentzia inguru izan ditzakete esparru horretan, 2012ko datuen arabera.

MUSIKA ESKOLA

Musika Eskolako matrikulazio-datuen barruan, **aldeak** ikusi dira **emakume eta gizonen portaeran**, bai **matrikulazio-mailan, 14/16 urtetik aurrera** bereziki, bai aukeratutako **espezialitate edo musika-tresna motan**. Alde horiek irauin egiten dute denboran; izan ere, datuak, oro har, bat datoz 2010/2011 ikasturteko matrikulaziokoekin, eta 2013/2014 ikasturteko datuekin konparatuko ditugu horiek.

Jarraian, **mailaren arabera** nabarmendu beharreko **matrikulazio-datu** nagusiak adieraziko ditugu generoaren ikuspegitik :

- ✓ Oro har, **gizon eta emakumeen matrikulazio-datuen arteko proportzioa berdina da konparatutako bi aldietan**, eta emakumeen proportzioa pixka bat handitzen da 2013/2014an, gizonen matrikulazioan jaitsiera izan delako (16 gizon gutxiago), eta ez emakumeenean igoera izan delako (emakume 1 gehiago izan da soilik). Bi urteetan, **gizonen proportzioak gainditu egiten du emakumeena**, baina esan daiteke **bi sexuak ordezkaturata daudela, gutxienez ikasle guztien %40 direlako**.
- ✓ Hezkuntza-mailaren arabera analizatzen badugu, esan behar da bi aldi horietan **emakumeen proportzioa nabarmen jaitsi dela** guztizkoarekiko **4. mailan**, bai **2010/2011n (%32,6 emakumeak)**, bai 2013/2014ean (%28,6 emakumeak). Datu hori adierazgarria da, **14/16 urtetik aurrerako emakume eta gizonak** biltzen dituen maila delako, eta diagnostiko honen beste esparru batzuetan (Kulturaren, Festetan, etab.) esan dugun bezala, adin-tarte horretan **emakumeak “desagertu” egiten dira aisialdikotzat jotako jardueretatik**. Beraz, esan dezakegu eredu hori errepikatu egiten dela Musika Eskolan.

5.4 taula: 2010/11 eta 2013/14 ikasturteetako ikasleen banaketaren konparazioa mailaren eta sexuaren arabera

IKASTURTEA	2010/2011				2013/2014				
	MAILA	EMAKUMEAK	GIZONAK	E %	G %	EMAKUMEAK	GIZONAK	E %	G %
1. maila “Musika barneratzen”		53	66	%44,5	%55,5	40	57	%41,2	%58,8
2. maila “Hastapena”		81	100	%44,8	%55,2	109	112	%49,3	%50,7
3. maila “Finkatzea”		45	62	%42,1	%57,9	35	47	%42,7	%57,3
4. maila “Lehent. jard.”		14	29	%32,6	%67,4	10	25	%28,6	%71,4
GUZTIRA		193	257	%42,9	%57,1	194	241	%44,6	%55,4

Iturria: Geuk prestatua “Eduardo Mokoroa” Musika Eskolak emandako datuekin

Musika Eskolaren kasuan, 2010/11 zein 2013/14 ikasturteetan zehar, 10 emakume (9 irakasle eta administrari 1) eta 13 gizon daude (denak irakasleak), hots, **%43,5 emakumeak eta %56,5 gizonak** langile-zerrendaren guztizkoan. Bi sexuen **ordezkaritza orekatua** dagoela esan daiteke.

Bestetik, eta **espezialitatearen arabera matrikulazio-datuei** dagokienez, **emakume eta gizonen artean portaera bereziak** ikus daitezke 2010/11 zein 2013/14 ikasturteetan zehar. Bi ikasturteetan, 4 eta 7 urte arteko haurrek izena ematen duten hasierako musika-maila den “Musika barneratzen” espezialitatea izan ezik, gainerako espezialitateak (19 2013/14an eta 18 2010/11n) musika-tresna zehatz bati buruzkoak dira, eta hortxe daude sexuen arteko alderik handienak.

Jarraian, espezialitate batean **aukeratutako musika-tresnak** zehaztuko ditugu ikasturte bakoitzean, non matrikulatutako pertsona guztien artean **bi sexuetakoren bat %60tik gora den**. Datu hori 4. mailan ere ikusiko dugu berariaz, maila horretan baitaude alde handienak matrikulazioan sexuaren arabera, aurreko orrialdean ikusi dugun bezala.

5.5 taula: > %60 matrikulazioaren konparazioa sexuaren eta tresnaren arabera (2010/11 eta 2013/14)

IKASTURTEA	> %60 emakume matrikulatuak	> %60 gizon matrikulatuak	4. MAILA	
			> %60 emakume matrikulatuak	> %60 gizon matrikulatuak
2010/2011	- Zeharkako flauta (%84) - Biolina (%85) - Biola (%100) - Biolontxelo (%63)	- Tronpa (%100) - Tronpeta (%94) - Tronboia (%82) - Tuba (% 100) - Perkusioa (%90) - Kontrabaxua (%80) - Saxofoia (%95) - Bonbardinoa (%100) - Dultzaina (%89)	- Biolina (%100) - Biola (%100)	-Tronpeta (%100) -Tronboia (%71) -Tuba (%100) -Perkusioa (%100) -Saxofoia (%100) -Bonbardinoa (%100) -Txistua (%67)
2013/2014	- Zeharkako flauta (%91) - Klarineta (%74) - Biola (%100) - Pianoa (%63) - Eskusoinua (%70)	- Tronpa (%100) - Tronpeta (%88) - Tronboia (%82) - Tuba (%100) - Perkusioa (%89) - Saxofoia (%100) - Bonbardinoa (%100) - Txistua (%63) - Dultzaina (% 92)	- Zeharkako flauta (%100) - Pianoa (%100) - Eskusoinua (%67)	- Oboea (%100) - Tronpeta (%100) - Tronboia (%71) - Tuba (%100) - Perkusioa (%100) - Biolina (%100) - Txistua (%80)

Iturria: Geuk prestatua “Eduardo Mokoroa” Musika Eskolak emandako datuekin

Ikusten den bezala, **bereizketa argia dago sexuaren eta musika-tresnaren arabera :**

- **Gizonak %60tik gorako ehunekoa** dira musika-tresna **kopuru handiago batean, eta tresna mota hori gehiago da kalean erabil daitekeen tresna** (txarangetan, etab.).
- **Emakumeek ehuneko handiagoa dute musika-tresna kopuru txikiago batean, eta tresna mota hori gehiago da kalean ezin erabil daitekeen tresna**, baizik, aukeran, orkestretan erabiltzekoa.

Era berean, banantze bat dago **irakasleek emandako espezialitateetan**. 2013/2014an, langileen arteko **13 gizonek 16 diziplina mota** ematen dituzte (eskusoinua, dultzaina, oboea, perkusioa, saxofoia, solfeoa, tronpeta, tronboia, tuba, bonbardinoa, tronpa, txistua, biola, biolina, solfeoa, biolontxelo eta kontrabaxua); **langileen arteko 9 emakumeek**, berriz, **7 diziplina** ematen dituzte (eskusoinua, klarineta, abesbatza, flauta, pianoa, solfeoa eta tronboia).

KULTURA JARDUERA PROGRAMATUAK

Jarraian, udalerrian instalazio hauen barruan programatutako kultura-jardueren analisi bat egingo dugu: Aranburu Jauregian, Topic-en, Leidorren eta Kultur Etxean. Analisi honetatik kanpo utzi dugu zinema-jarduera erregularra, atal espezifiko batean garatuko baitugu.

Jarduera programatu horiek Udaleko Kultura Sailak egindako kultura-programazioaren barruan daude, baina horietakoren batean laguntzailea baino ez da, beste kultura-eragile batzuk arduratzen direlako horiek kudeatzeaz eta garatzeaz. Batik bat jaialdietan gertatzen da hori, eta hauek ditugu:

- Txotxongiloen Nazioarteko Jaialdia (Titirijai) eta Abesbatzen Nazioarteko Lehiaketa, CITEk garatzen dituenak.
- Zeinu Mintzairazko Nazioarteko Zinemaldia, Tolosaldea-Goierriko Pertsona Gorren elkarteak (Gainditzenek) bultzatzen duena.
- Zikloia Antzerki Jaialdia, Tolosako "Intujai Teatro" antzerki-konpainiak garatzen duena.
- "Ahoz Aho" Ahozkotasunaren Nazioarteko Jaialdia, Tolosako "Intujai Teatro" antzerki-konpainiak garatzen duena.


Esan behar da **ez dela egiten kultura-programazioaren datu-bilketa sistematiko eta genero-analisi bat** emakumeek zuzendutako emanaldien, egilearen, gaiaren, ikus-entzuleen sexuaren araberako proportzioaren, eta abarren araber. Horregatik, datu kualitatiboak eta jardueren tipologiari eta bolumenari buruzkoak ditugu soilik, eta ezin dugu egin analisi sakonagoa genero-ikuspegitik.

5.6 taula: Kultura-ekitaldi programatu motaren portzentajeko banaketa (2009 eta 2013)

KULTURA JARDUERA	Ekitaldien banaketa (%)	
	2009	2013
Bertsolaritza	%2,0	%4,8
Dantza	%10,2	%6,3
Erakusketak	%34,7	%23,8
Jaialdiak	%6,1	%7,9
Haurrak	%12,2	%9,5
Musika	%18,4	%20,6
Sentsibilizazioa	%2,0	%4,8
Antzerkia	%14,3	%20,6
Beste hainbat	%0,0	%1,6
GUZTIRA URTEAN	%100,0	%100,0

Iturria: Tolosako Udaleko Kultura Sailak emandako datuak

5.1 irudia: Kultura-ekitaldi programatuen kopurua (2009 eta 2013)



Iturria: Tolosako Udaleko Kultura Sailak emandako datuak

KULTURA JARDUERA PROGRAMATUAK

Aurreko orrialdeko taulan eta grafikoan jasotako datuei jarraituz, datu hauek nabarmenduko ditugu:

- ✓ **Erakusketa** guztiak **Aranburu Jauregian egiten dira**. Erakusketa egiten duten pertsonen **sexua ez da jasotzen sistematikoki**, baina Kultura Sailarekin egindako elkarrizketatik **jakin da 2013an** erakusketa beren aldetik egin duten artistak **4 emakume eta 2 gizon izan direla**; 2009an, berriz, emakume bat soilik eta 9 gizon izan ziren. Beraz, bilakaera positiboa dago alde horretatik, baina sexuaren aldagai modu sistematikoan sartzeari komerzioki da programazioaren datu-tratamenduan, jarraipen zorrotzagoa egiteko.
- ✓ 2009ko eta 2013ko programazioaren datuak konparatzen baditugu, **hazkundera** ikusten da **bertsolaritzan, jaialdietan, antzerkian, musikan eta sentsibilizazio-kanpainetan**, eta horien artean dago Beldur Barik (Berdinsarea udalerrisareak abian jarritako ekimena gazteen artean berdintasuna, errespetua, autonomia eta askatasuna sustatzeko). Jarduera gehienak **Leidorren** eta **Topicen** egiten dira.
- ✓ 2009an (49 ekitaldi) eta 2013an (63 ekitaldi) izandako ekitaldi kopuruaren hazkundera Tolosako Udalaren apustu garbia erakusten du kultura-programazioa sustatzeko, eta gizarte-eragileek emandako bultzada. Datu hori nabarmenagoa da krisi ekonomikoko aldi batean, ia esparru guztietan murrizketak izan baitira. Horregatik, uste dugu **kultura-programazioaren datuak genero-ikuspegitik analizatu behar direla**, gizon eta emakumeen artean eragin bera duten jakiteko.
- ✓ Aurreko orrialdean aipatutako **nazioarteko jaialdiak** kanpoko gizarte-eragileek garatzen dituzte, baina Udalaren ekarpen ekonomikoa bat jasotzen dute horiek antolatzeke. **Inpaktu sozial handiko** jaialdiak direnez, uste dugu horien programazioa genero-ikuspegitik ez analizatzea eskasia adierazgarria dela, ez digulako aukerarik ematen horietan genero-alborapenak izan daitezkeen ebaluatzeke.
- ✓ Azkenik, esan behar da kultura-jardueren ehuneko handi bat programatzen dela **arratsalde-gaueko ordutegietan**. Genero-ikuspegitik, eta kontuan izanda **emakumeek normalean zer arazo dituzten** beren bizitza pertsonala eta familiara **bateratzeko**, ordutegi horrek **eragotzi egin dezake emakumeak** antolatutako ekitaldietara **joatea**. Datu hori, beraz, kontuan izan behar da kultura-programazioan izan daitezkeen genero-alborapenak ekiditeko.

ZINEMA

Tolosak zinema-jarduera adierazgarria du, Leidorren garatzen dena. Esan behar da zinema-programazioaren barruan eta 2009tik sistematikoki film espezifikoak jarri direla martxoaren 8ko, ekainaren 28ko eta azaroaren 25eko kanpainetan zehar. Film horiek Udaleko berdintasun-teknikariarekin adostuta aukeratu dira, eta horietako batzuetan eztabaidak programatu dira filmak jarri ondoren. Halaber, zinema-eskaintzaren barruan zinema komertziala eta Zine Kluba daude. Azken horretan ere **sentsibilitate bat** ikusten da **adierazitako datetan** eta **urteko programazioan ere genero-filmak txertatzeko**.

2010ean, eta EHUko Berdintasun Masterreko neska ikasle batekin lankidetzan, tresna bat garatu zen **filmak generoaren arabera ebaluatzeko eta sailkatzeko**. Tresna hori 2010eko zinema-programazio osoan aplikatu zen, baina **gero ez da erabili** zinema-programazioko inolako jarduketa-esparrutan edo kultura-esparruko beste jarduketa batzuetan. Proiektu horren barruan bakarrik erabili da. Tresna horretan **erabilitako ebaluazio-irizpideak** hauek dira, eta balorazio-eskala jakin bat esleitzen zaie:

- Filmaren zuzendaritza-taldearen osaera.
- Gaiaren zerikusia generoarekin eta erabilitako perspektiba.
- Aktore taldearen osaera (kantitatea eta lehenetsuna).
- Ba ote dagoen asmo sentsibilizatzailerik.

Guztira, 173 film analizatu ziren, eta horietatik 29k soilik gainditu zituzten 10etik 5 puntuak, hots, generoaren aldetik onargarritzat jotako mailaren puntuazioa. Filmaren portzentajezko banaketa erantsitako taulan ikus daiteke.

Puntuazio-tarteak	Analizatutako filmen guztizkoaren %
0-2 puntu	%50
3-4 puntu	%21
5-6 puntu	%15
7-8 puntu	%9
9-10 puntu	%5

2010eko analisiaren emaitzek genero-ikuspegitik onargarritzat jotako film-proporzio txikia erakusten dute. Beraz, **geroko urteen ebaluazio bat egitea** komeniko litzateke esparru horretan aurrerapenik izan den jakiteko; izan ere, hurrengo taulan ikusten den bezala, zinema-jarduerak pertsona kopuru handia biltzen du:

Era berean, interesgarria litzateke datuen bilakaera honi eranstea merkatuan ekoizten den eta Tolosan benetan programatzen den zinemaren programazio-motaren analisi bat, ikusteko ea badagoen bi horien artean genero-filtrorik.

URTEAK	Banako sarrerak	Bonu-sarrerak	GUZTIRA
2013	15.941	39.258	54.749
2012	21.503	38.053	60.187
2011	18.716	28.199	47.430
2010	17.384	26.012	43.396
2009	21.878	34.676	56.069

FESTAK

Tolosako **udalerririk ibilbide eta ospe handiko festak ditu**, eta udalerritik harago doaz, batik bat Inauterietako festak. Festak aukera-berdintasuneko ikuspegitik sozializazio-prozesuaren bidez ikasitako balio eta estereotipoen adierazpen-espazio bihurtzen dira, eta erreproduzio sozialaren adierazgarri argia. Kultura-ondare ukiezina belaunaldiz belaunaldi transmititzen da, eta ildo horretan, komunitateak nortasun kolektiboak birsortzen ditu, eta neurri batean, ikasitako genero-nortasun indibidualak.

Tolosako Udalean, eta bereziki Berdintasun Sailean eta Festa Sailean, detektatu dute **festetan badaudela aldeak generoaren aldetik emakume eta gizonen partaidetza-kuotetan eta protagonismoan**, eta emakumeek ez dutela gizonek duten segurtasun-pertzepzio bera. Horregatik, **azken urteotan**, festetan **esku hartzeko bi ildo estrategiko** izan dituzte bi udal-sail horiek:

- A. Indarkeriarik eza udalerriko festetan.
- B. Udalerriko festetan zehar emakumeen partaidetza eta ikusgaitasuna areagotzeko proiektua.

Bi estrategia horiek **udalerriko bi gako erreferentetan** erabili dira, hots:

- ✓ **Inauterietan.**
- ✓ **San Joan zaindariaren festetan.**

A. Indarkeriarik eza udalerriko festetan: proiektu hau 2008ko Inauteri-festen barruan hasi zen garatzen, eta gero mantendu eta finkatu egin da festa horietan, eta 2014an San Joan festetara zabaldu da. Hona horren mugarri nagusiak:

- ✓ **2008ko Inauteriak:** lehen aldiz, Udalak, **beste kartel bat egitea onartu zuen Inauterietako festen kartel ofizialaz gain, “Joka Sano”** leloarekin. Kartel hori oso ondo hartu zuten herritarrek.
- ✓ **2009ko Inauteriak:** kartel bera atera zen, eta gazteen artean horren **irudiaren pegatinak** banatu ziren. Gainera, festetan indarkeria-kasuetan laguntza emateko telefono-zenbakiak zituen txartel bat atera zen eta autodefentsa feministako ikastaroak eman ziren.
- ✓ **2010eko, 2011ko eta 2012ko Inauteriak:** aurreko urteko ekintza berak izan dira, eta gainera, 2011n **Bilgune Feministak dinamizatutako “Joka Sano Txokoa” espazioa gaitu zen**, herritarren esku indarkeria sexistari eta prebentzioari buruzko informazioa jartzeko.
- ✓ **2013ko Inauteriak:** pegatinak banatzeaz gain, Udalaren **web-orriko Inauterietako atalean “Joka Sano” kanpainarako espazio berezia gaitu zen**, indarkeria-kasuetarako laguntza-zenbakiak dituen.
- ✓ **2014ko Inauteriak:** web orrialdean eranstean da testu bat zeinak gonbidatzen gaituen festa-eremuan dauden desberdintasunen eta eraso sexisten gainean gogoeta egitera.



2013an eta 2014an: “Joka Sano” kanpaina San Joaneko festetara zabaldu zen, herritarren artean pegatinak banatuta.

B. Udalerriko festetan zehar emakumeen partaidetza eta ikusgaitasuna areagotzeko proiektua:

Udalaren politika orokor gisa festetan **emakumeak ikusgai egiteko, festetako kartel eta programazioetako irudiak aztertze**ko jarduketa-ildo **argi** bat egin da, azken helburua emakumeak festetan ikusgai egiteko eta irudi zeharo maskulinizatuetatik ihes egiteko dela. 2009-2014 aldiko festetako kartel eta programa guztiak analizatzean, **emakumeen irudi gehiago** ikusten da horietan, baina prozesu horrek **etengabeko jarraipena behar du inertzia oso finkatu**etan ez erortzeko.

Bestetik, Berdintasun Saila, Udaleko Festa Sailarekin lankidetzan, **proiektu bat** ari da bultzatzen **2010etik**, eta horren azken helburua da **festetan emakumeen parte-hartzea sustatzea**. Proiektu horrek **elkarte gastronomikoetan** jarri du arreta, ustez horien bidez antolatzen, zentralizatzen eta garatzen baitira udal-festetan egiten diren jardueren zati handi bat. Horien kopuru adierazgarri batek, une horretan, ez zituen onartzen emakumeak bazkide gisa, eta pentsatzen zen horrek zuzeneko ondorioak zituela elkarte horiek antolatutako festetan emakumeek gutxiago parte hartzeko. Prozesu hori “Tolosako elkarte gastronomikoen garrantziari eta inpaktu sozialari buruzko diagnostiko” batekin hasi zen. Hor erabaki zen **udalerriko elkarteekin partaidetzazko prozesu bat** irekitzea, elkarteak berdintasunezko espazio bat izateko azken helburuarekin.

2013an, prozesu hori **bi lan-lerroetara** zabaldu zen. Alde batetik, eratu zen gizarte-eragile desberdinez, udal korporazioko kideez eta berdintasun-saileko teknikariez osatutako talde bat zeinak analizatu zituen herrian dauden festak eta festa horietako ekintzak asmo honekin: hobekuntzak eta jarduera proposatzea festetan emakumezkoen partaidetza handitu dadin, “Berdintasunezko festen” gune baterantz joateko. Bestaldek, berdintasunaren gaineko gogoeta-prozesu indibidual bat jarri zen martxan 3 elkarte gastronomiko ez mistoekin.

2014 urtean, martxan jarraitzen dute laneko bi alderdi horiek:

- **Elkarte gastronomikoekin hasitako prozesuari dagokionean**, Alkateak **deialdi ireki** bat egin zien elkarte guztiei. Topaketan parte hartu dute 16 elkartek, 10 misto eta 6 misto ez direnak. Emaiza hau izan zen: misto ez zen elkarte bat prozesuan sartu da eta misto ez diren gehienek diote martxan jarri dituztela emakumezko bazkideak hartzeko prozesuak eta, beraz, ez dute udalaren laguntzarik behar.
- **Festen arlo espezifikoan**, berriz, 4 tailer egin dira. Tailer horietan parte hartzen dute udaleko 24 taldek eta bere gisara datorren pertsonak. Hurrengo topaketa batean, prozesuaren emaitzak elkarbanatzearekin batera, egindako proposamenak inplementatzeko plan bat egingo da.

Jarraian, **bi lan-ildoetan zer emaitza** lortu diren ikusiko dugu:

Partaidetzako prozesua elkarte gastronomikoekin
Zer aurrerapen egin dira?

Egoera 2010ean	Egoera 2014an
30 gastronomia-elkarte: - 6 elkarte misto.	30 gastronomia-elkarte. - 14 elkarte misto. - 4 elkarte ez-misto barne-gogoetako prozesuan, proiektuan integratuak.
Geroko aurreikuspena: - Misto izateko interesa dutela adierazi duten elkarteetan gogoeta- eta aholkularitza-prozesuan jarraitzea modu indibidualean, elkarte bakoitzaren barruan lan eginik. - Berdintasun-irizpideak betetzen dituzten elkarrekin lan-saio batzuei ekitea, edo proiektuan sartuta daude asmo honekin: Tolosako herritarrekin partaidetzako gogoeta bat bultzatzea, bizitza sozial eta kulturean elkarte gastronomikoek duten paperaren eta emakumezkoen partaidetzaren gainean.	

Bestetik, festa adierazgarrietan **emakumeen parte-hartzearen aurrerapenari** dagokionez, hau **nabarmendu** behar da :

“Berdintasunezko festak” - Datu adierazgarri batzuk...
2013: San Joan Festen programako agurrean, festak analizatzen dituen gizarte-eragileen taldeak gonbitea egiten du festak berdintasunez gozatzeko.
2013: Emakume eskopetariak lehen aldiz bota zuten San Joan Festetako txupina.
2013: San Joan Festetan, lehen aldiz emakumeak irten ziren goizeko Bordondantzan (4 emakume).
2014: Iñauterietako Festen Batzordean aurkeztu eta zabaldu zen batzorde horretako taldeek aintzat hartu beharreko irizpide ez-sexisten zerrenda bat.

“Berdintasunezko festak” - Datu adierazgarri batzuk...

2014: Lehen aldiz emakumeek inauterien pregoia irakurtzen duen eta txupina botatzen duen udal komitibaren parodian parte hartzen dute (4 Emakume: 2 zinegotzi eta 2 jai batzordearen kideak).

2014: Inauterietako festetan pregoia irakurtzean, udal komitibaren parodian parte hartzen duten 2 emakume udaletxearen balkoian daude.

2014: Inauterien egitarauaren agurrean Alkateak herritarrak gonbidatzen ditu jai parekideak ospa eta eraso sexistak arbuia ditzaten.


2014: Jabetze Eskolako Batukada Feministak San Juan Jaien egitarauan parte hartzen du.

2014: Bordondantzan parte hartu zuten emakumeek testu bat idatzi zuten San Joan festetako programako sarreran.

2014: Emakumeen partaidetza zabaldu egin zen San Juan Jaietako Bordondantzan, bai goizean zein arratsaldean (6 emakume).

Inauterietako konpartsen karrozetan emakume eta gizonen parte-hartzeari dagokionez, festa-sailak horri buruz emandako azken 5 urteetako datuak hauek dira:

5.2 irudia: Karrozen osaeraren banaketa sexuaren arabera (%) (2009tik 2014ra)



Iturria: Tolosako Udaleko Festa Sailak emandako datuak

Karrozetan **parte-hartzeari buruzko datuek proportzio nahiko berdina erakusten dute**. Era berean, 2014an, Bilgune Feministaren ekarpen batzuk hartu ziren kontuan horiek lehiaketarako baloratzean. **Hala ere, datu batzuek jarrera erneagoa izan behar dela adierazten dute**: adibidez, **2014an irabazi zuen karrozak ez zuen emakumerik bere osaeran**.

AZOKA BEREZIAK

Tolosak **jarduera adierazgarria eta inpaktu sozial handikoa** du azoka bereziak egitean. Azoka horien gaiak askotarikoak dira, baina **horien zati handi bat esparru gastronomikokoak dira**. Emandako 2013ko datuetatik ondoriozta daitekeenez, genero-ikuspegitik eta erreferentzia nagusi gisa izanik **gertaera sozialetan emakume eta gizonen ikusgaitasunaren eta parte-hartze parekidearen garrantzia**, hobetu behar diren alderdi hauek adierazi behar dira batik bat:

- ✓ Txuletoiaren Azoka, haren irudi publikoa parte hartu zuten erretegiako parrillariak izan ziren, %100 gizonak.
- ✓ Babarrunaren Astea:
 - Parte-hartzea lehiaketan: %30 E / %70 G.
 - Irabazleak: %100 gizonak.
 - Entitate antolatzailea: horien artean Gure Kayola elkarte gastronomikoa dago, %100 G, baina esan behar da gaur egun Udalak elkarte gastronomikoetarako bultzatutako prozesuan dagoela.
- ✓ Tolosa Goxua: kasu honetan, lehiaketako parte-hartzaileen %100 emakumeak izan dira eta, ondorioz, irabazleak ere bai.
- ✓ Gabonetako azoka: gizonen %100eko parte-hartzea lehiaketan eta, ondorioz, irabazleak ere %100 gizonak izan dira. Epaimahaia %100 gizonak.
- ✓ Lore eta Landare Azoka: 19 emakume eta gizon baten parte-hartzea lehiaketan. Irabazleak %100 emakumeak izan ziren. Baina erakusketarien parte-hartzea %77,8 gizonak eta %22,2 emakumeak izan zen.
- ✓ Zuhaitz Eguna: Parte hartu zuten mintegien titularren %100 gizonak.
- ✓ Bisiguaren Festa: entitate antolatzailea Txinparta elkarte gastronomikoa, %100 G, baina esan behar da Gure Kayola elkarte bezala Udalak elkarte gastronomikoetarako bultzatutako prozesuan dagoela.

Hurrengo orrialdean, taula xehatu batean, azoka horiei buruzko datu guztiak adierazi ditugu, hauek azalduta: izena, jarduera, 2013ko entitate antolatzailea eta/edo parte-hartzaileak, parte-hartzaileak 2013ko lehiaketan, 2013ko epaimahaiaren osaera eta Udalaren ekarpen ekonomikoa 2009, 2011 eta 2013.

5. KULTURA, AISIALDIA ETA FESTAK

5.7 taula: Tolosako Udaleko Azoka Bereziak (2013)

Azoka	Jarduera	Entitate antolatzaile eta/edo parte-hartzailea (2013)	Parte-hartzaileak lehiaketan (2013)	Epaimahaiaren osaera	Udalaren ekarpen ekonomikoa (euroak)		
					2009	2011	2013
Zuhaitz-eguna	Zuhaitzen erakusketa eta salmenta	- Entitate antolatzailea: Tolosako Udala - Parte-hartzaileak: 18 haztegi, titularren 100 gizonak	Ez dago lehiaketarik	Ez dago lehiaketarik	1.000	1.000	500
Lore eta Landare Azoka	Loreak eta landareak saltzea	- Entitate antolatzailea: Tolosako Udala - Parte-hartzaileak: 18 haztegi (4 E / 14 G)	2014: Lehen lehiaketa 20 parte-hartzaile (19 E / G 1) Irabazleak: %100 E	E 1 / 2 G (2014)	21.000	19.000	3.000
San Joanetako azoka	Zenbait produktu erakustea eta saltzea	- Entitate antolatzailea: Tolosako Udala - Parte-hartzaileak: 30 salmenta-postu (10 E / 20 G).	Ez dago lehiaketarik	Ez dago lehiaketarik	1.200	2.600	4.000
Tolosa Goxua	Gozogintzako produktuak saltzea	- Entitate antolatzailea: Tolosako Udala eta Tolosako gozogintza-enpresak - Parte-hartzaileak: Tolosako 5 gozo-denda (2 E / · G)	100 emakumeak (35 inguru) Irabazleak: %100 E	3 E / 2 G	6.000	3.500	6.000
Babarrunaren Astea	Babarrunaren Astea	- Entitate antolatzailea: Tolosako Udala, Tolosako Babarruneko Elkarte eta Gure Kayola elkarte	6 emakume eta 14 gizon Irabazleak: %100 G	3 E / 2 G	18.000	10.000	15.000
Txuletoiaren Azoka	Erretegien bazkariak eta afariak txuletoiarekin	- Entitate antolatzailea: Tolosako Udala eta Tolosako 4 erretegi: Casa Nicolas, Casa Julian, Orue erretegia eta Burruntzierretegia. - Parte-hartzaileak: Parrilako langileak 100 G.	Ez dago lehiaketarik	Ez dago lehiaketarik	25.000	35.000	30.000
Bisiguaren Festa	Bisigu-bazkariak eta afariak	- Entitate antolatzailea: Txinparta elkarte	Ez dago lehiaketarik	Ez dago lehiaketarik	-----	-----	-----
Gabonetako azoka	Zenbait produktu erakustea eta saltzea	- Entitate antolatzailea: Tolosako Udala eta San Blas elkarte gastronomikoa.	Odolki-lehiaketa: 10 harategi parte-hartzaile, %100 gizonak Irabazleak: %100 G	0 E / 4 G	8.000	8.000	6.000
GUZTIRA					80.200	79.100	64.500

Iturria: Udaleko azoka berezien sailak emandako informazioa

KULTURA ESPARRUKO EKARPEN KUALITATIBOAK

Diagnostiko honetan datuak biltzeko prozesuaren barruan kokatuta, **“Berdintasunezko kultura baterantz”** izeneko **tailer** bat egin zen Jabetze Eskolaren barruan, herritar guztientzat irekia, bai emakume, bai gizonentzat. Tailer horretara 20 pertsona joan ziren (15 emakume eta 5 gizon), horien artean hauek: Jabetze Eskolako ikasleak, udalerriko askotariko elkartetako ordezkariak (Gainditzen, Mulambo, Nura, Kristoren gorputza, Targazki, Isidro Larrañaga Orkestra), pertsonak norberaren aldetik, Udaleko (Kulturako teknikaria) eta Tolosaldea Garatzen elkarteko (Immigrazioko teknikaria) langile teknikoak, eta udal-langile politikoak, Kultura-zinegotzia eta Berdintasun-zinegotzia. Tailerra berdintasuneko bi udal-teknikariek dinamizatu zuten, eta Betean & Oreka taldeko hiru teknikarik.

Parte-hartzaileek egindako ekarpen batzuek lehen azaldutako datuak berresten dituzte eta ildo berean doaz, eta hauek ditugu adibidez:

- ✓ “Espazio publikoaren okupazioan (festetan, etab.) gizon gehiagok betetzen dute kalea eta hartzen dute protagonismoa”. “Emakumeak neurri txikiagoan daude”. “Gizonek hartzen dute mikrofonoa”.
- ✓ “Emakumeen parte-hartzea handiagoa da ikastaro programatuetan eta leku itxietako jardueretan, batik bat Kulturako tailerretan eta Zine Klubaren saioetan”. “Emakume helduen kuadrilak ikusten dira zinema-saioetara elkarrekin joaten”.
- ✓ “Pertsona gorrei zuzendutako bereizkeria bikoitza aipatzen da, kultura-programazio ia osoa ez dagoelako egokituta horien premietara, beren elkarrekin berak antolatzen dituenak izan ezik”.
- ✓ “Emakume etorkinak ere bai, eta kasu honetan hizkuntza ez jakiteagatik kultura-jarduera jakin batzuetatik kanpo geratzen dira”. “Pertsona atzerriarrak ikusezinak dira festetan”.
- ✓ “Inauterietako txantxek ñabardura matxistak dituzte oraindik”.
- ✓ Ez dago elkarriketen daturik sexuaren arabera bereizita. Udalak diruz lagundutako ekitaldi batzuetan gizonak bakarrik ikusten dira, ez al dira kontrolatzen datuak?
- ✓ “Zer gertatzen da emakumeekin adin jakin batean? Haurrak direnean modu oso aktiboan hartzen dute parte astialdiko jardueretan, gehiengo ere badira. Baina 18 urteetatik aurrera desagertu egiten dira kultura-jarduera horietatik, zergatik? Zein dira kausak? Ezin dira aipatu emakumeen kausa berak familia-bizitza bateratzeko arduraldi handiagoa duten adin-tartean”.
- ✓ “Hautzaindegi-zerbitzuak behar dira jardueretarako”.
- ✓ “Musika-eskoletan eta bertsolaritza-ikastaroetan nesken ehuneko handia dago, baina gero kalean (txarangetan, lehiaketetan, etab.) mutilak gehiengo dira, zergatik?”
- ✓ “Batik bat zaintza-esparruan genero-rolak iraunaraztea aipatzen da, eta horren ondorioz, emakumeak, adin-tarte jakin batean eta ordutegi batzuetan, ezin dira joan kultura-ekitaldietara, denbora hori zaintzako eta etxeko lanetarako erabili behar dutelako. Baina behin eta berriz esaten da beste arrazoi batzuk egon behar direla emakumeek adin txikiago batean (18 eta 30 urte artean) ez parte hartzeko neurri berean kultura-jardueretan espazio publikoaren barruan”. “Jasotzen duten hezkuntza ere bada”.

KIROL INSTALAZIOAK

Tolosak *lau kirol-instalazio finkatu* ditu udalerrian:


Instalazioa	Ekipamendua	Entitate kudeatzailea
Usabal Kiroldegia	<p>A. Instalazio estaliak:</p> <ul style="list-style-type: none"> ❖ Zona hezea: Igerileku sakona eta ez-sakona, gorputz-tratamenduetako zona, 2 sauna, terma, lurrun-bainua eta hidromasajea. ❖ Zona lehorra: fitness-aretoa, 2 jarduera-areto, padela, 2 squash-areto, pilotaleku txiki bat, rokodromoa eta boulderra, tatamia, erabilera anitzeko 2 pista, kafetegia, klubetarako 4 areto, osasun-zentroa, hitzaldi-aretoa, klubetarako fitness-aretoa, arku-tiroko zona, gimnasioa (cycling eta ping-ponga). <p>B. Instalazio irekiak:</p> <ul style="list-style-type: none"> ❖ Igerileku sakona eta ez-sakona, berdegunea, futbol-zelaia eta entrenamendu-zona, solariuma, skate-parkea eta trialsin-zona. 	<p>Ustiapen-emakida hiru enpresari:</p> <ul style="list-style-type: none"> • Kirolzer (kudeaketa integrala) • Bidegoxo (Kafetegia) • BPX (kirol-hobekuntza teknikorako zentroa)
Uzturpe Kiroldegia	<ul style="list-style-type: none"> ❖ Kirol anitzeko pilotalekua. Biltegiak eta komunak/aldagelak harmailen azpian. 	Udala
Beotibar Pilotalekua	<ul style="list-style-type: none"> ❖ Euskal pilotako pilotaleku motza. 	Udala
Berazubi Estadioa	<ul style="list-style-type: none"> ❖ Futbol-zelaia, atletismo-pista, tenis-pista, pilotaleku irekia, gimnasio/fitnessa, erabilera anitzeko aretoa, 2 padel estali, komunak, gizonen eta emakumeen aldagelak, foto finisheko kontrol-dorretxoa, klub-bulegodun tribuna eta eraikina eta biltegiak. 	Kirolzer (kudeaketa integrala)

Ur-kirolak egiteko zona gisa **Oria ibaia ere badago**, eta horretarako **ontziraileku** bat, TAKek (Tolosako Arraun Taldeak) kudeatua.

Usabal kiroldegia



6.1 irudia: Usabalen harpidetutako pertsonen banaketa sexuaren arabera (2009-2013)



Iturria: Tolosako Udaleko Kirol Sailak emandako datuak

Sexuaren arabera harpidetutako pertsonen banaketa ia konstantea da 2009tik, eta **gizonen kasuan puntu batzuk handiagoa** da. Baina jarduera **programatuei dagokienez, ikusten da emakumeen parte-hartzea askoz handiagoa dela gizonena baino** konparatutako urte guztietan. 2005ean kirol-ekipamendu horren erabileren behaketa kualitatiboan detektatutako ondorioak berresten dituzte datu horiek; izan ere, hor zioenez, *“emakumeak dira Usabalgo ekipamendu publikoetatik kudeatzen diren ikastaroen onuradun nagusiak”, “emakume gehienak bikotean edo maizago taldean joaten dira kiroldegira”. “Gizonak, berriz, kirol federatuari edo talde-jarduerei lotutako kanpoko zein barruko ekipamendu handiagoen (kantxen) erabiltzaile nagusiak dira”. “Aparatu eta pisuen erabileran gizon bakarren presentzia handiagoa da”. Datu horietan **salbuespenak** daude **udako jarduera programatuetan, eskola-adineko mutil eta nesken parte-hartzea** ia parekidea baita.*

6.1 taula: Usabalen harpidetutako pertsonen banaketa sexuaren arabera (2009-2013)

JARDUEREN BANAKATZEA	2009		2010		2011		2012		2013	
	E	G	E	G	E	G	E	G	E	G
Urteko jarduerak	%91,3	%18,7	%95,7	%4,3	%94,8	%5,2	%93,1	%6,9	%92,9	%7,1
2. hiruhilekoa	%73,0	%27,0	%68,3	%31,7	%58,4	%41,6	%65,1	%34,9	%69,1	%30,9
3. hiruhilekoa	%72,6	%27,4	%68,1	%31,9	%67,5	%32,5	%66,3	%33,7	%70,2	%29,8
Uda	%45,3	%54,7	%41,6	%58,4	%45,9	%54,1	%43,8	%56,3	%41,4	%58,6
1. hiruhilekoa	%72,3	%27,7	%67,1	%32,9	%71,8	%28,2	%72,7	%27,3	%70,8	%29,3

Iturria: Tolosako Udaleko Kirol Sailak emandako datuak

Uzturpe kiroldegia

Uzturpe kiroldegia ikastetxeen jardueretara zuzenduta dago gehienbat, bai gimnastikarako, bai eskola-kirolerako. Halaber, astelehenetik ostiralera (eta larunbat arratsaldeetan) 17:30etik aurrera, instalazioak kirol federaturako uzten dira, eta etorkinentzat igandeetan kirol-jarduerak egiteko, batik batik futbola.

Ez dira erregistratzen sistematikoki erabiltzaileen sexuari buruzko datuak, baina Udaleko Kirol Zerbitzuak emandako datuen arabera, **ikastetxeen jardueretan** izan ezik, non **mutil eta nesken parte-hartzea %50 ingurukoa den, gainerako jardueretan parte-hartzea mutilena da gehienbat.**

6.2 taula: Uzturpeko erabiltzaileak jardueraren arabera 2013/2014 ikasturtean

JARDUERA	Erabilera kop./aste	Sexuaren arabera bereizitako informazioa
Gimnastika	250	Ikastetxeen matrikulazioaren mende dago, orokorrean nahiko parekidea
Eskola Kirola	200	
Kirol federatua	140	%10 E / %90 G
Etorkin taldeak	60	%100 G

Iturria: Tolosako Udaleko Kirol Sailak emandako datuak



Beotibar Pilotalekua



Beotibar Pilotalekuan, **10 emakume pilotariko** taldea izan ezik, instalazioaren asteko gainerako erabilerak gizonek egiten dituzte. Guztira, Kirol Zerbitzuak emandako informazioaren arabera, 210 erabiltzaile dira asteen, eta horrek esan nahi du **emakumeak** instalazioen **erabiltzaileen guztizkotik %4,8 direla.**

Beraz, esan dezakegu instalazio eta kirol-diziplina horretan **emakumea gutxiegi ordezkaturata dagoela.** Hala ere, esan behar da **gaur egun Tolosa Futbol Klubak (TFKk)** Gipuzkoako Euskal Pilota Federazioak bultzatutako **“Emakumea pilotari” proiektua** indartu nahi duela. Gaur egun, emakume monitore bila dabilta, eta emakumeek proiektuan izena ematearen arabera, aurrera egingo du ala ez. Beraz, horren bilakaera jarraitzea komeni da.

Berazubi Estadioa



2013ko azarotik, oraindik **Tolosa FkK** egiten duen **futbol-zelaiaren kudeaketa** izan ezik, **gainerako instalazioen kudeaketa Udalaren eskumena** izatera igaro da. Gaur egun, Usabal kiroldegiko instalazioak kudeatzen dituen enpresa bera da, **Kirolzer**, instalazio horien kudeaketa integrala egiteko kontratu bat duena. Kirol Zerbitzuak emandako informazioaren arabera, gaur egun **ez dago datu zehatzik instalazioen erabilerari buruz sexuaren arabera**, baina aurreko ibilbidearengatik eta datu kualitatiboengatik, **emakumeen %30eko eta gizonen %70eko proportzioa** kalkulatzen da.

Oria ibaia. Ontziralekua




Oria ibaian zenbait ur-kirol egiten dira, batik bat arrauna eta arrantza. Ibaiko ontziralekua Tolosa Arraun Taldeak (TAKek) kudeatzen du. **Ez dago sexuaren arabera bereizitako erabileren daturik**, baina **2013/14 ikasturteko TAKen federazioaren lizentzien arabera, %53,8 emakumeak dira eta %46,2 gizonak**. Nolanahi ere, Udaleko Kirol Zerbitzuak emandako erabilera-datu orokorrak hauek dira: TAKetik datozen 500 erabiltzaile asteen, eta 50 arrantza-diziplinakoak urtean.

ESKOLA KIROLA

Eskola Kirola analizatu beharreko esparru bat da, bide nagusi horretatik jartzen baitira kirol federatuaren eta profesionalaren oinarriak batetik eta, bestetik, kirol- eta osasun-ohiturak indartzen dira hezkuntza-ikuspegi batetik. Analizatutako datuetan, **datu nahiko parekideak** dira, baina **gizonen parte-hartzearen nagusitasuna ikusten da emakumeenaren aldean**.

6.2 irudia: Eskola-kirolaren banaketa ikastetxearen eta sexuaren arabera (2010etik 2013ra)



Iturria: Tolosako Udaleko Kirol Sailak emandako datuak

2012/2013 ikasturteko datuetan ikus daitekeenez, **eskola-kirolaren kategoria guztietan**, oro har, **mutilen ordezkariak ehuneko handiagoa du neskenak baino**. Haur-kategorian dago parekidetasun handiena (%42,6 E / %57,4 G), baina mutilen ehunekoa handiagoa da beti. **Judo eta Igeriketa** diziplinetan, **benjamin-kategorian** soilik daude **talde mistoak**. Bestetik, diziplina bakoitzeko parte-hartzeari dagokionez, argi adierazi behar da **Gimnastika** dela diziplina **erabat femeninoa**; **Pilota eta Zesta Punta**, berriz, **maskulinoak** dira ia osorik. Bestetik, nabarmendu behar da **Atletismoa, Igeriketa, Mendia eta Herri Kirolak** diziplinak direla **diziplina parekideak**.

Ikastetxe guztietan eta urte guztietan zehar, ikusten da **eskola-kirola egiten duten mutilen ehunekoak ikastetxeetan matrikulatutako mutilen guztizkoarekiko neskenak baino balio handiagoa duela**. Horrela, adibidez, 2010/2011 ikasturtean ikastetxe guztietan matrikulatutako mutilen %63,5ek eskola-kirola egiten zuen, eta nesken guztizkoaren %52,2k. 2011/2012 ikasturtean, datu horrek ez du aldatzen joera, eta %69,3koa da mutilen kasuan, eta neskenen %59,4.

6.3 taula: Eskola-kirola kategoriaren, diziplinaren eta sexuaren arabera (2012/13 ikasturtea)

Kirol-diziplina	Benjaminak			Kimuak		Haurrak		Kadeteak	
	G	E	Mis	G	E	G	E	G	E
Areto-futbola	148	39		130	84	24	8	24	
Atletismoa	55	36		56	55	26	27	5	13
Eskubaloia	98	20		71	30				
Gimnastika		22					6		
Igeriketa	24	9	17	15	15	10	5	1	4
Judoa	1	3	50	25	9	9	1		
Herri-kirolak				27	29	11	11		
Ping-ponga	10	14				2			
Mendia				50	49	48	44		
Pilota	47			60	3	4			
Saskibaloia	148	20		118	74				
Trialsina				2					
Txirrindularitza	2	4		5	1	6	2		
Zesta-punta				2					
GUZTIRA	533	167	67	561	349	140	104	30	17
% guztizkoarekiko	%69,5	%21,8	%8,7	%61,6	%38,4	%57,4	%42,6	%63,8	%36,2

Iturria: Tolosako Udaleko Kirol Sailak emandako datuak

KIROL FEDERATUA

Kirol federatuari dagokionez, **gizonek oro har ehuneko handiagoa dute emakumeek baino** (%34,5 E / %65,5 G). Gizonen proportzioa klubetan 60tik gorakoa da kirol-klub ordezkatu guztietan, Tolosaldea IKT – Igeriketan (%50 E / %50 G), Tolosaldea Arraun Taldean (TAKen) (%53,8 E / %46,2 G), URPEKOAK (urpeko igeriketan) eta **TOLOSA CFn** izan ezik, non maila orokorrean %40 E eta %60 G dauden, eta **proportzio hori, azken klub horren barruan, aldatu egiten da kirol-diziplinaren arabera**, eta horrela, hauxe dugu :

6.4 taula: Kirol federatua diziplinaren eta sexuaren arabera (2013/2014)

KIROL KLUBA	DIZIPLINA	E	G	GUZTIRA	% E	% G
TOLOSA CF	Atletismoa	48	45	93	%51,6	%48,4
	Eskubaloia	0	85	85	%0,0	%100,0
	Txirrindularitza	14	0	14	%100,0	%0,0
	Futbola	80	218	298	%26,8	%73,2
	Gimnastika	97	0	97	%100,0	%0,0
	Erritmikoa					
	Pilota	0	2	2	%0,0	%100,0
Tenisa	0	7	7	%0,0	%100,0	
TAKE	Saskibaloia	75	123	198	%37,9	%62,1
TOLOSALDEA IKT	Igeriketa	21	21	42	%50,0	%50,0
ORIAKO TXIRRINDULARI ESKOLA	Txirrindularitza	11	38	49	%22,4	%77,6
TOLOSALDEA Arraun Taldea (TAK)	Arrauna	56	48	104	%53,8	%46,2
LASKORAIN, KE	Areto-futbola	10	60	70	%14,3	%85,7
ESKOLAPIOAK, KE	Areto-futbola	0	60	60	%0,0	%100,0
ALPINO UZTURRE	Eskia / Mendia	1	11	12	%8,3	%91,7
OARGI	Ping-ponga	2	11	13	%15,4	%84,6
TRIATHLOI Taldea	Triatloia	5	20	25	%20,0	%80,0
TOLOSAKO JUDO CLUBA	Judoa	10	25	35	%28,6	%71,4
Tolosako XAKE Elkartea	Xakea	3	8	11	%27,3	%72,7
CD BEOTIBAR	Zesta-punta	0	37	37	%0,0	%100,0
URPEKOAK	Urpeko igeriketa	32	29	61	%52,5	%47,5
BIKUTZ	Areto-futbola	0	10	10	%0,0	%100,0
ORIXE	Areto-futbola	9	32	41	%22,0	%78,0
IURRE Taberna	Areto-futbola	0	10	10	%0,0	%100,0
GUZTIRA		474	900	1374	%34,5	%65,5

barruan, aldatu egiten da kirol-diziplinaren arabera, eta horrela, hauxe dugu :

- ✓ Eskubaloia, Pilota eta Tenisa gizon kirolarien %100ekin.
- ✓ Txirrindularitza eta Gimnastika Erritmikoa emakume kirolarien %100ekin. Txirrindularitzaren kasuan, nabarmendu behar da Tolosan badela beste txirrindulari-klub bat, eta emakumeak %22,4 besterik ez dira hor.

Bestetik, **klub batzuetan emakumeen ordezkartza Okoa da**: Eskolapioak KE (Areto Futbola), CD Beotibar (Pilota), BIKUTZ (Areto Futbola), IURRE Taberna (Areto Futbola)).

Beraz, emakumeek klubetan duten parte-hartzeari dagokionez, **alde adierazgarriak daude kirol-diziplinen arabera**. Udaleko Kirol Zerbitzutik eta emakumeen parte-hartzea sustatzeko diziplina guztietan 2009tik, ekintza positibo bat egiten da emakumeen lizentziak 1,5 punturekin baloratuta kirol-kluben egiturak garatzeko diru-laguntzen oinarrien barruan. (Ikus xehetasun gehiago diru-laguntzen atalean)

Iturria: Tolosako Udaleko Kirol Sailak emandako datuak

AISIALDIKO EDO HERRI KIROLA

Atal honen barruan emakume eta gizonen parte-hartzea analizatu nahi dugu udalerrian izaera herrikoiarekin antolatzen diren kirol-jardueretan. Jarduera horiek kirol federatua baino gutxiago araututa dagoen eta horren lehiakorra ez den kirol-jardueraren tipologia baten barruan daude, eta hor parte hartzen duten pertsonen bizi-kalitatea, osasuna hobetzea bilatzen dute horiek ere, eta dibertimentu-espazio bat eskaintzea. Datuak analizatzeko, Tolosako Udaleko Kirol Sailak emandako 2013ko datuak ditugu:

Hona datu horietatik ateratzen diren ondorio nagusiak:

- ✓ **Emakumeen parte-hartze orokorra** ekitaldi mota honetan **gizonena baino askoz txikiagoa** da (%27,4 E / %72,6 G). Proportzio hori kirol federatukoa baino are txikiagoa da (%34,5 E / %65,5 G).
- ✓ **Ekitaldi batzuek emakumeen 0ko parte-hartzea** dute: Tenisa, Pala Txapelketa eta Futbol Txapelketa (etorkinak).
- ✓ Denen artean, **soilik jarduera batean**, Haurren Ero Etxe Krosean, dago parte-hartze gutxi gorabehera parekidea, nahiz eta gizonen tasa handiagoa den (%45 E / %55 G). Jarduera hori haurrei zuzenduta dago, eta eskola-kirolari buruzko datuetan ikusi dugun bezala, balioak orokorrean parekidetasunetik hurbilago daude, nahiz eta sexu maskulinoaren nagusitasuna egon.
- ✓ **Gainerako ekitaldietan parte-hartze femeninoa %2,6** (Arrantza) eta **%33,3** (Hondartzako Boley-a) **artean** daude.

6.5 taula: Herri-kiroletako edo aisialdiko kiroleko ekitaldiak (2013)

Ekitaldia	Entitate antolatzailea	E	G	Guz.	E %	G %
3x3 saskibaloia katean	Take saskibaloia	32	96	128	%25,0	%75,0
Tolosa Kup (Areto-futbola)	Urtero bi kuadrila	24	160	184	%13,0	%87,0
Tolosako krosa	Tontor Elkarte San Esteban	35	212	247	%14,2	%85,8
San Silbestreko Lasterketa	Samaniego Orixe	202	412	614	%32,9	%67,1
Arrameleko krosa	Plan B Taberna	30	120	150	%20,0	%80,0
Hondartzako Boley-a	Alde zaharreko tabernariak (Orbela)	40	80	120	%33,3	%66,7
Bedaio: mendi-zaldi	Artubi Elkarte (Bedaio)	32	88	120	%26,7	%73,3
Haurren Ero Etxe Krosa	Ero Etxe elkarte	261	319	580	%45,0	%55,0
Shanti Futbol Txapelketa	Shanti Kirolak	180	420	600	%30,0	%70,0
Arsenal Futbol Txapelketa	Arsenal Elkarte	160	450	610	%26,2	%73,8
Arrantza-txapelketa	Tolosako arrantzaleak	5	186	191	%2,6	%97,4
Tenisa	Tolosa CF	0	14	14	%0,0	%100,0
Txakurkrosa	-----	20	74	94	%21,3	%78,7
Pala-txapelketa	Tolosa CF	0	24	24	%0,0	%100,0
Rol Sky	Alpino Uzturre	32	65	97	%33,0	%67,0
Mendi-irteerak	Alpino Uzturre	78	222	300	%26,0	%74,0
Etorkinen futbol-txapelketa	Ereite (urte batean soilik egin da)	0	60	60	%0,0	%100,0
GUZTIRA		1.131	3.002	4.133	%27,4	%72,6

Iturria: Tolosako Udaleko Kirol Sailak emandako datuak

Datu horiek berriz berresten dute gizonen parte-hartze handiagoa kirol-jardueretan, orokorrean.

DIRU LAGUNTZAK

Kirol Sailean bada **urteko diru-laguntzen linea egonkor** bat lau motatan banatzen dena: Kirol-kluben egituren garapena, Eskola Kirola, Igeriketa Txapelketa, San Joan eta Jarduera bereziak. Diru-laguntza horien zenbateko nagusia “Klubuen egiturak garatzeko” dira. Modu positiboan aipatu behar da **azken urteotan pixkanaka sartu direla ekintza positiboko neurriak emakumeak kirol-jardueran hastea sustatzeko eta saritzeko**, horien parte-hartzea txikiagoa delako kirol-esparru guztietan, kapitulu honetan esan dugun bezala.

Horrela, eta horren erakusgarri, hauxe dugu 2012ko oinarrietan:

“Tolosako Udalaren kirol-politikaren irizpide orokorrak: Baldintzak sustatzea emakumea esparru hauetan integratzea errazteko:

- *Kirol-jarduera maila guztietan.*
- *Aukera-berdintasuna, erantzukizuneko lanpostuak lortzea...*


Tolosako kirol-kluben eta kirol-elkarteen egiturak garatzeko diru-laguntzen zenbatekoak ezartzeko irizpideak:

- *Federazioaren lizentziagatik: 1,5 puntuko puntuazioa hartzen du barnean lehiaketa-lizentzia femeninoetarako.*
- *Klubaren antolakuntza-sistemagatik: zuzendaritza-karguetan emakumeak (bi edo gehiago) badaude, puntuazioa %25 gehitzen da.*
- *Jarduerak antolatzeagatik: 10 puntu berariaz genero-berdintasuna sustatzera bideratutako kirol-jardueretarako.*
- *Kirol-titulazioagatik: puntuazio bakoitza %50 gehituko da emakume entrenatzaileen kasuan”.*

SARIAK ETA AITORPENAK

Kirol Sailak urteko kirol-galan **sariak** ematen ditu **kirol-maila globalean eta Berdintasuna Kirolean sari espezifiko bat**. Banakako sariak gizon eta emakumeen artean banatzeari buruzko datuak aldatu egin dira urteetan zehar, eta **emakume sarituen gero eta joera handiagoa** ikusten da, baina 1995etik 2013ra arte zenbaketa orokorra eginik, gizonen proportzio handiagoa dago oraindik, hots, 279 emakume eta 493 gizon (%36,8 E / %63,2 G).

6.3 irudia: Banakako sarien banaketa sexuaren arabera (1995-2013)



Iturria: Tolosako Udaleko Kirol Sailak emandako datuak

Berdintasuna Kirolean sari espezifikoari dagokionez, 2010etik ematen da eta taula honetan zehazten da xehetasunez 2013 arte:

URTEA	EMANDAKO SARIA
2010	TFKko txirrindulari talde femeninoa
2011	TFKko gimnastika erritmikoko ataleko nerabe bat
2012	Futbol-talde femenino seniorra (TFK)
2013	Emakume pilotarien taldea (Beotibar)

TESTUINGURU OROKORRA

Emakundek argitaratutako “Zifrak 2013 – Emakumeak eta Gizonak Euskadin” txostenean esaten den bezala, garrantzitsua da kontuan izatea zer eragin duen generoak osasunaren esparruak analizatzen dituzten adierazleei lotutako errealitatean, eta hauek nabarmentzen dira horien artean: osasunaren autopertzepzioa, osasun-baliabideen erabilera, ospitaleratzea, osasuneko arriskuak eta ohitura osasungarriak, eta ugaltze-osasuna eta erabakiak hartzea.

Txosten horrek erakusten dituen datuek, besteak beste, joera hauek adierazten dituzte EAEn:

- ✓ Autopertzepzioari dagokionez, **emakumeek erantzuten dutenez, pertzepzio negatiboagoa dute norberaren osasun-egoerari buruz.** Halaber, proportzio handiagoan adierazten dute mugak dituztela eguneroko bizitzako jarduerak egiteko.
- ✓ Osasun-baliabideen erabilerari buruz, emakumeak, tradizioz, **gehiago erabiltzen dituzte osasun-zerbitzuak.** Hala ere, azken datuek erakusten dute gizon eta emakumeen arteko aldeak txikitu egin direla.
- ✓ Osasuneko arriskuei eta ohitura osasungarriei dagokienez, oro har, **droga-kontsumoa txikiagoa da emakumeen artean.** Aldiz, **sedentarisinoa emakumeen artean handiagoa da** gizonen artean baino.
- ✓ **Haurdunaldia eta erditzea dira ospitaleratze-kausa ohikoenak** emakumeentzat, eta nerbio-sistemako eta zentzumen-organoetako gaixotasunak dira hurrengo ospitaleratze-kausak.
- ✓ 2012an Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailak **argitaratutako haurdunaldiaren borondatezko etendurei** buruzko txostenak –HBE egiteko zentro egiaztatuei buruzkoa denak– ondorioztatzen du EAEn bizi eta HBE egiten duen emakumearen profil soziodemografikoa aurreko urteetakoaren antzekoa dela: adinari dagokionez, 20 eta 24 urte arteko emakume taldeak du tasa handiena. Lan-egoera aktiboan zegoen emakumeen ehunekoa txikitu egin da (%60 2010ean eta %52 2012an) eta handitu egin da emakume atzerritarren ehunekoa (%37,7 2009an eta %44 2012an). Osakidetzako ospitaleetan haurdunaldia eteteko aitortutako arrazoi nagusia anomalia larriak edo gaixotasun larria, sendaezina edo fetuaren bizitzarekin bateraezina izateko arriskua izan zen.

Kapitulu honetan, osasun-zentroetan egindako esku-hartzearen balorazio kualitatibo orokor labur bat egin ondoren, analisi kuantitatiboaren zati handiena haurdunaldia borondatez eteteko gaiari eskaintzea erabaki da, udal-mailan lortutako datuekin. Ugalketa-eskubide horren sarbidea murriztera zuzendutako azken ekimen politikoak ikusirik, zalantzarik gabe, txosten honetan arreta berezia merezi du.

OSASUN ZERBITZUAK TOLOSAN

Tolosak zerbitzu hauek eskaintzen dituen Osasun Zentro publiko bat du: Arreta administratiboa; Medikuntza Orokorra, Pediatria; Erizaintza; Emagina; eta Larrialdiak.

Ezin izan dira lortu zerbitzu horien erabilerari buruzko datuak sexuaren arabera bereizita, eta adinaren eta kultura-jatorriaren aldagaiak ere kontuan hartzen dituztenak. Hala ere, zentroan lan egiten duten medikuei egindako elkarrizketei esker, genero-rolek Tolosako emakumeen osasunean duten eraginari lotutako alderdi garrantzitsuak identifikatu dira.

Egindako elkarrizketaren arabera, **arreta, oro har, ez da planifikatzen genero-ikuspegitik**. Ildo horretan, elkarrizketatuak azpimarratzen du hasierako planteamendua izango litzatekeela bidezko arreta bat eskaintzea edozein populazio motak izan ditzakeen premietarako, “inori mesederik egin gabe”. Baina generoaren gaiari begiratzen badiogu zehazki, emakumeen ugalketa-sistemari buruzko programa espezifikoetatik harago, **indarkeria sexistako kasuen detekzioarekin** lotutako lan guztia aurkitzen dugu. Balorazioa da medikuak, orokorrean, nahiko sentsibilizatuta daudela:

“Problematika mota hori detektatzeko sentikor egonarazten zaitu... Nire gauza bat da bereziki, baina uste dut lankideena ere badela, zeren askotan, izaten ditugun bileretan edo bateratzeetan, ohartzen zara existitzen direla eta susmo asko ateratzen dira indarkeria-kasu posibleei buruz”.

Beste esparru batzuetan ere, medikuek identifikatzen dute **badirela patologia nagusi batzuk emakumeen artean eta genero-rolari lotuta daudela**:

“Haritik tiratzen baduzu, ohartzen zara gizarte-rolkin zerikusia izan dezaketela, eta ohartzen zara gauza batzuek patologia bat sortzen dutela”.

Ildo horretan, planteatzen da emakumeen osasunean genero-inpaktua identifikatzen dela osasun-zerbitzuetara hurbiltzen diren emakume erabiltzaileek egindako eskariaren analisisan sakontzen denean. Osasun-profesionalak ahalik eta gehien ikertu behar du –arretarako dagoen arreta-denbora laburrean– emakumeen osasun-arazoetan eragina izan dezaketen gizarte-faktoreetan.

“Haritik tiraka, indartze psikologiko batera eramaten zaitu, orokorrean gehiago emakumeena gizonena baino. Ez da prebentzioz genero-ikuspegi batekin zoazela, baizik galderak egiten eta azalpenak bilatzen hasten zarenean, genero-faktoreak identifikatzen dituzula azkenean, atzera begira”.

“Lehen mailako arretan, psikologia nagusi da... Perspektiba fisiko batetik eta miaketatik bat ez datozen gauzak daudenean, bada, gai psikikoak ikertzen hasten zara –edo are sintoma fisikoen susmoen aurrean”.

Badirudi medikuen zati handi bat nahiko sentsibilizatuta dagoela, baina adierazten **da praktikan ez daudela adostutako eta aurrez definitutako jarraibide batzuk medikuek identifika dezaten genero-erolek zer inpaktu duten** osasun-zentrora joaten diren pertsonen **osasunean** (bereziki emakume adinduen kasuan), eta defizit hori lehenbailehen konpontzea komeni da.

Krisiak osasunean duen inpaktuari dagokionez, esaten da medikuek argi dutela aspalditik enplegua galtzeak modu oso negatiboan eragiten duela gizonen osasunean, eta ezinegon handiz bizitzen dutela familiaren hornitzailearena ezin egin izatea, lan ordainduaren bidez. Orain deigarriena da **emakumea lan-merkatuan modu masiboan hasi denetik, beraien ere erasan handia izaten dutela enplegua galtzeagatik**, eta hori beren osasun-egoeran islatzen da. Gainera, enpleguari eutsi zaionean ere, **krisiak lan-prekarietatea eta zuzeneko edo zeharkako bereizkeria-egoerak areagotzen ditu**, eta beti ezin dira salatu. Eta **horrek, berriz ere, eragin oso negatiboa du** egoera horiek jasaten dituzten **emakumeen osasunean**. Tamalez, zaila da medikuentzat kasu horiek artatzea, beren esku ez dagoenean auzian eragina izatea:

“Kausa hor agerian dagoela ikusten duzu... Batetik ez da ona gizarte-arazoak medikalizatzea, hau ez da konpontzen botikekin. Baina batzuetan ikusten duzu blokeoa ikaragarria dela, nolabait ere lagundu egin behar dela farmakologiarekin, psikologiarekin, ahal den baliabide guztiekin”.

Zentrora hurbiltzen diren pertsonengan eragina duten alderdi sozialak –eta bereziki generoarekin lotutakoak– lantzeko zer tresnak behar diren planteatzean, identifikatzen da, batik bat, **patologia diagnostikatzeko eta horri modu globalagoan heltzeko denbora faltaren arazoa** dagoela. Ildo horretan, hauxe adierazten da:

“Beharrezkoa da osasun-langileek denbora gehiago izan dezaten haien indartzen saiatzeko, eta emakumeak ez daitezela sentitu hain gaizki. Askotan, ikusten duzu presioak iristen zaizkiela alde guztietatik, seme-alabengandik, bikotekideengandik... Denaren eta denen sostengu bihurtzen dira, beraiena izan ezik. Saiatu behar litzateke haien duten pantailan gauza batzuk agertzea eta esan dezatela “Hara ba! Egia da, nik aldaketa bat egitea behar du honek”. Eta aldatzeko iradokizunak egin behar genituzke eta, batik bat, haien garrantzia azpimarratu, beren buruarengan konfiantza handiagoa eman”.


Aurreko guztiagatik, **beharrezkoa da koordinazio handiagoa ezartzea Osasun Zentroaren eta Udalaren artean**. Bereziki, oso interesgarritzat jotzen da **lantzea genero-erolei lotutako alderdiak eta horiek emakumearen osasunean duten eragina** Tolosako **Jabetze Eskolaren bidez**, pertsona elkarriketatuek ezagutzen ez zuen espazioa eta hala ere bereziki baliotsua iruditu zitzaiona Tolosa bezalako udalerrri batean.

Haurdunaldiaren Borondatezko Etendurak (HBE)

Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailaren Plangintza, Antolamendu eta Ebaluazio Sanitarioko Zuzendaritzak haurdunaldiaren borondatezko etendurei buruz emandako datuek Tolosan azken urteotan izan den bilakaera ikusteko aukera ematen digute. Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailaren Haurdunaldiaren Borondatezko Etenduren Erregistroak EAEn HBE egiteko egiaztatutako zentroek egindako etendurei buruz igortzen dituzten jakinarazpenak jasotzen ditu. 2012tik aurrera, EAEn bizi eta HBE egitera beste autonomia-erkidego batera jo duten emakumeen kasuak ere jasotzen dira. Zebaketa hori egiten da autonomia-erkidego guztiek beren erregistroa itxi eta datuak Ministerioaren aplikazioan iraultzen dituztenean.

Grafiko honek erakusten du nola **2007tik 2013ra %10,3 igo diren Tolosako udalerrian erregistratutako etenduren kasuak**, eta guztizko zenbakietan 3 kasu gehiago da hori.

7.1 irudia: Tolosako HBE – Guztizkoak 2007/2013




Iturria: Geuk prestatua Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailaren datuekin


Tolosan egindako HBEen arrazoi nagusiari buruzko daturik ez dugu, baina Emakunderen “Zifrak 2013 – Emakumeak eta Gizonak Euskadin” txostenean esaten den bezala, “*Sexu- eta ugaltze-osasunari eta haurdunaldiaren borondatezko etendurari buruzko legea indarrean sartu zenetik, 2010. urtetik, **ia kasu guztietan, emakumeak eskatu du haurdunaldiaren etendura.** Lege hori indarrean sartu aurretik, haurdun zegoenaren osasun fisikoa edo psikikoa arriskuan egotea zen HBEa egiteko arrazoi bakarra*”, hori baitzen alega zitekeen ia kasu bakarra HBE egitea eskatzeko.

Adinari dagokionez, **kasu gehienak 26 eta 40 urte arteko adin-tarteetan aurkitzen ditugu**. Hala ere, aldaketa adierazgarri batzuk ikusten dira, hala nola 2009an kasuak areagotzea 20 urte arteko tartean, guztizkoaren 20 direnak (6 kasu). 21 eta 25 urte arteko adin-tartean ere aldaketak ditugu, 2011n eta 2013an igoera baitago aurreko urteekiko. Hots, 2011n eta 2013an HBEEn kasuak tarte horietan guztizkoaren %37,5 eta %31,3 dira hurrenez hurren; 2007an eta 2009an, berriz, guztizkoaren %3,4 eta %3,3 ziren. Beraz, **igoera orokor bat** ikus dezakegu **adin-tarte txikienetan (30 urteak arte), eta datu kezagarria da hori, gazteen artean sexu-hezkuntza eta antisorgailuetarako sarbidea indartzeko premia azpimarratzen duena**.


7.2 irudia: HBE Tolosan – adinaren arabera 2007




7.3 irudia: HBE Tolosan – adinaren arabera 2009



7.4 irudia: HBE Tolosan – adinaren arabera 2011




7.5 irudia: HBE Tolosan – adinaren arabera 2013



Iturria: Geuk prestatua Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailaren datuekin

HBE kasuen bilakaera lan-egoera kontuan izanik analizatzen badugu, jaitsiera nabarmena ikusten dugu besteren kontura zein norberaren kontura lanean ari diren emakumeen artean, 2007 eta 2013 artean, eta **langabezian edo lan bila dabiltzan emakumeen igoera txiki bat**. Ikasten ari ziren emakumeen kopurua ere igo egin da, neurri txikiagoan, 2007an guztizkoaren %6,9 eta 2013 %18,8 baitziren. Jakina, egoera hori emakumeen langabezia-tasaren igoera handi orokorrari zor zaio, baina interesgarria litzateke jakitea bilakaera hori ez ote zaien zor zuzeneko faktore ekonomikoek: batetik, lanik gabeko emakumeek **arazo ekonomiko gehiago** izan ditzakete **metodo antikontzeptiboak ordaintzeko**, eta bestetik, langabezian, emakume horiek **ezin diote aurre egin seme edo alaba bat izatearen gastuari**, edo ez dute nahi beren **kontratuak ez berritzeko arriskurik haurdunaldi-kasuan** (legez kanpokoa den bereizkeria legez, baina praktikan gertatzen dena oraindik, beste aitzakia batzuen azpian ezkutatuta).


7.6 irudia: Haurdunaldia eteten duten emakumeen lan-egoera – Tolosa 2007/2013



Ikasketa-mailari buruzko datuek erakusten dutenez, goi-mailako edo unibertsitateko ikasketak dituzten emakumeen kopurua igo egin da, batik bat 2013an; izan ere, guztizkoaren %43,8 dira, gertaera harrigarria, zeren zenbat eta hezkuntza-maila handiagoa, orduan eta informazio-maila handiagoa dutela pentsa baitaiteke sexualitateari eta metodo antikonzeptiboetarako buruz, eta jabetze-maila handiagoa sexukidearekin kontrazepzioa eta haurdunaldiaren prebentzioa negoziatzeko.

Aldi berean, 2013an lehen ikasketak dituzten emakumeen kopurua ere igo egin da, guztizkoaren %21,9 izateraino. Nabarmendu behar da 2009tik aurrera datuak biltzeko kategoriak aldatu direla, eta konparazioak orientagarriak dira.

7.7 irudia: Haurdunaldia eteten duten emakumeen ikasketa-maila – Tolosa 2007/2013



7.8 irudia: Haurdunaldia eteten duten emakumeen jaioterria – Tolosa 2007/2013




Iturria: Geuk prestatua Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailaren datuekin

Azkenik, bikotean bizi diren emakumeen kopurua igo egiten da – %51,7etik 2007an %62,5era 2013an–, baina ez da igoera erregularra, 2011n %40,6 jaitsi baita. Berriz ere interesgarria litzateke sakonago analizatzea zergatik gertatu den igoera garrantzitsu hori; izan ere, a priori, logikoa litzateke pentsatzea haurduntzak errazago kontrolatzen direla bikote egonkorretan emakume batek ez duenean baino.

Informazioa biltzeko erabilitako kategorien aldaketa dela medio, soilik 2011tik aurrera adierazten da bikotean bizi ez diren emakumeak bakarrik bizi diren ala familiarekin edo beste pertsona batzuekin bizi diren. Zenbaki absolutuetan, familiarekin bizi diren emakumeen kasuak 10etik 2011n 7ra 2013an igarotzen dira.

Emakumeen **jaioterriari** buruzko datuek **emakume atzerritarren igoera nabarmen bat** adierazten dute –2013an guztizkoaren %40,6ra iristen da, baina 2007an %6,9 besterik ez zen. Kasu honetan, atzerritarrei buruzko Legea gogortzeak eta krisi ekonomikoa areagotzeak larriagotu egiten dituzte egoera prekarioenetan dauden emakumeek lehendik ere badituzten arazo larriak nahi gabeko haurduntzak prebenitzeko.

7.9 irudia: Haurdunaldia eteten duten emakumeen bizikidetzaren egoera – Tolosa 2007/2013



Iturria: Geuk prestatua Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailaren datuekin

Tolosako Udalak **“Genero-indarkeriaren aurkako prebentziorako eta genero-indarkeriaren biktimak diren emakumeen arretarako udal-politiken diagnostikoa”** prestatu zuen 2009ko maiatzaren eta 2010eko ekainaren artean. Gero, diagnostikoa 2011ko eta 2012ko datuekin eguneratu zen eta, azkenik, **“Gizarte Zerbitzuetako arretari buruzko txostena 2013 – 2014ko ekaina”** egin zen datu berriekin. Bitartean, 2013an, **“Genero-indarkeria eta sexu-erasoak bizi dituzten emakumeei arreta hobea eskaintzeko erakundeen arteko jarduerarako eta koordinaziorako I. Udal Protokoloa”** onartu zen. Jarraian aurkeztuko den informazioa aipatutako txosten horietatik dator, eta Ertzaintzak 2013rako jasotako datu osagarrietatik.

Ertzaintzaren eta Herrizaingo Sailaren datuak

2011-2012 diagnostikoaren arabera, indarkeria matxistari aurre egiten dioten emakumeei eta egoera hori detektatzen duten pertsonen zuzendutako 900 840 111 **Arreta Telefonoari** –doako telefono-zerbitzua eta presentziala, 24 orduetan urteko 365 egunetan arreta bermatzen duena– buruzko datuek **igoera adierazgarria** erakusten dute **telefonogune horretara egindako deietan bai Tolosan, bai lurraldearen gainerakoan**. Batez ere 2010etik 2011ra: aldi horretan, deiak %184 igo ziren Tolosaren kasuan.

8.1 taula: Telefonozko arreta-zerbitzua

	2009	2010	2011
Tolosa	12	19	54
Gipuzkoa	634	931	1621
%	%3,0	%1,3	%3,3

Iturria: 2011-2012ko diagnostikotik ateratako taula

8.2 taula: Ertzaintzak hasitako espedienteak

	2010	2011	2012	Guztira
Hasitako EI/GI espedienteak	32	44	16	92
Ofizios hasitako espedienteak babes-agindua eskatu gabe eta agindu judiziala jarri gabe	14	11	3	28
Guztira	46	55	19	120

Iturria: 2011-2012ko diagnostikotik ateratako taula

2011-2012ko diagnostikoan, Ertzaintzak **irekitako espedientei** buruzko datuek erakusten dutenez, **espedienteen guztizkoaren 20ko lehen igoera dago bat 2009 eta 2010 artean, eta 65eko jaitsiera 2010 eta 2011 artean**. Esan behar da **batera aurkeztu direla “etxeko indarkeriari” eta “genero-indarkeriari” buruzko datuak** eta, beraz, ezin da bereizi zenbat kasu dagozkion kategoria bakoitzari. Datuetan ez da zehazten espedientea nola hasi den ere (emakume kaltetuaren zuzeneko salaketa, *in situ* aurkezteagatik, etab.).

Ertzaintzak emandako **2014ko** datuen arabera, **2014ko urtarrilaren 1etik urte bereko irailaren 30era “genero-indarkeria/etxeko indarkeriako” 14 espediente hasi ziren**.

Emakumeen nazionalitateari buruzko 2014ko datu partzialek adierazten dute **horietatik 4k nazionalitate espainola dutela** (datuak 14 espedienteetatik 12ri dagozkie). **Gainerakoek, Portugalgo emakume batek izan ezik, batasunaz kanpoko nazionalitatea dute**. 12 emakumeetatik, **9k babes-agindua dute eta 6 “bortxa” telefona dute**. Kasu guztiak genero-indarkeriako kasu gisa definitu dira eta **denetan jarri da salaketa**.

8. EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIA

2011-2012ko diagnostikoaren eguneratzeak, Ertzaintzaren datuez gain, Herrizaingo Sailak emandako datuak ditu. Datu horiek **Ertzaintzak** 2009-2012 aldian (urtarril-abuztuan) **ezagututako arau-hauste penalengatiko emakumeen biktimizazioak** biltzen dituzte, Tolosako udalerrian gertatuak, salaketa edo dagozkien polizia-eginbideak tramitatzen diren ertzain-etxea gorabehera. Datu horiek ez datoz bat Ertzaintzarekin, Tolosako ertzain-etxeak eta Analisi Arloak irizpide desberdinak erabiltzen dituztelako. Dena dela, informazio osagarria eskaintzen dute, hala nola bikotekideak edo bikotekide ohiak eragindako indarkeria eta beste ahaide batek eragindakoa bereizteko aukera ematen duena, eta emakume salatzailearen ezaugarri soziodemografiko batzuen berri izatekoa.

Taulan irakurtzen den bezala, 2009-2012 aldian zehar, **emakume baten bikotekideak edo bikotekide ohiak eragindako tratu txarreatik salaketak genero-indarkeriatik jasotako salaketen gehiengoa dira**: %75 2009an, %94 2010ean, %76 2011n, eta %63 2012an. Familia barruko indarkeriatik eta sexu-askatasunaren aurkako delituengatiko salaketek antzeko ehunekoa dute aldi osoan, %12.

8.3 taula: Herrizaingo Sailatik datozen datuak – Ertzaintzak jasotako salaketak

	2009	2010	2011	2012	Guztira
Bikotekideak edo bikotekide ohiak eragindako indarkeria	18	15	13	12	58
Familia barruko indarkeria (bikotekide/bikotekide ohiak eragindakoa izan ezik)	2		3	4	9
Sexu-askatasuna	4	1	1	3	9
Guztira	24	16	17	19	76

Iturria: 2011-2012ko diagnostikotik ateratako taula

Biktimizazioei buruzko datuek antzeko joera dute. Hau da, salaketa kopuruarekin gertatzen den bezala, **bikotekideak eragindako indarkeriak Tolosako Ertzain Etxean jasotako biktimizazioen ehunekorik handiena du (%75)**. Aipagarria da **2009an sexu-askatasunaren aurkako delituengatik jasotako biktimizazio kopuru handia ere, 9 guztira**.

8.4 taula: Herrizaingo Sailatik datozen datuak – emakumeen biktimizazioak

	2009	2010	2011	2012	Total
Bikotekideak edo bikotekide ohiak eragindako indarkeria	25	23	21	16	85
Familia barruko indarkeria (bikotekide/bikotekide ohiak eragindakoa izan ezik)	4	3	3	4	14
Sexu-askatasuna	9	1	1	3	14
Guztira	38	27	25	23	113


Iturria: 2011-2012ko diagnostikotik ateratako taula

8. EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIA

Herrizaingo Sailak emandako datuek **emakume eta erasotzaileen adinari buruzko informazioa** ere eskaintzen dute. Emakumeei dagokionez, emakumeen aurkako indarkeria adin guztietako emakumeen aurka egiten den delitua den arren, salaketei buruzko datuek erakusten dute **2009ko urtarrilaren eta 2012ko abuztuaren artean salaketen ehuneko handiena 18 eta 40 urte arteko tartean dagoela**. Urte bakoitza arretaz analizatzen badugu, aipagarria da 2009an **jasotako kasuen kopuru handia 18 eta 30 urte arteko emakumeen artean: 15 biktimizazio**.

Erasotzaileen adinari dagokionez, 31 eta 40 urte arteko gizonen artean dago banatuta neurri handiagoan, eta horrek balio absolutuetan esan nahi du 2010ean, 2011n eta 2012an zehar 5, 12 eta 12 gizon salatu direla hurrenez hurren. Emakume kaltetuen adinaren konparazio bat egiten badugu, ondoriozta dezakegu, oro har, emakumeen adina txikiagoa dela eraso dieten gizonena baino.

8.1 irudia: Herrizaingo Sailetik datozen datuak – emakumeen biktimizazioak nazionalitatearen arabera



Iturria: 2011-2012ko diagnostikotik ateratako grafikoa


Emakumeen **jatorriari** buruzko datuek erakusten dute **2010etik aurrera handitu egiten dela salatu duten emakume etorkinen kopurua**. Aldi berean, 2009tik aurrera txikitu egiten da bertako emakumeen kopurua. Joera hori bat dator Ertzaintzak 2014ko urtarril-irailari buruz emandako datuekin: horien arabera, **hasitako espedienteen %67 nazionalitate atzerritarreko emakumeei dagokie**.

Kontuan izanik 2011n emakume etorkinak Tolosako populazio femeninoaren guztizkoaren %4,78 direla, ondoriozta dezakegu **emakume etorkinen gehiegizko ordezkari dagoela salatutako indarkeria matxistako kasuetan**. 2014an antzeko egoera dugula esan dezakegu: 2013an emakume migratzaileak Tolosako populazio femeninoaren %6 diren bitartean, 2014ko lehen erdian hasitako espedienteen %67 ere emakume migratuei dagokie.

Udaleko Oinarrizko Gizarte Zerbitzuen datuak

Jarraian, genero-indarkeriako egoerak eta/edo sexu-erasoak jasan eta Tolosako Gizarte Zerbitzuetan artatu dituzten emakumeei buruzko datuak aurkeztuko ditugu.

8.2 irudia: Tolosako OGZek artatutako emakumeak - 2009, 2010, 2013 eta 2014 (ekain arte)



Iturria: Geuk prestatua 2013-2014ko ekaineko txosteneko datuekin


Emakumeen **jatorriari** buruzko datuek erakusten dutenez, 2013an zein 2014an orain arte, %37,5 emakume migratuak ziren –6 emakume 2013an eta 3 emakume 2014an, ekainaren 30era arte–. Aldiz, 2009an eta 2010ean, gehiengoa (%60) emakume migratuak ziren, eta batik bat emakume latinoamerikarrak eta ekialdeko Europako emakumeak ziren talde honetan.

Grafikoan ikus daitekeen bezala, **2009tik 2013ra emakume artatuen kopurua 16 kasuetara igo zen**. 2014ko lehen erdian joera antzekoa da, ekain arte 8 kasu zenbatu baitira.

Adinari dagokionez, **2013an emakumeen %50ek 18 eta 25 urte artean zituzten**; 2014an, berriz, ekain arte, emakume artatuen 50ek 36 eta 45 urte artean zituzten.

Gainera, nabarmendu behar da **2013an 18 urtetik beherako emakumerik ez zegoen bitartean, 2014an badagoela kasu bat**. Berdin gertatzen da 46 urtetik gorako emakumeekin: kasu bat erregistratu da 2014an.

8.3 irudia: Emakume artatuen adina – 2013 2014ko ekain arte



Iturria: Geuk prestatua 2013-2014ko ekaineko txosteneko datuekin

8. EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIA

Emakumeen **egoera zibila** aldatu egin da azken bi urteotan: 2013an %62,5 ezkongabeak ziren, eta 2014ko azaroaren 1ean ezkongabe eta ezkonduen proportzioa berdindu egin da. 2009ari eta 2010ari buruzko datuek 2013koen antz handiagoa dute, urte horietan laguntza eskatu zuten emakume gehienak ezkongabeak baitziren. Ezkonduak bigarren talde garrantzitsuena izan ziren. Bananduak, berriz, %20 eskas ziren 2009an eta %10 2010ean.

8.5 taula: Egoera zibila – Emakume artatuak 2013tik 2014ko ekain arte

Urtea	Ezkongabea	Ezkondua	Dibortziatua	Alarguna
2013	%62,5	%31,3	-	%6,2
2014/06 arte	%37,5	%37,5	%12,5	%12,5

Iturria: 2013-2014ko ekaineko txostenetik ateratako taula

Ondorengoei buruzko datuak begiratzen baditugu, 2013an emakumeen %62,5ek semeak eta/edo alabak zituzten (guztira 10 emakumek). 2014an, ehuneko hori %87,5era handitu da azarora arte (guztira 7 emakume). Bi kasuetan, emakume gehienek seme-alaba bat edo bi dituzte. Halaber, emakume migratuek dituzte seme-alaba gehien.

2009an eta 2010ean, emakume artatuen %55ek seme-alabak zituzten (gehienek seme-alaba bat edo gehiago).

Datu horiek erakusten dute zer pisu izan dezakeen seme-alaben zaintzak eta arretak indarkeria-egoeratik irteteko urratsak ematea erabakitzean, are gehiago egoera oso estuetan eta askotan familiako laguntza-sarerik gabe dauden emakume atzerritarren kasuan

Ikasketei dagokienez, 2013tik 2014ko ekain arteko datuek erakusten dutenez, **emakume gehienek oinarrizko eta erdi-mailako ikasketak dituzte** (%56,5ek oinarrizko ikasketak dituzte eta %30,5ek erdi-mailako ikasketak). Aldi berean, **bertako emakumeek soilik dituzte goi-mailako ikasketak, baina guztizkoaren %4,3 besterik ez dira.**

Langabezia-egoerak gehiago erasaten die bertako emakumeei 2013an eta 2014ko une honetan: izan ere, emakume guztien %25 bertakoak dira eta langabezian daude eta %8,3 egoera berean dauden emakume migratuak dira. **Emakume migratu gehienek zaintza-lanetan jarduten dute, eta horien artean 1ek soilik ez du kontraturik.**

8.6 taula: Jatorria eta lan-egoera – Emakume artatuak

Jatorria	Langabea	Zaintzak	Zerbitzuak	Irakaskuntza Bankua	Ikaslea	Guztira
Bertakoa	25	4,2	12,5	12,5	8,3	62,5
Migratua	8,3	25				37,5
Guztira	33,3	29,2	12,5	12,5	8,3	100

Iturria: 2013-2014ko ekaineko txostenetik ateratako taula

8. EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIA

Diru-sarreraren mailari dagokionez, nabarmendu behar da 2013tik 2014ko ekain arte emakume artatuen %50ek gizarte-laguntzak jaso dituztela, %18,2k diru-sarrera txikiak dituzte eta %31,8k diru-sarrera ertainak. Diru-sarrera ertainak dituzten emakumeen %100 bertakoak dira eta gizarte-laguntzak jasotzen dituztenen erdiak baino gehiago ere bertakoak dira. **Diru-sarrera txikiak dituzten gehienak emakume migratuak dira.**

Emakume artatuek dituzten **sare sozialei** buruz txosten berrienak aurkezten dituen datuak begiratzen baditugu, ikusten dugu **alde adierazgarriak daudela bertako emakumeen eta migratuen artean, eta azken horiek dute laguntza-maila txikiena.**

8.7 taula: Jatorria eta laguntza-sareak – Emakume artatuak

Jatorria	Bai	Eskasak	Ez	Guztira
Bertakoak	45,5	13,7	4,5	63,7
Migratuak	4,5	22,7	9,1	36,3
Guztira	50	36,4	13,6	100

Iturria: 2013-2014ko ekaineko txostenetik ateratako taula

Emakume horiek jasaten duten **indarkeria motari** dagokionez, Gizarte Zerbitzuen datuek indarkeria psikologikoa, fisikoa eta sexuala bereizten dituzte. 2009an eta 2010ean bi sexu-eraso daude, bat urte bakoitzean. Etxeko esparruari lotutako 18 indarkeria-kasuetan, indarkeria fisikoa artatutako kasuen %85ean dago. **2013ko eta 2014ko datuek erakusten dutenez, indarkeria psikologikoaren igoera bat dago, eta indarkeria fisikoaren ehunekoaren jaitsiera bat, baina azken hori da adierazgarriena.** Aldi berean, nabarmendu behar da 2014ko lehen erdian, **indarkeria sexuala guztizkoaren %12,5 dela.**

8.8 taula: Indarkeria mota – Emakume artatuak

	Sexuala	Fisikoa	Psikologikoa	Guztira
2013	%6,7	%60	%33,3	%100
2014/06 arte	%12,5	%62,5	%25	%100
Guztira	%8,7	%60,9	%30,3	%100

Iturria: 2013-2014ko ekaineko txostenetik ateratako taula

Indarkeria mota kolektiboaren arabera gurutzatzen duten 2013ko eta 2014ko datuei begiratzen badiegu, deigarria da zer alde dagoen emakume etorkinen (guztizkoaren %8,5) eta bertakoen (guztizkoaren %21,7) indarkeria psikologikoaren ehunekoetan. Bertako emakumeen arteko indarkeria mota horren ehunekoak kontzientzia hartzea adieraz dezake tratatu txarrak ez dela berdin kolpeak, eta horregatik, indarkeria mota horren detekzio handiagoa dago hori jasaten dutenen aldetik.

8. EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIA

2013-2014ko ekaineko txostenean baditugu indarkeria motari buruzko datuak ere emakumeen adinarekin gurutzatuta. **Udaleko** Gizarte Zerbitzuetan dauden datuen arabera, **indarkeria fisikoa ia adin guztietan dago, adin txikikoen artean izan ezik. Aitzitik, eraso sexuak eragin handiagoa dute neska gazteen artean.**

8.9 taula: Indarkeria mota eta adina – Emakume artatuak

	Sexuala	Fisikoa	Psikologikoa	Guztira
18tik behera	4,3			4,3
18tik 25era	4,3	21,7	8,6	34,6
26tik 35era		17,5	4,3	21,8
36tik 45era		17,5	17,5	35
46 edo gehiago		4,3		4,3
Guztira	8,6	61	30,4	100

Iturria: Geuk prestatua 2014ko txosteneko datuekin

Laguntza-sareei dagokienez, 2013ko eta 2014ko datuen arabera, **horiek pixka bat gehiago funtzionatzen dute tratu txar psikologikoen kasuetan**; tratu txar fisikoaren kasuan, berriz, emakume kaltetu gehienek diote sare eskasa dutela edo ez dutela –gainera, emakume migratuak dira gehienak, lehenago ikusi dugun bezala–.

8. 10 taula: Indarkeria mota eta laguntza-sareak – Emakume artatuak

Laguntza-sareak	Sexuala	Fisikoa	Psikologikoa	Guztira
Bai		22,7	27,3	50
Eskasa	4,5	27,3	4,5	36,4
Ez		13,6		13,6
Guztira	4,5	63,6	32,8	100

Iturria: Geuk prestatua 2014ko txosteneko datuekin

Era berean, datuek erakusten dutenez, **indarkeria mota guztiak daude emakumeen artean haien egoera zibila, amatasun-egoera, ikasketa-maila edo lan-okupazioa gorabehera.** Hala ere, badago azpimarratzeko moduko daturen bat indarkeria motari buruzko datuak emakumeek dituzten diru-sarrerekin eta laguntza-sareekin gurutzatzen badira.

- ✓ Adibidez: indarkeria psikologikoa bere aitorten-mailaren ehunekorik handiena du diru-sarreraren maila ertaina adierazten duten emakumeen artean; fisikoa, berriz, handiagoa da gizarte-laguntzak jasotzen dituztenen artean.

2011-2012ko diagnostikoak emakume artatuek **jarritako salaketei** buruzko informazioa eskaintzen du. Horri dagokionez, 2009-2010eko datuen arabera, emakumeen %80k salatzen dute, prozesuaren uneren batean, gizon erasotzailea. **Salaketa horien ondorioz, emakumeen %70ek babes-agindu bat lortu dute berehalako babes-neurri gisa**, indarrean den legerian izaera penala, zibila, soziala eta ekonomikoa duten babes juridikoko kautela-neurri guztiak batera aktibatzen dituen.

8. EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIA

Udaleko Gizarte Zerbitzuetatik egindako **deribazioei** dagokienez, **2011-2012ko diagnostikoak** erakusten du **biktima diren emakumeentzako laguntza psikologikoko foru-programak izan duela deribazio kopuru handiena**. %80 2009an eta %50 2010ean, indarkeria jasan zuten emakumeek arreta psikologikoa jaso zuten. Aholkularitza juridikoaren eta laguntza ekonomikoen baliabideak laguntza-eskatzaileen %45entzat mobilizatu dira. Bi urteetan, emakume batek soilik behar izan du urgentziatzko bisitokia.

Deribazioei buruzko **2014ko txosteneko** datuek antzeko joera dute, baina aldaketa adierazgarri batzuk dituzte. Kasu honetan, deribazioen %70 laguntza psikologikoko zerbitzura egin dira, eta deribazioen %9 soilik egin dira Zerbitzu Juridikora. Beraz, kasu honetan, **laguntza ekonomikoetarako deribazioak bigarrenak dira adierazgarrienen artean, guztizkoaren %48rekin**. Halaber, 2013 eta 2014 artean 3 deribazio-kasu izan dira bisitokira.

Txosten horrek Udaleko Gizarte Zerbitzuetan **sartzeko bideak** ere analizatzen ditu. 2013 eta 2014ko datuen arabera, **emakumeek hiru ibilbide nagusi jarraitu dituzte**:

- ✓ **Norberaren ekimenez iristea**, hots, emakumeak Gizarte Zerbitzuetara joan dira laguntza eske lehen baliabide gisa.
- ✓ **Gizarte Zerbitzuetara Ertzaintzaren zuzeneko deribazioaren bidez iristea**.
- ✓ **Gizarte Zerbitzuetara geroratuta iristea** uneren batean Ertzaintzatik igaro baina Gizarte Zerbitzuetara berehala jotzen ez duten emakumeak.
- ✓ 2014an gainera, badaude Osakidetzak edo Urrats arreta-zerbitzuak egindako deribazio baten ondoren Gizarte Zerbitzuetara iritsitako emakumeen kasu batzuk.

8.11 taula: Gizarte Zerbitzuetan sartzeko bideak – Emakume artatuak

	Norberaren ekimenez	Ertzaintza	Ertzaintza/ norberaren ekimenez	Osakidetzak	Urrats	Guztira
2013	57,2	21,4	21,4			100
2014		37,5	25	25	12,5	100
Guztira	36,4	27,3	22,7	9,1	4,5	100

Iturria: Geuk prestatua 2014ko txosteneko datuekin

Indarkeria matxistari aurre egiten dioten emakumeen ibilbidea

2011-2012ko diagnostikoak emakumeen ibilbidea analizatzen du, Gizarte Zerbitzuen eta Ertzaintzaren 2009 eta 2010eko datuak gurutzatuta. Gurutzatze horietan oinarrituta, balorazio hauek egin dira:

- ✓ **Indarkeria matxistari aurre egiteko baliabide publiko bati laguntza eskatzea erabakitzen duten emakumeen erdiak baino gehiagok auzibidera jotzen dute** egoera horretatik irteteko, eta Ertzaintzan hasten eta amaitzen dute beren ibilbidea.
- ✓ Kontuan izanik indarkeria fisikoa jasaten duten Gizarte Zerbitzuen emakume erabiltzaileen ehuneko handia eta salatzen duten emakume gehienek duten arrisku handiko sailkapena, **pentasa dezakegu indarkeria fisikoa jakitera ematen diren kasuetan gehien gertatzen den moduetako bat dela eta emakume gehienak salatzaera eramaten dituen beren burua babesteko aukera gisa.**
- ✓ Hipotesi gisa har daiteke **emakume kopuru adierazgarri batek duela aukera baliabide espezializatu pribatuera jotzeko** (arreta psikologikora edo legalera, bereziki) **edo laguntza-sare nahikoa duela** Gizarte Zerbitzuetatik eskaintzen diren baliabideak ez behar izateko. Ohiko zirkuituetan sartzen ez direnez, **oso elementu gutxi daude beren egoera zehatzaren berri izateko**, salaketa bat jarri dutela jakiteaz gain.
- ✓ Jakina, **detektatu gabe geratzen da indarkeria-egoera bat bizi baina auzibidera jo gabe horretatik irtetea lortzen duten emakumeen kopurua.**

2013an **“Genero-indarkeria eta sexu-erasoak bizi dituzten emakumeei arreta hobea eskaintzeko erakundeen arteko jarduerarako eta koordinaziorako I. Udal Protokoloa”** prestatu eta onartu ondoren, Tolosako Udalak indarkeria-gaietan lana finkatzeko bide estrategiko bat zabaldu du. Protokoloaren ondorioz sortutako koordinazio-mekanismoak eratuta, aukera dago etorkizunean datu-bilketa hobetzen jarraitzeko eta informazioa gurutzatzeko, artatutako kasuen ebaluazioa ahalik eta zehatzena izateko.



“Kaleak Berdintzen = Iqualando las Calles” proiektua

90eko hamarkadan, emakume-elkarte askok bultzatu zituzten herri eta hirien diseinuari buruzko gogoetak, “**Hiri Debekatuaren Mapa**” izenpean. Mapa horiek ezkutuan gorde nahi ziren hiriaren alderdi guztiak erakusten zituzten. Horrela, ikusgai egiten ziren emakumeei beldur handiena ematen zieten zonak, erasoak gertatu ziren zonak, irisgarritasun txarreko espazioak eta hiri horietako bizigarritasunarekin lotutako beste alderdi batzuk. Kaleei genero-ikuspegia gehitzea lan oso nekeza izan zen, aditu gehienek pentsatzen zutelako generoaren gaiak ez zuela eraginik moduetan, bolumenetan eta zenbakietan. Nekeza izan zen hain gauza sinplea frogatzea, hots, hirietan eta herrietan bizi diren pertsonak ekarpen handia egin dezaketela beren inguruko eraikuntzan.

Esparru honen barruan dago **Tolosako Udalak 2009an eta 2010ean** garatu zuen “**Kaleak Berdintzen**” izeneko proiektua, Berdintasun Sailak bultzatuta eta Hirigintza Sailarekin lankidetzan.

Hiria eta hiriaren eraikuntza neutralak ez direla ikusgai egin nahi zuten zenbait emakume-elkartetatik sortu zen proiektua. Pertsona guztiak ez dira berdin bizi kaleetan, ez dituzte berdin hautematen eta bizitzen. Adibiderik adierazgarrienetako bat beldurra da. Emakume askok beldurra sentitzen dute beren hirietako lekuetan; gizonak, berriz, ez dute beldurrik leku beretan. **Proiektu honen helburuetako bat da frogatzea hirigintza, gure kale, herri eta hirien eraikuntza ez dela neutrala** eta beharrezkoa dela bizipen eta perspektiben aniztasuna sartzea horiek planifikatzean.

Informazio-bilketa, hauen bidez...



- ✓ Zenbait **tailer HHEko ikasle guztiekin, Tolosako landa-eremuko emakumeekin** eta **zenbait emakume-elkarterekin**, non **Bilgune Feministak** modu aktiboan parte hartu zuen.
- ✓ Beste esparru batean, eta **herritarren partaidetza** indartzeko, **erakusketa elkarreragile bat egin zen Gko Gallery Arte Galerian**. Erakusketa horretan, Tolosako mapa handi bat zabaldu zen galeriako lurrean, eta hormetan “beldurra ematen dit”, “gustatzen zait”, “ilun dago”, “zikin dago” etiketak zituzten poltsak zintzilikatu ziren... erakusketara joaten zen jendeak egokien iruditzen zitzaion lekuan jartzen zituen etiketak.

Proiektuaren emaitzak:

- ✓ **Txostena**, irizpide hauetakoren batengatik nabarmentzen diren **Tolosako 31 puntu** adierazten dituena: **Segurtasun eza, irisgarritasun txarra eta/edo narriadura-egoera**. Gehi herritarren ekarpen batzuk.
- ✓ Adierazi behar da proiektuan partaidetza handia izan zela eta udal-baliabideak eta Gipuzkoako Foru Aldundiaren finantzaketa inbertitu zirela hor, baina **ez da egin** txostenean adierazitako **puntuetan egindako esku-hartzearen jarraipen bat modu sistematikoan**. **Salbuespen** gisa, aipa daiteke hiri debekatuaren mapan puntu "beltz" gisa identifikatutako **RENFEko geralekuaren inguruan egin zen jarduketa**. Berdintasun Sailaren ekimenez, ingurunea oso gainetik txukundu zen, batik bat tunelean argia jarri eta pintatuta eta ispilu bat jarrita (gaur egun ispilua hautsita dago eta ez da jarri berria). Hori guztia **Emakumeon Plazaren inaugurazioaren** bezperan egin zen.



Txosteneko datu batzuk:

- **Geralekua:** Irisgarritasun nulua gurgil-aulki, haur-aulki, eta abarrentzat. Ilogailu bat falta da. Segurtasun faltaren sentsazioa: Zona bazterra, eta sartzeko tunela igotzeko eskailera perpendikular batean amaitzen denez, ezin da jakin nor dagoen nasan.
.....
- **Soldadu kalea:** Narriadura-egoera, irisgarritasun txarra eta segurtasun ezaren sentsazioa.
.....
- **Armeria plaza eta Andra Mari kalea:** narriadura-egoera eta segurtasun eza.
.....
- **Amarotz auzoa:** segurtasun eza auzora iristeko, batik bat gaez...
.....
- **Ibaiko pasealekua futbol-zelaiaren ondoan:** Ibaiak eta futbol-zelaia ixten duen hormak mugatutako pasealekua. Bere konfigurazioagatik eta sarbide batean sortzen den zokoagatik, segurtasun faltaren egoera sortzen da, batez ere gaez pasatzean.
.....
- **Izaskun auzoa:** irisgarritasuna ez dago bermatuta eta espaloi gehienek ez dute beheratzerik eta zabalera ez da nahikoa...
.....
- Etab.

ETXEBIZITZA

Jarraian, Tolosako egoera analizatuko dugu, UDALMAPEk Gizarte Kohesioa-Bizi Kalitatea Ardatzean, Etxebizitza eta Urbanizazioa atalean, argitaratutako azken adierazleei dagokienez. Adierazle horiek eskualdearekin, Gipuzkoarekin eta EAerekin konparatuta daude. Adierazi behar da **ez dagoela adierazlerik multzo honen barruan sexuaren arabera bereizita**, edo emakume eta gizonen datu bereziekin lotura duenik eta, beraz, horrek horien genero-analisia oztopatzen du, batik bat etxebizitza-eskaerak direnean. Ikus ditzagun datu nagusiak:

9.1 taula: UDALMAPen adierazleak. Gizarte Kohesioa-Bizi Kalitatea Ardatza: Etxebizitza eta urbanizazioa

Adierazlea	Urtea	Tolosa	Tolosaldea	Gipuzkoa	EAE
Bizitegi-lurzoruko etxebizitza-dentsitatea (etxebizitza/Ha)	2013	77,4	57,58	60,65	45,08
Familia-etxebizitza hutsak (%)	2011	17,51	16,75	12,77	11,40
50 urtetik gorako antzintasuneko familia-etxebizitzak (%)	2011	28,45	20,86	23,03	22,51
Familia-etxebizitza nagusien konfort-indizea	2006	65,01	68,07	72,66	72,23
Familia-etxebizitza nagusiak, egoera aurrutu, txar edo eskaseko eraikinetan (%)	2001	26,54	18,75	14,91	8,66
Etxebiden jasota dauden etxebizitza-eskaerak (biztanleen %)	2011	33,27	25,98	41,79	40,48
Azken bosturtekoan amaitutako etxebizitza babestuak (BOE) (biztanleen %)	2011	11,53	7,85	7,59	11,43
Hiri-lurzorua (%)	2013	4,02	1,90	3,84	3,72
Bizitegi-azalera urbanizagarria (%)	2013	13,97	11,21	13,83	14,58
Biztanleria-dentsitatea (bizt./km ²)	2013	504,58	145,96	374,11	309,12

Iturria: UDALMAP

Datuetan ikus daitekeen bezala, **Tolosa** honelako udalerria da :

- ✓ Bere eskualdea, Gipuzkoa eta EAE baino **biztanleria-dentsitate askoz handiagokoa** (504,58 bizt./km²). Berdin bizitegi-lurzoruko etxebizitza-dentsitatearekin (77,4 etxebizitza/Ha)
- ✓ **Familia-etxebizitza hutsak** ere **indize handiagoa** dute **Tolosan** (%17,51) konparatutako gainerako lurraldeetan baino, eta 50 urtetik gorako antzintasuna duten familia-etxebizitzek ere bai (%28,45).
- ✓ **Etxebiden jasota dauden etxebizitza-eskaerei** dagokionez, Tolosako datua (%33,27 biztanle) kasu honetan **Tolosaldekoa baino handiagoa da soilik**, eta 8,50 puntu txikiagoa da Gipuzkoako datua baino. Datu hori bera, Tolosan 2012ko bigarren hiruhilekoan, eta Etxebizitzaren Euskal Behatokiak argitaratutakoaren arabera, %34,7 biztanlekoa da, Tolosaldean %27,7 eta %47 EAEn. Beraz, **goranzko joera** bat ikusten da **lurralde guztietan**, askoz nabarmenagoa EAEn Tolosan baino.


Etxebizitza hutsari buruzko datuei dagokienez, ikus daitekeenez, **gutziko etxebizitzekiko proportzioa jaitsi egin da pixkanaka** analizatutako aldian. Jaitiera handiena 2013an eta 2014an gertatu da, eta 2014ko datua da aldi guztiko txikiena (%17,3 etxebizitza huts), taula eta grafiko honetan ikus dezakegun bezala:

9.2 taula: Etxebizitza okupatu eta hutsen portzentajezko banaketaren bilakaera

URTEA	E. okupatuaren %	E. hutsaren %
1986	%67,4	%32,6
1987	%75,1	%24,9
1988	%75,2	%24,8
1989	%75,1	%24,9
1990	%74,6	%25,4
1991	%74,7	%25,3
1992	%72,2	%27,8
1993	%73,8	%26,2
1994	%74,9	%25,1
1995	%76,1	%23,9
1996	%77,8	%22,2
1997	%78,5	%21,5
1998	%78,6	%21,4
1999	%79,9	%20,1
2000	%79,4	%20,6
2001	%79,9	%20,1
2002	%80,4	%19,6
2003	%81,1	%18,9
2004	%80,6	%19,4
2005	%80,6	%19,4
2006	%80,9	%19,1
2007	%80,8	%19,2
2008	%81,2	%18,8
2009	%81,2	%18,8
2010	%80,9	%19,1
2011	%79,4	%20,6
2012	%78,8	%21,2
2013	%81,6	%18,4
2014	%82,7	%17,3

Iturria: Errolda. Tolosako Udala

9.1 irudia: Etxebizitza okupatu eta hutsen kopuruaren bilakaera (1986-2014)



Iturria: Errolda. Tolosako Udala

Hala ere, eta Etxebizitzaren Euskal Behatokiak 2011rako argitaratutako datuekin **konparatuta, etxebizitza hutsaren proportzioa gutzikoarekiko askoz handiagoa da Tolosan** EAEn (%91,6 okupatu / %8,4 huts), Gipuzkoan (%89,8 okupatu / %10,2 huts) eta Tolosaldean (%90,4 okupatu / %9,6 huts) baino.


Etxebizitzaren edukitza-erregimena

Etxebizitzaren Euskal Behatokiaren datuen arabera, 2012ko bizitza-baldintzei buruzko bere inkestan: Euskal Autonomia Erkidegoak, %87,5ekin, etxebizitza jabetzan duten etxeen ehunekorik handiena du gainerako autonomia-erkidegoen aldean. Aitzitik, edukitza alokairu-erregimenean merkatu-prezioan txikiagoa da EAEn (%7,3) Estatuaren gainerakoan baino (%12,0).

EUSTATen 2011ko datuetan ikus daitekeenez, **etxebizitza propioaren erregimena, erosketagatik, guztiz ordaindua da proportzio handiena duena** guztizko etxebizitzekiko, %50,4rekin. **Etxebizitza propioaren mota guztiak** (ordaindua, hipotekak dituen, eta oinordetza edo dohaintza bidezkoa) metatzen baditugu, **Tolosan 86,6 dira, Gipuzkoako (%86,3), Tolosaldeko (%86,5) eta EAEko (%85,9) oso antzeko** datua.

Ordainketak egin gabe (hipotekak) dituzten etxebizitza propioak **etxebizitza guztien %30,3 dira Tolosan, konparatutako gainerako lurraldeetako baino** proportzio pixka bat **txikiagoa**.

9.2 irudia: Tolosako familia-etxebizitza nagusiak edukitza-erregimenaren arabera (2011)



Iturria: EUSTAT. 2011ko biztanleriaren eta etxebizitzaren errolda

9.3 taula: Familia-etxebizitzak edukitza-erregimenaren arabera (2011)

Edukitze-erregimena (xehetasuna)	Tolosa %	Tolosaldea %	Gipuzkoa %	EAE %
Propioa, erosketagatik, guztiz ordaindua	%50,4	%44,5	%48,2	%47,8
Propioa, erosketagatik, ordainketak egin gabe (hipotekak)	%30,3	%33,1	%32,0	%31,9
Propioa, oinordetza edo dohaintza bidez	%5,9	%8,9	%6,1	%6,2
Alokatua	%7,6	%7,1	%7,7	%8,2
Doan edo prezio merkean lagatakoa (beste etxearen truke, enpresak ordaindua...)	%1,5	%1,6	%1,5	%1,6
Beste modu bat	%4,4	%4,9	%4,4	%4,3
GUZTIRA	%100,0	%100,0	%100,0	%100,0

Iturria: EUSTAT. 2011ko biztanleriaren eta etxebizitzaren errolda

Ingurumenaren esparruan, adierazi behar da Tolosa **Ekobarometroa txostenean** sartuta dauden udalerrietako bat dela. Txosten hori lau urtean behin egiten da Udalsarea 21 programaren barruan (gaur egun, Udalak duen azken txostena 2008koa da). Txosten horrek hautatutako udalerrien erradiografia bat egiten du honelako gaietan: herritarren gogobetetze-maila tokiko komunitatearekin, udalerrian zona publiko irekiak eta zerbitzuak izatea, ingurumen-informazioa, mugikortasuna eta garraioa edo hondakinak eta kontsumoa.

Diagnostikoaren beste esparru batzuetan gertatu zaigun bezala, **txosten horren ondorio nagusietan datuak ez dira aurkezten sexuaren arabera bereizita**, nahiz eta txosten horretarako egindako inkestetan eskatzen den sexuaren eta adinaren datua. Datu horiek eranskin gisa agertzen dira soilik, **horien emaitzak genero-ikuspegitik analizatu gabe**. Horregatik, iraunkortasun-adierazleen zerrendan eta ekobarometroaren ondorioetan, ez dago analisirik genero-ikuspegitik.

Genero-ikuspegitik kontuan izateko alderdi garrantzitsu bat emakumeek eta gizonak udalerrira bakoitzean duten **mugikortasuna** da, pertsonen autonomia errazten duelako, bereziki emakumeena, askotan ez baitute ibilgailu edo garraiobide propiorik.

Eskuratu ditugun **mugikortasun-datu**en jatorria da, batetik, Gipuzkoako Foru Aldundiko Mugikortasuneko eta Bide Azpiegituretako Departamentuak ateratako 2011ko **“Tolosaldeko errepide bidezko hiriarteko garraiorako emakida zonalaren ustiapen-plana”**. Txosten horretan, datu guztiak ez dira bereizten sexuaren arabera, eta bereizten direnak soilik aipatuko ditugu:


2011ko “Tolosaldeko errepide bidezko hiriarteko garraiorako emakida zonalaren ustiapen-plana” txostena

- ✓ Tolosaldean bizi diren pertsonen 247.832 bidaia egin dituzte Lurraldebusen garraio-zerbitzuetan, eta horietatik 167.048, %67,40, emakumeek egin dituzte eta 80.784, %32,60, gizonak.
- ✓ Tolosako udalerrian 126.125 bidaia egin dira, eta horietatik 86.889, %68,9, emakumeek egin dituzte eta 39.236, %31,1, gizonak.


LURRALDEBUSEN GARRAIO PUBLIKOAREN ERABILERA HANDIAGOA DAGO EMAKUMEEN ALDETIK GIZONEN ALDETIK BAINO

Bestetik, **Gipuzkoako Bizikletaren Behatokiak** ateratako “**Gipuzkoako bizikleta-bideen foru-sarearen erabilera 2012an**” txosteneko datuak ditugu, eta aurreko kasuan bezala, datu guztiak ez daude sexuaren arabera berezita. Sexuaren arabera berezita dauden datu bakarrak aipatuko ditugu, Tolosa-Alegia bizikleta-bideari buruzkoak:

9.3 irudia: Tolosa-Alegia bidearen erabiltzaileen banaketa erabilera modalaren eta sexuaren arabera (2012)



9.4 irudia: Txirrindularien joan-etorrien arrazoia Tolosa-Alegia bidetik sexuaren arabera (2012)



Tolosa-Alegia bidearen kasuan, txirrindularien erabileraren arrazoiei buruz datu hauek nabarmen daitezke :

- ✓ **Erabiltzaileen banaketa globala %45 emakumeak eta %55 gizonak** da. Erabilera motaren arabera analizatzen badugu, hau da banaketa txirrindulari taldearen kasuan: **%24 emakumeak eta %76 gizonak**, eta oinezkoen kasuan, **%66 emakumeak / %34 gizonak**.
- ✓ **Txirrindulari taldearen kasuan, gizonen %53k kirol-arrazoientatik** erabiltzen du bidea; **emakumeen artean**, berriz, soilik **%23k** erabiltzen du kirolerako. Bestetik, kolektibo horretan, **emakumeen %51k lanagatik eta kudeaketengatik** erabiltzen du bizikleta-bidea, eta **gizonen %23k**.
- ✓ **Ez dago** sexuaren arabera berezitatako **daturik oinezkoen bideko joan-etorrien arrazoiei buruz**. Datuen zenbaketa globalean aipatzen da **%72 aisialdiagatik, %15 kirolagatik, %9 lanagatik eta %3 ikasketengatik** direla.

Testuinguruan jartzea

Biztanleriaren Egiturari buruzko atalean adierazi den bezala, **Tolosako udalerria zenbait populazio-unitate edo auzotan banatuta dago, eta horietatik 8k txikienak 43 eta handienak 473 biztanle arteko biztanleria dute** (Aldaba, Auzotxikia, Bedaio, Mosteskue, San Esteban, Santa Lutzia, Urkizu eta Usabal). Populazio-unitate edo auzo horien errealitatea aldatu egiten da tamainaren arabera, baina baita kokapen geografikoaren edo erdialderako hurbiltasunaren arabera ere, eta horrek eragina du baliabideak eta zerbitzuak eskuratzean eta mugikortasun-premietan.

Populazio-unitate edo auzoen artean dauden aldeez gain, orokorrean landa-ingurunean eragina izan duten aldaketak identifikatu dira. Adibidez, **landa-zonetatik erdialdeetara emigratzea errealitate nahiko orokortua da**. “*Emakumeak Tolosaldeko Landa Eremuan*” txostenaren arabera – 2005ean egina Gipuzkoako Foru Aldundiaren laguntzarekin–, eskualdeko landa-zonetako biztanleriaren jaitsiera adierazgarria izaten hasi zen 1950eko hamarkadan, eta areagotu egin zen 1970-75ean –garai hartan emigratu zuten emakumeek, neurri handiagoan, landa-zonetatik hiri-zonetara–.

Azken urteotan migrazio-fluxu hori jaitsi egin da, baina nabarmendu behar da landa-zonetan orokorrean biztanleriaren zahartze-tasa handiagoa dela hiri-zonetan dagoena baino. Horri dagokionez, “*Tolosako Landa Auzoetako Adinekoen Gizarte Zerbitzuen Beharren Azterketak*” – Tolosako Udalak egina 2011n Auzotxikia-Urkizu, Aldaba-Aldabatxiki eta Bedaio auzoetan– adierazten du auzo **horietan bizi diren pertsonen %28k 60 urtetik gora duela**.

Azken urteotan landa-ingurunean izan den beste aldaketa adierazgarri bat horko biztanleen jarduera ekonomiko nagusiari lotuta dago. Era berean, modu adierazgarrian handitu da hirugarren sektorearen garrantzia enplegu-iturri gisa, diru-sarrerak lortzeko iturri nagusi gisa nekazaritzan edo abeltzaintzan jarduten ez duten pertsonak gero eta gehiago diren zonetan. Hots, **landa-ingurunea bertan bizi den biztanleriaren zati batentzat bizitegi-esparru bihurtu da, baina ez lanekoa**.

Jarduera ekonomikoari dagokionez, **zaila da hirugarren sektorean lan egiten duten landa-inguruneako emakumeen egoera-aniztasuna erakusten duten datuak izatea**. Zenbait arrazoi daude. Batetik, “*Tolosako emakume baserritarren osasun, garraio eta zaintza premiak*” txostenean –Gipuzkoako EHNE sindikatuak 2011n egindakoan– aipatzen den bezala, **emakume baserritarraren lanak kasu askotan ikusezin izaten jarraitzen du figura maskulinoaren atzean**. Egoera hori ikusten da, besteak beste, nekazaritza-ustiapenen titulartasunean, gehienetan gizonak jarraitzen baitu hori izaten. Ildo horretan, azterketa horretan aipatzen den bezala, titularkidetasunari buruzko legearen eragina minimoa da. Horretaz gain, Gizarte Segurantzaren kotizatzen ari ez diren emakumeen ehuneko garrantzitsu bat dugu oraindik. Beraz, **emakume baserritar askoren egoera juridiko eta ekonomikoaren ezaugarria da oraindik autonomia eta independentzia ekonomikoaren falta**.

EHNEk egindako txosten horretan, krisi ekonomikoaren larriagotzeak eta nekazaritza-politikek landa-ingurunean izandako eraginak ere identifikatzen dira. Ildo horretan, **nabarmena da administrazioek nekazaritza-ustiategi handien alde egindako apustuak eta krisia lehertu aurreko hirigintzaren boomaren presioak nola sortu duten ustiategi txiki askok itxi izana**. Egoera ekonomiko prekarioago baten aurrean, txostenak adierazten duenez, emakume baserritarren zati batek uste du lehentasun handiagoa duela oinarritzko premia ekonomikoak estaltzea **eta Gizarte Segurantzaren kotizatzea atzeratu egiten da etxeko egoera orokorra hobetu arte**. Aldi berean, Eusko Jaurlaritzaren Emakume Nekazarien Estatutuari buruzko aurreproiektuaren zioen azalpenean adierazten den bezala, ustiategi handietan, **“jardueraren dimentsio ekonomikoa handitzen den heinean, emakumeek hartutako erabakien ehunekoa txikitu egiten da”**.

Bestetik, administrazioek **dauden datuak** jasotzeko eta sistematizatzeko duten moduak emakume baserritarraren ikusezin egite hori erreproduzitzen du, **ez dutelako islatzen ez zenbat emakume ari diren lanean gaur egun sektore horretan, ez zer egoeratan eta baldintzatan jarduten duten beren lanean**. Hau da,


- ✓ Ez dituzte kontuan hartzen sektore horretan lan egiten ari diren emakumeak, baina ustiapenen titular ez direnak, edo Gizarte Segurantzaren kotizatzen ari ez direnak.
- ✓ Gainera, sistematizatzen diren datuek ustiapen guztiak bateratzeko joera dute, horri buruz egon daitekeen aniztasuna kontuan izan gabe.

Ildo horretan, gai honi buruz egindako elkarrizketetako batean adierazten den bezala, beharrezkoa da **datu berriak eta errealitatera egokitutako informazioa ematen dituen azterketa bat egitea**, emakume baserritarrei zuzendutako neurri eta ekintza zehatzak diseinatu eta abian jarri aurretiko urrats gisa. Aldi berean, **beharrezkotzat jotzen da atez ateko datu-bilketa bat egitea**, egoera-aniztasuna islatuko duena eta erreproduzitutako ez duena eredu patriarkalean oinarritutako lan-merkatu batek zein egungo politika publiko askoren inpaktuak sortutako ikusezin egite hori.

BILDUTAKO DATUAK Bildu ditugun datu kuantitatiboak, batetik, Eustatek ustiategia zuzentzen duen pertsonari buruzko datuei dagozkie, sexuaren arabera bereizitako datuei eta nekazaritza-sektoreko prestakuntza espezializatuaren maila kontuan hartzen dutenei. Bestetik, Gipuzkoako Foru Aldundiko Nekazaritza eta Landa Garapeneko Zuzendaritza Nagusiko Berrikuntzako, Landa Garapeneko eta Turismo Departamentuak emandako Nekazaritzako Ustiategien Erregistrotik bildu dira.

Jarraian, Eustatek emandako datuen analisiarekin hasiko gara.

10.1 irudia: Tolosaldea 1999 – 2009: nekazaritza-ustategiak ustategia zuzentzen duen pertsonaren sexuaren arabera




Iturria: Geuk prestatua Eustaten datuekin

Kontuan izanik datu kuantitatibo hauek Tolosaldekoak direla (ezin izan da lortu udal-mailako daturik), eta ustategia zuzentzen duten pertsonak soilik islatzen dituztela, ustiapen mota bereizi gabe, 1999 eta 2009 arteko bilakaerak adierazten duenez, **gizonek zuzendutako ustategi kopurua %36,9 jaitsi da; emakumeek zuzendutako ustategiak, berriz, %7,8 igo dira.**

Baina zifra absolutuei begiratzen badiegu, ikusten dugu hori ez dela horrela emakumeek zuzendutako ustategi kopurua modu adierazgarrian igo delako (23 kasu besterik ez dira 10 urtetan), baizik gizonek zuzendutako ustategi asko itxi egin direlako: 1999an 1.146 ziren, eta 692 soilik hamar urte geroago. Beraz, **gizon eta emakumeen arteko portzentajezko datuen aldea oso adierazgarria da oraindik, grafikoan ikus daitekeenez.**

10.2 irudia: Tolosaldea 2009: nekazaritza-ustategiak ustategia zuzentzen duen pertsonaren prestakuntzaren eta sexuaren arabera



Iturria: Geuk prestatua Eustaten datuekin

Ustategia zuzentzen duen pertsonaren nekazaritza-prestakuntzari buruzko datuek erakusten dutenez, **gizon eta emakumeen gehiengo handi batek –gizonen %95,8k eta emakumeen %97,1ek– nekazaritza-esperientzia dute soilik.** Beraz, aldeak oso adierazgarriak ez diren arren proportzioan zein guztizko zenbakietan, gizon gehiagok dute nekazaritza-prestakuntza.


Interesgarria da ikustea nekazaritza-ikasketa profesionalak dituzten pertsonen guztizkoa (8) gizonak diren bitartean, unibertsitateko nekazaritza-ikasketak dituzten pertsonen guztizkoa (2) emakumeak direla.

Beste prestakuntza bat edo nekazaritza-ikastaroak dituzten pertsonen artean emakumeak zein gizonak daude, baina kasu honetan %75 gizonak dira.


10. LANDAKO TOLOSA

Gipuzkoako Foru Aldundiko Nekazaritza eta Landa Garapeneko Zuzendaritza Nagusiak emandako datuak ustiapenen orientabide tekniko eta ekonomikoaren arabera sailkatuta daude, hots, jarduera ekonomikoaren sailkapen estandar baten arabera. Sailkapen horrek 27 kategoria ditu, eta horietan biltzen dira abeltzaintza-ustiapen motak, nekazaritza-laborantzak eta basogintza-ustiapenak. Ustiapenen titulartasunaren 2007 eta 2013 arteko bilakaerak erakusten du **Tolosan ez dela izan aldaketa adierazgarririk. Gizonek ustiapenen titulartasunaren %36 inguru dute** –2007ko %35,4tik 2014ko %37ra igarotzen da, eta guztizko zenbakietan 162 ustiapen dira 2007an eta 174 2013an–. **Emakumeen kasuan, ehuneko hori askoz txikiagoa da eta puntu bat igotzen da aldi horretan** – %16,4tik %17,7ra igarotzen da, eta guztizko zenbakietan 75 ustiategi dira 2007an eta 83 2013an–.


10.3 irudia: Ustiategien titulartasuna – Tolosa 2007




10.4 irudia: Ustiategien titulartasuna – Tolosa 2009



10.4 irudia: Ustiategien titulartasuna – Tolosa 2011



10.5 irudia: Ustiategien titulartasuna – Tolosa 2013



Iturria: Geuk prestatua GFaren datuekin

Aurreko grafikoaren analisiarekin jarraituta, ikusten da titularkidearen ehunekoak ere ez direla nabarmen aldatzen. Kasu honetan, aldiz, **ustiapen gehiagok dituzte emakumeak titularkide gisa gizonak titularkide gisa baino**. Titularkide gisa emakume bat duten ustiapenak %14 inguru dira 4 urteetan –2007ko %14,9tik 2013ko %14ra igarotzen dira–. Guztizko zenbakietan, esan nahi du 2007an 68 ustiategitan zegoela emakume bat titularkide gisa, eta 2013an 66 ustiategi zeudela egoera berean. **Titularkide gisa gizon bat duten ustiategiak 10 inguru dira** –guztizkoaren %10,7 2007an eta %9,8 2013an–. Guztizko zenbakietan, titular gisa gizon bat duten ustiategiak ere gutxiago dira, 2007an 49 ustiategi baitzeuden, eta 2013an 46 geratzen ziren.

Titulartasuna elkarre batek duen ustiategietan ere ia ez da aldaketarik nabari analizatutako 4 urteetan. 2007an, titulartasunaren %2,8 soilik gizonak osatutako elkarre zegokien (13 ustiategi guztira), eta %1,1 gutxienez emakume bat zegoen elkarre (5 ustiategi guztira). 2013an, titulartasunaren %3 soilik gizonen elkarre zegokien (14 ustiategi guztira), eta %1,5 gutxienez emakume bat zegoen elkarre (7 ustiategi guztira).

Azkenik, datuen arabera, **“Familia-laguntza” gisa sailkatutako ustiategietan, gizon gehiago daude emakumeak baino**: 2007an, guztizkoaren %10,1 (46 ustiategi), eta %5,5 (25 ustiategi). 2013an jaitiera txiki bat dago bi kasuetan, baina handixeagoa gizonen kasuan: guztizkoaren %8,7 (41 ustiategi), eta %4,5 (21 ustiategi).

10.1 irudia: Ustiategien titulartasuna/Guztizkoak – Tolosa 2013

	Titularra gizona	Titularra emakumea	Titularra (sexua zehaztu gabe)	Titularkidea gizona	Titularkidea emakumea	Bazkideak (gizonak soilik)	Bazkideak (emakumeekin)	Familia-laguntza Gizona	Familia-laguntza Emakumea
2007	162	75	14	49	68	13	5	46	25
2009	169	78	17	49	69	15	7	43	23
2011	172	80	17	48	70	15	7	45	23
2013	174	83	18	46	66	14	7	41	21

Iturria: Geuk prestatua GFaren datuekin

Datu kuantitatiboetatik harago

Egindako elkarrizketen bidez, **landa-ingurunean bizi eta nekazaritza- eta abeltzaintza-sektorean ari diren emakume baserritarren eta Tolosako hiri-inguruneako emakumeen arteko lotura indartzeko premia** ere identifikatu da. Ildo horretan, lotura hori indartzeko planteatzen da beharrezkoa dela emakume baserritarren errealitatea kontuan izatea, denbora izateari eta mugikortasun-aukerei dagokienez. Hots, horri buruz abian jar daitezkeen ekimenek ez diezaietela erantzun soilik hiri-inguruneako emakumeen interesei eta ohiturei, baizik egoki daitezela landa-inguruneako emakumeen interesei eta premiei. Horri dagokionez, berriz identifikatu da **diagnostiko bat egiteko premia, emakume baserritarren errealitatea islatu eta askotan aurre egiten dioten ikusezintasuna erreproduzituko ez duena:**

“Metalean lan egiten duen emakume baten egoerak eta baserrian lan egiten duen emakume baten egoerak ez dute zerikusirik... Izango dituzte elkarren arteko gauzak, baina bi mundu bereiz dira... Analiza dezagun zein diren alde horiek eta, nolabait ere, egin dezagun gure arteko bat-egite bat... Baina ezagutzatik abiatzen den bat-egite bat, eta ezagutza hori bermatzeko, beharrezkoa da erakundearen inplikazioa”.

“Jaurlaritzari eta erakundeei ikusarazi nahi diegu lege bat prestatzeko edo ekintza positibo bat abian jartzeko kontuan izan behar gaituztela (emakume baserritarrak aipatuz), diagnostikoaren eskema erabat aldatu behar da eta agerian jarri behar du benetan aldatu nahi dugula gizartearekin batera, Tolosako gainerako emakumeekin batera”.

Ildo horretan, eta landa-ingurunean bizi eta lan egiten duten emakumeen eta hiri-inguruneakoen arteko loturak indartzeko, **Tolosako Emakumeen Jabetze Eskola identifikatu da bilerak egiteko eta sareak ezartzeko espazio posible gisa**. Gainera, helburu hori lortzeko, planteatu da beharrezkoa dela Eskolak bere jarduerak antolatzean kontuan izan ditzala emakume baserritarren testuingurua eta premiak.

Tolosako emakume baserritarren egoerari buruzko beste informazio-iturri kualitatibo bat da Tolosako Udalak **2009an** prestatutako **“Tolosako Landa Eremuko Emakumeak” bideoa**. Bi urtetan zehar udalerriko landa-inguruneako emakumeekin gauzaturako partaidetzazko prozesu baten emaitza da bideoa. Horren helburua da, besteak beste, **landa-inguruneako emakumei buruz indarrean diren estereotipoak haustea eta zenbait emakumek lehen pertsonan adierazitako bizipen eta gogoeten lekukotasuna uztea**.

10. LANDAKO TOLOSA

Halaber, bideoak **emakume baserritarren artean zer aniztasun dagoen erakutsi** nahi du. Aldi berean, **bai Tolosako landa-ingurunean jαιο eta bizi izan diren emakumeek, bai beste ingurune batzuetatik etorri direnek garatu dituzten egoera komunak eta estrategiak analizatzen ditu.** Alderdi komunaren artean, nabarmena da ordaindu gabeko etxeko lanarekin eta zaintzekin duten lotura. Ildo horretan, emakume guztiak bat datoz esatean landa-esparruan beraiek hartzen dutela oraindik beren gain lan horren zatirik handiena, lan hori ardatz bihurtzen dela eta hortik egituratzen dutela beren eguneroko bizitza.

“Emakumeok elkartzen gara hemen arratsaldero seme-alabekin”.

“Dirudienez, gure etxean neuri tokatzen zait lan hau egitea”.

“Hemen, etxetik kanpo, emakumeek gizonek bezala edo berdintsu lan egiten dute, baina etxe barruan lan gehiena emakumeek egiten dute oraindik”.

“Nire bikotekideak etxetik kanpo lan egiten du, orduan neuk daukat gure seme-alaben erantzukizuna, neu nagoelako egun osoan hemen. hemen. Baina uste dut hori aldatu egin behar dela, gizonek ere parte hartu behar lukete eguneroko lanetan”.

“Gizonek uste dute lan guztia egin behar duzula, baina dena ezin da, ez zara iristen denetara...”

Emakumeek landa-ingurunean duten lan-kargan gertatu diren aldaketak ere analizatzen dira.

“Seme-alabentzat tarte bat hartzea... egunean zehar nik lanak egiten ditudalako, baina eskolatik etortzen direnean badago denbora bat beraientzat dena... Lehen ez zegoen, lehen baserrietako haurrak amonekin hazten ziren. Nik uste dut gaur egun emakume baserritarrok badugula denbora guretzat... eta garai batean lana, lana eta lana zen”.

Analizatzen den beste alderdietako bat da zer garrantzi duten familia-loturak eta beraien artean ezartzen diren harremanek.

“Hemen gaude 5, 6 edo 7, gaudenak... eta batek ezin duenean, bestearengana jotzen du”.

Landa-ingurunean bizi diren pertsonen artean loturak ezartzeko eta harremanak indartzeko premiaren aurrean, eskari gisa planteatzen da topaguneak izatea. Honelako ekimenak ere aipatzen dira: elkarte bat sortzea, Tolosako landa-inguruneako emakumeen artean martxoaren 8ari lotutako jarduerak antolatzea eta elizaren funtzioa sozializazio-espazio gisa:

“Elizan beraiek (adin handieneko emakumeak aipatuz) agintzen dute... Apaizak beraiek esaten dutena esaten du”.

Amaitzeko, bideoak planteatzen du **zer arazo dauden landa-ingurunearen biziraupenerako, bizitzeko espazio gisa ez ezik, nekazaritza-produkzio eta -ustiapeneko espazio gisa ere.**

Jarraian, Tolosako zenbait auzotako landa-inguruneko emakumeei buruz aipatutako bi txostenetako –“Tolosako Landa Auzoetako Adinekoen Gizarte Zerbitzuen Beharren Azterketa” eta “Tolosako emakume baserritarren osasun, garraio eta zaintza premiak” – ondorio batzuk eta “Emakumeak Tolosako Landa Eremuan” bideoak azpimarratzen dituen alderdi batzuk laburbilduko ditugu:

- ✓ Etxeko lana eta zaintzak emakumeei dagozkie batik bat. Udalak prestatutako txostenak planteatzen du **“etxeko lanak” emakumeek egiten dituztela 95ean.**
- ✓ Bi txostenetan identifikatzen da **etxe-esparruan gehiago kostatzen dela kanpoko laguntza eskatzea zaintza-lanak egiteko** eta joera handiagoa dago horiek familiak berak bere gain hartzeko.
- ✓ **Osasun-zerbitzuei** dagokienez, erabili arren, kokapenagatik horietara iristeko arazoak direla bide, **erabilera txikiagoa** antzematen da **hiri-inguruneko pertsonen aldean.** Aldi berean, egiaztatu da estrategiak bilatzen direla mugitzea eta zerbitzu horiek erabiltzea ekiditeko. **Egoera bera identifikatzen da gainerako gizarte-zerbitzuei dagokienez.** Ildo horretan, premien pertzepzio desberdina detektatzen da hiri-ingurunean bizi diren pertsonekin konparatzen badugu.
- ✓ Emakume gehienek –adin handiagokoek izan ezik– gidabaimena duten arren, **garraio publikoaren eskasiak baldintzatu egiten ditu, beren mugikortasunari dagokionez, baina baita** familiako beste kide batzuen mugikortasun-premiei **erantzuna emateko arduradun gisa ere.**
- ✓ Modu positiboan baloratzen da zerbitzuei buruzko informazioa hurbiltzea landa-ingurunean bizi diren pertsonen. Ildo horretan, Udalak prestatutako txostenean ikusten denez, **Udaleko OGZetatik kudeatzen diren zerbitzuei buruz lehen pertsonan informatzeak eskari gehiago sortu ditu** eta zerbitzu/prestazio gehiago eskaini dira.
- ✓ **Bakardade- eta bakartze-egoerak identifikatu dira.** Aldi berean, arkitektura-oztopoak eta auzo jakin batzuetara iristea eragozten duten alderdiak detektatu dira (aldapa handiko bidea, errepedeen ezaugarriak eta auzoen eta erdialdearen arteko distantzia), bakardade- eta bakartze-egoerak larritu ditzaketanak, batik bat adineko pertsonen artean, etorkizun hurbil batean.
- ✓ **Pentsioak jasotzen dituzten pertsonen artean errenta txikiak** egiaztatu dira, **bereziki kotizatu ez dutelako** alargun-pentsioen mende dauden **emakumeen artean.**
- ✓ Tolosan antolatzen diren **jardueretako partaidetza-maila** txikia da, baina **emakumeek gizonek baino interes handiagoa erakusten dute.**

Emakundek argitaratutako “ZIFRAK 2013 – Emakumeak eta Gizonak Euskadin” txostenetik ondorioztatzen denez, krisi ekonomikoaren larriagotzeak etxeek aurre egin behar dieten arazoek ugartze bat ekarri du ohiko betebeharrak eta gastuak kitatzeko. Ildo horretan, **EAEko prekaritatearen eta pobrezia-aren adierazleak –mantentze-pobrezia, metatze-pobrezia, benetako pobrezia eta ongizate-gabezia-aren tasak– 2008 eta 2012 arteko bilakaerak** adierazten du **biztanleriaren baldintzek okerrera egin dutela**. Indize horiek Eusko Jaurlaritzako Justizia eta Gizarte Segurantzaren Sailaren Pobrezia eta Gizarte Desberdintasunen Inkestan jasotzen dira, eta hortik Tolosari buruzko datuak ezin atera badira ere (udal-lagina ez litzateke izango adierazgarria), interesgarria da EAE mailako joera batzuk aditzera ematea:


- ✓ **Mantentze-pobrezia** tasa –baliabide ekonomikoaren urritasun-egoera aipatzen duena, epe laburrean oinarritako premiak estaltzeari aurre egiteko– %7,3ra igo da 2012an (+1,6 puntu 2008arekiko).
- ✓ **Metatze-pobrezia**, etxe baten ezintasuna aipatzen duena kontsumo-ondasun iraunkorrak lortzeko, epe luzean gutxienez bizi-maila egoki bat izateko (prekaritate diferentzialeko egoera bat dakar ondasun mota horren eskuragarritasunean eta ondare-baliabide eskuragarrietan, eta inguruabar horrek bizitza-baldintza urriak dakartza bizitza duin bat izateko) 2008an 1,5etik 2012an 1,4ra jaitsi da.
- ✓ **Benetako pobrezia** pobrezia-aren fenomenoaren inpaktu errealerako hurbilketa bat eskaini nahi du, diru-sarreretan (mantentze-pobrezian) edo epe luzean bizi baldintzetan eta etxeen erreserba-ondarean (metatze-pobrezian) egon daitezkeen arrisku-faktoreetatik harago. Tasa hori 1,1 puntu igo da, hots, 2008ko 4,2tik 2012ko 5,3ra.
- ✓ **Benetako ongizate-gabezia** tasan baliabide ekonomikoaren urritasun-egoerak hartzen dira kontuan, hots, gizarte jakin batean beharrezkotzat jotzen diren gastuei aurre egiteko –epe laburrean– baliabideak gizarte horretako bizimoduan, ohituretan eta jardueretan, gutxi bada ere, parte hartzeko. Tasa hori 2008an 8,2tik 2012an 10,1era igo da.

2008ko eta 2012ko pobrezia-adierazleak konparaziotik, hauxe adieraz daitezke:

- ✓ 2008an, emakumeen pobrezia-tasak handiagoak ziren beti gizonenak baino.
- ✓ Baina 2012an, krisiaren eraginak sentitu egin ziren gizonen biztanlerian, eta aldea murriztu edo alderantzikatu egin zen.

Bi kasuetan, tasek prekaritate handiagoa dakarte berekin.

11.1 irudia: Pobrezia-tasak 2008 eta 2012



Iturria: Geuk prestatua Zifrak 2013an lortutako datuekin

Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordeak prestatutako 2013ko *Memoria Sozioekonomikoan* aurkeztutako EAEko Pobreziaren eta Gizarte Desberdintasunen Inkestako datuen analisiak adierazten du, beste alderdi batzuen artean, **emakumea buru duten etxeek dutela egoera okerrena pobrezia mota guztien eraginei dagokienez**. Adibidez, **benetako pobrezia 3 aldiz handiagoa da emakume bat buru duten etxeetan** (11,1 %3,7ren aldean). Aldi berean, emakume bat pertsona nagusi duten etxeen igoera adierazten du (8,8tik %11,1era), eta gehikuntza txiki bat gizon bat pertsona nagusi duten etxeetan (%3,3tik %3,7ra).

III.2.9. KOADROA. EAE-KO POBREZIAREN ERAGINA PERTSONAREN PROFILAREN ARABERA. 2008-2012KO BILAKAERA.

	2008		2012	
	Eragina	Guzt. %	Eragina	Guzt. %
Guraso bak. f. emak, PN okup. egonk. < 45 urte	60,7	8,9	63,8	10,2
Guraso bak. f. emak, PN ez okup. egonk. > 45 urte	9,7	2,5	18,8	4,7
Guraso bakarreko f. emak, PN okup. egonkorra	6,9	2,5	2,7	1,2
Emakumeak bakarrik ez okup. egonkorrek < 45 urte	5,4	0,3	16,1	0,7
Emakumeak bakarrik ez okup. egonkorrek > 45 urte	30,1	5,0	23,3	2,3
Emakumeak bakarrik < 65 okup. egonkorrek	4,1	0,9	0,7	0,1
Gizonak bakarrik < 65 okup. egonkorrek	0,0	0,0	0,5	0,1
Gizonak bakarrik < 65 ez okup. egonkorrek	24,1	3,9	22,6	2,9
Famili taldeak PN < 45 urte, ez okup. egonkorra	19,1	15,2	19,0	18,2
Famili taldeak PN > 45 urte, ez okup. egonkorra	2,8	5,9	3,9	7,1
Famili taldeak PN < 45 urte okup. egonkorra	1,3	7,4	0,6	2,1
Famili taldeak PN > 45 urte okup. egonkorra	0,8	5,7	0,6	3,0
Gizonak > 65 urte	1,1	4,4	1,0	3,4
Emakumeak > 65 urte	2,4	4,6	3,1	4,1
EBkoak ez diren herrialdeak	34,5	31,2	37,3	36,0
Guraso bakarreko familietako gizonak	7,4	1,6	18,2	3,8
OROTARA	4,2	100,0	5,3	100,0

Iturria: EUSKO JAURLARITZA. PDGI 2012.
PN= familiako pertsona nagusia

- ✓ Memoria horretan analizatzen den taulan ikusten da, beste datu batzuen artean, **emakumea buru duten guraso bakarreko familiak benetako pobreziaren eraginpeko biztanleriaren %14,9 direla – %36,3ko benetako pobrezia-tasarekin, 2008ko %27,9aren gainerik–.**
- ✓ Halaber, nabarmendu behar da **pertsona nagusia Europar Batasuneko ez den herrialde batekoa duten familiak analizatutako pobrezia-egoeren %36 direla, %37,3ko benetako pobrezia-tasarekin, 2008ko %34,5aren gainerik.**
- ✓ Azkenik, **benetako pobreziak 65 urtetik gorako emakume eta gizonen artean eragiteko moduen aldeak nabarmenduko ditugu, tasan ia 2 puntuko aldearekin.**

FAMILIA MIGRATUAK TOLOSALDEAN Pertsona nagusia Europar Batasuneko herrialde batekoa ez den familien egoeran sakontzeko, Tolosaldea Garatzen agentziak argitaratutako **TOLOSALDEKO HERRITARREN JATORRI ANITZEN MAPA 2013** kontsulta dezakegu, eskualdeko biztanle migratzaileen egoera analizatzen duena zenbait esparru sozioekonomikori dagokienez.


- ✓ Adibidez, enpleguari dagokionez, **2012an langabezia-tasa %24,3koa zen eskualdean nazionalitate espainola ez zuen biztanleriaren artean -10 puntu batez bestekoaren gainera**-. Sexuaren arabera bereizi gabeko datuak direnez, ezin dugu analizatu tasa horrek zer eragin duen gizon eta emakumeen artean. Hala ere, Lanbideren datuek erakusten dute 2012an izena eman zuten pertsonen %16,8 estatuz kanpotik zetorrela, eta horietatik %60,3 gizonak ziren eta %39,7 emakumeak.
- ✓ Langabezia-sorospena jaso zuten -2013ko apirilean- pertsonen artean, **%6,4 Europar Batasunekoak ez ziren herrialdeetatik zetorren**. LEA (Laneratzeko Errenta Aktiboa) jaso zuten pertsonen %10,7aren kasua da, eta langabezia-prestazioa jaso zuten pertsonen %3,5arena. Aurkeztutako datuak sexuaren arabera bereizita ez daudenez, ezin dugu analizatu generoak zer eragin duen esparru honetan.
- ✓ Bizikidetzari dagokionez, hauxe nabarmendu daiteke: txosten horretan jakinarazten denez, iritzi orokorra da azken urteotan **handitu egin dela beste herrialdeetatik datorren biztanleriarekiko konfiantza falta eta errezeloa**.
- ✓ Ildo horretan, atzerapen bat eta **“tokikoen eta kanpoko pertsonen arteko hausturaren” areagotze bat** antzematen da, neurri batean krisi-egoerarako “erantzuleak” bilatzeko joeragatik.
- ✓ Eskualdeko herriak eta populazio-unitateak kontuan izanda, txostenak dio Tolosak, anonimotasun-maila handiagoa eskaintzen duen herria denez, “bizimodu lasaiagoa izateko” aukera ematen diela atzerriko herrialdeetatik datozen pertsonen. Gainera, jatorri bereko beste pertsona batzuekin **harremanak ezartzeko aukera gehiago** dituzte.
- ✓ Tolosan antolatutako kultura-jardueretan etorkinek duten **partaidetza-mailari** dagokionez, txostenak nabarmentzen du **partaidetza-maila oso baxua antzematen dela, eta ez da egiten pertzepzio horren genero-ikuspegia kontuan hartzen duen irakurketa bat**. Jakina, gaztelaniaz edo euskaraz hitz egiteko trebetasun falta muga garrantzitsua da parte hartzeko orduan, baina interesgarria litzateke jakitea pertsona migratuek nola erabiltzen dituzten parte hartzeko eta aisialdiko espazioak udalerrian, adin desberdinetan.

DIRU SARRERAK BERMATZEKO ERRENTA TOLOSAN

Diru-sarrerak Bermatzeko Errenta (DBE) izaera ekonomikoko aldizkako eta eskubide subjektiboko prestazio bat da, oinarrizko premiei lotutako gastuei edo laneratzeko edo gizarteratzeko prozesu baten ondorioz sortutako gastuei aurre egiteko nahikoa diru-sarrera ez duten bizikidetz-unitate bateko pertsonen zuzendua.

Jarraian DBEri buruz aurkeztuko diren datuak 2013 abuztuko eta 2014ko abuztuko pertsona hartzaileen zerrendari dagozkio.

11.1 irudia: 2013ko eta 2014ko DBEren hartzaileak



Iturria: Geuk prestatua Lanbideren datuekin


2013ko abuztuan DBE jasotzen zuten Tolosako 373 pertsona zeuden, eta 12 hil geroago, kopurua 425 pertsonatara igo dela ikusten dugu. Grafikoan ikusten den bezala, **igoerak gizonei eragiten die batik bat**, 2013tik 2014ra 5 emakume hartzaile gehiago erregistratu baitira (%5eko igoera; gizonak, berriz, 41 dira, %25 gehiago).

Adinari buruzko datuek erakusten dutenez, emakumeen kasuan, **65 urte eta gehiagoko tartean igotzen da hartzaileen ehunekoa**, eta gizonekiko aldea handiena da hor. Horrek adierazten du emakume askorentzat prekaritate-maila handitu egiten dela adin horietara nahikoa autonomia ekonomikorik gabe iristean, bereziki lehenago ordaindutako enplegurik edo nahikoa kotizatze aukerarik izan ez dutenean erretiro-pentsio duin bat kobratzeko.

11.2 irudia: Adin-tarteak – DBE 2013



11.3 irudia: Adin-tarteak – DBE 2014



Iturria: Geuk prestatua Lanbideren datuekin

- ✓ **Nazionalitate atzerritarra duten pertsonen proportzioa ere handitu egiten da.** Horrela, 2013an, DBE kobratzen zuten pertsonen %27k (101 pertsona guztira) ez zuten nazionalitate espainola, eta 2014an ehunekoak %31ra igo da (131 pertsona guztira). Aldi berean, nazionalitate atzerritarra duten emakume eta gizonen arteko aldea, oso adierazgarria ez bada ere, alderantzikatu egiten da. Hots, 2013an emakume gehiago zegoen (52 emakume eta 49 gizon), eta 2014an gizon gehiago dago (61 emakume eta 72 gizon).
- ✓ 2013an zein 2014an, DBE jasotzen zuten pertsonen artean, **emakumeak buru zituzten 56 etxe zeuden (etxe guztien %14 2013an eta 13,5 2014an). Ez zegoen etxerik soilik gizon hartzailerik bat buru zuenik**, baina sexuaren arabera bereizitako 5 kasuren datuak falta dira bi urteetan.
- ✓ **DBE jasotzen duten pentsiodunen kopurua pixka bat jaitsi da:** 117 pertsona 2013an (horietatik, 44 gizonak dira eta 73 emakumeak) eta 113 pertsona 2014an (43 gizon eta 70 emakume).
- ✓ Bi urteetan, hartzailerien **prestakuntza-mailari** buruzko datuak ia ez dira aldatzen, **eta orokorrean ez dituzte gainditzen derrigorrezko ikasketak:**
 - ✓ 2014ko abuztuan, emakume eta gizon gehienek (%55,4k eta %65ek hurrenez hurren) derrigorrezko ikasketak dituzte.
 - ✓ Hurrengo prestakuntza-mailarik adierazgarriena gizon zein emakumeen artean LH da, eta hurbil dago batxilergoa.
 - ✓ Unibertsitate-ikasketak gizon eta emakumeen %5,4 besterik ez dira.
 - ✓ Gainera, azpimarra daiteke ez dugula daturik emakumeen %21,6ren eta gizonen %8,9ren prestakuntzari buruz, eta horrek adierazten du agian hobetu egin behar dela datu-bilketa espediente irekietan.

LAGUNTZAK ETA BESTE UDAL BALIABIDE BATZUK

Laguntza ekonomikoak

Izaera ekonomikoko laguntzak dira, gizarte-larrialdietarako laguntzak jasotzeko eskakizunak bete gabe oinarrizko premien ondorioz sortutako gastuei aurre egiteko nahikoa baliabide ez dituzten pertsoneri, udalerrian erroldatu eta bizi direnei zuzendua.

2013an 13 laguntza tramitatu ziren, 7 emakumeei eta 6 gizonei. Emakumeen batez besteko adina 39 urtekoa da, emakume gazteenak 25 urte ditu eta zaharrenak, 79. Gizonen artean, batez besteko adina 40 urtekoa da. Gazteenak 26 urte ditu eta zaharrenak, 50. Emakumeen artean, batek nazionalitate espainola du (emakume guztien %14); gizonen artean, berriz, 4 kasu daude (hots, guztizkoaren %67).

Emakumeek 8.657,43 jaso zituzten guztira (1.236,8 € batez beste) eta gizonek 5.582,38 € (930,4 € batez beste).

Erabilera anitzeko etxebizitza


Tolosako Udalak **erabilera anitzeko 7 etxebizitza** ditu, eta egoera hauetakoren batean dauden pertsonen esku jar daitezke: **deserrotze sozialean dauden pertsonak** edo etxebizitza behar duten pertsonak larrialdi-egoera batean (genero-indarkeriako egoerak, etxebizitza erortzear, etxebizitza suak hartua, etab.) daudelako.

2013an 14 pertsona zeuden etxebizitza mota horretan ostatu hartuta, horietatik %79 emakumeak (11 guztira) eta %21 gizonak (3 guztira). Emakumeen batez besteko adina 43,7 urtekoa da (gazteenak 13 urte ditu eta zaharrenak, 73). Gizonen artean ez dago adin arteko alde handirik: batez besteko adina 47,6koa da (gazteenak 44 urte ditu eta zaharrenak, 55). Erabilera anitzeko etxebizitzetan bizi diren pertsonen nazionalitateari dagokionez, nabarmendu behar da **emakume batek izan ezik, gainerako pertsonak nazionalitate espainola dutela.**

Gizarteratzeko eta laneratzeko laguntzak

Laguntza hauek bazterketa-egoeran edo -arrian dauden pertsonen zuzenduta daude. Horien helburua da haiei aukerak eskaintzea beren gaitasunak berraurkitzeko, beren buruarekiko konfiantza indartzeko, autoestimua pertsonala eta soziala sustatzeko, lanbide-heziketarako sarbidea errazteko, etab.

11.14 irudia: Gizarteratzeko eta laneratzeko laguntzak – Tolosa 2013



Iturria: Geuk prestatua Udalak emandako datuekin

2013an, guztira 105 pertsonak jasotzen zuten laguntza mota hau, eta horietatik 61 gizonak ziren eta 44 emakumeak. Emakumeen batez bestekoa 38 urtekoa da, 20 eta 60 urte arteko adinekin. Gizonen artean, batez besteko adina 40 urtekoa da, 20 eta 60 urte artean horiek ere.


Gizarteratzeko eta laneratzeko laguntzei lotutako pertsonen jatorriari buruzko datuek erakusten dutenez, guztizkoaren %26 Tolosako pertsonak dira (13 emakume eta 14 gizon); %18 Euskal Herriko beste udalerri batzuetakoak dira (11 gizon eta 8 emakume); %7 estatu espainoleko beste udalerri batzuetakoak dira (4 gizon eta 3 emakume); gainerakoa, guztizkoaren %48 (30 gizon eta 18 emakume), batik bat, batasunaz kanpoko herrialdeetakoak dira –Portugalgo 2 gizon eta emakume bat eta Errumaniako 5 emakume eta gizon bat izan ezik–. Batasunaz kanpoko herrialdeetan, Maroko da nagusi, 15 gizon eta 3 emakumekin.

Datu horiek ikusirik, ondoriozta dezakegu gizarteratzeko eta laneratzeko laguntzak direla Oinarrizko Gizarte Zerbitzuek kudeatutako zerbitzuen artean beste herrialde batzuetako pertsona kopuruak Euskal Herriko eta estatu espainolekoen kopurua ia berdintzen duena.

Etterik gabeko pertsonak Tolosan

Tolosako udalerriko Gizarte Zerbitzuetako zentroetara joaten diren etterik gabeko pertsonen buruz Eustatek emandako datuak 2005ean eta 2012an etterik gabeko pertsonen egindako inkestetatik atera dira.


11.15 irudia: Etterik gabeko pertsonak Tolosako GZetan



11.16 irudia: Nazionalitatea - Etterik gabeko pertsonak Tolosako GZetan



11.17 irudia: Adina - Etterik gabeko pertsonak Tolosako GZetan



Iturria: Geuk prestatua Eustatek emandako datuekin

2005etik 2012ra, Tolosako Gizarte Zerbitzuetako zentroetako pertsona kopurua 29tik 45era igaro da. Alegia, etterik gabeko pertsonen kopurua %55 igo da zentro horietan. 11.15 grafikoan ikusten denez, **igoera horrek batik bat emakumeen artean izan du eragina.** Ildo horretan, emakume kopurua 2tik 14ra igaro da 2005etik 2012ra; gizonen guztizkoa, berriz, 27tik 31ra igaro da 2005etik 2012ra. Horrek esan nahi du **emakumeak proportzioan %600 igo direla, eta gizonak %15.**

Zenbaki absolutuetan zifrak ez dira oso handiak, baina **adierazgarria da lehen baino emakume gehiago amaitzen dutela orain kalean bizitzen**, fenomeno hori ia ez zegoenean duela 7 urte soilik. Ahaztu gabe detektatu gabeko kasu gehiago geratzen direla, uneko inkesta bat delako eta ez datu-bilketa sistematiko bat.

Zentro horietara joaten diren pertsonen nazionalitateari dagokionez, datuek adierazten dute **2005ean %45 nazionalitate atzerritarreko pertsonak zirela. Ehuneko hori %39ra jaitsi da 2012an.** Aldi berean, nazionalitate atzerritarreko pertsonen 100 gizonak dira bi urteetan.

Pertsonen adinari buruzko datuak ez daude bereizita sexuaren arabera. Beraz, soilik ikus daiteke **2005ean zein 2012an adin-tarte adierazgarrienak 30 eta 44 urte eta 45 eta 64 urte artekoak direla.**

Ekarpen kualitatiboa krisi ekonomikoaren inpaktuan

Diagnostiko honen datu-bilketaren barruan, tailer bat egin zen, eta horren helburua zen **krisiak Tolosan izandako inpaktuari buruz gogoeta egitea, lan produktiboaren, lan erreproduktiboaren eta baliabideen** (etxebizitza, adibidez) **sarbidearen ikuspegitik**. Jarraian, parte-hartzaileek egindako balorazio batzuk azalduko ditugu (ikus 5. orrialdean adierazitako entitateen zerrenda).

Lan-merkatua

- ✓ Tailerrean parte hartzen duten sindikatuetatik, **arazo gehiago** ikusten dira **borroka sindikala antolatzeko eta gauzatzeko krisia larriagotu zenetik**. Ildo horretan planteatzen da prekarizazioaren igoerak eragin negatiboa duela lan-eskubideen aldarrikapenean oro har, eta **bereziki sektore feminizatuetan**. Era berean, **lan-erreformek okertu egiten dute egoera hori, orokorrean lan-eskubideak gero eta gehiago murriztuta**. Horrek esan nahi du gero eta egoera gehiago daudela langileek diskriminatzailatzat jo ditzaketenak, baina legearen babespean daudenak eta, beraz, **egoera zehatzak salatzeko legezko aukera gero eta estuagoa da**.
 - ✓ Sindikatuetatik sektore feminizatuetan **borroka sindikala antolatzeko identifikatzen diren arazoan artean**, horietan lan-baldintzak prekarizatzeaz gain, inpaktu negatibo gisa adierazten da **gaur egun emakumeek hartzen dutela oraindik beren gain neurri handiagoan pertsonak zaintzeko ordaindu gabeko lanak**.
 - ✓ Lan-merkatuan generoan oinarrituta indarrean diren bereizkeria-egoerak azken hamarkadetan ez direla asko hobetu ere planteatzen da.
- “Kontatzen ari zareten hau guztia kontatzen genuen duela 40 urte”*
- ✓ Etorkinen artean eta, zehatzago, emakumeen artean krisia nola eragiten ari den planteatzean, adibidetzat hartzen da **emakume etorkin askok pertsonen zaintzari lotuta egiten duten lana**. Horri buruz esaten da **baldintzak beti izan direla gogorrak, baina gaur egun okertu egin direla**. Horren ondorioz, emakume batzuk **beren jatorrizko herrialdeetara itzultzea planteatzen** ari dira. Eta hemen beren herrialdean baino hobeto egoten dela guztiz egia ez dela ere esaten da:

“Familia bat uzten dute, seme-alaba batzuk uzten dituzte... Beraiek hemen 100 edo 300 euroekin besterik ez dira geratzen bizirauteko”.

Krisiaren inpaktua zaintzetan

- ✓ Tailerrean tratatzen den beste gaietako bat da krisiak zaintzetan zer inpaktu duen. Horri buruz planteatzen da, batetik, lan-merkatuaren prekarizazioak eta zaintzari lotutako zerbitzuen erreformek eta murrizketek **inpaktu bat** izango dutela **epe labur/ertainean laster erretiratuko diren pertsonengan**. Hots, pertsona horiek **baliabide gutxiago izango dutela aurreikusten da familia-ingurunetik beren gain hartu beharko diren zaintza-premiei erantzuteko**. Ildo horretan planteatzen da prekarizazio orokorrak mendekotasun-harremanak sortuko dituela familia-ingurunearen barruan:

“Denok pobreak izatea eta askeak ez izatea ari dira lortzen... elkarren mendekoak izatea. Niretzat oso arriskutsua da... Itomen-sentsazio izugarria sortzen dit”.

- ✓ Batik bat lan-merkatuaren prekarizazioagatik (enplegu falta, soldata baxuak, etab.) zaintza-zerbitzuak kontratatzeke eta izateko arazoan aurrean estrategia posible gisa planteatzen da **balio-aldaketa bat eta aldaketa bat zaintzen eta oinarrizko premien antolakuntzan**.

“Lanaldi erdiko lan bat ematen badidate, lanaldi erdian ari den horrekin eta beste horrekin elkartzen naiz... Agian bizitza berri bati ekiteko modu bat da”.

- ✓ **Zaintzei lotutako lan erreproduktiboa baloratzeko premia** aipatzen da emakume eta gizonen artean **berdintasun handiagoko banaketa bat bermatzeko aurretiko urrats gisa**.

Baliabide eta laguntza-sare sozialetarako sarbidea

- ✓ Eskualdeko enplegu-zerbitzuetan identifikatu denez, **baliabide ekonomikoen falta bakartze-egoerak ari da sortzen herritar gazteen artean**.

“Ez dira irteten... ezin dituzte indartu sare sozialak. Bazterkeria-egoerak sortzen ari dira”.

- ✓ Stop Kaleratzeak-etik **ahultasun handiagoko egoera bat** identifikatu da **etxebizitzarekin geratu eta horren gastuei ezin aurre egin dieten emakume bereizien kasuan**, adibidez, senar ohiaren pentsioa jasotzeari uzten diotenean, hura langabezian geratu delako. Bankua etxearekin geratu den kasuak aipatzen dituzte, eta bere bizitza berregiteko aukera eragozten dion bizitza osorako zor batekin geratzen da emakumea. Ezaugarri horiek dituzten zenbait kasu identifikatzen ari direla diote. **Aldi berean, emakumeen inplikazio-maila oso altua ere ari da identifikatzen plataformaren barruan**.

- ✓ **Emakumeek parte hartu duten enplegu-programetatik, genero-indarkeriako egoerak identifikatu** dituzte horiek dinamizatzearaz eta kudeatzearaz arduratzen diren pertsonak. Ildo horretan, kasu horiek detektatzeko zer arazo izan zituzten aipatzen dute, prestakuntza espezifikoak ez izateagatik.

Ekonomia solidarioko neurriak

- ✓ Aukera ekonomikoei buruzko eztabaidan, Tolosan duela urte batzuk abian jarri baina orain geldirik dagoen **denboraren bankuaren ekimena** aipatzen da. Proiektu mota hori estrategia egokitzat jotzen da bestelako harremanak eta ekonomia ez-monetarizatu bat sustatzeko, hegemonikoaren aukera gisa. Gainera, esaten da ekimen mota horretan gehienbat emakumeek hartzen dutela parte.
- ✓ Bulegoa Tolosan duen **banku etikoko ekimen bat** (FIARE) ere aurkeztu da, gizarte-eraldaketa sustatu nahi duena.
- ✓ Orokorrean planteatzen da helburu hori lortzeko **beharrezkoa dela herritarrek konpromisoa hartzea**. Horri dagokionez, orokorrean identifikatzen da jendea ez dagoela ados sistema hegemonikoarekin, baina kostatu egiten zaiola ordezkoko aukerak planteatzen dituzten ekimenera hurbiltzea. Halaber, planteatzen da **garrantzitsua dela mota horretako ekimenek Udaletik izan dezaketen laguntza**.



Kapitulu honetan **Berdintasun Zerbitzutik bultzatzen ari den jabetze-espazio** bati helduko zaio, epe ertain/luzean udalerrian emakumeen partaidetza soziopolitikoak sustatzeko.

JABETZE ESKOLA

Horietan nagusia Jabetze Eskola da, **2009ko martxoan hasitako proiektu estrategiko bat**, eta etenen baten ondoren **emakumeentzako espazio propio gisa ari dena finkatzen azken urteotan**, topaketak eta gogoeta egiteko espazio bat, **banaka zein kolektiboka jabetze-prozesuak** sustatzen dituena.

Tolosako Emakume eta Gizonen Berdintasunerako II. Planaren Ebaluazioan adierazi den bezala, 2009tik, urtero handitu egin dira eskaintzen den ikastaro kopurua zein horietan parte hartzen duen emakume kopurua. Eskolaren funtzionamendua eta parte-hartzaileen artean sortzen duen gogobetetze-maila argitzeko, 2013ko sistematizazio-proiektuko datu batzuk hautatu dira.

Urte horretan, zenbait saiotako ikastaroak eta tailerrak egin ziren, aurrez izena ematea eskatzen zutenak, hala nola 2 orduko atariko hitzaldi irekiak. Badaude ikastaro batzuen asistentzia-datuak, eta partaidetza-maila handia nabarmendu dezakegu; izan ere, **ikasle proportzio handi batek zenbait jardueratan hartu zuen parte**, eta guztira **86 plaza bete ziren prestakuntza-espazio guztietan**.

IKASTAROA	PARTE-HARTZAILEAK
Nik ere baditut ikasketak. Nola homologatu?	8 emakume
Autodefentsa Feminista burokrasia ekonomikoaren kontra I. zatia	6 emakume
Autodefentsa Feminista burokrasia ekonomikoaren kontra II. zatia	6 emakume
Emakumeentzako auto-defentsa ikastaroa	20 emakume
Komunikazio estrategien ikastaroa	6 emakume
Zaintza lanaren aitortpena. Todas las horas cuentan	9 emakume
Jabetze Eskolak Emakumeentzat. Zein jabetze motaz ari gara?	10 emakume
Zuri zer kontatu dizute feminismoaren gainean?	10 emakume
Emakume migratzaileak eta komunikabideak	11 emakume

Sistematizazio-proiektuak informazio zehatzagoa bildu nahi du Eskolara etortzen diren ikasleei buruz, eta bere tresnen artean "sarrera-fitxa" bat du, jarduera guztietan banatzen dena, atariko hitzaldietan izan ezik.

Ikasle bakoitzak fitxa bakarra betetzen duenez, 2013an, jarduera hauetan parte hartu duten **23 emakumeren profila analizatu da**:

- Autodefentsa feminista emakumeentzat.
- Autodefentsa feminista patriarkatuaren burokraziaren aurka (2 talde/tailer).
- Komunikaziorako estrategia-tailerra.
- Nik ere baditut ikasketak, nola homologatu?

Txosten hau ixteko garai honetan, 2014ko udazkenean, ezin izan dugu eskuartean izan Eskolak urte horretarako izan duen jardueraren gaineko analisi zehatza. Horretxegatik islatzen da 2013ko informazioa hurrengo orrialdetan. Hala ere, 2014ko ikastaroen zerrenda bai, hori lortzea izan dugu, kasu bakoitzean betetako plaza-kopurua dakarrela. Igoera, bai ikastaro-kopuruarena bai ikasle-kopuruarena, garrantzitsua izan da, laburpen-taulak ageri den bezala. Ikastaroak 2013an 9 izatetik 2014an 15 izatera pasa dira, eta betetako ikasle-plazak izan dira 200 bat emakumezko eta 65 bat gizonzko (prestakuntza- eta eztabaida-gune mistoetan) baino gehiago. Eskola finkatzeak posible egin du, alde batetik, segida ematea harako ikasleek 2013an erakutsi dituzten interesguneei erantzuten dieten ikastaro haiei. Bestaldetik, posible egin du ikastaro-eskaintza handitzea eta gai eta lan-esparru berriak sartzeara. Horrela zabaldu egin da Eskolan parte hartutako pertsonen profila eta, baita ere, partekatutako interes eta esperientziak.

IKASTAROAK 2014	PARTE-HARTZAILEAK
Nik ere baditut ikasketak. Nola homologatu? (2 Ikastaro)	9 emakume
Autoestimua eta Jabetza	14 emakume
Batukada Feminista (2 ikastaro)	35 emakume
Zoru pelbikoa lantzeko tailerra	29 emakume
Autodefentsa Feminista	11 emakume
Nola eragiten du krisiak emakumezkoen eta gizonezkoen bizitzetan?	17 emakume eta 6 gizon
Berdintasunezko kultura baterantz	15 emakume eta 6 gizon
Biolentzia sexistei buruzko tailera	53 (ikasle mixtoa)
Beldur Barik Jarrera	19 gazte
Greyren 50 itzalak eta beste fenomeno estraliterario batzuk	6 emakume eta 2 gizon
“Donde no hay mata no hay patata” antzezlanak	6 emakume eta gizon 1
Guretzako	18 emakume


2014an, udalerriko emakumeen jabetzaren inguruan lanean segitzeaz aparte, Eskolak sortu ditu gogoetarako eta eztabaidarako guneak udalerriko emakumeei zein gizonei zuzendutakoak. Gune horietan parte hartu duten pertsonen elkarbanatu ahal izan dituzte beren esperientziak eta bizipenak, abiatzeko generoa giltzarritzat eta inguratzen gaituen errealitatearen egiturazailatzat aurkeztu duen eztabaida batetik. Alde horretatik nabarmendu daitezke krisiaren eraginaren inguruko ikastaroak eta indarrean dagoen kulturaren ingurukoak ere. Nabarmenezkoak dira ere herritar gazteei zuzenduta dauden berdintasunaren sustapenaren eta indarkeriaren prebentzioaren inguruko ikastaroak.

Ikasleen profila

Diagnostikoa itxi zen datan ez zeuden eskuragarri 2014. urteko datu guztiak, beraz 2013. urteko datuetara joko dugu. Dauden 23 sarrera-fitxetatik – ikasle batzuek ez zuten entregatu fitxa eta parte-hartzaileen guztizko kopurua zifra hori baino handiagoa da– bildutako datuak interpretatzeko, komeni da esatea kasuen %29 autodefentsa feministako tailerra egin duten emakumeak direla, emakume gazteak erakartzen dituen jarduerara bat.


- ✓ Halaber, sarrera-fitxa bete zuten 23 emakumeen %43,5ek 25 urte arte ditu eta %21,7k 41 eta 50 urte artean.
- ✓ Ikasketa-mailari dagokionez, emakumeen %52,2k dio unibertsitate-ikasketak dituela, %34,8k dio bigarren mailako ikasketak dituela eta %13k lanbide-heziketa egin du.

12.1 irudia: 2013ko ikasleen adin-tarteak




Iturria: Geuk prestatua.

12.2 irudia: 2013ko ikasleen ikasketa-maila



Iturria: Geuk prestatua.

12.3 irudia: 2013ko ikasleen lanbide nagusia




Iturria: Geuk prestatua.

- ✓ Emakumeen %69,6k dio azken 6 hiletan enplegu ordaindu bat daukatela edo izan dutela.
- ✓ Egungo lanbideari dagokionez, erantzun hautatuena "ikaslea" izan da, eta ondoren "besteren konturako enplegatuak" edo "lanaldi mugatukoak".
- ✓ Nabarmendu behar da %8,7k dioela langabezian dagoela.

Ikasleen erdiek 30 urtetik behera dituzte, eta horrek eragina du ziur aski **teknologia berrien erabilera oso garrantzitsua** egitean:


- ✓ Fitxa bete zuten ikasleen Interneten eta sare sozialen erabilerari dagokionez, %100ek adierazi du Internet erabiltzen duela.
- ✓ Erdiak baino gehiagok erabiltzen duen sare soziala Facebook da.
- ✓ Aipatu diren bestelako sare sozialak Tuenti eta Whatsapp dira.
- ✓ Eta hain zuzen ere, ikasleen heren batek teknologia berrien bidez izan du Eskolaren prestakuntza-eskaintzaren berri.
- ✓ Hala ere, ezagun da ikasleak pozik daudela espazioarekin, ahoz ahokoa baita informazioa hedatzeko baliabide nagusia, posta elektronikoz edo Kultur Etxean dauden liburuxkez gain.

12.4 irudia: 2013ko ikasleen sare sozialen erabilera




Iturria: Geuk prestatua.

12.5 irudia: Nola izandute eskolaren berri - 2013ko ikasleak




Iturria: Geuk prestatua.

12.6 irudia: 2013ko ikasleen elkartegintza-maila



Iturria: Geuk prestatua.

12.7 irudia: Ikastaroak euskaraz nahi dituzten ikasleak 2013an




Iturria: Geuk prestatua.

- ✓ Soilik %21,7k dio elkarte bateko kide dela: Denboraren Bankua, Zero Zabor, Errenteriako Emakumeen eta Feminismoaren Aztarna, Malen Etxea eta Topa.
- ✓ Ikasle euskaldunak dira gehienak; izan ere, %82,6k dio nahiago duela ikastaroak euskaraz egin.

Interesgarria da beti analizatzea zein diren hiru arrazoi nagusiak emakumeek Jabetze Eskolan izena emateko. Hortik, sailkapen bat egiten da erantzun-maiztasunaren arabera:


- ✓ **Garapen pertsonala izaten da arrazoi erabiliena**, bai eskola honetan, bai sistematizazio-proiektuak dituzten beste jabetze-eskola batzuetan.
- ✓ Hala ere, datu garrantzitsu bat da **“ikuspegi feminista batetik prestatzea” aukera aipatzen duten emakumeen ehunekoak. Kasu honetan, ex aequo dator lehen tokian erantzunen %26,2rekin**, gertaera oso garrantzitsua Eskolak jabetze pertsonal eta kolektiboko helburua betetzen ote duen baloratzean.

12.8 irudia: 2013ko ikasleek izena emateko arrazoiak



Iturria: Geuk prestatua.

12.9 irudia: 2013ko ikasleen itxaropenen estaldura-maila




Iturria: Geuk prestatua.

Jabetze Eskolako ikasleen gogobetetze-maila

Ebaluazio-fitxak banatu ziren Eskolak 2013an antolatutako jardueretako 7ren amaieran.


- ✓ Horien analisiari esker, proiektuak oro har balorazio oso ona jaso duela berretsi daiteke, eta ikasleak geroko jardura gehiagotara joan nahian daudela, eta horregatik, tratatu beharreko gaiak buruzko iradokizunak egiten dituzte.
- ✓ Bi kasutan izan ezik, **haien itxaropenak “nahikoa” edo “asko” bete dira** parte hartu duten ikastaroetan.

12.10 irudia: 2013ko ikasleen partaidetza-maila ikasgelan




Iturria: Geuk prestatua.

12.11 irudia: Nahi al duzu gehiago parte hartu ikasgelan? 2013ko ikasleak



Iturria: Geuk prestatua.

12.12 irudia: Nahi al duzu gehiago parte hartu ikasgelan? 2013ko ikasleak




Iturria: Geuk prestatua.

Saioetan zehar norberaren partaidetza-mailari dagokionez,

- ✓ ikasleen %62k dio "zerbait" eta "nahikoa" artean parte hartu dutela ikastaroan eta/edo tailerlean.
- ✓ Soilik %8k adierazi du ezer ez parte hartu izana eta %12k askotan parte hartu duela.
- ✓ Galdera horrekin batera, ikasleei galdetu zaie ea gehiago parte hartu nahi izango zuten, eta %74k ezetz erantzun du. Horrek adierazten du **pozik geratu direla eztabaidetan izan duten partaidetza-mailarekin** (hain zuzen, aurrez handi edo txiki gisa baloratu dutenarekin).
- ✓ Hurrengo ebaluazio-galderak berresten du hori. Ikasle gehienek erantzun dute **nahi adina hartu dutela parte**, edo gutxiago parte hartu badute, gainerakoei entzuten erosoago zeudelako zela beraiek hitz egiten baino.
- ✓ Galdera hori oso garrantzitsua da ikasleen bilakaera baloratzean, jabetze pertsonaleko maila handiagoari ikasgelan partaidetza-maila handiagoa ere bailegokioke.

12.13 irudia: 2013ko prestatzaileei buruzko balorazioa



Iturria: Geuk prestatua.



Azkenik, ebaluazio-fitxak **ikasleek prestatzaileari buruz egiten duten balorazioa** jasotzen du, erabilitako metodologiari, gaia menderatzeari, edukien prestaketari eta eztabaidak sortzeko gaitasunari dagokienez.

Ikus daitekeenez, 2013an “Nik ere baditut ikasketak, nola homologatu?” eta “Autodefentsa feminista emakumeentzat” saioek jaso dute puntuaziorik handiena..

Jasotako ia puntuazio guztiak 10etik 8tik gorakoak dira, eta horrek **gogobetetze-maila handia** adierazten du berriz.

Dudarik gabe esan daiteke Tolosako Jabetze Eskola gero eta finkatuago dagoen ekimen bat dela. 2014ko datuek erakusten digutenez, azkar handitzen ari da Eskolara inguratu eta bertan parte hartzen duten emakumeen kopurua.

Aldi berean, eta diagnostikoan zehar egiaztatu den bezala, gero eta gehiago dira ekimen honekiko interesa erakusten duten gizarte eragileak. Alde horretatik, azpimarratzeko modukoa da beste erakunde batzuek erakutsitako interesa, esate baterako herriko Osasun Publikoko Zentzoko pertsonal medikoarena zeinek Eskolan ikusten duten lanerako-esparru interesgarri bat zeinetara bidali daitezkeen osasun-zentzora inguratzen diren emakumetako batzuk, alegia, beren gainean hartzen dituzten genero-rolekin eta beren emakume-nortasunaren eraikuntzarekin oso lotutako arazo pertsonalak eta osasunekoak dauzkatenak.

ZEIN IZAN DA TOLOSAKO UDALAREN IBILBIDEA ESPARRU HONETAN?

Tolosako Udalak, modu sistematiko eta dokumentatua gutxienez, **zenbait urte** darama **lanean** bere politika publikoetan **genero-mainstreaminga sartzea hobetzeko**. Izan ere, bere II. Berdintasun Planean (2009-2011) "Genero-mainstreaminga aplikatzeko oinarriko neurri orokorrak" programa zuen xede horretara zuzenduta.

2012an, II. Plan horren ezarpen-mailaren **ebaluazio-txostenaren** ondorioz, programa horrek %60 eta %79 arteko gauzate- eta garapen-maila bat izan zuela ikusi zen, baina esan behar da esparru horretan aurreikusitako ekintza gehienak Udaleko sail oso zehatzetan (Kulturaren, Festetan, Gazterian eta Kiroletan) soilik bete zirela eta **ez ziren jarduketa orokorrak izan Udal osoan**, II. Planean aurreikusita zegoen bezala. Halaber, berdintasuna lortzera zuzendutako jarduketa espezifikoak berdintasun-sailaren "propietat eta eskusibotzat" jotzen ziren, eta horren programa funtzioaletan ez ziren aurrekontu-baliabideak bideratzen, salbuespen zehatz batzuetan izan ezik.

Txostenak hobekuntza metodologikoko alderdi bat ere azpimarratzen zuen, kontuan izan beharrekoa plan berri bat eguneratzeko eta kudeatzeko: jarduketei buruzko informazioa eta datuak biltzeko eta artxibatuzeko sistema bat ezartzea zen, etorkizunean egoera bakoitzaren inpaktu-balorazioak egiteko.

Horregatik, **2013an**, Berdintasun Sailetik **Tolosako Udalaren udal-politikan genero-zeharkakotasuna sustatu eta abiarazteko** proiektua bultzatu zen. **Izaera estrategikoko proiektu bat** da Tolosako udal-politika guztietan genero-zeharkakotasuna lortzeko. Proiektu horren helburua da ahaleginak areagotzea eta epe labur, ertain eta luzean proiektu espezifiko bat garatzea Tolosako Udalaren barruan emakume eta gizonen arteko zeharkako berdintasun-ekintzak pixkanaka ezartzeko, udal-sail bakoitzaren aurrerapen-mailara egokituak.


Proiektu horren barruan, **2013an** zehar, jarduketa ugari egin dira eta aldaketa-prozesu bat zabaldu da **sinergia eta mekanismo berriak finkatzeko** udal-sailetan genero-zeharkakotasuna modu sistematikoan ezartzeko, **errealitate guztietara egokituta arlo horretako aurrerapen-mailari eta garapenari dagokienez**.

Jarraian, proiektu horren barruan garatutako jarduketa guztiak zehaztuko dira:

2013KO PROIEKTUA: “UDAL POLITIKETAN GENERO ZEHARKAKOTASUNA SUSTATU ETA ABIARAZTEA”

Hona proiektu honen mugarri nagusiak:


1. **“Lan Batzordeak eta beraien funtzioak” barne-araudia prestatzea, onartzea eta jakinaraztea** proiektua garatzeko eta jarraitzeko. Hor zehazten dira proiektuaren garapenean parte hartzen duten batzorde guztiei (Parekidetasun Batzordeari, Sailarteko Batzordeari eta Laia Batzordeari) atxikitako funtzioak, eta zerbitzu edo sail bakoitzeko solaskide gisa izendatutako langile teknikoei esleitutako funtzioak.
2. **Udaleko zerbitzu eta/edo sail bakoitzean zeharkako neurrien ezarpen-mailaren diagnostiko-fasea**, Udaleko sail eta zerbitzu guztietan informazioa biltzeko egindako galdera sorta baten bidez: Komunikazioa, Kultura, Kirolak, Enplegua, Euskara, Festak, Informatika, Kontu-hartzailetza, Gazteria, Ingurumena, Pertsonala, Udaltzaingoa, Idazkaritza, Gizarte Zerbitzuak, Turismoa-Feriak-Azokak-Garapen Ekonomikoa eta Hirigintza. Guztira 16 pertsonak hartu dute parte, 7 emakumek eta 9 gizonek. Egindako galdera sortaren egitura 10 item nagusiri buruzko informazioa lortzeko egin da:



- **Zerbitzuaren edo sailaren datuak**, langile tekniko eta politiko, batzorde, lantalde eta abarren dimentsioarekin lotuak, dena sexuaren arabera bereizita. Eta genero-arloan bateratzeko eta prestatzeko jasotako neurrien mendeko langileak izatea ala ez.
- **Informazio-tresnak egokitzea sexuaren aldagaia sartzeko**: egin al da inbentariarik? ustia al daitezke datuak sexuaren arabera, eta bigarren mailako beste aldagaien arabera?, etab.
- **Hizkuntza inklusibo bat erabiltzea**: ezagutzen al duzu hizkuntza ez-sexistari buruzko gidalibururik?, egin al da hizkuntzaren azterketarik barneko eta kanpoko dokumentuetan? irudietan? web-orrietan?, etab.
- **Genero-ikuspegia duten datu eta azterlan sozialak**: sartzten al da memorietan, azterketetan... analisiak genero-ikuspegitik?, hori barnean hartzeko protokoloak?, etab.
- **Berdintasunaren sustapena diru-laguntzen bidez**: sartzten al dira berdintasuna sustatzen duten balorazio-irizpideak?, eskatzen al dira eskabidean sexuaren arabera bereizitako datuak?, etab.
- **Berdintasun-irizpideak sartzera kontratazio-prozedura eta hitzarmenetan**: sartzten al dira berdintasuna sustatzeko klausulak?, betetzen al da ordezkartza parekidearen irizpidea kontratazio-mahaietan?, etab.
- **Sustapena aitortpenen, sarien, ondasun kultural eta artistikoen erosketen bidez**: betetzen al da ordezkartza parekidea epaimahai edo auzitegietan?, ba al dago aitortpen edo sarien daturik sexuaren arabera bereizita?, etab.
- **Emakume eta gizonen arteko berdintasuna lortzeko aurrekontu-baliabideak**: prestatu al duzu aurrekontu-sailen bat zure arloan emakume eta gizonen arteko berdintasuna sustatzeko jarduera eta abarretara zuzenduta?, etab.
- **Genero-inpaktuaren ebaluazioa**: egiten al dira genero-inpaktuari buruzko aurretiko txostenak zure arloak garatutako araudietan?, etab.
- **Prestakuntza-premiak genero-arloan**: zure ustez, beharrezkoa al da genero-arloan prestakuntza jasotzea? esparruak?, etab.

2013KO PROIEKTUA: "UDAL POLITIKETAN GENERO ZEHARKAKOTASUNA SUSTATU ETA ABIARAZTEA"

Diagnostikoaren emaitza batzuk...



- ✓ **Sexuaren aldagaia sartzea:** balorazio eskasa datuak sexuaren arabera bereizita izateari buruz. Joera txikia pertsonekin lotutako aplikazio-inbentarioak, datu-baseak, etab. egiteko (%37 BAI - %62 EZ).
- ✓ **Hizkuntza inklusiboa erabiltzea:** Udalaren hizkuntza ez-sexistako eskuliburuaren berri ez izatea (%75ek dio EZ duela inolako eskuliburuaren berri). Inkesten %56,3k dio hizkuntzaren azterketa sistematikoa egiten dutela formulario eta dokumentuetan, baina inkesten %81ek dio EZ duela egin saileko dokumentu, formulario eta abarretan erabilitako hizkuntzaren azterketarik.
- ✓ **Genero-ikuspegia duten datu eta azterlan sozialak:** eragin txikia memoria, txosten eta azterketetako datuak genero-ikuspegitik analizatzean (%31,2 BAI - %68,8 EZ). Ez dago ohiko ohiturarik emakume eta gizonen egoerarekin lotutako ikerketa edo diagnostiko sektorialak egiteko (%18,8 BAI - %81,2 EZ).
- ✓ **Diru-laguntzen oinarriak:** BAI, oinarrien ehuneko handi batean sartzen dira genero-irizpideak (%71,4). Hobetu egin daiteke eskabide-inprimaketan elkarte eskatzaileen, zuzendaritza-batzordeen, zuzendaritza-kontseiluen eta abarren osarari buruzko datuak sexuaren arabera bereizita sartzean.
- ✓ **Kontratazio-prozedurak eta hitzarmenak:** arloen %62k EZ du sartzen genero-irizpiderik agiritan. erantzunen 75ean ere ez da betetzen ordezkartza parekidearen irizpidea kontratazio-mahaian.
- ✓ **Sustapena aitortpenen, sarien, ondasun kultural eta artistikoen erosketen bidez:** arloen %31,2k sari edo aitortpen motaren bat ematen du. Arlo horien %60k soilik ditu datuak sexuaren arabera bereizita, eta kasuen %40an errespetatzen da epaimahai edo auzitegien ordezkartza parekidea. Galdetutako arloen %50 beren jardueretan genero-ikuspegia sartzeko ahalegin adierazgarri bat egin duten sailei barne-aitortpen bat egitearen alde egongo litzateke.
- ✓ **Genero-inpaktuaren ebaluazioa:** galdetutako pertsonen %100ek EZ du egiten genero-inpaktuari buruzko txostenik, eta kasu kopuru adierazgarri batean (%56,25ean) garrantzia 5etik beherako edo 5eko balio batekin puntuatu da.

2013KO PROIEKTUA: "UDAL POLITIKETAN GENERO ZEHARKAKOTASUNA SUSTATU ETA ABIARAZTEA"

Diagnostikoaren emaitza batzuk...

- ✓ **Aurrekontu-baliabideak:** inkesten %93,7k dio EZ duela izan kontu-sail espliziturik emakume eta gizonen arteko berdintasunari lotutako jarduera, programa eta abarretara zuzenduta. Era berean, nabarmena da kontu-sail hori izatearen garrantziak zer balorazio baxua duen (4,8 1etik 10erako eskala batean).
- ✓ **Prestakuntza genero-arloan:** galdetutako pertsonen %75 BAIETZ dio prestakuntza motaren bat jasotzeko premiari inkestan baloratutako neurriak praktikara eramateko.
- ✓ **Garrantzi-mailaren batez besteko balorazioa,** sail bakoitzean aurreko faktore bakoitzari ematen zaiona:



ITEMA	Batez bestekoa (0tik 10erako puntuazioa)	Kopurua (*)
✓ Sexuaren arabera bereizitako datuak	5,4	10
✓ Hizkuntza ez-sexista	8,2	3
✓ Genero-ikuspegia duten datu eta azterlan sozialak	7,2	6
✓ Berdintasun-irizpideak sartzea diru-laguntzetan	7,3	2
✓ Berdintasun-irizpideak sartzea kontratazio-prozedura eta hitzarmenetan	6,8	7
✓ Sustapena aitortpenen, sarien, ondasun kultural eta artistikoen erosketen bidez	7,2	3
✓ Egiletza femenino eta maskulinoko lanak orekatuko dituen araudia sartzearen garrantzia	7,2	4
✓ Berdintasunera bideratutako aurrekontu-baliabideak	4,8	6
✓ Genero-inpaktuaren ebaluazioa	6,3	8

(*) Puntuazioen kopurua batez bestekoaren azpitik

2013KO PROIEKTUA: “UDAL POLITIKETAN GENERO ZEHARKAKOTASUNA SUSTATU ETA ABIARAZTEA”

3. Garapen-/ezarpen-fasea: Fase honetan jarduera nagusi hauek garatu dira:

- ✓ Udalaren **web-orri, blog, etab. guztietan hizkuntza eta irudi ez-sexisten erabilera-maila aztertzea. Eმაitzen txostena.**
- ✓ **Prestakuntza**, udal-sail bakoitzeko langileen ordezkari bati emandakoa, **“Hizkuntza ez-sexista baten erabilera euskaraz”** gaiari buruz.
- ✓ **“Tolosako Udalaren udal-politiketan genero-zeharkakotasuna abiarazteko instrukzioa”** prestatzea. Instrukzio horrek irizpideak biltzen ditu Tolosako udal-sail bakoitzak diagnostikatu duen item bakoitzerako garatutako jarduketetan genero-zeharkakotasun hori gauzatzeko.
- ✓ **Lan- eta sentsibilizazio-saioak modu individualizatuan udal-sailekin.** Saio horietan instrukzioan aipatutako ardatz bakoitza landu da. Saio horien azken xedea izan da sail guztien sentsibilizazioa eta inplikazioa Tolosako Udalaren politika publikoetan genero-zeharkakotasunaren ezarpen handiago bati erantzungo dioten ekintzak ezartzeko.


SAIL EKO DATUAK / DATOS DEL DEPARTAMENTO		TOLOSAKO UDALA											
SAILA / DEPARTAMENTO:		GENEROKO ZEHARKAKO NEURRIEN EZARPERAKO EKINTZA PLANA / PLAN DE ACCIÓN PARA LA IMPLEMENTACIÓN DE LA TRANSVERSALIDAD DE GÉNERO											
AZIARDURAREN POLITIKA / RESP. POLÍTICOA													
AZIARDURAREN TERMINOAI / RESP. TÉCNICOA													
ZK Nº	GENEROKO ZEHARKAKO NEURRIA / MEDIDA DE TRANSVERSALIDAD	ZK Nº	AURREKALKITAKO EKINTZA / ACCIÓN PREVISTA	2014				2015					
				1. Hiruh. / 1º Trm.	2. Hiruh. / 2º Trm.	3. Hiruh. / 3º Trm.	4. Hiruh. / 4º Trm.	1. Hiruh. / 1º Trm.	2. Hiruh. / 2º Trm.	3. Hiruh. / 3º Trm.	4. Hiruh. / 4º Trm.		
1	Informazio berrikuntza eta komunikazioaren aldeko neurriak hartzea / Adopción de Acciones de información y comunicación de la transversalidad	1.1											
		1.2											
		1.3											
		1.4											
		1.5											
2	Bikaintza indarrezko erabilera / Utilización de recursos humanos	2.1											
		2.2											
		2.3											
		2.4											
		2.5											
3	Genero-berrikuntza eta komunikazioaren aldeko neurriak hartzea / Adopción de Acciones de información y comunicación de la transversalidad	3.1											
		3.2											
		3.3											
		3.4											
		3.5											
4	Datu-erregistroaren bidezko berrikuntza eta komunikazioaren aldeko neurriak hartzea / Adopción de Acciones de información y comunicación de la transversalidad	4.1											
		4.2											
		4.3											
		4.4											
		4.5											
5	Berrikuntza eta komunikazioaren aldeko neurriak hartzea / Adopción de Acciones de información y comunicación de la transversalidad	5.1											
		5.2											
		5.3											
		5.4											
		5.5											
6	Berrikuntza eta komunikazioaren aldeko neurriak hartzea / Adopción de Acciones de información y comunicación de la transversalidad	6.1											
		6.2											
		6.3											
		6.4											
		6.5											
7	Berrikuntza eta komunikazioaren aldeko neurriak hartzea / Adopción de Acciones de información y comunicación de la transversalidad	7.1											
		7.2											
		7.3											
		7.4											
		7.5											
8	Genero-berrikuntza eta komunikazioaren aldeko neurriak hartzea / Adopción de Acciones de información y comunicación de la transversalidad	8.1											
		8.2											
		8.3											
		8.4											
		8.5											

➔ Proposatutako jarduketak **informazioa biltzeko fitxa individualizatu batzuetan** jaso ditu sail bakoitzak, eta Tolosako Udalaren udal-politiketan **genero-zeharkakotasuna abiarazteko ekintza-plan** gisa integratuko dira bi urteko epe baterako, eta horien jarraipena eta monitorizazioa egiteko proiektu bat izango da 2014rako.


GOBERNU ORGANOAK

Udaleko langileen zerrendarekin egingo dugun bezala, beharrezkoa da **emakumeak Udalaren organo erabakitzaileetan** eta Informazio Batzordeetan **zer ordezkartza duen** analizatzea. **Osoko Bilkurarekin eta Gobernu Batzordearekin** hasita, hauxe da egungo banaketa sexuaren arabera:

13.1 irudia: Udaleko Osoko Bilkuraren osaera 2011/2015 legealdian



13.2 irudia: Gobernu Batzordearen osaera 2011/2015 legealdian



Iturria: Tolosako Udalaren web-orria

Bi organo erabakitzaileetan **betetzen da Tolosako Udal Ordenantzaren 4. artikuluan ezarritakoa**: “II. KAPITULUA: Ordezkaritza politikoa eta udal-organoen osaera. 4. ARTIKULUA: *Ordezkaritza edo osaera orekatua:.....emakume eta gizonen presentzia bermatuko duen egoera, dagokion taldean sexu bakoitzeko pertsonen kopurua ez dadin izan ehuneko hirurogeitik gorakoa edota ehuneko berrogeitik beherakoa*”.

Datuak **aurreko legealdiarekin** konparatzen baditugu, **hobekuntza adierazgarria** ikusten da **Osoko Bilkuraren osaeran**, 2007/2011 legealdiko %25 E / %75 G izatetik egungo %41 E / %59 G izatera igaro baita. Balio absolutuetan, egungo legealdiko Osoko Bilkura 7 emakumek eta 10 gizonek osatzen dute.

Gobernu Batzordearen aldetik, betetzen da Udal Ordenantzan markatutako parekidetasun-irizpidea, baina emakumeen ordezkartza jaitziera txiki bat izan da 2007/2011 legealdiko %50etik egungo %40ra. Balio absolutuetan, Gobernu Batzordea 2 emakumek eta 3 gizonek osatzen dute.


INFORMAZIO BATZORDEAK

Tolosako **Udal Ordenantzaren 4. artikuluan ezarritako irizpideari** jarraituz, ordezkaritza edo osaera orekatuaren irizpideei buruz, esan dezakegu hori **2 batzordetan soilik betetzen dela** (Parekidetasun Batzordean eta Gizarte Politika eta Osasun Batzordean) guztizko 11 batzordeetatik, hots, soilik kasuen %18an. Datu hori ez da askorik hobetu aurreko legealdiarekiko. Hor ere, guztira 13 batzordetatik soilik 2tan (hori kasuen %15 da) betetzen zen ordezkaritza orekatuaren irizpidea (Osasun eta Gizarte Zerbitzuen Batzordean eta Euskara eta Hezkuntza Batzordean).

Bi legealdietan, **parekidetasun-irizpidea betetzen duten bi batzordeak oso atxikita daude genero femeninoari, Zaintzaren, Hezkuntzaren eta Berdintasunaren arloekin** lotuta. Aipamen berezia merezi du **emakumeen %0ko ordezkaritza** Hirigintza, Azpiegitura eta Auzo Batzordean, **tradizioz oso maskulinizatutako esparrua**, eta 5 batzordetan (Ingurumena, Garapen Ekonomikoa, Merkataritza eta Turismoa; Kontuen Batzorde berezia; Kirolak; Hizkuntza Politika eta Hezkuntza; eta Gazteria eta Immigrazioa) emakume bakarra egoteak. Eta gainerako batzordeetan, parekidetasun-irizpidea betetzen duten bietan izan ezik, bi emakume daude. Esan daiteke **orokorrean Udalaren ordezkaritza politikoa 8 emakumek** eta 12 gizonek **osatzen dutela**, eta horren ondorioz, emakumeak zenbait batzordetara atxiki behar dira aldi berean. Datu hori, ordea, **nabarmen hobetu da aurreko legealdiarekin**, hor 4 emakume besterik ez baitzeuden guztira.

Amaitzeko, nabarmendu behar dugu, **modu positiboan**, batzordeen **lehendakaritzen %45 emakumeek dutela**, gizonen %55aren aldean. Datu hori **nabarmen hobetu da aurreko legealdiarekiko**: izan ere, emakumeek kasuen %23an zuten lehendakaritza, eta gizonek, %77an.

13.3 irudia: Informazio Batzordeen osaera 2011/2015 legealdian




Iturria: Tolosako Udalaren web-orria

UDALEKO LANGILEAK

Jarraian analizatuko dugu zer osaera duen **udal-langileen zerrendak sexuaren arabera berezita**. Hori analizatzeko, Udaleko pertsonal-arloak **2014ko uztailaren 1ean** emandako datuak hartu dira. Zerrenda honetan ez dira barnean hartu kontratazio koiunturalak, unekoak eta ezegonkorak direlako.

13.4 irudia: Langile-zerrendaren banaketa sexuaren arabera (%)




Iturria: Tolosako Udaleko pertsonal-arloak emandako datuak

Langile-zerrenda kontratu-harreman moten artean nola banatzen den begiratuta, joera jakin bat ikusten da sexuen arabera:

- **Gizonen ordezkagarritasun handiagoa dago egonkortasun handiagokotzat jotako kontratu-harreman motetan:** funtzionarioak, lan-kontratudun finkoak, bitarteko funtzionarioak.
- Bestetik, **emakumeen kasuan**, ehuneko handiagoa dute **kontratu-harreman mota ezegonkorrageetan:** Aldi baterako lan-kontratudunak eta behin-behinekoak.

Emandako datuen arabera, esan daiteke **langile-zerrendaren sexuen arabeko proportzioak errespetatzen dituela ordezkagarritasunerako egokitzat jotako ehunekoak**, bi kasuetan, gizon zein emakumeetan, %40ko ordezkaritza baitago gutxienez. Zenbaki absolutuetan, langile-zerrenda 87 gizonek eta 64 emakumek osatzen dute eta, beraz, **gizon kopuru handiagoa** dago emakumeena baino, hots, portzentajezko 15,2 puntu gehiago ordezkagarritasunean zerrenda guztiarekiko.

13.5 irudia: Langile-zerrendaren banaketa sexuaren eta kontratu-harreman motaren arabera (%)



Iturria: Tolosako Udaleko pertsonal-arloak emandako datuak

Langileak udal-sailetan nola banatzen diren begiratzen badugu, Udaleko **pertsonal-arloak emandako sailkapenaren** arabera, hauxe ikus daiteke:

- **Gizonen ordezkagarritasun adierazgarria** dago tradizioz oso maskulinizatuak izan diren sailetan: **Segurtasuna**, gizonen %83,9rekin eta Hirigintza, **Obrak eta Zerbitzuak** %69,9rekin
- Bestetik, **emakumeen kasuan**, horien **ordezkagarritasun handiagoa** dago sail hauetan: **Osasuna eta Gizarte Zerbitzuak** (85,7 emakumeak), tradizioz esparru oso feminizatua, **Finantza Administrazioa** emakumeen %75ekin, **Garapen Ekonomikoa, Turismoa eta Enplegua** kontu-hartzailetzako, **Euskarako eta Hezkuntzako** proportzio berarekin, emakumeen %61,5ekin eta Alkatetza, emakumeen %100ekin (datu ez oso adierazgarria, kide bakarreko lanpostua delako).

13.1 taula: Langile-zerrendaren banaketa sailaren eta sexuaren arabera

SAILA	GUZTIRA EMAKUMEAK	GIZONAK	E%	G%
Finantza Administrazioa	8	6	%75,0	%25,0
Administrazio Orokorra	17	9	%52,9	%47,1
Gizartea, Kultura eta Berdintasuna	37	15	%40,5	%59,5
Kirolak	10	4	%40,0	%60,0
Garapen Ekonomikoa, Turismoa eta Enplegua	4	3	%75,0	%25,0
Euskara eta Hezkuntza	13	8	%61,5	%38,5
Osasuna eta Gizarte Zerbitzuak	7	6	%85,7	%14,3
Segurtasuna	31	5	%16,1	%83,9
Hirigintza, Obrak eta Zerbitzuak	23	7	%30,4	%69,6
Alkatetza	1	1	%100,0	%0,0
GUZTIZKOAK	151	64	%42,4	%57,6

Bestetik, Udalean emakume eta gizonen soldata-arrailek ba ote dagoen egiaztatzeko, **gizon eta emakumeen ordainsari-mailaren batez bestekoa** kalkulatu da Udalean. Horretarako, pertsonal-arloak lanpostu bakoitzerako emandako mailen datuak (Arcepafe erreferentzia) erabili dira. **Lortutako batez bestekoa ia berdina izan da**, 13,1 emakumeentzat eta 13,0 gizonentzat.

Hala ere, **esan behar da gizon kopuru handiagoa** dagoela (28 guztira) **zenbait izaeratako soldata-osagarriekin** (txandakotasuna, prestasuna eta arduraldia) **emakumeak baino**, 7 guztira, antzeko osagarriekin (txandakotasuna eta prestasuna). Osagarri horiek lanpostuaren izaeraren eta funtzioen arabera esleitzen dira.

Iturria: Tolosako Udaleko pertsonal-arloak emandako datuak

13. GENERO ZEHARKAKOTASUNA UDAL POLITIKETAN


Udaleko bitarteko langileen esparruarekin amaitzeko, ikus dezagun zer bilakaera izan duen emakume eta gizonen ordezkarrizak **Enpresa Batzordean**. Horrela, **urte guztietan gizonen ordezkagarritasun handiagoa dago** emakumeena baino, eta 2002an %30 E / %70 G izatetik 2010ean %35,7 E eta %64,3 G izatera igaro da. Hala ere, alderdi positibo gisa, **zenbaki absolutuetan emakumeen hazkunde etengabea** ikusten da, baina 2006an gomendatutako 40ko ordezkarrizta besterik ez da lortu.

Enpresa Batzordearen osieran, konparatutako hiru urteetan, bi sindikatuk soilik izan dute ordezkarrizta, **ELAk eta LABek**. **ELAren** kasuan, ordezkarrizta hiru urteetan **100 gizonena** izan da; **LABen proportzioa sexuen artean**, berriz, **bidezkoagoa** da (%37,5 emakumeak 2002an eta %50 emakumeak 2010ean).

Sexu-jazarpenaren eta/edo jazarpen sexistaren aurrean jarduteko protokoloa: barnean **laneko jazarpen-egoeretarako protokolo espezifiko bat** besterik ez dago, Udalarentzat **Laneko Arriskuen Prebentziorako Zerbitzua** eskaintzen duen enpresak egiten duena. **Baina ez sexu-jazarpeneko eta/edo jazarpen sexistako** egoeretarako.

Sexu-jazarpeneko eta/edo jazarpen sexistako jarduketetarako, UDALHITZ, Toki erakundeetako langileen lan-baldintzak arautzeko esparruaren barruan adierazitako jarduketak aipatzen dira. Esparru horretan, genero-indarkeriako kasuetako babes-eskubideak ere jasotzen dira.

13.6 irudia: Enpresa Batzordearen osieraren bilakaera sexuaren arabera



Iturria: Tolosako Udaleko pertsonal-arloak emandako datuak

13.2 taula: Enpresa Batzordearen osieraren bilakaera sindikatuaren eta sexuaren arabera

	2002		2006		2010	
	ELA	LAB	ELA	LAB	ELA	LAB
EMAKUMEA	-	3	-	4	-	5
GIZONA	2	5	3	3	4	5

Iturria: Tolosako Udaleko pertsonal-arloak emandako datuak



Laburbilduz...

POPULAZIOA

Nabarmentzeko datu batzuk...

- ✓ **Emakume eta gizonen arteko proportzioa etengabe** mantendu da Tolosan 2007-2013 aldian (**%52 emakumeak / %48 gizonak**), eta **emakumeen proportzioa handiagoa** izan da beti populazioaren gutzitza. Tolosako populazioa %5,3 hazi da aldi horretan, Gipuzkoakoa (%2,7) baino hazkunde handiagoa.
- ✓ Tolosak **populazioaren hazkunde handiagoa** izan du **Gipuzkoak (%2,7) baino** 2007-2013 aldian, batik bat **erdialdean kontzentratua**. Bere **landa-auzoek**, hiruk izan ezik (San Blasek, Bedaiok eta Usabalek) **populazioaren jaitsiera** izan dute.
- ✓ 60-69 adin-tarteraino, emakume eta gizonen arteko adin-proportzioa %48 eta %52 artekoa da. **60-69 urteko tartetik aurrera hasten da emakumeen proportzioa pixkanaka handitzen** modu adierazgarrian gizonetik, bereziki 80 urteetatik aurrera.
- ✓ 2007an zein 2013an, **emakumeek zahartze- eta gainzahartze-indize handiagoa dute** gizonek baino. Bi sexuetan, **zahartze-indizea askoz handiagoa da haurtzaro-indizea baino**, eta horrek **arazoa** ekar dezake **belaunaldi-aldaketan**. Bestetik, jaiotza-tasa gordina txikituz doa Tolosan azken urteotan; hilkortasun-tasa, berriz, handituz.
- ✓ **Seme-alabarik gabeko familia nuklearrak izan du hazkunde handiena**, gero kide bakarrekoak eta, hirugarrenik, guraso bakarreko familiek. Hala ere, eta gutzitza-erazgarritasun handiena badu ere, **seme-alabak dituen familia nuklearrak izan du jaitsiera handiena**.
- ✓ **Bikoteak osatzeko modurik ohikoena**, analizatutako aldian (2007-2013), ezkontza zibilarena da, eta sexu bereko bikoteen arteko ezkontza mota horretako gutzitza-erazgarritasun %2,7koa da. Bestetik, **%67ko igoera izatezko bikoteen kopuruan** 2007 eta 2013 artean, eta aldi horretan **ez dago sexu bereko izatezko bikoterik erregistratuta**.
- ✓ **Populazio atzeritarra gutzitza-erazgarritasun %5,7 da**. Sexuaren arabera bereizita, **emakumeak** populazio atzeritarrenen **%53,3 dira**, eta **gizonak %46,7 dira**. Populazio atzeritarra **%206 hazi da** 2007arekiko, eta handiagoa da emakumeen hazkundera gizonena baino. Emakume eta gizon atzeritarren **jatorri ohikoena ez da antzekoa**. **Emakumeen kasuan Hego Amerika eta Karibe nabarmentzen dira**, eta **gizonen kasuan, Afrika (batik bat Magrebeko herrialdeak)**.

LAN PRODUKTIBOA

Nabarmentzeko datu batzuk...

- ✓ **Gizonen ordezkartza handiagoa** dago **emakumeena baino populazio aktiboaren** barruan. Baina konparatutako aldian, **emakumeen proportzioaren igoera txiki bat** ikusten da. Nolanahi ere, **emakumeen jarduera-tasak gizonenak baino txikiagoa** izaten jarraitzen du. Aitzitik, emakumeek gizonak baino ehuneko handiagoa dute konparatutako urte guztietan populazio ez-aktiboaren guztizkoarekiko.
- ✓ **Populazio okupatuaren** banaketari dagokionez, **gizonak ehuneko handiagoa izan dute guztizkoarekiko** konparatutako hiru urteetan. **Emakumeen populazio okupatua** analizatutako hiru aldietan **zerbitzuen sektorean** biltzen da **funtsean**; gizonena, berriz, modu orekatuagoan banatzen da bi sektoretan: **Industriaren sektorean eta Zerbitzuen sektorean**.
- ✓ **Populazio atzeritarraren** barruan, **populazio aktiboaren eta ez-aktiboaren** banaketak **bertako populazioaren eredu berak** jarraitzen ditu. Hala ere, **populazio okupatuan, emakumeen proportzioa** kolektibo horretako **gizonena baino pixka bat handiagoa da**, eta hori ez da gertatzen bertako emakume okupatuen kasuan.
- ✓ 2007ko, 2009ko, 2011ko eta 2013ko urtariletan **egindako kontratuen** laginaren analisisian ikusten denez, **gehienak emakumeei egin zaizkie**, batik bat **zerbitzuen sektoreak biltzen duelako kontratu kopuru handiena**. Emakumeak eta gizonak jarduera-esparru desberdinetarako kontratatzen dira eta **genero-alborapen oso markatuarekin**. **Emakumeen kontratu gehienak Hezkuntzaren eta Merkataritzaren** esparruetan biltzen dira (sektore oso feminizatuetan), eta **gizonak**, emakumeak baino jarduera-esparru kopuru handiagoan banatzen direnak, **Manufaktura-industrian eta Eraikuntzan** nabarmentzen dira (tradizioz, esparru oso maskulinoetan).
- ✓ Erabilitako kontratu motari buruz, analizatutako urtean (2012an), **lanaldi mugatuko aldi baterako kontratuak** erabilienak izan dira maila globalean, eta **emakumeek** eskuratu dute **gehienbat** kontratu mota hori.
- ✓ **Emakumeen** proportzioa **enplegu-eskatzaileen** guztizkoaren barruan **gizonena baino handiagoa da** analizatutako **aldi osoan** (2007 -2013), eta adin-tarte guztietan. Hala ere, aldi horretan hazkunde bat izan da gizonen zein emakumeen artean, egungo krisi ekonomikoa dela bide.
- ✓ Alde handia emakume eta gizonen **batez besteko errenta pertsonalaren** artean Tolosan, Tolosaldean zein Gipuzkoan. Alde hori ia konstantea izan da 2006 eta 2011artean, gutxi gorabehera **urteko -11.000 euro emakumeentzat**.

LAN ERREPRODUKTIBOA

Nabarmentzeko datu batzuk...

- ✓ **Denboraren erabileran** ikusienez, **emakumeek gizonak baino denbora gehiago erabiltzen dutela beren eginkari fisiologikoak estaltzeko eta etxeko lanak eta zaintzak egiteko**. Gizonak, ordea, **emakumeek baino denbora gehiago erabiltzen dute jarduera profesionalak eta prestakuntzakoak, eta aisialdikoak eta astialdikoak garatzeko**. Bizitza sozialari eta joan-etorriari eskainitako denborari dagokionez, berriz ere gizonak eskaintzen diete denbora gehiago jarduera horiei, baina **banaketa berdina** ikusten da.
- ✓ 2009an, 2011n eta 2013an **mendekotasun-balorazio gehiago egin zaizkie emakumei gizonak baino**, eta azken hiru urteetan antzeko proportzioa izan da (%61 emakumei). Adinari dagokionez, bai guztizko zenbakietan, bai proportzioan, balorazioak egiten zaizkien artean gizon gehiago daude emakumeak baino adin txikiagoko pertsonen artean, eta **adina gora doan heinean, gizon gutxiago daude eta emakume gehiago**.
- ✓ **Desgaitasun erregistratuak eragin handiagoa du gizonen artean emakumeen artean baino**. Adinari dagokionez, nabarmendu behar da 18 eta 64 urte arteko eta 65 eta gehiagoko adin-tarteak biltzen dutela desgaitasun erregistratua duten pertsonen %98 inguru.
- ✓ **Prestazio ekonomikoei** dagokienez, Familia Ingurune Zaintzetarako Prestazio Ekonomikoa (PECEK) da, alde handiz, onuradun gehien duen prestazioa. Hala ere, 2014ko abuztuan, **PECEaren proportzioa laguntza guztiekiko jaitsi egin da**. Jaitziera horrekin batera, **Laguntza Pertsonalerako Prestazio Ekonomikoaren (PEAParen) igoera bat** dago. Azkenik, PEVS (Zerbitzuari Lotutako Prestazioa) onuradun gutxien duen prestazio ekonomikoa da. Sexuari dagokionez, prestazio guztietan emakume onuradunen kopuru handiagoa dago.
- ✓ **Zaintzaileei** dagokienez, gehienak emakumeak direla ikusten da (%64 2009an eta %74 2011n eta 2014an). Nabarmendu behar da **adineko zaintzaile kopuru adierazgarria dagoela, hots, 61 eta 85 urte artekoak. 2009 eta 2014ko abuztuaren artean, horien ehunekoa %33tik %41era igo da**. Familia-ingurune zaintzailearen lotura nagusia alaba edo semea da, gero ezkontidea eta, hirugarrenik, ama edo aita.

LAN ERREPRODUKTIBOA

Nabarmentzeko datu batzuk...

- ✓ **ELZren onuradunak emakumeak dira gehienbat.** Zerbitzu gehienetan bezala, emakume kopuru handiagoa dago altetan ere. Graduari eta mailari buruzko datuei dagokionez, ikusten dugu beheko graduak igo egiten direla, goiko graduak jaitsi egiten diren bitartean
- ✓ **Emandako laguntza teknikoen guztizkoa nabarmen jaitsi da 2011tik aurrera.** Jaitsiera horrek eragin handiagoa du emakume onuradunengan, %80an. Gizon onuradunen artean, laguntzen jaitsiera %36koa da. Emandako laguntza teknikoen motari dagokionez, **ikusten da ugarienak pertsonak beren etxean atsedean hartzeko, mobilizatzeko eta segurtasunerako direla**, eta gero etxe barruko eta kanpoko mugikortasunerako laguntza teknikoak.
- ✓ **Eguneko zentro batera joaten diren Tolosako pertsonen guztizkoa igo egin da azken urteotan, eta emakumeen kolektiboak erabiltzen du gehien zerbitzu hori.** **Pertsona adinduen eguneko zentroek dute Tolosako pertsona kopuru handiena.** Zentro horietan eta desgaitasun-zentroetan emakume gehiago daude gizonak baino. Aldiz, osasun mentaleko zentroetan eta gizarteratzeko zentroetan, gehienak gizonak dira.
- ✓ Egoitzei dagokionez, nabarmenduko dugu **emakumeek eskuratzen dutela gehienbat zerbitzu hori, baina 2011tik aurrera horien kopurua jaitsi egin da gizonen aldean.** Bestetik, ikusten da gizonak zein emakumeak **batik bat zahar-egoitzetara joaten direla, baina proportzio handiagoa dago gainerako egoitza motetara joaten diren gizonen artean, bereziki osasun mentalaren eta desgaitasunaren kasuan.**
- ✓ 2013an, **tutoretzapeko etxebizitzetan bizi ziren pertsonen %51,1 emakumeak ziren.** Emakumeen batez besteko adina 80,5 urtekoa da eta gizonena, 81,3koa. Lagapen-erregimenean, **emakume gehiago daude bakarrik bikotean baino.**
- ✓ **ELZko erabiltzaileen artean sendagaien erabilera optimizatzeko programari eta ibilgailua aparkatzeko txartelei dagokionez, emakumeen proportzio handiagoa ikusten da zerbitzu horien onuradunen artean.**

HEZKUNTZA ETA EUSKARA

Nabarmentzeko datu batzuk...

- ✓ **Unibertsitateaz kanpoko ikasketen prestakuntza-eskaintza zabala Tolosan**, 13 ikastetxetan banatua. Lehen Hezkuntzako, Haur Hezkuntzako, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako, Batxilergoko eta erdi- eta goi-mailako zikloetako **ikastetxeetan, emakumeen eta gizonen antzeko ordezkagarritasun orokorra**. Baina **emakumeen proportzio handiagoa** dago ikasleen guztizkoarekiko, bai HHIn (%55,6 emakumeak), bai **Hizkuntza Eskola Ofizialean** (%62,5 emakumeak).
- ✓ **Jatorri atzerritarreko ikasleen igoera adierazgarria** unibertsitateaz kanpoko irakaskuntzan 2006/2007 eta 2012/2013 ikasturteen artean, eta **bi sexuen antzeko ordezkagarritasuna** zenbaketa globalean (%49,7 E / %50,3 G). **Jatorri nagusiak** hauek dira Europako Erkidegoan: **Errumania eta Portugal**; erkidegoz kanpoko Europan: **Ukraina**; Afrikan: *Maroko eta Aljeria*; Amerikan: **Nikaragua eta Dominikar Errepublika** eta Asian: **Pakistan**.
- ✓ **Erdi- eta goi-mailako zikloetan**, argi ikusten da **genero-alborapen bat espezialitate motaren arabera**. **Emakumeak** neurri handiagoan matrikulatzen dira **zaintzaren, osasunaren eta hezkuntzaren esparruetara** zuzendutako zikloetan. Baina **gizonak** orientatuago daude **produktzio industrialaren esparruarekin** lotutako zikloetara.
- ✓ **Eskolaz kanpoko jarduera** jakin batzuetan ere **sexuaren araberako bereizketa** antzematen da, eta **emakumeen partaidetzaren** 60tik gorako ehunekoa dugu jarduera hauetan: **Abesbatzan, Antzerkian, Gimnastika Erritmikoan eta Zeramikan**. Eta **mutilen** 60tik gorako **partaidetza** jarduera hauetan: **Eskola Kirolean, Xakean, Eskulanetan, Multikirolan, Esku-pilotan eta Judoan**, kasu batzuetan (Judoan) 100era iritsita. Bi kasuetan, jarduera horiek tradizioz genero femeninoari eta maskulinoari esleitutako ezaugarriekin lotzen dira.
- ✓ **Unibertsitate-ikasketetan** 2001eko **diagnostikoko** datuen **joera bera** dago, hots, tradizioz genero femeninoari esleitutako portaeretara atxikitako **giza zientzien, osasunaren eta gizarte-zientzien sektoreekin** lotutako ikasketen feminizazioa. Bestetik, **karrera teknikoekin** lotutako ikasketen **maskulinizazioa**, batik bat **Ingeniaritzenean**.
- ✓ Nabarmena da Udalak indarkeria matxistaren aurkako bere borrokan bultzatutako **baterako hezkuntzako proiektu** estrategikoa. Ikastetxeen aldetik **onarpen eta parte-hartze handiko** proiektua izateagatik nabarmentzen da, epe labur, ertain eta luzeko proiektio batekin.

HEZKUNTZA ETA EUSKARA

Nabarmentzeko datu batzuk...

- ✓ Emakumeek, proportzian, **ehuneko handienak** dituzte **euskara ama-hizkuntza duten pertsonen artean, eta hizkuntza hori etxean hitz egiten dutenen artean.**
- ✓ **Euskara kalean erabiltzeari** dagokionez, Tolosako Udalak egindako azterketek erakusten dute, besteak beste, euskararen erabileraren **igoera adierazgarri bat, batik bat gazteen eta haurren artean.**
- ✓ **Udal Euskaltegiaren** euskarazko alfabetatze-ikastaroetan parte hartzen duten ikasleei buruzko datuek **erakusten dute emakumeen parte-hartzea azken urteotan ikasleen guztizkoaren %70 ingurukoa dela.** Adinari dagokionez, ikasleen zati batek 26 eta 50 urte artean ditu: adin-tarte gehienetan, emakume kopurua gizonena baino nabarmen handiagoa da, 60 urtetik gorakoan artean izan ezik.
- ✓ Euskaltegietara joaten diren pertsona guztien artean, **atzerrian jaiotako populazioa %8koa zen 2013an, eta kolektibo horretan gehienak emakumeak dira.** Oro har, **emakumeen proportzioa handiagoa da atzerrian jaiotako pertsonen artean Euskal Herrian jaiotakoan artean baino.**
- ✓ Galtzaundi Elkarteak kudeatutako **Mintzalagun programak** joera bera erakusten du: **emakumeen parte-hartzea gizonena baino askoz handiagoa da.**
- ✓ Nabarmenduko dugu gizon eta **emakumeen parte-hartzeari buruzko datuak alderantzikatu egiten direla Banaiz Bagara Elkarteak dinamizatutako euskalduntze-taldean;** izan ere, Elkarteak 2013an emandako datuen arabera, **taldea osatzen zuten pertsonen %68 gizonak ziren eta %32 emakumeak.** Talde ia osoa atzerritarrek osatzen dute.
- ✓ **Ez dago gidalerro argirik herritarren artean euskararen normalizazioa** bultzatzeko lan-plangintzan **genero-ikuspegia txertatzeko.** Aldi berean, ez da argi identifikatzen zer lotura dagoen genero-ikuspegiaren eta hitzarmenaren bidez adostutako helburu eta ekintzen artean eta, beraz, beharrezkoa da Berdintasun Zerbitzuarekin koordinatzeko bideak indartzea.

KULTURA, AISIALDIA ETA FESTAK

Nabarmentzeko datu batzuk...

- ✓ Tolosa zenbait eta **askotariko kultura-adierazpenen** bidez garatzen den **kultura-jarduera handiko** udalerrria izateagatik gailentzen da.
- ✓ **Kultur Etxean** gai askori buruzko **ikastaroak** eskaintzen dira, eta zenbait kolektibori zuzendutakoak:
 - **Kultur Etxeko tailer orokorrak:** nabarmenak dira orokorrean **emakumeen parte-hartze handiena** izateagatik, eta joera hori ez da aldatu 2001eko diagnostikoko datuekiko. Eskaintzen diren **ikastaroen tipologia**, ia 2001ekoaren berdina, **lotuta dago kasu gehienetan nortasun femeninoaren estereotipoei** (esku-trebetasuna, lanak, parpaila, dantza).
 - **Gazteei (16 eta 30 urte arteko) zuzendutako** tailerrak: **Parte-hartzea oro har parekideagoa** da aurreko kasuan baino, **baina**, gertatzen da sexuaren araberako bereizketa ikastaro mota batzuetan: horrela, **erabat femeninoa** da **joskintza-tailerra**, esparru pribatuko eta etxeko jarduerekin oso lotua dagoena. Eta **erabat maskulinoak** diren **tailerrak (Zuzeneko Soinua eta DJ)**, espazio publikora bideratutako jardueretara zuzenduago daudenak.
 - **GAZTE TOPAGUNEA: 12 eta 17 urte** arteko gazteak. **Jarduera-memoriak ez ditu jasotzen sistematikoki** eta jarduera guztietan **sexuaren arabera bereizitako datuak**. Baina 2012/2013ko datuetan aipatzen denez, **mutilen parte-hartze handiagoa ikusten da neskena baino**, eta **jatorri atzeritarreko gazteen igoera** bat.
- ✓ Nabarmentzeko modukoa da **Gazteria** sailak antolatu, sustatu edo bultzatutako zenbait ekintzatan emakumezkoen partaidetza areagotzeko diren **ekintza positiboko neurrien ezarketaren** ibilbidea. Neurri horien emaitza ez da beti izan emakumezkoen partaidetzan gertatzea nahi genuen gehikuntza, baina sail horrek apustu argi eta garbi bat egin du horren alde.
- ✓ **Liburutegi-zerbitzuan**, eta **pertsona helduen** atalean, **harpidetutako emakumeen joera handiagoa** egiaztatu da gizonena baino, eta 2009 eta 2013 arteko aldian, batez bestekoa %62 E / %38 G izan da. **Haurren liburutegiaren kasuan, berriz, harpidetutako pertsonen proportzioa ia berdina da sexuaren arabera**. Nabarmena da **eduki feministako literaturaren eta berdintasunezkoaren** ikusgaitasuna, eta genero-berdintasunarekin lotutako liburuen **atal espezifiko** bat du.
- ✓ **Musika Eskolaren** barruan ere **aldeak** ikusten dira portaeraren aldetik emakume eta gizonen artean. Batetik, **matrikulazio-mailan** antzematen da, eta nabarmena da **4. mailan** (14/16 urtetik gorako pertsonak) matrikulatutako **emakumeen proportzioa modu adierazgarrian jaisten dela**; eta bestetik, aukeratutako **espezialitatean edo musika-tresnan, sexuaren araberako bereizketa** argia detektatzen baita:
 - Gizonak %60tik gorako ehunekoa dira musika-tresna kopuru handiago batean, eta tresna mota hori gehiago da kalean (txarantetan, etab.) erabil daitekeen tresna. Bestalde, emakumeek ehunekoa handiagoa dute musika-tresna kopuru txikiago batean, eta tresna mota hori zuzenduago dago orokorrean "kalean" erabiltzen ez diren tresnetara.

KULTURA, AISIALDIA ETA FESTAK

Nabarmentzeko datu batzuk...

- ✓ Udalerriko instalazioetan **programatutako kultura-jarduerak**: Aranburu Jauregia, Topic, Leidor eta Kultur Etxea **ez dira sistematikoki analizatzen genero-ikuspegitik** partaidetzari, gaiei, egilearen sexuari, zuzendaritzari, etab. dagokienez, nahiz eta jarduera garrantzitsua den esparru horretan, eta horren dimentsioa handitu egin da 2009 eta 2013 arteko aldian. **Zinemaren** kasuan, nabarmendu daiteke **sentsibilizazio-filmak jartzea** berdintasunaren esparruan egun berezietan (martxoaren 8an, azaroaren 25ean, ekainaren 28an), baina ez da erabiltzen 2009an diseinatutako tresna genero-ikuspegitik programazio orokorraren analisia egiteko.

- ✓ Tolosako udalerririk **ibilbide eta ospe handiko festak** ditu, eta gizarte-mailan inpaktu handikoak dira, bereziki Inauteriak. Baina Udalak, **balio eta estereotipoen adierazpen-espazio bat** dela jakitun, **bi politika mota** garatzen ditu festetan zehar.

- **Indarkeriarik eza** udalerriko festetan, Joka Sano kanpainaren bidez.
- **Festetan zehar emakumeen partaidetza eta ikusgaitasuna areagotzeko** proiektua: batik bat elkarte gastronomikoekin dagoen proiektu espezifikoren bidez, eta datu hauek ditugu: 2010ean, guztira 30 elkartetik, 6 elkarte misto; 2014an, 14 misto eta 4 ez-misto gogoeta-prozesuan.

Berdintasunezko festa batzuetarako aurrerabidean, datu hauek nabarmen daitezke:

- **2013: San Juan Jaietako egitarauaren agurrean** jaiak aztertzen dituen gizarte eragileen taldeak **parekidetasunean ospatzeko gonbitea** egiten du eta **emakume eskopetariak** lehen aldiz botatzen dute **San Joan Festetako txupina**. Aldi berean, **lehen aldiz emakumeak irteten dira goizeko Bordondantzan (4E)**.
 - **2014: Inauterien Jai Batzordean** antolaketa lanean dauden taldeek kontutan hartu behar duten **irizpide ez sexiten zerrenda** bat aurkezten eta zabaltzen da. Alkatearen agurrean herritarrak gonbidatzen dira jai parekideak ospa eta eraso sexistak arbuia ditzaten. **Lehen aldiz emakumeek** inauterien pregoia irakuntzen duen eta txupina botatzen duen **udal komitibaren parodian parte hartzen dute** (4 Emakume: 2 Zinegotzi eta 2 Jai Batzordearen kideak). Pregoa irakurtzean, udal komitibaren parodian parte hartzen duten 2 emakume udaletxearen balkoian daude.
 - 2014: Bordondantzan parte hartzen duten emakumeek **testu bar idazten dute** San Juanetako **jaien egitarauaren sarreran** eta goizeko eta arratsaldeko **Bordondantzan emakumeen parte-hartzea** zabalden da (6E). Jabetze Eskolako Batukada Feministak San Juan Jaien egitarauan parte hartzen du.
- ✓ Udalak antolatutako Azoka Berezien kasuan, **horietako batzuetan antzematen da gizon eta emakumeen ordezkartzaren irizpidea ez dela betetzen** epaimahaien osaeran (Gabonetako azoka), eta aldeak daudela emakumeen eta gizonen partaidetzan eta ikusgaitasunean horietako batzuen antolakuntzan (Txuletoiaren Azoka, %100 gizonak sustapenaren argazkian).

KIROLAK

Nabarmentzeko datu batzuk...

- ✓ **Usabal Kirolegia:** **sexuaren arabera harpidetutako pertsonen** banaketa ia **konstantea** da **2009tik**, eta **gizonen** kasuan **puntu batzuk handiagoa** da. Baina **jarduera programatuei** dagokienez, ikusten da **emakumeen parte-hartzea** askoz **handiagoa** dela gizonena baino. 2005eko diagnostikoko datu espezifikoek joera bera dago: *“emakume gehienak bikotean edo maizago taldean joaten dira kiroldegira”*. *“Gizonak, berriz, kirol federatuari edo talde-jarduerari lotutako kanpoko zein barruko ekipamendu handiagoen (kantxen) erabiltzaile nagusiak dira”*. *“Aparatu eta pisuen erabileran gizon bakarren presentzia handiagoa da”*. Datu horietan **salbuespenak** daude **udako jarduera** programatuetan, eskola-adineko **mutil eta nesken parte-hartzea ia parekidea** baita.
- ✓ **Uzturpe Kirolegia:** **ikastetxeen jardueretan** mutil eta nesken **partaidetza %50** ingurukoa da, baina **gainerako** jardueretan (batik bat futboleant), **partaidetza maskulinoa da gehienbat**.
- ✓ **Beotibar Pilotalekua:** **Emakumeak erabiltzaile guztien %4,8** besterik ez dira. Nabarmenak dira **emakume pilotarien talde bat** (10 E) eta epe laburrean hasi nahi den **“Emakumea pilotari” proiektua**.
- ✓ **Berazubi Estadioa:** Ez dago sexuaren arabera bereizitako datu zehatzik erabilerari buruz, baina **gizonen %70 eta emakumeen %30 kalkulatzen da**. 2013ko azarotik, instalazioak, futbol-zelaia izan ezik, udal-kudeaketara igaro dira.
- ✓ **Oria ibaiko ontzirelekua:** Ez dago **sexuaren arabera** bereizitako **daturik erabilerari buruz**. Nabarmentzekoak dira **TAKen federazioaren lizentziak (%53,8 E / %46,2 G)**, non emakumeek **proportzio handiagoa duten**.
- ✓ **Eskola Kirola:** **partaidetzari buruzko datuak parekidetasunaren ingurukoak** dira, baina oro har, **mutilen partaidetza handiagoa** antzematen da. Mutilen guztizkoarekiko, kirola egiten dutenen ehuneko handiagoa (%63,5 guztizkoarekiko) dago horien artean; nesken kasuan, berriz, %52,2k egiten du kirola. Bestetik, **sexuaren arabera bereizketaren bat** detektatzen da **kirol-diziplina** motaren arabera: %100 neskek Gimnastikan eta ia %100 mutilak Pilotan eta Zesta Puntan.

KIROLAK

Nabarmentzeko datu batzuk...

- ✓ **Kirol Federatua: Gizonen partaidetza-ehuneko handiagoa emakumeena baino** (%34,5 E / %65,5 G). **Gizonen kasuan, diziiplina kopuru handi batean 80tik gorako ehuneko batean hartzen dute parte:** futbola, areto-futbola, eskubaloia, tenisa, pilota, eski/mendia eta ping-ponga. **Emakumeen kasuan, diziiplina bakarrean** gertatzen da kasuistika hori: **Gimnastika Erritmikoan**, non %100 emakumeak diren. Bestetik, esan behar da udalerriko bi txirrindularitza-taldeetatik bat %100 emakumeek osatzen dutela, baina bestean horien partaidetza %22,4koa da.
- ✓ **Aisialdiko Kirola: Emakumeen parte-hartze orokorra** jarduera honetan **gizonena baino askoz txikiagoa** da (%27,4 E / %72,6 G). Partaidetza-maila %0 (Tenisa) eta %33 (Hondartzako Boley-a, Rol Sky eta San Silbestreko Lasterketa) artean dago, Haurren Krosean izan ezik; emakumeen partaidetza %45ekoa da hor.
- ✓ Azkenik, nabarmendu behar da Udaleko kirol-sailaren **diru-laguntzen** oinarrietatik berdintasuna **bultzatzeko** egiten den **politika**, non urtero hobekuntzak egiten diren. Halaber, **urtero Berdintasuna Kirolean sari espezifiko**a ematen da.

OSASUN OROKORRA ETA UGALKETAKOA

Nabarmentzeko datu batzuk...

- ✓ 2012an Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailak argitaratutako **haurdunaldiaren borondatezko etendurei** buruzko txostenak ondorioztatzen du EAEn bizi eta HBE egiten duen emakumearen profil soziodemografikoa aurreko urteetakoaren antzekoa dela: adinari dagokionez, 20 eta 24 urte arteko emakume taldeak du tasa handiena. Lan-egoera aktiboan zegoen emakumeen ehunekoa txikitu egin da (%60 2010ean eta %52 2012an) eta handitu egin da emakume atzerritarren ehunekoa (%37,7 2009an eta %44 2012an).
- ✓ Tolosako **haurdunaldiaren borondatezko etendurei (HBEei)** dagokienez, nabarmenduko dugu 2007tik 2013ra **erregistratutako kasuak %10,3 igo direla**. Adinari dagokionez, kasu gehienak 26 eta 40 urte arteko adin-tarteetan aurkitzen ditugu. **Azken urteotan, adin-tarte txikiagoetan ere igoera bat antzematen da.**
- ✓ **HBE kasuen bilakaera emakumeen lan-egoera kontuan izanik** analizatzen badugu, jaitsiera nabarmena ikusten dugu 2013an **besteren kontura zein norberaren kontura lanean ari diren emakumeen artean 2007arekiko, eta langabezia edo lan bila dabiltzan emakumeen igoera bat.**
- ✓ Ikasketa-mailari buruzko datuek erakusten dutenez, **goi-mailako edo unibertsitateko ikasketak dituzten emakumeen kopurua igo egin da**, batik bat 2013an; izan ere, guztizkoaren %43,8 dira. Aldi berean, **lehen mailako ikasketak dituzten emakumeen** proportzioa ere handitu egin da.
- ✓ **HBE egin duten emakumeen jaioterriari** dagokionez, **emakume atzerritarren igoera nabarmen bat** ikusten da (%40,6 2013an).

EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIA

Nabarmentzeko datu batzuk...

- ✓ **Arreta Telefonoa:** 2011-2012 aldian zehar, Arreta Telefonora (900 840 111) egindako deien igoera adierazgarri bat ikusten da bai udalerrian, bai lurraldearen gainerakoan, baina **2010-2011 aldian deiak %184 igo ziren Tolosan.**

Ertzaintzak eta Herrizaingo Sailak artatutako emakumeak:

- ✓ Ertzaintzak irekitako espedientei buruzko datuek erakusten dutenez, espedienteen guztizkoaren %20ko lehen igoera bat dago 2009 eta 2010 artean, eta %65eko jaitsiera 2010 eta 2011 artean. 2014an (urtarrilaren 1etik irailaren 30era arte), berriz, 14 espediente hasi ziren.
- ✓ **Emakumeen nazionalitateari** buruzko datuek (2013tik 2014ko ekainera artekoek) **adierazten dutenez, erasotako emakume gehienak etorkinak dira (hasitako espedienteen %67).**
- ✓ 2009-2012 aldian zehar, **bikotekideak edo bikotekide ohiak eragindako tratu txarreatatik jarritako salaketak salaketen gehiengoa dira, eta 2011n %76ra iritsi dira, eta 2012an, %63ra.** Familia barruko indarkeriagatiko eta sexu-askatasunaren aurkako delituengatiko salaketak egindako salaketa guztien 12 dira aldi osoan zehar.
- ✓ Salaketen ehuneko handiena **18 eta 40 urte arteko emakumeek egiten dituzte; erasotzaileen adina, berriz, 31 eta urteen artean banatzen da.**
- ✓ Indarkeria matxistari aurre egiteko baliabide publiko bati laguntza eskatzea erabakitzen duten emakumeen erdiak baino gehiagok **auzibidera jotzen dute egoera horretatik irteteko, eta Ertzaintzan hasten eta amaitzen dute beren ibilbidea.**

Udalaren Oinarrizko Gizarte Zerbitzuek artatutako emakumeak:

- ✓ Artatutako emakumeen joerak erakusten duenez, **2009tik 2013ra, artatutako emakumeen kopurua handitu egin zen, 16 kasuetara iritsi arte.** 2014ko lehen erdian joera antzekoa da, ekain arte 8 kasu zenbatu baitira. **Indarkeria fisiko artatutako kasuen %85ean dago, eta horren atzetik indarkeria psikologikoa dago.**

EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIA

Nabarmentzeko datu batzuk...

- ✓ Nabarmenduko dugu **indarkeria fisikoak** adin guztietako emakumeei eragiten diela; eraso sexualak, berriz, **emakume gazteei egiten zaizkie gehienbat**.
- ✓ Biktimen adinari dagokionez, **2013an emakumeen %50ek 18 eta 25 urte artean zituzten; 2014an, berriz, emakumeen %50ek 36 eta 45 urte artean zituzten**.
- ✓ Emakumeen jatorriari buruzko datuek erakusten dutenez, 2013an zein 2014an, %37,5 emakume migratuak ziren. **Aldiz, 2009an eta 2010ean emakume migratuen (Latinoamerikako eta ekialdeko Europakoena) ehuneko askoz handiagoa zen (%60)**.
- ✓ **Ondorengoei** buruzko datuak begiratzen baditugu, 2013an emakumeen %62,5ek semeak eta/edo alabak zituztela ikusten dugu. 2014an, ehuneko hori %87,5era igo da ekain arte.
- ✓ Prestakuntza-mailari dagokionez, 2013ko eta 2014ko datuek erakusten dute **emakume gehienek oinarrizko eta erdi-mailako ikasketak dituztela**.
- ✓ **Langabezia-egoerak eragin handiagoa du bertako emakumeen artean 2013an eta 2014an. Horien gehiengoa zaintza-lanetan aritzen da**.
- ✓ Sare sozialei dagokienez, **laguntza-maila txikiagoa** ikusten da **emakume etorkinen artean**. Indarkeria-tipologiaren arabera, **laguntza handiagoa** ikusten da **tratu txar psikologikoen kasuan; tratu txar fisikoen kasuan, berriz, kaltetu gehienek sare eskasa aitortzen dute, edo ez dutela**.
- ✓ Emakumeek arreta-zerbitzuen artean egiten duten ibilbideari dagokionez, 2009an eta 2010ean ikus daitekeenez, emakumeen %80k salatu egin zuten, prozesuaren uneren batean, gizon erasotzailea. **Salaketa horien ondorioz, babes-agindu bat lortu zuen emakume horien %70ek berehalako babes-neurri gisa**.
- ✓ Udaleko Gizarte Zerbitzuetatik egindako **deribazioei** dagokienez, **2014ko txosteneko** datuek erakusten dute deribazioen %70 laguntza psikologikoko zerbitzura egin direla, eta %9, Zerbitzu Juridikora. **Laguntza ekonomikoetarako deribazioak bigarrenak dira adierazgarrienen artean, guztizkoaren %48rekin**.
- ✓ Hipotesi gisa har daiteke **emakume kopuru adierazgarri batek duela aukera baliabide espezializatu pribatuetara jotzeko** (arreta psikologikora edo legalera, bereziki) **edo laguntza-sare nahikoa duela** Gizarte Zerbitzuetatik eskaintzen diren baliabideak ez behar izateko. Ohiko zirkuituetan sartzen ez direnez, **oso elementu gutxi daude horien kopuru eta egoera zehatzaren berri izateko**.

HIRIGINTZA, ETXEBIZITZA ETA MUGIKORTASUNA

Nabarmentzeko datu batzuk...

- ✓ **Hirigintza:** “**Kaleak Berdintzen**” proiektuaren ondorioz sortutako **jarduketa zehatzen bat** (Emakumeon plazaren inaugurazioa eta geralekuaren inguruneko esku-hartzea) garatu den arren, ez da egin proiektu horretan adierazitako puntuetan egindako esku-hartzearen mailaren **jarraipen bat modu sistematikoan**.
- ✓ **Etxebizitza:** Ez dago **sexuaren arabera** bereizitako **daturik**. Oro har, nabarmendu behar da **Tolosako biztanleria-dentsitatea handiagoa dela Gipuzkoakoa baino**, eta baita etxebizitza hutsen eta 50 urtetik gorako etxebizitzaren maila ere. Hala ere, etxebizitza hutsen proportzioa jaitsi egin da etxebizitzaren guztizkoarekiko Tolosan azken urteotan. Etxebizitzaren edukitza-erregimenari dagokionez, ehuneko handiena (guztizkoaren %50,4) etxebizitza propio ordaindua da, eta atzetik datoz hipotekatua (%30,3) eta alokairua (%7,6); gainerakoa oinordetzetan eta beste mota batzuetan banatzen da.
- ✓ **Ingurumena:** Tolosa EAEko **Ekobarometroa** txostenean sartuta dauden udalerrietako bat da. Txosten hori lau urtean behin egiten da Udalsarea 21 programaren barruan. Txosten horren ondorio nagusietan **datuak ez dira aurkezten sexuaren arabera bereizita**, nahiz eta eskatzen den, txosten horretarako egindako inkestetan, sexuaren eta adinaren datua. Datu horiek eranskin gisa agertzen dira soilik, horien emaitzak genero-ikuspegitik analizatu gabe. Horregatik, iraunkortasun-adierazleen zerrendan eta ekobarometroaren ondorioetan, ez dago analisirik genero-ikuspegitik.
- ✓ **Mugikortasuna:** Lurraldebusen **garraio publikoaren erabilera handiagoa** dago **emakumeen** aldetik gizonen aldetik baino. Bizikleta-bideen kasuan, erabiltzaileen zenbaketa orokorrean, emakumeak guztizkoaren %45 dira. Erabilera-tipologiaren arabera analizatzen bada, %24 dira gizonen %76en aldean, eta oinezkoen kasuan, datuak alderantzikatu egiten dira (%66 E / %34 G). Azkenik, **bizikleta-bideak erabiltzeko arrazoietan ere sexuaren araberako aldea** dago: gizonek gehiago erabiltzen dituzte kirol-arrazoiengatik, eta emakumeek lanagatik eta kudeaketengatik.

LANDAKO TOLOSA

Nabarmentzeko datu batzuk...

- ✓ 2011n, landa-auzoetan bizi ziren pertsonen guztizkotik, %28k 60 urtetik gora zituen. Datu horrek adierazten du landa-zonetan populazioaren **zahartze-tasa handiagoa dela hiri-zonetan baino.**
- ✓ **Jarduera ekonomikoari** dagokionez, Gizarte Segurantzaren kotizatzen ari ez diren emakumeen ehuneko garrantzitsu bat dugu. Beraz, **emakume baserritar askoren egoera juridiko eta ekonomikoaren ezaugarria da oraindik autonomia eta independentzia ekonomikoaren falta.**
- ✓ Nekazaritza-ustiategiei dagokienez, 1999-2009 aldian ikusten denez, gizonen zuzendutako ustiategi kopurua %36,9 jaitsi da; emakumeen zuzendutakoak, berriz, %7,8 igo dira, eta datu hori pozgarriagoa izango litzateke ustiategien kopurua hain txikia ez balitz (8 gehiago besterik ez dira emakumeen titulartasuna dutenak 10 urte horietan).
- ✓ Lan erreproduktiboari dagokionez, nabarmenduko dugu **landa-ingurune emakumeek zaintzen pisu guztia hartzen dutela, zerbitzu publikoei ia laguntzarik eskatu gabe.**
- ✓ **Bakardade-egoerak identifikatzen dira eta arkitektura-oztopoak eta auzo jakin batzuetara iristea eragozten duten alderdiak** detektatu dira, eta bakartze-egoerak larritu ditzaketenak, batik bat adineko pertsonen artean.
- ✓ Tolosan antolatzen diren kultura-jardueretako partaidetza-maila txikia da, baina landa-esparruko **emakumeek gizonen baino interes handiagoa erakusten dute.**
- ✓ **Administrazioek dauden datuak jasotzeko eta sistematizatzeko duten moduak emakume baserritarraren ikusezin egiteko efektu bat erreproduzitzen du,** ez dutelako islatzen ez zenbat emakume ari diren lanean gaur egun sektore horretan, ez zer egoeratan eta baldintzatan jarduten duten beren lanean. Beraz, **beharrezkoa da datu berriak eta errealitatera egokitutako informazioa ematen dituen azterketa bat egitea, emakume baserritarrei zuzendutako neurri eta/edo ekintza zehatzak diseinatu eta abian jarri aurretiko urrats gisa.**

**PREKARIETATEA ETA
 KRISI EKONOMIKOAREN
 INPAKTUA**

Nabarmentzeko datu batzuk...

- ✓ “ZIFRAK 2013 – Emakumeak eta Gizonak Euskadin” txostenaren eta 2008ko eta 2012ko Pobreziaren eta Gizarte Desberdintasunen Inkestean arabera, pobrezia-adierazle guztiek okerrera egin dute EAEn azken urteotan, krisiaren inpaktuagatik. Alderdi askoren artean, nabarmentzen da **emakumea buru duten etxeek dutela egoera okerrera pobrezia mota guztien eraginei dagokienez**. Nabarmenduko dugu **emakumea buru duten guraso bakarreko familiak benetako pobrezia eraginpeko biztanleriaren %14,9 direla – %36,3ko benetako pobrezia-tasarekin, 2008ko %27,9aren gainetik**–.
- ✓ Tolosaldea Garatzen agentziak argitaratutako *TOLOSALDEKO HERRITARREN JATORRI ANITZEN MAPA 2013k* eskualdeko biztanle migratzaileen egoera analizatzen du, zenbait esparru sozioekonomikori dagokienez. Agerian jartzen ditu bai lan-prekarietatea, bai soziala. Adibidez, enpleguari dagokionez, **langabezia-tasa 10 puntukoa izaten da batez bestekoaren gainetik eskualdean nazionalitate espainola ez zuen biztanleriaren artean**.
- ✓ Iritzi orokorra da azken urteotan **handitu egin dela beste herrialdeetatik datorren biztanleriarekiko konfiantza falta eta errezeloa**. Ildo horretan, **atzerapen bat eta “tokikoen eta kanpoko pertsonen arteko hausturaren” areagotze bat** antzematen da, neurri batean krisi-egoerarako “erantzuleak” bilatzeko joeragatik.
- ✓ Populazio osoari dagokionez, 2014ko abuztuan, Tolosan bizi diren 425 pertsona zenbatu dira Diru-sarrerak Bermatzeko Errenta (DBE) jasotzen dutenak. **2013ari dagokionez, adieraziko dugu emakumeak %5 gehitu direla, eta gizonak, %25**.
- ✓ Adinaren eta sexuaren arabera, **DBE jasotzen duten 65 urtetik gorako emakumeen kontzentrazio handiagoa (%28,4)** ikusten da. Prestakuntza-mailaren arabera, emakume eta gizon gehienek derrigorrezko ikasketak dituzte. Unibertsitate-ikasketak gizon eta emakumeen %5,4 besterik ez dira.
- ✓ 2013an zein 2014an, DBE jasotzen zuten pertsonen artean, 56 familia gurasobakar amadun zeuden (familia hartzaileen guztizkoaren %14 2013an eta %13,5 2014an). Pertsona bakarra buru duten familien %100 dira.

PREKARIETATEA ETA KRISI EKONOMIKOAREN INPAKTUA

Nabarmentzeko datu batzuk...

- ✓ 2013an, **laneratzeko laguntza** gehienak **gizonei eman zitzaizkien** (%58). Laguntzak horiek, Oinarrizko Gizarte Zerbitzuek kudeatutako zerbitzuen artean, ia berdindu egiten dituzte **beste herrialde batzuetako pertsonen kopurua eta Euskal Herriko eta estatu espainolekoen kopurua**.
- ✓ Erabilera anitzeko etxebizitzetara dagokienez, **2013an emakumeen %79k eta gizonen %21ek erabili zuten baliabide mota hori**.
- ✓ Etorkinei dagokienez, nabarmenduko dugu 2012an **langabezia-tasa %24,3koa zela eskualdean nazionalitate espainola ez zuen biztanleriaren artean -10 puntu batez bestekoaren gaineratik-**.
- ✓ Adieraziko dugu, baita ere, **DBE jasotzen duten nazionalitate espainoleko pertsonen proportzioa handitu egin dela** (%27 2013an eta %31 2014an). DBE jasotzen duten etorkinen kolektiboaren guztizkotik, 2013an gehiengo emakumeak ziren; 2014an, berriz, gizonak dira.
- ✓ Nabarmendu daiteke iritzi orokorra dela azken urteotan handitu egin dela beste herrialdeetatik datorren biztanleriarekiko konfiantza falta eta errezeloa. Gainera, adieraziko dugu **krisiaren larriagotzeak okertu egiten duela egoera hori, erantzukizunak bilatzeko joeragatik, eta horiek beste herrialde batzuetatik datozen pertsonen egozteagatik**.

EMAKUMEAK JABETZEKO POLITIKAK


Nabarmentzeko datu batzuk...

- ✓ Tolosako Jabetze Eskolan, eskaintzen diren ikastaroen kopurua eta horietan parte hartzen duten emakumeena igo egin da 2009tik. Datu horrek adierazten digu **Jabetze Eskola gero eta interes handiagoko espazio gisa konfiguratzen ari dela Tolosako biztanleentzat.**
- ✓ Jabetze Eskolako ikasleen perfila aztertzeko 2013ko dauden datuak. Jabetze Eskolan parte hartzen duten emakume guztien artean, **sarrera-fitxa bete zuten 23en datuak ditugu. Horietatik, %43,5ek 25 urte arte ditu, eta %21,7k 41 eta 50 urte artean.**
- ✓ Ikasketa-mailari dagokionez, emakumeen **%52,2k dio unibertsitate-ikasketak dituela, %34,8k dio bigarren mailako ikasketak dituela eta %13k lanbide-heziketa egin du.**
- ✓ Elkartegintza-mailari dagokionez, **soilik %21,7k dio elkarte bateko kide dela.**
- ✓ Emakumeek Jabetze Eskolan izena emateko arrazoi nagusiak dira “Nire garapen pertsonala hobetzea”, **“Ikuspegi feminista batetik prestatzea”** eta **“Ezagutza handiagoa izatea gai espezifiko bati buruz”.**
- ✓ **Emakume gazteen** kontzentrazio handiagoa detektatu da **defentsa pertsonaleko tailerretan, “Autodefentsa feministako I. tailerra emakumeentzat” tailerrean, adibidez.**
- ✓ Ikasleek tailerrak hobetzeko egin dituzten iradokizunen artean, nabarmenduko dugu haien ustez gairen batean gehiago sakondu behar litzatekeela, eta **denbora gehiago izan nahi luketela horietan ematen diren edukiak modu egokian garatzeko.**
- ✓ Dударik gabe esan daiteke Tolosako Jabetze Eskola gero eta finkatuago dagoen ekimen bat dela. 2014ko datuek erakusten digutenez, ikastaro-kopurua nabarmen handitu da (2013an 9 ikastaro izatetik hurrengo urtean 15 izatera) eta arin ari da handitzen Eskolara hurbildu edo bertan parte hartzen duten emakumeen kopurua. Ia 200 izan ziren 2014an. Horretaz gain, prestakuntzarako eta eztabaidarako gune mistoak sortu ziren, gune horiek 65 bat ikasle erakarri zituztelarik.
- ✓ Aldi berean, eta diagnostikoan zehar egiaztatu den bezala, gero eta gehiago dira ekimen honekiko interesa erakusten duten eta bera udalerriko oso baliabide baliotsutzat jotzen duten gizarte eragileak.

GENERO ZEHARKAKOTASUNA UDAL POLITIKETAN

Nabarmentzeko datu batzuk...

- ✓ Esparru honetan, nabarmena da berdintasun-sailetik bultzatutako **udal-politiketan genero-zeharkakotasuna sustatu eta abiarazteko udal-proiektu estrategikoa**. Epe labur, ertain eta luzeko proiektzioa duen proiektu bat da, eta lan-sistematik aldatu eta sortu nahi dira hor, udal-jarduketan guztietan genero-ikuspegia modu automatikoan sartzeko aukera emango dutenak. Gaur egun, **zenbait aurrerapen-maila** daude sailaren arabera, eta **ekintza-plan indibidualizatuak** prestatu dira horientzat.
- ✓ **Gobernu-organoen** osaerak errespetatzen ditu **parekidetasun-irizpideak Osoko Bilkuraren eta Gobernu Batzordearen** kasuan. Ez da berdin gertatzen **Informazio Batzordeen** kasuan: hor, **guztira hamaika batzordetatik bik soilik errespetatzen** dituzte bi sexuen ordezkari-tza parekide baten irizpideak, eta gainera, No ocuun tradizional femeniNo ocuin lotutako esparruetako batzordeak dira (**Parekidetasuna eta Gizarte Politika eta Osasuna**). Nabarmena da emakumeen %0ko ordezkari-tza Hirigintza, Azpiegitura eta Auzoen Informazio Batzordean.
- ✓ **Langile-zerrendaren osaerari** dagokionez, hona datu adierazgarrienak:
 - **Langile-zerrenda orokorrak** betetzen ditu **sexuaren arabeko ordezkagarritasun-irizpideak**, eta gizonen ehunekoa pixka bat handiagoa da. (%42,4 E / %54,6 G).
 - **Kontratu-harreman motaren** arabera: **Gizonen ordezkagarritasun handiagoa** dago **kontratu-harreman mota egonkorrean** (funtzionarioak, lan-kontratadun finkoak eta bitartekoak); **emakumeek**, berriz, **proportzio handiagoa** dute **aldi baterako kontratuetan eta behin-behinekoetan**.
 - **Sexuaren arabeko bereizketa** gertatzen da **sailen** arabera: horrela, gehienbat *maskulinizatutako* sailak ditugu (**Segurtasuna eta Hirigintza, Obrak eta Zerbitzuak**), eta **feminizatutako** beste batzuk (**Osasuna eta Gizarte Zerbitzuak; Garapen Ekonomikoa, Turismoa eta Enplegua; Finantza Administrazioa**). Bi kasuetan, nortasun femeninoaren eta maskulinoaren ikuskera tradizionalarekin lotutako arloak dira.
 - **Soldataren batez bestekoari** dagokionez, **ordainsari-mailarekiko, azken hori antzekoa da bi sexuetan** (Arcepaferko 13. maila). **Hala ere, 28 gizonek** zenbait **osagarri dituzte** lanpostuaren ezaugarri orokorrean esleituta, eta 7 emakumek.
 - **Enpresa Batzordearen** barruan, 2002tik gaur egun arte, **emakumeek ordezkagarritasun txikiagoa dute**, pixka bat aldatu dena, 2002ko %30etik egungo %35,7ra igarota.
 - Ez dago jazarpen sexual eta sexistaren protokolo espezifikorik. Udalhitzen generikoa erabiltzen da, baina badute laneko jazarpenaren espezifiko bat.



Gogoeta egiteko puntuak...

Gogoeta egiteko puntuak...

Ondorio orokorren atal honen barnean ez dira hartu nahi diagnostiko luze honetan tratatutako gai guztiak. Atal batzuek badituzte alderdi zehatzei egindako aipamenak, eta horiek gehiago aztertzea edo finkatzea komeniko litzateke, analizatutako datu kuantitatibo eta kualitatiboetatik ondorioztatzen denez. Hala ere, dokumentu hau **gerora lan-ildoak markatzeko** lagungarri izango diren premia eta gomendio batzuen aipamen orokorrago batekin itxi nahi genuke, **bereziki Tolosako Emakume eta Gizonen Berdintasunerako III. Planaren prestaketan pentsatuta.**

Horregatik, ondorio horiek etorkizuneko plana egituratzeko lagungarri izan daitezkeen **lau ataletan** banatu dugu:

- ✓ GENERO ZEHARKAKOTASUNA KULTURAN ETA UDAL GOBERNUAN
- ✓ EMAKUMEEN PARTAIDETZA SOZIOPOLITIKORAKO JABETZE POLITIKAK
- ✓ ZAINKETA EKONOMIA ETA BIZITZAREN IRAUNKORTASUNA
- ✓ INDARKERIA MATXISTAREN AURKAKO BORROKA

GENERO ZEHARKAKOTASUNA

Gogoeta egiteko puntuak...

Diagnostiko honetarako egindako ahaleginik garrantzitsuenetako bat datu kuantitatiboak sistematikoki bilatzea izan da, zenbait urteren artean ez ezik, zenbait erakunderen artean ere konpara daitezkeenak. Horiek lortzeko zailtasunak azpimarratu egiten du **datuak biltzeko eta tratatzeko sistemak hobetzeko premia larria** zenbait ikuspegitatik:

- ✓ Udal-mailan, mainstreaming-proiektua finkatuta, geroko III. Berdintasun Planaren emaitza-adierazleak modu fidagarrian neurtzea lortzea inplikaturako sail guztietan. Horretarako, **datuak bildu ez ezik**, edozein barne-txostenetan edo kanpo-entitateei eskatutako beste dokumentu mota batzuetan **horien tratamendu egokia egitea azpimarratu behar da**. Ildo horretan, egindako analisia sexuaren arabera bereizteaz gain, **adinaren eta nazionalitatearen edo jatorrizko herrialdearen aldagaiak ere gehitzea gomendatzen dugu**, esparru askotan bereizkeria-egoera ugari daudelako oraindik, estatistika-gurutzatze garrantzitsuak egin gabe detektatzeko oso zailak direnak.
- ✓ Bestetik, datuak modu sinesgarrian biltzeaz gain, **sailarteko eta erakunde arteko lankidetzaren protokoloak indartzea edo aktibatzea komeniko litzateke, horien datuak eta analisia trukatzeko aukera izateko** –modu anonimoan eta datuak babesteko legea errespetatuta–, eta horrela, aukera izan dadin egoera batzuk eraginkorrago detektatzeko eta horien inguruan jarduteko. Adibide bat izan daiteke **emakume migratzaileak** artatu eta horiekin lan egiten duten erakundeekin informazioa trukatzeko, zehazteko azken urteotan zergatik igo den hain modu adierazgarrian haurdunaldiaren borondatezko etendura bat behar duten emakumeen kopurua. Beste adibide bat, orain **emakumearen aurkako indarkeriaren** esparruan, erakunde arteko protokoloaren barruan jarraipen-sistema osoago bat antolatzea izango litzateke, zehatzago jakiteko edozein puntutatik laguntza eskatzen duen emakume batek sisteman sartzeko zer ibilbide duen.

Datu-bilketan bezala, prozedura zehatzei buruzko lan teknikoez gain, erakunde bateko langile politiko eta teknikoen pentsatzeko eta **egiteko moduetan eragina izateko gaitasunari zor zaio mainstreaming-politiken arrakasta**. Uste osoa ez badago ere oraindik desberdintasun handiak daudela eta, garrantzitsua ez ezik, premiazkoa dela hori lantzea, geroko Berdintasun Planean planteatutako neurriek ez dute lortuko guztiz beren eraginkortasuna.

JABETZEA ETA PARTE HARTZEA

Gogoeta egiteko puntuak...

Diagnostikoaren ondorioz, Tolosak bizitza asoziatibo eta kultural oso aberatsa du, eta gainera, aldarrikapen-ibilbide luzea eta gizarte-mugimenduen jarduera handia.

- ✓ Berdintasunean izan daitezkeen lan-ildoei begira, **herritarren partaidetza-espazio** horiek guztiek jabetzeko aukera eskaintzen diete hor parte hartzen duten guztiei. Udal-gobernuak zuzeneko edo zeharkako eragina du (diru-laguntzen bidez) ekimen kopuru adierazgarri batean eta, beraz, funtsezkoa da horiek ahalbidetzen dituzten langile tekniko eta politikoak **horien funtzionamenduan eragina izan dezaketen bereizkeria-mekanismo finen** jakitun izatea. Batzuetan emakume izateagatik kaltetzen ditu emakumeak (adibidez, elkarte gastronomiko batzuetan sartzea mugatuta dutenean), eta beste batzuetan zeregin hori edo handiagoa dute beste faktore batzuek, hala nola jatorriak, aniztasun funtzionalak, eta abarrek.
- ✓ Diagnostikoak agerian jartzen du gainera jarduera-eremu batzuetan aukera argiak agertzen direla beren eskubideak aitortuak izateko eta beren jardueran beren esparru edo diziplina berean dauden gizonekin bidezko baldintzetan jardun ahal izateko borrokan ari diren emakume taldeak ikusgaiago egiteko eta haien eragina indartzeko.
 - Halaber, adibide gisa ditugu **emakume kirolarien** taldeak arraunean, txirrindularitzan, pilotan, etab.
 - Beste esparru batean, Berdintasun Sailaren lankidetzak **emakume baserritarrekin** indartzeko iradokizuna jasotzen du diagnostikoak, landa-munduan egiten duten ekarpena ikusezin egitearen aurka borrokatzeko.
- ✓ Aipamen berezia merezi du **Berdintasun Sailaren zeharkakotasun handieneko proiektu estrategiko batek, Jabetze Eskolak**, emakumeen jabetzea eta partaidetza soziopolitiko handiagoa sustatu nahi baititu, Berdintasun Plan hau eta gerokoa inplementatzeko gai garrantzitsuen sorta guztia har dezaketen jardueren bidez. Erronka, zalantzarik gabe, **baldintzak sortzea da ikasle antolatuek beren ekintza eta eragina finka ditzaten** gizarte tolosarrean, eta **antolatu gabeko beste ikasle batzuek jabetze pertsonaleko dinamika batetik jabetze kolektiboko dinamiketara igarotzea lor dezaten**, horrela gizon eta emakumeen arteko desberdintasunak gainditzea aldarrikatzeko konpromiso sozialaren oinarritzko elementu gisa.

ZAINKETAK ETA BIZITZAREN IRAUNKORTASUNA

Gogoeta egiteko puntuak...

Tolosako datu demografikoez agerian jartzen dute **lan erreproduktiboari dagokionez sortutako desberdintasun-egoerei** arreta berezia jartzeko premia. Diagnostikoan analizatutako joerek argi adierazten dituzte zenbait gauza:

- ✓ Batetik, **beren mendekotasun-fasean laguntza behar duten emakumeen kopurua gero eta handiagoa da.** Biztanleriaren piramideak erakusten duenez, 70 urteetatik aurrera, emakumeak gehiago dira eta horien zaintza-premiak areagotu egiten dira bizi-itxaropena luzatzen den heinean.
- ✓ Hala ere, bizi-itxaropen luzeago batek emakumeentzat –eta gizonentzat– ez du esan nahi soilik baliabide publiko gehiago beharko dituztela beraientzat, **baizik beren ahaideentzat ere ohiko zaintzaile gisa jarduten ari direla, adin handietan,** eta beraiek ere denbora eta laguntza behar luketenean norberaren zaintzarako.
- ✓ Gerorako bilakaerari dagokionez, interesgarria da ohartzea ere hazkunde handiena izaten ari diren familia motak seme-alabarik gabeko familia nuklearrak eta guraso bakarreko familiak (gehienak gurasobakar amadunak) direla. Bi kasuetan, datu horrek eragina du lan erreproduktiboan:
 - Batetik, seme-alabarik gabeko familia nuklearren igoerak esan nahi du gero eta pertsona gehiago izan daitezkeela, adin jakin batera iritsitakoan, **horietaz –gizon eta emakumez– arduratzeko hurbileko ahaiderik izango ez dutenak.**
 - Bestetik, seme-alabak izateko adina gero eta gehiago atzeratzen duten bikoteen kasua dugu. Horrek esan nahi du etorkizun hurbil batean 40 eta 60 urte arteko emakume eta gizonen proportzio handi bat izango dugula, eta 70 urte edo gehiagoko beren gurasoak **zaintzeko premia** izango dutela, **beraiek jarduera profesional betean daudenean,** eta bateratzeko arazo handiagoekin.
- ✓ Orain **Tolosako haurren populazioari** begiratzen badiogu, Gipuzkoako batez bestekoa baino handixeagoa dela ikusten dugu, eta datu positiboa da, beste leku batzuetan baino egitura sozioekonomiko dinamikoagoa bermatzen laguntzen duen heinean. Baina hor ere, datu horrek esan nahi du haurren zaintza ziurtatzeko lan erreproduktiboaren premia handia dela eta izango dela familientzat.

Baldintza horietan, berehala modu aktiboan lan egiten ez bada mendekotasunerako **arreta-zerbitzu publikoen estaldura-maila areagotzeko,** horretan lan egiten dutenen **lan-baldintzak hobetzeko** eta **populazioan balio-aldaketa bat sortzeko** gizon eta emakumeen arteko erantzunkidetasun-maila askoz handiago baterantz, azken horiek jasan beharko dituzte ia ziur ordaindu gabeko zaintza-lanaren zati neurrigabe bat beren gain hartzeak dakarren aukera-kostua eta autonomia ekonomikoaren murrizketa.

Alderdi horietan guztietan eragina izatea izan behar litzateke geroko Berdintasun Planaren helburu irmoenetako bat, jakinik ekonomia feministaren ikuspegitik, lortu nahi dena dela familien premia praktikoei irtenbideak bilatzea, baina baita **zalantzan jartzea ere herritarren zati oso handi baten lan prekarioaren edo doakoaren bidez bakarrik mantentzeko sistema ekonomiko baten egituraketa.**

INDARKERIA MATXISTAREN AURKAKO BORROKA

Gogoeta egiteko puntuak...

Indarkeriaren biktima diren emakumeen zuzeneko arretari dagokionez, “Genero-indarkeria eta sexu-erasoak bizi dituzten emakumeei arreta hobea eskaintzeko erakundeen arteko jarduerarako eta koordinaziorako I. Udal Protokoloa” prestatzeko eta inplementatzeko proiektu estrategikoaren barruan prestatutako 2011-2012 diagnostikotik zenbait gomendio ondorioztatzen dira, gure ustez baliozkoak izaten jarraitzen dutenak duela gutxiago jasotako datuak ikusirik. Jarraian aipatuko ditugu:

- ✓ Premiazkoa dirudi **salaketak esku hartzeko sisteman duen zereginari buruzko eztabaidak**, alderdi horretan nabarmentzen baitira gehiago aldeak eta, batik bat, langile teknikoek zalantzak. Horiekin batera, udalerrian bizi diren emakume gehienek, aurre egiten dioten indarkeria jakitera ematea erabakitzen dutenek, salaketara jotzen dute, eta gutxiago dira, gainera, Gizarte Zerbitzuetatik eskaintzen zaizkien laguntzak erabiltzea erabakitzen dutenak.
- ✓ Langile teknikoek behar duten laguntza jasotzeko premia ere azpimarratzen da, emakumeei erantzun bakartuak ez emateko eta **kontzeptuzkoan eta prozedurazkoan eredu trinko** baten zati diren esku-hartzeak egiteko, problematika hau ulertzeko prestatua eta gai den langile tekniko batzuek sostengatuta emakumeei indarkeriarik gabe bizitzen laguntzeko.
- ✓ 2013ko eta 2014ko txosteneko datu eguneratuetatik ondorioztatzen denez, **laguntza eskatzen duten emakumeen kopurua handitu egin da**, eta hori indarkeria isilaraziaren agerpenaren erakusgarri positiboa da, eta gizarte-zerbitzuak askotariko profiletako emakumeentzat erreferente bat diren erakusgarria. Positiboa da, halaber, egiaztatzea laguntza beren ekimenez eskatzera iristen direla emakumeak, eta baita osasun-zerbitzuek deribatuta ere. **Hala ere**, aldi horretan artatutako emakumeen erdiak Ertzaintzatik igaro dira eta, beraz, **beren demandaren auzipetze bat auresuposu daiteke, baina ehuneko handi batek beste irtenbide batzuk bilatzen ditu** beren indarkeria-bizipenetik irteteko.
- ✓ Gizarte Zerbitzuek artatutako hiru emakumetik birentzat irtenbidea **laguntza psikologikoa** da, eta esku-hartzearen zutabe bihurtzen da hori. Interesgarria izango litzateke **zerbitzu horren inpaktua ebaluatzea** hori erabiltzen duten emakumeak **indarkeriatik irteteko bidean**.
- ✓ Artatutako emakumeen profil sozioekonomikoan deigarria da, batetik, laguntza eskatzen dutenen **adin gero eta gazteagoa**, adierazle positiboa izan daitekeena emakume gazteen artean indarkeriak tolerantzia gutxiago duela pentsatzeko; eta, bestetik, **emakume migratuen** egoera azterketa espezifiko bat egiteko modukoa izango litzateke. Haien gehiago hurbiltzen dira zerbitzu publikoetara bertako emakumeak baino, baina ez indarkeria mota desberdinak pairatzen dituztelako, baizik beraien bizi-baldintzak orokorrean askoz prekariagoak direlako eta nahikoa baliabide ekonomikorik eta sare sozialik gabe uzten dituztelako indarkeriatik irteteari modu autonomoan heltzeko. Gainera, **amatasunaren eraginak**, bertakoen artean baino nagusitasun handiagokoak, analisi honen zati izan behar luke kolektibo horren premia espezifikoari erantzuna eman diezaieketen baliabideak sortzeko.
- ✓ Azkenik, eta proposamenak agortzeko asmorik gabe, geroko txostenetarako gomendio gisa planteatzen da **erasotzaileei buruzko datuak biltzea**, eta Oinarrizko Gizarte Zerbitzuak edo Ertzaintza ez diren **beste baliabide batzuek artatutako emakumeen profilen analisisa**.

Bildutako datuen analisiak eta Tolosan erregistratutako indarkeria-kasuek agerian jartzen dute **prebentzio-politikak indartzen jarraitzeko premia**, bai jende gaztearen artean, bai gizartean oro har. Indarkeria matxista berez denaren bidez izendatu eta deskribatu behar da: emakume eta gizonen arteko berdintasun-printzipioaren funtsezko urratzea.